

 BOOKTEGI

TXILLARDEGI

ELSA SCHEELEN

A close-up, black and white portrait of Elsa Scheelen, looking slightly to the right with a subtle smile. Her dark hair is styled in a short, layered cut. The background is dark and out of focus.



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

TXILLARDEGI

Elsa Scheelen

Zeru garaia,
aratz eta garden.
Zelai zabal huntan bakartasunean exerita, belar izpi bat ahoan,
urrutietako kukuaren deia dantzut.
Nere gaiñetik,
haritzondoaren adarren artetik,
igesj,
haize-balen zurrumurru etenkorra. Balakatu egin nahi bide du
ixiltasunak
nere bihotzaren zauria.
Baiñan Elsa'ren oroitzapen etsia
ez da nigan ezabatu,
eta ez ezabatuko ere.

Hitzaurrea – Elsaren mintzoa

Elsa Scheelen lehen testua 1969. urtean eman zuen argitara Hendaian behartuta bizi zen Jose Luis Alvarez Enparantza idazleak –Txillardegik–, nahiz eta kaleratu aurretik “Domingo Agirre” izeneko literatura lehiaketan garaile suertatu zen (1968an). Txillardegiren hirugarren nobela izan zen. Protagonista, Elsa, euskal literaturaren benetako lehen emakume edo hezur-mamizko lehen emakumetzat hartua izan da. Hona hemen aipatu bertsioren pasarte bat (euskara batua ere sortu aurretiko testua berau):

«Irratia anartean berriak ematen hasia zan: «...Viet Nam'en ikaragarritzko inkontrua gertatu da atzo Mekong'eko ibaiartean: 382 vientnamdar gertatu dira hillik; eta, beste aldetik, 17 amerikar. Orain arte ez zan horrelako hilkintzarik ikusi Viet Nam'en egun bakar batean; eta, jakin danez...»

Inperialismoa, Vietnamgo gerratea, laizismoa, dibortzioa, sexua, suizidioa, orduan boladan zeuden apaiz langileak eta, batez ere, klase borroka esistentzialaren aipamena agertzen dira lehenbizikoz euskal narrazio luze batean. Gaur egun, bada, orduko orriak berriz irakurrita, baturantz doan euskara batuaren aurreko idazkera sumatzeaz gain, idazkuntza erabat garaikidea antzematen diogu testu osoari.

Txillardegik 1961ean alde egin zuen espainiar estatutik haren hirugarren atxilotetaren ondoren, eta, hori zela kausa, Belgikan idatzi zuen eleberria 1967an aurretik berak fundaturiko ETA erakundea utzi eta gero. Idazlearen antzera, Elsa Scheelen bakar bakarrik sentitzen da munduan, eta sentimendu hori agertarazteko izkiriatu omen zuen Txillardegik eleberria. Hizkuntzalaritzaren historiatik begiraturik Elsa Scheelenean Baionako 1964ko euskarari buruzko proposamenei antzematen zaizkio Txillardegik idatzitako narrazio honetan.

Kriselu sailean Lur argialetxeak zabaldu zuen liburua, baina kritika gogorak eskuratu zituen orduan eta, ondorioz, egilearen hitzetan, nobelagintza uztea erabaki zuen. Euskal letrek ia hogeita urte itxaron behar izan zuten Txillardegiren hurrengo eleberria agertu arte (Exkixu 1989).

Txillardegiren bigarren nobela zen Peru Leartzakoari eginiko kritikan (EGAN 1960) Mitxelenak zioen: “ni ez naiz aurrerazale atzerazale baizik...” eta, bide batez, testuaren proposamenei begira, edukiari alegia, luzatu zizkien bere juzku negatiboak. Horretan Mitxelenak bi arazo zituen, alde batetik, oso antzerakoa zen Leturiaren egunkaria ezkutua (1957) izenburuko Txillardegiren lehen eleberriaren hitzaurrea Mitxelenak berak idatzi zuela oso modu positiboan eta, beraz, EGANen argitaratutako kritika zorrotz honetan bi protagonisten artean (Leturia eta Peru) zeuden aldeak argitu behar zizkion irakurle arruntari azaltzeko zergatik 1957an Leturiaren alde zegoen, eta 1960an, berriz, oso antzerako ematen zuen Peru horren aurka idazten zuen... Baina Mitxelena saiatu zen eta, ondorioz, bere kritikaren funtsak, literarioa baino gehiago zentsura zirudien. Bestaldetik, eta horretan gehiegi ez nabarmentzeko agian, erabilitako hizkuntza hartu zuen hizpide haren kontra jotzeko: “Txillardegiren euskara ez da, nere ustez, hutsik gabea...”

Bide hori izango da, beraz, hortik aurrera Elsa Scheelen kritikatzeko erabilitako formula. Bistan da orduko euskal inteligentziak –apaizak gehienak– ezin zuela Elsa Scheelen eleberriaren edukia onartu baina, halere, haren idazkuntza kritikatuko dute gehien. Horrela, adibidez, Gotzon Garatek (Jakin 1979): “Txillardegiren euskarari ohartxo batzu egitera mugatuko naiz, nahiko akats aurki daiteke Elsa Scheelen elaberrian. Gogoeta ilunetan Txillardegiren euskara bikainki dirdirutzen den bezala, eguneroko euskarari, gauzarik erraxenak esan behar diren unetan, orduantxe hain zuzen ere, irristatzen da eta laprastatzen, esaterako, Elsa sukaldera abiatu zan ur baso bat edatera...” eta abar.

Ibon Sarasolak, bere aldetik, Elsa Scheelen elaberriaren egiturari luzatu zizkion bere kritikak (“Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza” 1972) baina, hala eta guztiz ere, ezin da ukatu irakurtzeko eskaintzen dizugun eleberri honek, irakurle, euskal literaturaren esparrua astindu eta irauli zuela duela mende erdi bat.

Denboraren poderioz, hala edukiaz nola idazkuntzaz ere, Elsa Scheelen testuak hartu du bere tokia. Ander Iturriotzek eginiko iruzkinean (“Elsa Scheelen eta genero gatazka”, Hegats, 49, 2010) aurreko kritika negatibo guztiak ezabatu zituen (edo saiatu zen behintzat), eta neronek ere aipatu aldizkariaren ale bertsean Txillardegik, eta Elsa Scheelen elaberriak zehazki, euskal literaturari egindako ekarpenaren munta azaltzen ahalegindu nintzen. Horra:

“Ch.F. Ramuz suitzarrak zioenaren antzera: «J’aie essayé de me servir d’une lange-geste qui continuât á être celle dont on servait autour de moi, non de la langue-signe qui était dans les livres.» Txillardegiren testu literario guztiek gertuko hizkuntza bezain beste distantziazko ikuspegia eskatzen dute, errealitateaz jabetu ahal izateko, errealitatearekin hausteko eta, finean, errealitatearen balizko ereduak antzemateko... Hizkuntza pertsonal hori estiloa da, eta horrek ez du esan nahi idazteko ohiko zurruntasun akademikoa erabili behar denik, aitzitik, hizkuntzaren erabilera arrunta baztertea eskatzen du. Ezin da estiloa irakatsi, baina norberaren adierazpideak askatzen saiatu bai. Hori da erronka eta bide bakarra.”

Horixe idatzi nuen nik Txillardegi hil aurretik. Orain, bera zendu eta zortzi urte pasa ondoren, berriro diot: Txillardegik zekarren estilo literario berria ez zen aintzakotzat hartua izan Elsa Scheelenen garaian, baina gure sasoi hauetan, aldiz, behar bezala dastatzerik eduki badugu. On egin, beraz, irakurle, eta gozatu Elsaren bizitzaz, hausnarketaz eta mintzoaz.

Fito Rodriguez

Brusela'ko Irratiak urrunarazi egin zuen ezari-ezarian «Les Déserteurs» eresia (egunero entzuna!) eta osotara iraungi arte; eta sintoniaren gorunzko notak eman zituen: sol-do-mi-la-re... Elsa'k bere erloju ñimiñoa begiratu zuen: gaueko hamabiak laurden gutxi. «Voici le bulletin météorologique de l'Institut Royal de...» Elsa'k ez zuen ezer besterik entzun. Zer axola zitzaion biharamuneko eguraldia? Leihora zan; eta kristaletako gandua behatzez kenduta, kalera begiratu zuen: iñor ere ez euripean, eta ez autorik inguruetan. Bat bakarrik agiri: Dubois jaunaren «Aronde» urdiña, Molière kaleko erdi illunpe hartan beltza irudiz. 1965-eko Urrillako astearte hartan eten gabe ari eta ari, euri fiña, hotza eta geldia, zuten Bruseldarrek: ia historik gabeko zugaitzen azpia tai gabe oldartzen bide zuten ituteetarikako tanto lodiek. Dana blai-blai. Haizerik ez.

Hasperen bat jalgi zitzaion Elsa'ri bihotzaren erditik: nun ote zan Luc? Bakardade hura eraman-eziña zitzaion: Luc'en irteerak aspaldi hartan gero eta maizago gertaturik ere, haietara ohitu ez baiña mindu eta mingostu egiten zala nabaitu zuen. Nahitaezko bakardade harekiko gero eta minberago eta sendiberago igartzen bide zuen bere burua.

Irratia anartean berriak ematen hasia zan: «...Viet Nam'en ikaragarritzko inkontrua gertatu da atzo Mekong'eko ibaiartean: 382 vietnamdar gertatu dira hillik; eta, beste aldetik, 17 amerikar. Orain arte ez zan horrelako hilkintzarik ikusi Viet Nam'en egun bakar batean; eta, jakin danez...» Elsa'k itzaldtu egin zuen irratia. Ez, iñolaz ere, berri horiek mendrenik ere nazkatzen zutelako; edo gezurrezkoak iruditzen zitzaizkiolako. Ez. Horrelakorik ez zitzaion burutik pasa ere. Ez zuen pentsatu, era berean, Viet Nam dala azken urteetako lotsa nagusia eta hilketarik ahalkegarriena. Irratia itzaltzean erakusten zuen lasaikeria ez zitzaion bururatu ere egin. Albistea entzun ere gabe, alde zurretik gogaituta, nardatuta, berantetsita, itzaldtu egin zuen «Philips» zuri hura, eta oheratzea erabaki. Ohera aurretik, halere, maiñu-gelara joan zan, gauero bezela hortzak garbitzekotan; baiña gau hartan, zalantzarik gabe, areago ohiturari jarraituaz egin zuen gogoari jarraituaz baiño: oharkabean ezer garbitu gabe irten baitzan berriz.

Luc'ek biharamunean beste galtza pare bat jantzi behar zuela bururatu zitzaion; eta etzan aurretik, alasara joan zan, eta marradun soiñeko arrea hartu zuen, biharamunerako prestatzekotan.

Eskuillatzen hasi, eta galtzen atzeko poltsikuan paper soiñu bat nabaitu zuen. Botoia askatu, paper hura zabaldu, eta Luc'ek eskuz idatzitako gutun bat topatu zuen, azalik gabe. Gutuna berriki idatzia zan, zirudienez. Eta, bihotza taupadaka, hau irakurtzen hasi zan:

«Gaztetu egin nauzu, Suzanne maitea. Urte askotan zehar senditzen ez nituen barne zorabioak zeuk sendiarazi dizkidazu berriz; zeuk eta zure gorputz paregabeak. Ba nekien nik, edo somatu egiten nuen bederen, Elsa'rekiko nere hartu-emanak hozturik zeudela, hormaturik, hillik. Baiña piskanaka hortaratu bainaiz (baikera biok, nere ustez, nahiz Elsa'k ez ezer aitortu) ez nion nik jaramon haundirik egin, eta ohitu ere egin nintzan apurka.

Hogei-ta-hamabost urtetan hozkeria hortan egotea normala iruditzen zitzaidan. «Beharbada gisa da, adin kontu hutsa da», nion nere kolkorako. Urrun da gure ezkonteguna. Pentsa zazu, Suzanne: orain dala zazpi urte ezkondu giñan, Erakusketa Nagusirakoan hain zuzen, 1958-an alegia. Nun dira «milla-ta-bat gau» famatu horiek? Ezkontzerakoan 28 urte nituen nik, eta 21 Elsa'k. Gaur 35 eta 28 ditugu...»

Elsa'ren betazprietan ez zegoen malkorik bat ere. Baiña bere begiek beira-diztira bitxia zuten. Lerro batzuk irakurri gabe utzi zituen.

Kalean euria beti ari.

«...Bi aste dira orain Arlon'en zaudela, eta bi urte joan dirala iruditzen zait alkarrekin egon giñan azken egunetik. Bertan eta urrun ikusten ditut azkeneko zure irudiak. Gogorutzen zera? Zure besarkadak behar ditu nere gorputzak; egunean bost miñutuz bederen behar zaitut... Zure kiñu lizun horiek behar ditut: ez dizut hemen azalduko zein... Ba dakizu'. Zure gorputzaren berotasuna behar dut gauetan, nere atsegiñaren iturri eta atsedentzat. Zergatik ukatuko?...»

Hots bat entzun zan eskalleraren aldetik. Azentsorea gora hasi zan.

Elsa'k bereala igarri zion Luc izan zitekeala; eta larritu egin zan sekula baiño areago, ez baitzuen «Volvo»aren arrastorik ere entzun. Baiña, harrigarria ote zan bere arima leize hartatik ezer ez entzutea? Guztiz urduri, eta eskuak dardar, tolestu egin zuen azkenean paper madarikatu hura, eta sakela berean sartu. Handik xegundu batzutara Luc'en giltza ateko zerrailuan aditu zan; eta hantxe agertu zitzaion Luc De Potter jauna, bere senarra, ez oso bustirik. Gaueko hamabi t'erdia ziran.

—Gabon —esan zuen Luc'ek. —Zertarako nere zai gaur ere? Berandu etorriko nintzala esan nizun... Eguraldi nazkagarri hau! Beti bat, beti gauza bera, beti euria...

Gabardiña zintzilikatu, eta lo-gelaren aldera jo zuen zuzenean. Elsa'ren ondotik pasatzean, ia gauero bezela, hozki muiñ-egin nahi izan zion masaillan, hortarako burua pittin bat baizik ez makurtuz.

—Ez —erantzun zion zakarki Elsa'k. —Gaur ez.

—Zer duzu? Zergatik gaur ez?

—Ezer ez. Oso berandu da: bost ordu dira afaldu dudan ezkeroztik. Eta zure zai huntan gosetu egin naiz, eta umorea arras galdu ere bai. Utz nazazu pakean, beraz.

—Ongi da, maitea. Ez zaitut galaziko. Ni neu ere gose naiz.

Eta sukaldera joan; eta sagar bat zuritzen eta jaten hasi zan. Gero, txistu ixillari utzi gabe, maiñura joan zan.

Elsa bitartean negarra eta malkoak oso nekez idukirik, erantzi eta oheratu egin zan. Luc sukaldetik etorri orduko, Elsa Scheelen begi-nabarra, «De Potter andrea» lege-deituraz, etzanik zegoen, eta ohe-ondoko pantailla itzaldurik.

Begiak hetsi bai, baiñak ezin loak har. Logaleak iñundik ez zegoen, noski. Bere bizkarrean Luc'en arnasa pausatua nabaitzen zuen, hauspo gori baten xirrista kiskalgarri baten modura larrua arteka erretzen: bestetan baiño aisa beroago gau lazgarri hartan Elsa'ren ustez. Luc'en zurrungak ere ez ziran luzatu. Senarraren patxara lotsagaldu harek oka egitera bultzatzen zuen emaztea.

Ezin zuen hunek aurrerago iduki bere barne-zirrara. Eztarriko oiñazea jasan eziña egin zitzaion; eta, piskanaka, oso piskanaka, ezari-ezarian, eta ahalik eta ixillenik, negarrez hasi zan. Luc'en zurrunga burrunbatsuen artean, tarteetan soillik, Elsa'ren hasperen etsiak entzun zitezkean: izuti eta bakan hastapenean, gero eta maizago etortzen, gero eta nabarmenago entzuten ere bai. Baiña Luc lozorro sakonean zetzan, eta hartatik esna zedin arriskurik ez zegoen...

Nor ote zan Suzanne hura? Polita ote zan? Ezkondua ote zan? Luc'ek ez zion sekulan aipatu izen hori. Nolako faltsukeria! Dana ulertu uste zuen Elsa'k bapatean: bere senarraren hoztasuna eta irteera harrigariak, bere biziaren moteltasuna, bere bihotz-nagitasuna, dana. Lehenengo kolpean gorroto bizia sendi zuen Suzanne harekiko; baiña bekaizkeria ez ote zuen ere senditzen Suzanne ez-ezagun harekiko? Ez zekien, ez zuen uste hobe, ez zion horrelakorik bere buruari batez ere aitortu nahi. Baiña bukatu eziñezko gau zorigaiztoko eta euritsu hartan, Elsa'ren bihotza arras nahasia zegoen; eta Suzanne'rekiko sendimendu harrigarri bat nagusitu zitzaion: gorrotoz eta mirespenez mamitua, bildurrez eta begikotasunez batera oratun.

Negarraldia bukatu, eta... ordu biak!... Hirurak!... Laurak jo zuten!... Eta Elsa beti esnai. Zer egingo? Ez zekien. Luc'en arnasa ez bere bizkarrean nabaitzeko, ohe ertzeraiño bereraiño joan zan igesi, atzean apo zikin bat etzanda balu bezelaxe: «ohe bakarra biontzako: hau nazka!». Maindireen azpitik zerion

usaia lehenengo aldiz sumatu bide zuen gau hartan, eta beroegia eta kiratsa iruditu zitzaion; eta ahal zuen moduan kukutzen zituen tarteak, ezer ez usaitzeko.

Ezkonberrietako oroitzapenak zetozkion illaran, alkargainka, kolore bizitan, bata bestearen ondoan, sukar-aldietan bezelaxe... 1958-ko udaberri hartan zoriontasuna siñistu zuen, bihotzean ugari zermalako beharbada. Luc'ek eta Elsa'k berak Brugge'ko ubideetan zehar egin zuten bidaia irriparretsua zetorkion burura; eta ontzi txukun hartan, Venezia'ko margoetakoen anaia bizkia, zubitxo baten azpitik igarotzean, Luc'ek esan ziola: «Zoriona zeu zera neretzat, Elsa. Noizpait utz banintzazu, hil egingo nuke nere burua».

Brugge!!...

Enparantza nagusia... bai... eta dorrea... eta eliza nagusia... Eta xoko haiek, Elsa'rentzat hain kuttunak eta maitatuak... Wollestraat'en ondoko kaleskatik ikus zitekean bazterra, Gruuthuse'ko zubiño konkorra, elizaren ondoko baratza heze eta olerkitsua... Giro bikain hartan pasa zuten alkarrekin Elsa'k eta Luc'ek ezkondu ondoko beren lehenengo astea. Nola ahaztuko Elsa'k? Zorion-izpiak bizieran barrena horren hurri izaki, nola ahaztuko Brugge'ko betetasun-lipar igeskor haiek?

Haizea oraindik hozkirri, dana olerkia zitzaien bi ezkonberriei karrika mehar eta etxetxo desberdin haietan; eta idazleek Brugge'z ziotena ezagutu aurretik ere, hitzetik hortzera siñisteko gertu zeuden. Kale txior bakoitzak, ubide ondoko zabalgunek bakoitzak, beti txukun eta ixil, amodio gaztearen kutsua zuten, haurtzaro berri baten xarma azaldu eziña, lehendabiziko musuen gozo ezti urruna...

Molière kaleko gau luze hartan hauek zeuden tinko Elsa' ren oroimenean, ezin bazterturik... Noiz izan zan harezkeroztik, egia aitortzeko, Ama Birjiñaren ondoko baratzan, zugaitz haundi haien itzalean eta ubidera begira, gerritik Luc'ek hestu heltzen zuelarik; noiz izan zan, diot, orduan bezin zoriontsu? Eskuak hoztu egin zitzaizkion hesiaren harrian ezartzean... «Ekazkitzu, Elsa: neuk berotuko dizkitzut». Eta gabardiñako sakelan berotu zizkion... Noiz sendi zuen geroztik poz garbi eta huts hura? Iñoiz ez! «Zein urrun zoriona beti!», pentsatu zuen. Zenbat aldiz entzun ote zuten biek aste labur hartan karilloia, ixil-ixillik, Belgika'ko karilloiek sortzen duten giro errugabe berezi hortan?...

—Gezurra! —esan zuen Elsa'k ia goratik.

Eta izutu egin zan. Baiña Luc'ek soiñu ulergaitz batzuk egin ondoren, ezker aldera itzuli zan, eta berriz ekin zien bai loari eta bai zurrungei. Elsa, halere, poziago zegoen orain; Luc'en arnasa beroak ez baitzion bizkarra iristen.

Lau t'erdia jo zuten elizako kanpandorreen. Luc'ek ezer errepara ez zezan, kontu haundiaz jaiki zan Elsa, eta sukaldaruntz abiatu zan ur baso bat edatera: eztarik miña pittin bat ematua zan, baiñan ez arras joana. Leihotik begiratu zuen: euria beti ari, ez lehen bezin fiña, eta haize boladak hasten. Argiek hartara adarren artetik ñir-ñir egiten zutelarik, maiteago zuen Elsa'k Molière kalea; eta begira gelditu zan lehenengo hotzikara nabaitu arte. Aurrez-aurreko etxeetan bizi-arrastorik ez: danak lotan. Izkiñako zirkulazio-argiek beren lanari ekiten zioten hutsean: berde... gorri... berde... gorri... Aurpegia ikutu zuen bi eskuez, eta berea ez balitz bezela antzeman zuen: soin guzia, eta aurpegia batipat, arrotz zitzaion...

II

De Rijke'ren kontsultazioan lan egiten zuen Elsa'k lau urte hartan.

De Potter'en etxean, egia esateko, ez zuen Elsa'ren diru-laguntzaren beharrik: ezkondu aurretik, 1956-ean xuxen, Luc'en muntatutako «Moderne» garajeak behar hainbat eta gehiago irabazarazten zion.

Ezkondu ondoren, horregatik, eta 1961 arteko hiru urteetan, Elsa etxen gelditu ohi zuen. Hauxe zuen, hain zuzen, bere ametsetatik bat. Ixiltasuna eta zugaitz batzuk etxe ondoan izatea zuen bigarrena: «aski ke irentsi dut Jemappes'eko Wilson kalean», esan ohi zuen ezkontzerakoan. Hau dala-ta, 1957ko udazkenetik aurrera Ukkel'go bazterrak miatzen hasi ziran biak arratsetan; eta Wolvergberg'eko hauzoan, Dieweg-kale bakartian, «Ma Chaumière» izeneko billa eder bat aurkitu zuten. Zoragarria iruditu zitzaion Elsa'ri. Luc'i, berriz, haundiegia. Baiña onartu egin zuen; eta besterik gabe, alogeran hartu zuen: «Askotxo da hamabi milla libera hillean; baiña hori baiño gehiago emango nuke zuregatik». «Moderne» garajea ez zuen urrun beraz: Dieweg-kaleko etxetik Waterloo-galtzarako 544-eraiño hamar bat miñututan joan ohi zuen berebillez; eta ordu erdi batean joan zitekean oiñez. Oiñez oso gutxitan Luc, ordea, autorik gabe kilometro bat egiten ez zekien-eta.

Esan dugunez, Luc De Potter'ek ez zuen billa haundi hura oso gogoko izan. Elsa'k, aldiz, bai: etxea haurrez piskanaka ornitzeko itxaropenean, baratza zabal bat zuen billa bat nahi zuen, «Ma Chaumière»k zuen bezelakoxea; eta Dieweg bezelako kale bakarti bat ere bai, berebillen joan-etorrien bildurrak ez egoteko.

Pakea ez zuen «Ma Chaumière»n eskas; eta bazterra ederra zuen. «Reve» zeritzan ondoko billak bost lizarrondo eder zituen atzeko aldean; eta hauen zurrumurrua maiz entzun zitekean. Elsa'ren etxe txukun haren inguru guzian, harrizko hesi gorri batek mugatzen zuen baratza; eta, hesiaren gaiñetik, baita negu luzean ere piñutxoen adar hostotsuak ziran agiri: «Ederrak dira benetan zure Columnaris-Glauca'k», azaldu zion behin «Reve»-eneko atso zimurrak.

Hillabeterik zoriontsuenak, dudarik gabe, Dieweg kalean igaro zituen De Potter andreak. Etxeko zoko guziak apaindu zituen piskanaka eta maitekiro; eta apainketa-lan hortan joaten zitzaizkion orduak konturatu gabe. Eguerdiro (eta batzutan goiz erdian ere bai) etxera etortzen zuen Luc, bazkaltzekotan edo litxarreriarren bat jatekotan. Ez horietara eta horiengatik soilik, Elsa'k pittinka konprenitu zuenez. Ezkondu ondoko udara bero hartan barrena batez ere, askotan oheraarazten baitzuen agerraldi haietan, bizimodu berriari datxezkon ezagulari bereziak Luc'ek egunean bizpahiru aldiz dastatu behar balitu bezela. Elsa'k ez zuen jokabide hau guztiz ulertzen; baiñan ez zion garrantzirik ematen.

—Nik aski dut —esan zion halere halako batez, hasarre baiño etsimenduan— zu ikustea, zu nere ondoan «Le Soir» edo edozer irakurtzen exeritzea. Zuk, aldiz... ez naiz ausartzen garbi esatera...

—Nik zer?

—Zuk maindire baten azpian besarkaturik behar bide nauzu, bestela pozgarri ez banintzaizu bezela. Ezkondu artean askotan esan ohi zenidan maite ninduzula. Azken hillabete hauetan iñoiz ez. Nik, alderantziz, gero eta gehiagotan esaten dizut; baiñan oihartzunik ez, sekulan.

—Ez gera berdiñak zuek eta gu gizonok. Hau da dana —erantzun zion Luc'ek hotzean eta irmoki.

—«Ma Chaumière» huntarat zu azaldu aurretik ere, leiho hauetatik kanpora so, zugan pentsatu ohi dut maiz. Gauza bera zuk ere garajea nigan?

Irailleko arrats epel bat agiri zan gelatik.

—Utz zozokeria horiek, arren, Elsa. Zeren bildur zera? Atzeraka ibilliz, eta hestu besarkatuz, loganberara eraman zuen, beti bi besoez inguratutik. Bidean Elsa'ren harropak banan-banan erantzi, eta zabarkeria aztarna gisa zoruan gelditu ziran...

...Piskanaka diskoteka oparo bat eratu zuen Elsa'k («betidaniko nere hirugarren ametsa mamitzen ari!»). Eta, arratsaldeetan batez ete, estereofoniaz gozatzeko bereziki atondutako living argi zabalean, begiak bilduta, hetrunka entzun ohi zituen diskoak: dantza-musikakoak, fantasia-moduan joak, biziki maite zituen. Baiña Debussy eta Dvotaks ere gero eta maiteago.

—Zoritxarraren haundia! —aitortu zion behin Luc'i—. Musikak bizi nauela esan diteke, eta ez dakit soiñurik batere jotzen: musika-tresna guziak arrotz zaizkit.

—Bai. Neuk ete uste dut zuk hemen orduak aisago pasatzeko, egoki litzaizukeala horrelakoren bat jotzen ikastea.

—Ez dut eskolarik hartu nahi, kasu! Zaharregia naiz orain musika ikasten hasteko... Nere aita gizajoak nola sofritu zuen ni naizen bere alaba bakarrari musika-hezierarik ezin emanik. Batxilleratoa hobe zala bulego bati buruz, ez ninduela goseak hillik ikusi behar, eta abar. Sindikatoko lagun batek lortu zidan moltsa bat, eta horri esker nauzu batxillerra... Musika, medikuntza, hor utzi behar nituen biak usteltzen... Ez duzu zuk hau iñoiz ulertuko. Aberatsegia zera, eta betidanik...

Ixillune bat gertatu zan bien artean.

—Ez naiz ni aberatsa. Mundua garaiz ulertu dut, burrukan ikasi dut. Hau da dana. Zu, zure aita bezela, pikuan bizi zera: bertsoak, kantak, bazterren ederra... Baiñan utz dezagun hori. Zergatik «berandu» orain?

—Bai, Luc: berandu da. Zer ikasiko, bestalde? Gitarra edo ez bada... Baiña solfeoan ez dakit.

—Eta, pianoa?

—Iñolaz ere ez, Luc! —erantzun zuen ia farrez—. Pianoa haurretan hasi behar da. Orain beranduegi da.

Zerbait erantsi nahi zuen Elsa'k baiñan ez zan ausartu: «Lehenengo haurra izatean gaiñera, astirik ez dut izango». Azkeneko eztabaidak latzegiak izan ziran, ordea, puntu hau aipatzen ausartzeko. Elsa'k seme alaba batzuk izan nahi zituen: hiru, lau, bost. Luc'ek, berriz, «haurrak ezagutzen ez zituelako», haurrek «lotu egiten dutelako», haurrak «istillu-iturri bat besterik ez diralako», eta beste anitz arrazoiengatik, ez zuen seme-alabarik bat ere nahi. Ezkontzerakoan, hillabete batzutan bederen askatasun osoaz baliatzeko omen, pillura hartzeko eskatu zion Elsa'ri. Sei hillabete joan ziran hala, ordea, eta haurrik izateko asmorik ere ez zan Luc'engan agertzen «Ez dago arriskurik?». Beti galdera berbera.

Pilluren kontua bukatua zala esan zion Elsa'k halako gau batean; eta ondoko eztabaida gogorra eta atsekabea izan zan oso. Luc'ek ez zuen haurrik nahi: garbi esan zion azkenean. Halere, bat izan artean pillurak alde batera uztekotan alkarraditu ziran: Elsa'k, nolatan urrengo egunetan ulertzen ez zuela, Jemappes'era bihurtzeko gertu zegoela mehatxatu baitzion; eta Luc'ek amor eman zuen.

«Orain berandu da» hitzak aidean zeuden oraindik...

Eta hortan gelditu bide zan musikari buruzko alkarrizketa hura.

Halere, eta Elsa'k Luc'en partez horrelakorik espero ez zuelarik, biharamunean bertan gitarra eder bat hartu zuen oparizat, eta gitarra-ikaspide pare bat. Luc'ek ba zituen oraindik bihozkadak; noizik behin bederen, maitagune-xehetasunak ba zituen jokabidean. Garai «urrun» hartan diogu, gitarrean pasadizu hau aspaldian gertatu zan-eta: ezkondu ezkerotik larehun bat gau baizik ez igaroak...

Nola hondatu ziran gauzak, beraz, 1959-ko udaberriaren etorrerarekin batera? Ezin Elsa'k esan: ezari-ezarian hunen ustez, ustekabean, egunsenti gorriaren ondotik zerua eguerdirako lañotu ohi dan

bezelaxe, lañotu egin zan ere betegunerakoan hain zuzen «Ma Chaumière»-eneko zerua. Luc tratagaitzago hasi zan billakatzen.

Maldan beherakoan gauzak abiatuak, haizkorakada latz kupidagabe bat erantsi zuen Dekraene sendagilleak 1959-ko Uztaillan.

Luc'i deus esan gabe, ginekologo bat ikustera joan zan Elsa. Luc'ekiko ezkontza maillako hartu-emanak zenbait hillabete ezkeroztik usu eta gisakoak izan arren, berririk ez zuen hillerokoei buruz; eta oso kezkatuta zegoen.

—Egia esan beharra mingarri zait, De Potter andrea: ezin dezakezu haurrik izan.

Masailleko hotz bortitz bat hartu zuela iruditu zitzaion.

—Iñoiz ez, beraz?

Besotik heldu zuen Dekraene osagille zaharrak, eta berriz esan zion:

—Geuretzako ere oso gogorra da batzutan egia jakifaraztea. Zu bezelako emakume gazte eder bati, are gogorrago. Egia, halere, hori duzu.

Bero sapa zegoen, eta Elsa itzaletik abiatu zan etxeruntz. Ezkondu aurreko arratsalde ero hartako sargoria bururatzen zitzaion nabarmenki... Knokke'ko basotxo... haragiaren poza lehenengo aldiz dastatu zuen hura... Arrats laranja batez hartara zuen Luc'ek ia indarka... Nolako kezkak eta bildurrak pasa zituzten biek urrengo asteetan: Luc'ek haur baten erantzukizun larria zetorkealakoan; Elsa'k, berriz, egia Antwerpen'go familia elizkoi farisau harek jakingo zuen bildur... Hiltzaturik izan zuen irudimenean hogeit hamar egun luzez Esther, bere koiñataren muziña; eta entzuten bide zuen jadanik: «horrelakorik gure familian gertatu behar... Luc nere anaia garbia hortara likistea...» Dekraene entzunda, ulergarri agertzen zitzaion orduko ondoriorik eza...

«Iñoiz ez», entzun uste zuen oraindik Dekraene'enetik etxerako bidean. Eta Wolvendael'go parkearen hegitik pasatzean, bestetan ia-ia erreparatzen ez zituen haurrak eta amak hantxe ikusi zituen, Dieweg kalearen aldetikako atearen ondoan jostari.

«Iñoiz ez»... Ihartua iruditzen zitzaion bizia... «Ezin iñoiz neure haragizko alaba txiki txiki bat jantz eta laztan»...

Zazpiak aldean etxera orduko, agirian zituen malkoak. Atariaren aurrean Volvo urdiña ikusi zuen: Luc etxen zan, beraz. Egia aitortu beharra lotsagarri zitzaion; askoz ere sakonkiago lotsagarri pekatuik lotsagarriena baiño. Ezintasuna zitzaion lotsagarri, ez pekatua: «ezin aberats agertzea da ahalkegarri, ez adabakiz jantzita ibiltzea; ezin maitasunik besterengan piztutzea, ez maitasunik gabe bizitzea. Hildo beretik, ezin senarrari haurrik eskeintzea: hauxe da hil arte hilduratuko nauen akatsa; ez baita nik neuk billatua edo ekarria».

Aitortu egin zuen egia.

Luc'ek ez zuen bere barne-poza agertzera utzi. Baiña Luc pozarren zegoen 1959-ko Uztaileko gau bero hartan; eta horregatixek izan zan behin ere baiño iaioagoa Elsa'ren atsekabeak haragikeriarik gabe balakatzen. Ia-ia bildurtu ere egin zan bukaerarik gabeko negarraldi etsi hura ikustean. Baiñan arreta ez zuen Luc'ek osoki «Ma Chaumière»ren gertakarian. Biharamunean Annie ikusi behar zuen laugarren aldiz...

Ezin jasanezko egun garratz batzuk Elsa'k igaro-ta-gero, etsi egin zuen azkenean; eta egiaren ondorioak mamituz joan ziran beregan. «Ma Chaumière» billa, bapatean, haundiegia iruditu zitzaion. Goiko estaiak, batez ere, Luc'i hau iñoiz aitortu ez arren haurrentzako bereziak, hutsago eta hitsago agertzen zitzaizkion iñoiz baiño. Dieweg-eko pake hura, era berean, kanposantu-pake bihurtu bide zitzaion; ixiltasuna gehiegizkoa, eta Luc kanpoan zegoen orduak ugariegi eta luzeegi.

Aldakuntza harrigarria gertatu zan Elsa'rengan udazken hartan: urtebete lehenago ametsa zitzaion pareta eta zugaitz mordo huraxe, kaserna zabalegi eta lantsuegi billakatu zitzaion: «sarraski kiratsa bide dario», zion.

Hillabete haietantsu, hain zuzen, «Toyota» markaren ordezkari-tza Luc'ek hartzean, are beranduago etxeratzen hasi zan hau. Eguerdian gero eta bakankago bazkaltzen zuen Elsa' rekin:

—Zer uste duzu, Elsa? Lanpetuta nago, guztiz lanpetuta. Ez dakit ez ote dudan hutsegin «Toyota» hau lehengoz gain onartzean.

—Zure burua eta gure biziera hondatuko baldin baditu, baietz esango nizuke zalantzarik gabe.

Toyota'rena erabaki aurretik, hillabete batzuk pasatzen uzteko eskatu zion Luc'ek, ia arazo berria zertaratzen zan; eta huntan gelditu ziran: 1960-eko Urteberrian egoera berriz aztertuko zuten, eta deliberoak hartuko.

Baiña Urtatsetik aurrera giroa ez zan aldatu. Luc gero eta zakarrago agertu ohi zan; eta igandeetan, etxen egotea pairatu eziña izango balitzaio bezela, aitzeki-billa ibiltzen bide zan, hunerat edo harat joateko.

Bigarren estaiako gelak guztiz utziak: gero eta hotzago, gero eta zikiñago, gero eta urrunago.

Gitarra ikasteari berari piskanaka utzi zion Elsa'k; eta diskoak berak, gero eta maizago, aspergarri iruditzen hasi zitzaizkion: «beti gauza bera», esan zuen behin gogaiturik.

—Eros, ba, beste disko batzuk. Joan zaitetz hirira. Nik ez dizut ezer galeraziko —zion Luc'ek. Baiñan Elsa'k disko berritarako ere gogorik ez zuela nabaitzen zuen; eta ez zan joan.

«Musikak berak —pentsatu ohi zuen bolada hartan—, zer? Laister higitzen dira eresi-doinurik zoragarrienak; eta olerki-zartako sakon berri hari, soiñu-mordo ezaguna nagusitzen zaio. Olerkiari prosa darraikio ezinbestean, zahartzaro iharra gaztaro hezeari bezelaxe. Debussy'k berak nekatzen nau nere huntan»...

Zergatik ote zan Luc gero eta aldatuago? Gogoeta huni zegokion ezpata zorrotza ez zan kamusten: «oiñazea dugu kamusten ez dan ziri bakarra»... «haurrik eman ezin dizaiokedalako izango ote da hotzaldi hau guzia?».

Eta arra beti barruan ari, bere kezka hura jator Luc'i ezagutaraztea erabaki zuen:

—Kezka ikaragarri bat sortu da nigan, Luc.

—Tira, Elsa. Ez gaitezen hitz haunditan barrena abia. —Luc: egia esango didazu?

—Bai, emakumea.

—Zuk ez zenuen haurrik nahi...

—Baiña, zer da galdera zentzugabe hori?

—Erantzun argi eta garbi. Zure ezpaleko seme bat nahi zenuen ote barne muiñetan?

—Ez —errepikatu zuen Luc'ek legorki.

—Ziur?

—Ba dakizu ezetz! Arren! Noiz ikusi nauzu ni Antwerpe'n edo Gent'en nere illobekin jostatzen ari? Noiz aipatu dizkitzut nik nere izena edo nere etorkia? Bost axola zaizkit, Elsa! Noiz esan dizut nik ezer seme bati buruz? Seme-alabarik ezin izatea berdin zait, berdin baiño areago: ez izatea nahiago dut. Bihirik Elsa! Zertarako? Gure arteko eztabaida haiek ahaztu zaizkizu dagoeneko? Neri ez...

Elsa'k atsedendaldi naharo bat nabaitu zuen lipar labur-labur batez. Eta segittuan buruhauste berri bat nagusitzen zitzaiola konturatu zan, lehengoa baiño illunagoa ausaz...

—Zergatik ba galdera horiek? —Luc'ek.

—Ez, ezer ez —Elsa'k, arreta guztiz at.

—Zergatik? —berriz Luc'ek, jakinmin biziz. —«Nere berririk iñork ez daki» —pentsatu zuen. —«Annie'k ezer esan ote du, ordea? Ez dut uste: ezkondata dago bera ere; neuk hainbat behar du zuhurtasuna. Gasoliña eroatera eta berebilla konpontzera bezero asko etortzen da «Moderne»ra: eziña da Anie'rekiko ezer bitxirik alde hortatik somatzea... Behin joan gera afaltzera biok Groot Bijgarden'era, eta ez ginduen iñork ikusi. Tout mais pas ça' bere proposamendua, zuhurki bete dut gaur arte... Ez, ez, eziña da...»

—Ezer ez, Luc —entzun zuen gogoeta urduriaren erdian.

—Zerbait bai, ba duzu —erantsi zuen Luc'ek, hariari berriro heldu nahirik.

Ez zuen Elsa'k besterik ezer esan. Aipatzera ez zan ausartu ere egiten; baiñan hau zan bere katramilla berria: «zergatik hortaz, Luc, zure hotzaldi hori, gero eta nabarmenagoa?».

Azaldu eziñezko kezka berri hura, hortara, bakardadearenari erantsi zitzaion:

—Hemen usteltzera utzi bide nau Luc'ek. Hemen dudana ez da pakea: hau eritegiko ezintasun bakarti etsia baizik ez da. Hemen zai nago ni, egunero, egun guzian barrena, landerretxeetako agure eta atsoak bezelaxe... Eta Luc zertan ari? Garajeen omen... Eta zergatik bere begirada igeskor hori?

Eta kanpoko ixiltasuna erreparatzen zuelarik, «Ma Chaumière» ezin eramana iruditzen zitzaion.

—Luc —esan zion behin brauki. —Ezin naiz etxe huntan luzaroago bizi.

—Zer?

—Zu lanean egoten zera, eta ez dakizu hau zer dan. Ezin hau luza, ezin iraun nere huntan. Ezin dut!!

Eta negarrez hasi zan zotinka.

—Zeugatik etorri giñan Ukkel'go hegoaldera.

Eta eztenka nahiean erantsi:

—Ez da nere errua: ez nuen nik aukeratu.

—Hala da. Osotara nahastu nintzan: jator aitortzen dizut. «Haurrik izango ez genuela ez nekien orduan» esateko gogoia etorri zitzaion. Baiñan ez zan ausartu. Ba zekien, bestalde, egiaren parte bat hori izanagatik ere, besterik ba zegoela.

Erregu hura behin eta berriz berretu zuen Elsa'k. Aldatzea berdin zitzaion Luc'j; eta istillu-iturri hura agortzeko egokia bazan, atsegina ere zitzaiola esan zitekean. Baiña begiratzea eta billatzea beti ahaztutzen zitzaion.

—Zeuk aukera etxea, Elsa, eta kitto. Ongi hautatua izango da. Zeure gain beraz —esan zion behin atekatik irtetzeko.

Horrela izan zan.

Molière-kaleko pixua Elsa'k berak aukeratu zuen 1960-eko Abenduan; eta urrengo Otsaillan egin zuten etxe aldaera.

Bizileku berrian laketago zan Elsa: hiru gela alkarren segidan, Brusela'n usu ikusi ohi diran «de maître» horietakoa. Kristalezko ate bat eta gortina gorraide bat artean: biak osoki zabaltzeko modukoak, eta hortara gela luze bakar bat eratzeko asmatuak. «Lan txikiagoa Ukkel'go jauregitzar eskerka hartan baiño», zion Elsa'k. Berekiko zion hau, bere senarrari alperrik baitzan etxekorik ezer aipatzea. Waterloo-Galtzara dendatsua ere hurbil xamar zeukan; eta dendetan ideien aldakuntza lor zezakean.

Baiña hasieratik beretik jakin zuen Elsa'k Dieweg-kaleko hastapen irribarretsu haiek betirako joanak zitzaizkiola; ez baitago irribarrerik itxaropenaz kanpo. Laketago zan, bai, Molière'n; baiñan ez zoriontsu. Egunak luzeegi zitzaizkion han ere; eta Luc, itxura zanez, arrunt galdua: ez zuen etxearen

txukuna iñoiz ere ixtimatu, eta apaingarrien apainketa hitzetik hortzera antolatu eta erabaki zuen Elsa'k, etxe hartan biztanle bakarra bera bailitzan.

«Zerbait egin behar dut: ez edozein gauza, ez. Egun osoan barrena arduraraziko nauen eginkizun batean hasi behar dut. Alegia: lanegin egin behar dut. Lana aurkitu artean ez diot Luc'i ezer azalduko. Zertarako? Ongi irudituko zaio. Berak 'bost axola' adierazteko, 'ongi da' hitzak esan ohi ditu...»

—Lanegin egin nahi dut, Luc.

—Ongi da. —Eta irakurtzeari ekin zion.

Nazkak gairiditurik ez zuen Elsa'k ezer erantsi, eta ohera joan zan.

Elsa'k berak lortu zuen De Rijke'ren lanbidea 1961-eko Urrillan, Alsenberg-Galtzarako liburutegi bateko bitriñan irakurri zuen anuntzioaren bidez. Eta Ukkel'go hauzoan, Edith Cavell-kalean, horzkintzan hasi zan laguntzaille.

De Rijke burusoilla zan, goratasunez ez oso luzea, mardula, berrogei-ta-hamar urteetan dexente abiatua, begi urdiñak bizi-bizi. Horzkin aparta, fama zanez; eta kontsultazioa begiratzea besterik ez zegoen: Ukkel'go bereko bezero anitz joaten zitzaion; eta baita Sint Genesius Rode eta Linkebeek'eko dirudun frantximenta batzuk. Lau urtetan Elsa'k ikasi zuenez, hizkeraz De Rijke zakar xamarra izanagatik ere, bihotz oneko gizona zan, eta lanean txit leguna eta artatsua. Elsa beti hartu ohi zuen, kanpotik bederen, ia-ia alaba bat bezela. Baiñan ez horren aitakiro beti. Elsa oso ederra zitzaion, liraiña, aurpegi oso politekoa; eta hunen begi nabar illunek eta begirada sakon tristeak, behin baiño gehiagotan hunkitu eta asaldatu zuen De Rijke alarguna. Baiña hunek bere zakarreriarri eusten zion xamurraldietan; eta huni esker, Elsa'k ez zuen berandu arte ezer nabaitu.

Lan harek, halere, alderdi txar bat zuen: bezeroak ugari ziran ezkerre, Elsa oso sarritan gaueko bederatziak arte gelditzen zan De Rijke'ren kontsultazioan; eta laguntzaille-lana nekeza eta gogorra ez bazitzaion ere, han egon behar izaten zuen zazpi orduak maiz gehiturik, eten gabe De Rijke jaunaren ondoan eta zerbitzutan. Askotan, hortara, Edith Cavell-kaletik Molière-kaleraiñoko bidea egin ondoren etxeratzen zanean, afaltzeko gogo haundirik ez zuen, eta are gutxiago afari oparo bat prestatzen hasteko. Luc'entzako ote? Alperrik litzake, «afalduta nago» bere leloa ez baitzan bakanka entzuten bolada hartan. Elsa, berriz, jangartsu zegoen; eta gogorik eza gairiditzeko ziorik ez zuen aurkitzen. «Osasuna hondatuko? Eta nori zaio axola?». Jate-desordenu haiek berealatik noarkatu ez bazuten, farmaziako jakien alderako zaletasuna eta beharra piztu zizkieten. Eta lo egiteko, batez ere, illaran hustutzen hasi ziran Elsa'ren eskuetan «Bellergal» botillatxo haiek...

III

Gauza agiria zan Molière'ko etxe berrian, ez zala Luc Elsa'rekin ezertaz hitzegiteko gauza. Luc iñoiz irakurle porrokatua ez izanik ere, kasetara edo txosten bat eskuetan baizik ez zan etxen ikusten ahal; begiek salatuko ote zuten bildurrak balego bezela. Alkarrizketarik ez, berotasunik ez, ezkontza hartu-emanik ez, senar-emaztearen artean hormazko pareta lodi bat sortu zan, gero eta gotorragoa.

Bi igespide ikusi bide zituen Luc'ek egoera hartan. Bata lana zan. Igande goizetan liburuz eta paperez beterik etxeratzen zan bazkaldu aurretik; eta negozio-giro hartan itotzen zuen Molière'ko bakartasuna. Larunbat arratsaldeetan beretan garajera joaten zan; eta afaltzera oso bakanka agertu ohi zan etxera: gehienetan Brouckère-enparantza ingurura edo Namur-Atearen aldera joan ohi zan aurretik afaltzera. «Laguntsak» ez zitzaizkion falta, eta hauentzako diru ariña ere ez. Somatu egin zuen hau Elsa'k, baiña jakin ez zuen ezer jakin 1965-eko Urrillaren 26-eko gau euritsu hura arte.

Igande batzutan, halere, paperen artean murgilduta ez pasatzea Luc'ek erabakitzen zuenean, Antwerpe'ra joan ohi ziran senar-emaztea «Toyota» zuri berrian. Nora? Kalez kale ibiltzera ez gutxitan, azkenean Geltokiaren ondoko kaferen batean exeri artean. Kai muturreko «Nautilus» bazkaldegitik ontzien joan-etorria ikustera joaten ziran beste zenbait aldiz; eta Elsa'ri, zergatik azaltzen asmatuko ez balu ere, oso hunkigarri eta guztiz tristagarri zitzaion gehienetan, Eskalda'tik haruntz, lañoan barrena, itsasontzi eskerga haien joaire jarraikia. Esther eta Valère Van Geen'en etxera joan ohi ziran ere usu xamar 1962, 1963 eta 1964-eko urte luze koloregabeetan.

Esther gajoa, Luc bere anaia bezela, itsusia zan, txikia eta begi kaxkarrekoa. Bi seme zituen, bost eta bi urtetakoak. Biak «Tante Elsa»'rekiko txit atsegiñak, egia da; baiña arrotzak ere bai arrunt: flamenkeraz «Tante Elsa»'ri hitzegitean, hunek ez baitzuen fitsik ulertzen. «Tante Elsa» hitz haiek berak, gero Elsa'k jakin zuenez, ez ziran frantsesezko esakera bat: «Tante» hitz berbera flamenkerazkoa zan, ez frantsesezkoa. Mutiko haiekiko hizkuntza-murru hunek pena handia eman ohi zion Elsa'ri. Illobak urruti zituen: hizkuntzaz, familia hartan gorroto zuen giroaz, alde guzietatik hitz batez, arrotz zitzaizkion. Haur haiek, halere, Esther'en haragizkoak ziran. «Ni, berriz, Esther baiño ederragoa izanik ere, matxorra naiz. Nere edertasuna, zertarako? Zergatik ote dira mailla guzietan eta maiz xamar edertasuna eta antzutasuna alkarrekin egokitzen? Zergatik alkarren ekarle? Ardenak ederrak dira; baiña hustu egiten dira jendea han bertan ezin bizi izanik. Ardenak antzu dira, baiñan eder. Luc'ek maite duen Antwerpe'ko kaietako tegiek, ordea, itsusiak diran neurrian, itsusiak diralako, itxura danez, jendea erakartzen dute. Antwerpe emankorra da, baiñan itsusi. Beti bat beraz. Edertasunaren

hobariak nik ezagaturik, eta ugaritasunaren gabea pairaturik, hau irabazi eta hura galdu egin nahiko nituzke...».

«Onkel Luc»ekin, berriz, ez zegoen Van Geenk'en etxean mintzairazko hesirik, eta ez pentsakera-desberdintasunik. Baietz pentsa zitekean itxuraz Van Geenk «katolikoa» zalako. Baiña dirua irabaztea zitzaion huni funtsezkoa, ez Jaungoikoaren garazaia emendatzea; eta gauza bera Elsa'ren senarrari. Sozial arazoaz iritzi berekoak ziran bi koiñaduak: «Noiz bizi izan da langillea gaur baiño hobeki?». Emakumeei dagokienez soilki ziran desberdiñak: Luc'en ustez, lizunkeriaz kanpo ez zegoen mundu huntan saiatzea merezi zuenik ezer; Van Geenk jaunak, ordea, ez zuen iñoiz problemarik izan ere alde hortatik: haragiaren griña zer dan ez zekien, eta bihotzaren ixuri eten-eziña zeren antzekoa izan ditekean ere ez. Familia-usadio zahar bati segida ematea izan zitzaion ezkontzea Valère'ri; «Van Geenk Frères» familia-negoziolari segida eman zion bezelaxe. Hauek biak oso inportanteak ziran Van Geenk'en familian, biek batera leiñuaren «izen ona» gordetzen laguntzen baitzuten:

—Familia-taju on bat, eta diru-kontuetan garbitasuna. Zorrik ez, igandeetan meza, Flandre'n flamenkeraz, eta beste saltsarik ez: hauxe izan da beti gure bidea — esan ohi zuen harro-harro Van Geenk'en ama zahar iharrak. Eta iñork baietz erantzuten ez ba zion ere, iritzia etxe hartan onartzen zala pentsa zitekean.

Berdin zitzaion hau guzia Luc'i, Van Geenk'i berdin zitzaion bezelaxe. Besterik estimatzen zuen Luc'ek Valère'rengan: mundutar segurantzia, sakela betea, adiñak ematen zion gaintasuna (Valère'k 46 urte zituen 1965-eko Iraillean); eta, funtsean, «hoztasun» hura, beren buruaz besterik ezer maite ez dutenen hoztasun barea.

Van Geen'ek haur argitzat hartzen zuen Luc De Potter bere koiñadua:

—Zure anaia aurrera aterako da, bai: mundua zer dan xuxen ikusi du —esan ohi zion Esther'i—. «Il a vite compris», erantsi ohi zuen frantsesez.

Elsa, alderantziz, ez zuten batere gogoko: ez Van Geenk jaunak, ez andreak. Esther'ena gauza nabarmena zan: emakume itsusiek ez dute sekulan barkatzen emakume ederren edertasuna: Elsa irain garratz bat zitzaion, begirada legun hura ezpata zorrotz bat; eta bere bekaizkeria ezin zuen izkutatu: Esther'ek Elsa gorroto zuen.

Valère'ren etsaigoa nabaitzen zaillagoa zan: hain zailla nun Valère'k ez baitzekien Mons'eko bere koiñata gaitzi zitzaionik. «Pratikutasunik» ez zuela iruditzen zitzaion soillik; eta hortaz, mundu huntarako galgarri eta istillu-iturri. Baiña bestetik, hau agiri ez bazitzaion ere, labainkeria somatu uste

zuen Elsa'ren begirada eta kiñu guzietan, hunen edertasunak berak lehenengo aldiz emakume bat kilikagarri agerreraiziko balio bezela. Eta hau ez zuen Van Geenk'ek batere gogoko: «Haragikeriak ohean, eta aski!». Ez zegoen, ordea, haragikeriarik batere Elsa' ren partetik; etxe hartan batez ere... Baiñan edertasunaren mundua, baita emakumetan beretan, arrotz zitzaion guztiz Valère'ri, eta haragiaren dei koloregabeaz gain ezerk erakar zezakeanik ez zuen iñundik antzeman. Elsa'ren edertasun lilluragarri eta guztizkoa, horrengatik, artosoa eta maiña gaistoan finkatua iruditzen zitzaion.

Huntaz guziaz ohartua zan, hain zuzen, Elsa; gutxi gora-behera behintzat; eta gogorik gabe joan ohi ziran Antwerpe'ra. Nola ezetzik esango, ordea? Luc'ek onartzen zuen azkeneko alkarbideari, nork eragozpenik jarriko?

1965-eko udazkenean, Suzanne'ren saltsa azaldu aurretixek beraz, Van Geenk'en etxean egokitu ziran. Antwerpe'tarrak España'tik iritxi berriak ziran.

—Zoragarria da España —zion Valère Van Geenk'ek. —Joan egin beharko zenuteke datorren udaberrian.

Bere koiñadua lehenengo aldiz begi onez begiratzen zuen Elsa'k:

—Bai, Luc. Zergatik ez? Ezkondu giñan ezkerotik ez gera iñora joan. Eta ezkondu giñanean ere...

—Bai! Valère'k eta Esther'ek ba dakite! Nere erruarengatik ez giñan Brugge'ra baizik joan!! Noiz arte entzun beharko dizut gauza bera?

Elsa ixildu egin zan.

—Ba dakizu negozioak zer diran, Elsa —erantsi zuen Esther'ek, itxuraz eztiki, barnez mendeku gisa—. Neuk ere, ez pentsa: aspaldi huntan mogitu gabe egon ondoren, Sevilla, Madrille eta Valencia ikusi berriak ditut; astebetean dana, kasu!

—Argitasunarengatik joan diteke, benetan —ekin zuen Valère'k—Sevilla'n zeru urdiña beltz billakatzen da. Loreen usaiña kalean aditzen da. Hizkeraren «h» horiek, Marrok'en edo Mauritania'n jartzen zaituzte.

—Zoragarria da, bai. Gaueko proosio famatu horiek aspaldian ikusi nituen nik, kandelen argitasunean. Ez da dana urre gorria, egia da: zenbait mozkor erreparatu nuen orduan, zambuluka, abittuaren ohorea lardazkatzen ari. Baiñan Europa'n ez dago gaur horrelako federik. Nere amagiñarrebari

heranegun esan nion: «Zoratu egingo zifake zu Espaiña'ko erlijio-giroan. Nolako sua 'saeta' dalakoetan... nolako errespetua morez eta oiñutsik nekez ibiltzen ziran erromesengan... Oso ederra!».

Entzundakoak desgogara jarri zuen. Jemappes'eko etxera biltzen ziran gehienek aitaren iritzi hura aintzakotzar eman ohi zuten. Zein ote zan egia? Elsa'k ez zekien. Problema bera aztertzea zozokeria bat iruditu zitzaion berealatik. Eta, berriz ere, begikotasunez hartu zuen aitaren iritzia; baiña kupidaz ere bai.

—Fedearena eta hori guzia ipuiñak dira, baiña... esaten hasi zan Luc gogor xamarrean.

—Ez pentsa, Luc —errepikatu zuen arrebak— Hik ez duk hori siñisten; baiña danak ez dituk hire kastakoak. Espaiña'ko fedea ez duk ipuin bat: apaizak han hiltzen dituztenean, sagaratutzat daukaten zerbait hil nahi ditek. Nun entzun diteke biraoa maizago espaiñarren ahotan baiño? Aste Santua han aste santu bat duk egiazki: Kristo'ren izena eta irudiak denen aurrean zeudek astebetetz. Datorren udaberrian Andaluzia'koa neure begiez miresteko asmoa diat.

—Bego. Berdin zaidan fede-kontu hori —amor eman zuen Luc'ek.

Eta hiruei begiratzuz ekin:

—Hango argitasunak kilikatzen nau ni bederen: leporaiño nago hemengo lañoetz eta lanbro azkengabeez. Espaiña'n eguzkia ikusi uste dut nik.

—Hori ba huke, bai —esan zuen Van Geenk jaunak.

—Ba nuke, bai. Horixe da hitza. Oraingoz ez dut joaterik antzematen. Toyota'rena batez ere...

—Luc: bizi egin beharra zegok. Hi baiño zaharragoa nauk ni, eta denbora ez galtzeko gomendatzen diat.

Ordurarte iñoiz gertatu ez zitzaiona: koiñadua musukatzeko edo besarkatzeko gogoa etorri zitzaion berriz Elsa'ri; baiñan ez zuen ezer esan: bera baiño abogadu hobea zan Valère Luc'ekiko. Zeruaen urdiña gogoratzen zitzaion, aidearen epela, Mediterraneo'ko argia, Gaztela'ko gazteluen eta murruen idorra; eta gaztetu egingo zala, bizian berriz siñistuko zuela, Luc'en maitetasuna berpiztuko zuela iruditzen zitzaion.

—Ez zekiat, Valère —ekin zion Luc'ek, beti ukakor.

Zergatik ukakor? Ezin zezakean egia esan. Baiña hauxe zan egia: Elsa'rekin joatea baiño ez joatea nahiago zuela. Brusela'n ba zituen, bederen, Suzanne'ren mentura eta gaueko irteerak. Suzanne'ri bidaia proposatzea bururatu zitzaion ustekabea, Valère'k hitzegiten zuen artean; eta begiak argitu ere egin zitzaizkiola ba zekien. Baiña hau txorakeria hutsa zan: Suzanne ez zan bere buruaren jabe, ezin zan hamabost egunez joan, ez zuen halakorik ezer iñolaz onartuko. «Hortaz —pentsatu zuen— zer? Elsa'rekin hamabost egunez buruz-buru? Zer egiteko? Tira, tira, tira!».

Elsa'k ez zituen ideia hauek bere senarraren kopetan irakurri; eta aingeruki esan zuen:

—Bai, Luc. Bai! Udaberri huntantxe. Eta bihotza aspaldi hartan baiño bizkorrago zeukala nabaitu zuen.

—Ez dakit, Elsa! Ez gaitezen txoriburu izan. Gauza horiek patxaran eta xeheki aztertu behar dira.

Madrille'ko berri eman zuen ondoren Van Geen'ek, garrik beroenaz:

—Ezkertarrek asmatutako hiriburu txiro mixerablea topatu uste izan nuen. Bai, zera! Ipuiñak! Brusela'n aurkitzen ez ditugun etxe dotoreak ikusi ditut, industria berri ugaria inguruetan, jendea Ixelles'en bezin ongi jantzirik, kotxe ederrak ugari, eta jendea atsegin eta zorionsu leku guzietan. Zerbitzarietan beretan espainarraren harrotasuna aurkitu dut. Hogeita-hamar urte hauetan, eta pakeari esker, pausu gaitza eman du Espaiña'k. Hemengo ziztrinkeriak ezagaturik, benetan, bekaizkeria nabaitu dut. Politikeria txit gauza kaltegarria da gure Belgika'n; behin ere baiño siñistuago nago. Eta komunistek asmatu dituzten ipuin horietaz, zer erantsiko?

Goragalea zetorkion Elsa'ri; eta aitaren gogaide antzeman uste zuen berriz bere burua. Eta ezer ez entzuten saiatzen zan, entzunda ere ez aditzen hobeki. Besterik billatzen zuen bere barrenean: «Espaiña'ra udaran... argia... epeltasuna leihoak zabaltzean... sargori legor berbera, zergatik ez?... eguzkia egunero agiri... beso motzetan pasean ibil ahal izan... kolore bizitzako soiñekoak jantz... gauetan izar guziak goietan ñir-ñir... Albeniz'en akordeak aidean igeri... Machado eta Jimenez'en bertsoak ixiltasunean irakur...»

Autorrutan barrena Brusela'runtz abiatu ziralarik, ixillune bat gertatu zan hasieran; eta Elsa'k bukaraztea erabaki zuen:

—Luc, Luc, arren: goazen Espaiña'ra datorren Maiatzean. Ez nauzu iñora eramaten aspaldidanik.

—Eta, ni neu nora noa bada?

—Ba dakit. Goazen ba biok. Andaluzia'ra...

Ixillune luzetxo bat berriz. Ez zan ausartzen Elsa gauza bat esatera; baiñan, azkenean, lotsaz beterik, bere itxaropena aitortu zion:

—Beharbada gure artekoa zuzpertzuko litzake. Luc ez-eroso zegoen. Ez zekien zer erantzun.

—«Gure arteko» zer?

—Gure arteko... gure arteko maitetasuna. —Tira! Berriz ere!

—Ez da egia?

—Ez dakit.

Elsa'k ekin egin nahi zion hizketa-gaiari, eta Luc'ek aldegin. Eta aldegitako biderik onena «baietz» agintzea iruditu zitzaion:

—Lanak ez badit debekatzen, joatea agintzen dizut. Baiña hamar bat egunez. Ezin luzeago.

Itxaropen-itsaso bat aurkitu bide zuen Elsa'k agintza hortan, Luc'ek betetzeko asmorik txikienik ere ez zuen agintza hortan; eta bidaia guzian ez zuen besterik ezer esateko beharrik nabaitu. Hitzak baiño hobe ametsak.

Brusela'ra sartzera koan, Meise'ko kaskoa gainditu ondoren, Atomium'en esfera gaitzak ziran agiri, argi bitxitan zaindari, ditzira harrigarri aldakorretan esnai, 1958-ko festa-giro haren azkeneko zantzu gisa. Hiriburuaren gaiñean argi arin segailezko behelaño xarea. Zeruan izarrik ez.

—Luc: burutazio on bat izan dut, nere ustez. Españeraz ikasten hasi behar dut.

—Zertarako?

—Hillabete hauetan, ba dakit, epe laburregia da ezer sakonik ikasteko; baiña, Espaiña'rako girotan jartzeko, biziki egokia iruditzen zait hizkuntza ikasten hastea.

—Bai. Egia duzu. Ez da ideia txarra. Lan haundiegia ez? Goragalla etorri zitzaion Elsa'ri sasi-maitagune hitza entzunda ez.

Biharamunean bertan, Vleurgat-Galtzaran, eta ez etxetik urruti beraz, españeraz ikasteko ikasgu bat idoro zuen Elsa'k. Ez zuen betarik galdu nahi. Eta aste hartantxe hasi nahi zuen bere ikastaroa.

—Astean bitan, astelehen eta ostegunetan, De Potter andrea. Irakasle: Señor Loza. Arratsaldeko zazpietan beraz.

—Ongi da, jauna. Astelehen arte.

Baiña astelehenean ez zan hara agertu. De Rijke'k lan izugarria izan zuen bi astez, eta españeraz ikasteko asmoa etzan Irailla hartan mamitu...

IV

...1965-eko Urrillaren 27... Eurijasak eta haize-bala zakarrak nagusi Brusela'n... Nolako gau luzea!...

...Asteazken hartan iñoiz baiño uzkurrago zegoen Elsa De Rijke'rengana joateko. Hunek aurpegian zerbait soma zizaion bildur zan, gauaren eragiña nahi-ta-nahiez oso nabarmena baitzan haren betazprietan eta begietan beretan. Suzanne ez-ezagun harentzako lerro bakoitzak bere kidea utzi bide zuen Elsa'ren kopetan. Goizeko bederatiak laurden gutxitan Edith Cavell'go kontsultazioan aurkeztu zanean, hunelaxe errezebitu zuen De Rijke sendagilleak, esankizuna ziplo botata:

—Baiña, Elsa bihotzekoa; zer egin zenuen bart? Zerk harrapatu zaitu gaur gauean horrelako begi gorriskak izateko?

—Ez dakit, jauna. Nik dakidalarik, deus ez. Itsusten ari naiz nunbait...

—Ez neri zozokeriarik esan. Lau urte dira ezagutzen zaitudala, eta iñoiz ez zaitut horrela ikusi. Zer duzu?

Elsa'k moztu egin zuen. Ez goratik, ez hitzez hala eskaturik. Baiña De Rijke'k nabaitu zuen Elsa'ren begiak irazeki egiten zirala, eta galderak harrerazten zion barne-oiñazea ez zala txantxetakoa.

—Ongi, Elsa. Utz ditzagun horiek alde batera, eta presta gaitezen lanerako. Lehenengo bezeroak hemen dituzkegu hemendik ordu laurden batera. Eta hori esatean besotik heldu zuen maitekiro, baiña gogor xamar Elsa'k besoan neur zezakeanez; eta aldameneko operazio-gelara lagundu zuen.

Ez zuen De Rijke'k besterik ezer esan; baiñan Elsa behiñere baiño aisa itsusiago antzeman zuen, eritasun bortitz batek ikutua balitz bezela. Aurpegiaren osotasuna galduta bide zegoen tupustean: begiak bi begi ziran, oso «bi», alkargandik urrundu balira bezela; eta musua eta masaillak oso zurbillak, eta begiekiko arrotz. Zer gertatu ote zitzaion? Senarrarekin zerbait gertatu zitzaiola ez zuen zalantzan jarri. Baiñan ez zuen txintik atera.

De Rijke'k Luc De Potter jauna gutxi ezagutzen zuen. Bi edo hiru aldiz etorria zan Elsa'ren billa kontsultaziora aspaldian, oso aspaldian. Gizon argal eta motz batez oroitu uste zuen, kirru xamarra, begiak argi eta txiki, kiñuetan gizon harropuztua. Gazte hura ez zitzaion iñoiz gogoko izan. Ez lekike zergatik azaltzen; baiñan ez zitzaion gustatu. Begirada igeskor hura faltsu antzeman zuen, eta ezpaiñak lodiegi. Ez lekike, ez; baiñan... Elsa'renganatik ote? «Ez!!», erantzungo zuen irmoki. De Rijke'k ez zuen hau uste. Elsa'k «besterik» merezi zuela bai, halaz ere.

Asteazken zorigaiztoko hartan behin baiño gehiagotan nahastu zan Elsa bere lanean. De Rijke'k tresna bat eskatu, eta Elsa'k beste bat eman; eta holako. De Rijke zakarra zan berez, eta are zakarrago agertu behar zuen halakotan bezeroen aurrean. Eta hitz atsekabeak entzunarazi zizkion.

Gaueko zortziak eta hogeitan Bolland alarguna joan zanean (eta kostata joan, alajainkoa: katu bakoitzari gertatutakoa zehatz-mehatz azaldu behar baitzion Elsa'ri, eta bost katu izaki...) zerua zabaldu zitzaion. Baiña De Rijke'k ezin izan zuen bere jakin-miña izkutatu, eta ustekabean galdetu zion:

—Elsa: barka zazu nere gogorkeria. Ez zaitut iñoiz ikusi gaur baiño okerrago. Alperrik duzu itxura egitea. Zer gertatu da atzo zu eta Luc De Potter'en artean?

—De Rijke jauna: hori ez da zure arazoa. Bihotzez eskertzen dizut zure jakingura maitekor eta zuzena; baiñan ez dut tutik esango. Ba dakizu nolakoa naizen: lau urte huntan ari naiz lanean zurekin; eta nik «ez» esan dudanean, «ez» da.

Kalera irten zan, eta ateri zegoela ikusi. Aidearen hotzaren fiñak hautsiki egiten zion bere aurpegiaren larrua. Eta Brusela' ko negu luzeetan ipar-haizea eten gabe ari dalarik, Elsa'k biziki maite zuen hautsikidura hura. Leher-egiña zegoen, ordea, urduri, nahasia, lotsatua; lotsatua batez ere, guztiz lotsatua, Dekraene'k haurrik izango ez zuela esan zion egunean bezelatsu. Ez zuen ezer egiteko adorerik, ezta oiñez etxeratzeko haiña; eta horrela pittin bat egurasteko bidenabar. Ezta huntarako ere. Taxi bat deitu, eta etxera sartu zan zuzenean.

—Pentsa dezakezunez, Luc, ez zait batere gogoko nere egoera hau —bota zion ezustean handik astebetera—. Baiña jakiñaren gaiñean iduki baninduzu, nahiago nukean. Egia jakitea hobe da beti, nahiz egia askotan garrantza izan.

—Ez dut ezer ulertzen —erantzun zion Luc'ek, bere barne-asaldua nekez diximulaturik. Ixillago hitzegin, gaiñera: berandu da.

Astebetean pasea zan Elsa'k Suzanne'rentzako gutuna topatu zuen gau beltz hartatik; eta Elsa'k ez zuen ordurarte ezer esan nahi izan. Luc, ezertaz konturatu gabe, gauero etxeratsen zan hamaiketan eta hamabietan, batere azalpenik eman gabe; edo-ta, bi aldiz bakarrik, lagunetara joana zala esanez.

Azaroaren 4-eko gau hartan, ordea, hamaikak eta hogeitan xuxen, problema aurpegira aurtikitzea erabaki zuen Elsa'k. Gorrotoa mintzo zan itxuraz hunen ahotik. Zazpi egun haietan nabarmen zimeldurik, emazte tristatuaren keiñadak ikuste soillaz barneraiño higuinduta eta desegiña zegoela jakin zitekean eskierki.

—Ixillik hitzegin beharrik ez dago! —errepikatu zuen Elsa'k. Etxe madarikatu huntatik aldegitoko asmoa baitut, gaiñera, zure hauzokoek nitzaz zer dioten edo zer deritzaten berdin zait osoki.

—Nola «joan»? Baiña, zer duzu?

—Galdegiozu hori zure Suzanne maiteari.

Ixillunea aztun egin zan, luze, amaigabe. Paretek berek hitzen bat eskatzen zuten etenaldi haren betegarri. Baiñan ez zan ezer entzuten, ez zan hitzik batere ematen, ez Elsa'ren- gandik eta ez Luc'engandik. Denboraren joana gelditua zirudien egiazki.

Berebil baten soiñua aditu zan, laister ixillean iraungia.

—Horren guziaren berri zuri ematea erabakirik neukan... Baiña zuk ezer ez jakitea hobe ote zan ez nekien.

Gezur hutsa zan hau. Annie Dupont izan zan lehenengo «menturatxoa», 1959-ko udaran hasia. Eta, geroztik, zenbat? Hiru? Bost? Zortzi? Gehienetan Luc oheraiño garaitzaille gaiñera! Gogortasunaren arrakastak. Annie hura ez, egia da. Baiña ulergarria zan: lehenengo aldiz abiatua zan Luc «flirt»en bide labaiñetan aurrera; eta Annie'ren «tout mais pas ça» baldintza hura, aski izan zitzaion lau bat hillabetez besterik ez billatzeko. Atsegiñen maldan beherako muga hura, dana dala, atsekabe gertatu zitzaion azkenean; eta Annie uztera eraman.

Laister aurkitu zuen Luc'ek, 1961-eko udaberriaren inguruan, Marthe emakume leguna, hogei-ta-bost urtetan senarrak abandonaturik. Zer egokiagorik Luc'en «abileziak» neurtzeko?

Ohaideen illara orduantxe hasi zan betetzen: Micheline aurretik, gero Olga... Gero eta errazkiago hartuak eta utziak danak. Sendimendua gero eta utrunago. Eta hauen arteko tarte hutsetan, Porte de Namur inguruko kabaretetara jotzen zuen. Zirudinez, ordaintzen diran emakumeak zitzaizkion Luc'i gero eta gogokoago; eta hauen artean jaun-da-jabe zan. Hauetako bat ere, besteak baiño kuttunago, Suzanne Duvignaud.

Nola ez Elsa'k azkenean ezer ere jakingo? Mirakuillu zan, hain zuzen, ia sei urte osotan istilluetarik batere ez iragaztea...

—Hobe diozu? —errepikatu zuen Elsa'k amorru betean. Hobe? Gezurra! Gezurra zuk diostazun guzia!

—Arren: ixillago. Ez nazazula nere onetatik atera. Ezagutzen nauzu.

—Noiz ezkerro da hobe emaztea pikutan egotea eta senarra maitalearen ohean? Orain ongi ulertzen ditut aldameneko dendariaren hitz ariñak eta zirto errukitsuak! Aluok! Ez dakit nola aurkeztuko natzaion iñori aurrerakoan. Nere sendimenduez, zertarako hitzgingo? Zer axola zuri? Iñoiz axolatu ahal zera nere kezkez?

—Nik neuk, huntara ezkerro, egia argi eta garbi...

—Gauza bakar batek kezkatu zinduen hasieran; eta hori ere, zer zan haragiaren jakin-miña baizik? Zer zan odol beroaren eskabideari segida ematea baizik? Zer izan zan Knokke'ko eroria, nere zoritxarraren hastapena baizik? Nigan nahi zenuena ez da nerea, emakume guziengan aurki ditekeana baizik!

—Huntara ezkerro, diot, egia argi eta garbi aitortzeko gertu nago! Ezari-ezarian zukanako nere maitasuna iraungi eta itzaldu egin da. Horra egia hutsa.

—Zer dakizu zuk maitasunaz? Esaidazu nere gorputzaz aspertu zerala, gauza bera berriz beste batengan nahi duzula. Zure maitasuna nahitasuna baizik ez da izan: ez da bihotzean sortu, eta ez bihotzean hil, beherago baizik.

—Berdin zait!! —erantzun zuen oihuka Luc'ek. Ez zaitut ez maite eta ez nahi! Gure artekoa betirako bukatu da!

Ba zekien hau Elsa'k. Baiña hortara entzun zuenean, lehenengo aldiz ikasi zuela esan zitekean. Ba zekien, bai, egia garratzak jakin ohi diran eran. Irakurria zuen amai hura Luc'en begietan. Luc'en jokabide lotsagaldia ez zan apalkiago mintzo; aspaldidanik nabaitzen zuen, bestalde, biak batera oheraturik ere, Luc'en zurrunga aspergarriak ez zirala iñoiz luzatzen; eta hitz legunak eta besarkada beroak aspaldidanik, txit aspaldidanik, beretzako bukatuak zeudela. Halaz ere, aurrez-aurre eta buruz-buru senarrarengandik hitz horiek entzuteak, min ikaragarria eman zion: eta bertan, belaun-koskorrek abandonaturik, erortzeko bildurrak hartu zuen. Maiñu-gelara jo zuen, barnetik kisketaz hetsiz.

—Ni gertu nago, halere —ekin zion kanpotik Luc'ek— itxuraz orain arte bezela jarraitzeko... Aditzen duzu?... Zure gurasoek eta lagunek bestela problema haundiak ekarriko dizkizute. Emakumeok,

bestalde, usuago begiratzan diezute itxurari eta esamesei, egiari baiño. Bertuterik gabeko entzute ona nahiago duzute, entzute onik gabeko bertute mardula baiño... Ez dakit aditzen nauzun... Nahiago duzun bezela, beraz. Aukera zazu. Nik, bestalde, egia esatea nahiago duzun ezker, danen berri emango dizut: nor maite dudan, zertan nagoen berarekin, zein teknika zaion atsegiñen, dana beraz... Nere pausu guziak ezagutuko dituzu, nahi baduzu. Nik aginduta. Zuk nahi duzun bezela...

Ate atzetik ez zan zipitzik entzun. Ezer igar ez zedin, musuzapi bat hertsiki hortzen artean heldurik, ixillik irauten saiatzen zan Elsa, ez beti arrakasta berberarekin: zotin izuti batzuk salatzen zuten.

Hozki esan zion hau guzia De Potter jaunak, aurretik uste izan zezakean baiño hozkiago; eta sukarraren ondoko laxatasun zoriontsua nabaitu zuen gorputz guzian: larru azala freskuago zitzaion gau hartan, eta bere burua ariñagotzat zeukan.

Elsa ordu erdi batez maiñu-gelan zai egon ondoren, oheratu egin zan. Luc lotan zegoen lasai.

Elsa'k ez zuen Luc'ez ezer jakin nahi. Hasieran baietz uste zuen; eta Luc'en proposamendua onartzekotan egon zan: Luc' ekin segi, eta danen gaiñetik egia osoa, mingarri izan arren, esan zizaiola. Baiña laister somatu zuen ezetz: eziña zala, egoera berriari jokabide berri bat zegokiola. Ez zuen ezertarako ikusi behar: nahiz hau batzutan gogor gertatu, nahiz barne-muiñetan senarrarengana joan nahi izan zenbait aldiz, nahiz leherturik ere. Ikusi ere ez. Kitto. Hauxe iruditu zitzaion helburua azkenean.

Ezer galdetu beharrik ez izateko, zorrik txikienik ere ez izateko, bere senarrarekin ez iñoiz egokitzen saiatzen zan, ez iñoiz ere agurtzen, ez iñoiz hitzik batere esan behar izaten. Luc'en bildur bide zan. Zergatik bildur? Ez zekien. Ez zan ausartzen ezta hortaz pentsatzera. Baiñan ez zuen ikusi ere nahi, ez zuen berarekin mintzatu nahi, ezabatu egin nahi bide zuen oroitzapena; ez bide zitzaion iruditzen beste biderik izan zitekeanik zauri ikaragarri hura sendatzeko. Ahaztu, berriz hasi, berriz jaio ahalean. Baiña funtsean, eta Elsa ez zan huntaz ohartzan, ez zuen bere burua sendatu nahi, ez hau denen gaiñetik behintzat: Elsa'k zigortu egin nahi zuen Luc; ez ikusiaz eta ez kasorik egiteaz, Luc'engan pentsatzen zuen, zauritzeko itxaropen izpi bat irazeki nahi zuen.

Ifernua mundu huntantxe izan zitekeanik ez zuen Elsa'k siñisten. Ez mundu huntan eta ez bestetan, Elsa'k ez baitzuen ez kristau federik eta ez erlijio-kezkarik. Bere gurasoen etxean, Jemappes'en, ez zan sekulan entzun «Jaungoiko» hitza birau egiteko ezpada. Bere aitak zionez «Jaungoikoa balego, putaseme bat izan beharko luke; baiña putetxeak burgesek sortu dituzte langilleen alabez ornituz.

Beraz Jaungoikorik ez dago». Harrigarria zan alde huntatik Elsa'ren axolagabetasuna. Zergatik ote zan etxekoa eta fidela? Gogotik farreragin zion Luc'i aspaldian: «apaizak eta frailleak, entomologoak zaizkit; eta ulertzenago nik xomorroak biltzea arimak salbatzea baiño».

Baiña kristauen ifernua Molière-kalean ezagutu zuen. Eta ifernuan kiskaldu ez baiñan izoztu egiten dala jakin zuen: «Oker daude kristauak puntu huntan ere», pentsatu zuen.

Atzeko gela txikian txukundu zuen bere bizilekutxoia Elsa'k, eta giltza bat erantsi zion ateari. Bestean, ordurartekoan, Molière aldera leihoak zituen hartan, Luc gelditu zan.

Zer hartuko, eta zer utziko gela hirukoitz nagusian? Banaketa egitean, hautsez beterik eta zoko batean konturik gabe pillaturik, lau urte ezkeroztik entzuten ez zituen diskoak topatu zituen, usteltzen abiatuak itxuraz. Banaka-banaka begiratu zituen maitasunez eta urruti-miñez, eta izenpuru bakoitzak landare-usai berezi bat zekarkiola zirudien: Grieg... Roussel... Bartok... Beethoven... Debussy... Beste pillo hestuaigo bat begiratzerakoan irribarre egin zuen: Marino Marini... Domenico Modugno... «Piove»... «Romantica»... «La più bella di mondo»... Hasperen bat irten zitzaion barne-barnetik: «Ma Chaumière»... Dieweg-kalea... Zenbat urte jadanik! Eta zein urrun eta ezeztaturik orduko itxaropen... guziak!!». Eta tentaldia ezin gairiditurik, begien aurrean zeukan disko bat jarri zuen «pick-up»ean. Silloi batean exeri zan, burua eskuen artean izkutatuz, eta negarra ezin idukirik entzun zuen, hitz bakoitza dastatuz:

*«Si les fleurs
qui bordent les chemins
se fanaient toutes demain,
je garderais au coeur
celle qui
s'allumait dans tes yeux
lorsque je t'aimais tant
au pays merveilleux
de nos seize printemps. PETITE FLEUR d'amour
tu fleuriras toujours
pour moi»...*

«Sidney Beckett! Hilla, baiña neretzako hillezkor!»... Nolako atsedena hartzen zuen Elsa'k negar ugari haiek ixuritzean! Begiak ditziranteago, begirada erromantikoago, edertasuna bera urrunago, Elsa Scheelen maitasunaren iturri garden oparo berbera bihurtu zan momentu hartan, XX-gn. mendeko Artizar berria, bihotzen zirragarri, penarik gogorrena eta amodioaren guna, gauza berbera balira bezela. Hamar bat miñutuz negar egin zuen, gogotik, zotinka, hasperenka; eta berriz jaiki zanean, lasaiago bide zegoen, ia-ia pozik esan liteke.

Lekurik ezaz azkenean, eta «biena» izandakorik ezer gelarara ez sartzera deliberaturik, berriz pillatu zituen berrehun diskoak, eta bazkaldegiko zoko berean utzi zituen, itxuraz lau urte haietan barrena bezin ahazturik. Hauxe izan zan Elsa hunkitu zuen bakarra. Gaiñerako guziari «agur» esatea, ez zitzaion oso garrantz gertatu. Egia esan, gaiñera, hantxe gelditu zan, ganberaren ondoan. Debekatua, baiña agerrian: gaitz-erdi.

Gauetan eta aste-bukaeretan zegoen beretzako istillu bakarra.

Astegunetan goizean goiz «Moderne»-garajera joaten zan Luc, Waterloo-Galtzarara. Hiru langille zituen bere zerbitzuan. Elsa, beranduxeago, De Rijke'rengana. Luc oso berandu oheratzen baitzan, ez zuten gauean ere alkar topo egiten.

Aste-bukaeretan zaillago izaten zan; baiña gehienetan ez zuten alkar ikusten: larunbatetako gaua, batez ere, oso gutxitan pasatzen zuen Luc'ek Molière-ko etxean.

Elsa'k ez zuen ondoko hau behin ere aitortu, eta ez sekulan aitortuko ere: bihotz ondoan astegunak jaiegunak baiño maiteago zituen. Alde batetik De Rijke'ren kontsultazioan ahaztu egiten zan bere egoera hitsaz; eta bestetik, gauean, ezin loak harturik esnai zegoenean, poz izkutu eta zorrotz batez betetzen zan bere bihotza Luc'en oinkadak entzutean. Ez zuen ikusi nahi, gorroto uste zuen bihotzaren erditik, hau guzia benetan; baiña, nola ukatuko, gaueko bakardadean pozgarri zitzaiola oso giltza-soiñu hura entzutea?

Elsa'k, behin xoilki, gurasoen etxean pasa zuen «week-end» bat Abenduaren hasieran; eta hortarako, azalpenak eman beharko balitu bezelaxe, ipuin oso bat asmatu zuen estakuru: ganbioi baten billa joan behar izan zuela Luc'ek atzerrira, eta abar. Baiñan amak ezer esan ez bazion ere, zerbait somatu zuela gauza ageria zitzaion Elsa'ri; eta geroztik bildur zan Mons'a agertzeko, eta ez zuen bihurtzeko kemenik.

De Rijke dentistak, bestalde, ez zion ezertxo ere galdetzen. Halere ageria zan Elsa ez zala lehengoa, bere eskuak nagiturik zeudela, bere begirada mutu bihurtu zala, lausokor eta argigabe. Bien arteko ixiltasun harek, hartara, De Rijke'ren susmoak izkutatu nahiz salatu egiten zituen.

Afal aurretik Elsa'k irratia piztutzen zuen, eta ezin jasan zituen musika-mota batzuk baizik: «ye-ye» dalakoa, «jazz» berri batzuk, eta horrelakorik. Beste guzietan sendiberegi uzten zuten, pentsakor, kezkatu. Sekulan baiño sakonkiago maite zituen Debussy, Ravel, Roussel, Dvoraks; baiña, hain zuzen ere, jasan eziñak zitzaizkion: taupada bitxiak hasten zitzaizkion bihotzean, eta neke berri bitxi bat; eta itzaldu egin behar izaten zuen. «Malenkoniaren seme da Artea; ez etsipen guzizkoarena», zion maiz. Erritmu haundiko gauzak nahi zituen horrengatik; eta batzutan dantzan hasten zan, gela txiki hartan bera bakarrik, denbora luzeaz, guztiz nekatu arte. Gero oheratu egiten zan, eta ezer seriotan ez pentsatzen saiatzen zan Harropen gorabeherak aztertzen zituen illunpean, sapaiera so, xehetasun guztietan. Biharamuneko janari-kontuak eta erosketaren gora-beherak ere gogoeta-gai egokia zitzaizkion. Luc bururatzen zitzaion nahi baiño maizago, baiña ahaztuz saiatzen zan berealitik. Lizunkeriarik ez zitzaion ia iñoiz bururatzen, nahiz ohe txiki hartan bakarrik egon, eta zazpi urtez (legez bederen) beti gizon baten ondoan lo-egin izan.

Halere, eta askotan egiazki nekatuta egonik ere, ez zuen beti errazki lortzen loak hartzea. Bost miligramotako «Beller-gal» pikorrak gero eta maizago hartzen zituen. Ezker aldera etzanda arnasa gaizki hartzen zuela iruditzen zitzaion, eta beti eskubi aldera jartzen zan, leihora begira.

Sukaldea eta maiñu-gela erabiltzen zituen egunez, egia da. Baiña bere etxea bestea zan: bere logela txikia, alegia. Paretetan foto eta tarjeta asko zintzilikatu zuen, eta mahaiñaren gainean barne-landare bizi berde batzuk ipiñi zituen apaingarri. Luc'en erretratu haundi bat han zegoen, Dieweg-kaletik aldatzean zintzilikatutik; eta laister atera zuen, eta bazkaldegira eraman. Luc'en karneta-argazki kaxkar bat ba zeukan, halere, 1957-ko udaran, Knokke'ko gertakariaren ondoren «bihotzez» berari Luc'ek eskeiña; eta hau, zergatik ez zekiela, patrika gorrian eraman ohi zuen, iñork sekula aurkituko ez zukeen tarte berezi batean; beti, halere, norbaitek aurkituko ote zuen bildur, hura eraman ohi zuela jakin zedin lotsaz edo; baiña, iñoiz argazkia ez begiraturik ere, beti ere han, patrikan, tarte berean gorderik.

Hasieran, ohiturari jarraituz, «Ekla» garagardoarekin afal

tzen zuen (bazkaldu De Rijke'ren kontsultazioan egiten zuen, bezperaz gertatutako txikieria batzuk bertan janez); baiña, behin ere pentsatuko ez zuena: garagardoa «hotza» iruditzen hasi zitzaion, eta 1966-eko hasieratik gutxi gora-behera, ardoa edaten hasi zan: «Troisfontaines», «Azpilicueta», «Beaujolais»... Bere poltsikuaren arabera aukera.

«Neure etxean katibu»... Eta iribarre egiten zuen.

V

Egunik gogorrena, dudarik gabe, Gabon-gauekoa izan zitzaion. Elsa'ren etxean Gabon-gauak ez zuen sekulan izan kristau kutsurik batere: Mons ondoko etxe hartan ez zegoen ez Jaiotzarik ez Noel-Zugaitzik, Noel'en Zugaitza bera kristau kutsukoa baitzitzaion Elsa'ren aitari: «Ipuiñak —esan ohi zuen Joseph Scheelen'ek— hobe luteke apaiz eta fraille alper horiek birjiñen ipuiñak alde batera utzi, eta gurekin mia-leizeetara jetxi».

Abenduaren 24-ean familia guzia bildu ohi zan Scheelen'en etxera. Ez zan zailla hau lortzen.

Elsa alaba bakarra zan. Hélène Auquier —Scheelen'en andrearen ahizpa mutxurdiña— Châtelet'etik etorri ohi zan, eta bere azkeneko «amoranteen» arazoak kondatzeko ez zan herabe (eta hau itsusia eta 68 urtekoa izaki!): alegia, nola zetorkion agurtzera arrastirian ez dakigu zein agure, beti irribarrez omen; nola beste senton bat exeri ohi zan bere ondoan elizaren ondoko aulki batean, berarekin berriketa egitera; eta abar, eta abar. «Arrakesten» zerranda ez zan bereala bukatzen: hura Brigitte ezezaguna! Izeba Hélène'k alaitzen zituen, egia esateko, bere zelebrekeria haiek zirala bide, afal ondoko solasak.

Soignes'tik etorri ohi zan, azkenik, Jacques Scheelen postaria, Scheelen'etan anaia gehiena, Monique izebarekin (gaur gaixo hau alargun): biak ez beste iñor Soignes'tik, seme-alabarik ez baitzuten.

Afarira joan ohi zan ere, senitartekoa ez izanik ere, Agostini siziliarra, mia sakonetan ondoko langille, berrogei urteetan orduan, eta aspaldi hartan Belgika'ra etorria.

Horra hor «zazpien familia»: «familia kidetasunak ematen baitu, eta ez jatorriak», etxeko jaunaren hitzez esateko. Ariña izan ohi zan alkarrizketa, burgesiaren kontra hitzegitea debekatua zan ezkerro; eta afaria aztuna, egiazko oturuntza ugari bat. Ardoa eta garagardoa ez hurriago; eta kartetan gero partida-sail bat, sos batzuk arriskatuz. Besterik ez.

Nola pentsatuko zukean Elsa gazteak afari xingle haietaz urruti-miñez oroituko zanik?

Baiña Molière'ko sasi-ostatu hormatu hartan («etxe» deituko ahal zaio halako saizulo bati?), joandako guzia billakatzen zan amets zoragarri. Eta ziñez esan zitekean Péguy'rekin:

«O Peine, assise au seuil du dur foyer,

O Peine, seule épouse dans la maison»...

Azkeneko aldiz 1962-an izan ziran Mons'en. Eta urte hartan trixte xamarra gertatu zan billera, danen oroimenean Soignes'ko osaba Jacky'ren hutsunea nabarmen baitzegoen.

Urrengo bi Eguberrietan (Luc'ekin pasa zituen bi azkenetan beraz), Antwerpe'n egon zan Elsa, Van Geenk'en etxe dotore zabalean. Jemappes'eko afariekin gonbaraturik, oso afari desberdiñak hauek. Antwerpe'n ba zegoen kristau usaiña, kristau kiratsa bederen, farisaukeria hartan kristau fede arrastorik ez bazegoen ere. Gauerdiko mezatarra joan ohi zan jende elizkoi hura, esate baterako, janariak eta edariak zerrepeldurik; eta mezaren ondoren, jateari eta edateari jarraitzen zioten. Hizketa-gai bakarra diru-kontuak ziran: ekonomia, negozioen gorabeherak, azken erosketak, amerikarren lantegi berriak Lie- ja'ko autorrutaren ertzeetan, eta abar. Ez elizan eta ez Van Geenk'en etxean Elsa'k ez zuen erdia ere ulertzen. Flamenkera entzun behar harek nazkatu egiten zuen: farragarri ere iruditzen zitzaion hitz ezagun askoren akabera flamendarrek nola «aldatzen» zuten; Elsa'ren ustez, «frantsesetik berezi nahi eroan». Jende asko bildu ohi zan hara: hogeitau, hogeitau ta hamar bat lagun: Waloniar bakar bakarra Elsa zan. Luc'ek sarri uzten zuen Elsa senide arrotz haien artean, atsekabe izan zekioketanik pentsatu ere gabe; eta Elsa'k giro hartan nabaitzen zuen bereziki bere senarra beste mundu bateko seme zala: diru-maillaz, pentsakeraz eta hizkuntzaz. Antwerpe'ko billera hartan gertatzen zitzaion mintzatu eziaña, bere egoeraren irudi zuzen-zuzena iruditzen zitzaion.

1965-ekoa, halere, okerragoa izan zan Elsa'rentzat.

Ez zuen hunek bere gurasoen etxean ezer aitortu nahi: zertaz lotsaturik ez izanik ere, lotsa zan puntu huntaz; eta bera bakarrik Jemappes'era agertu ezkeru, noski, Luc'ekiko saltsa guzia agiri-agirian paratuko zuen amak, zenbait astez lehenagotik zerbaiten susmoa hartua baitzuen. Kalez kale ibiltzerik ez zeukan, bestetik: egun hortan bereziki, eta emakume bakar bat gutxiago. Bildur zan, azkenik, Luc bere gelara ager zekion Molière'n gelditzekotan: ez zuen hau iñolaz ere nahi. Gela txikian sarturik, giltzapeturik hobe, baillara ez bestera so, bildur zan oso; bere buruaren bildur baitipat.

«Bellergal» mordo bat hartu, eta luzaz lo egiteko asmoa bururatu zitzaion; 26-a arte, esate baterako, kolpe batez; baiñan ez zan ausartu. Hiltzeko bildurrak ote? Ez, ez. Munduari on deritzatenak ez beste dira heriotzaren bildur; eta Elsa etsia zan biziaz, barnetik hustuta, danaz arrunt gogaituta. Zergatik, beraz, hiltzeko bildur? Etorkizunik gabekoen emazte laztana da heriotza.

Beste gauza batez bildur zan: beharbada lozorro sakonean eror, edo beste edozein harrigarritan, edozergatik saizulo ixil hartan bere burua nabarmen; eta Luc konturatzeaz, Luc'ek hortara Elsa'ren etsipenaren etsia jakiteaz, egia Luc'en begietan agertzeaz. Zurrunga bitxiak kanpotik entzutea aski litzake, esate baterako, atez bestaldera orro harrigarriren bat, antsia bat Elsa'ren arnasa larrian,

edozer. Eta hori gertatzera, Luc gelara indarka sar, salbatzaille gisa, bizia bera Luc'i zor izan azkenean! Bizi-higuiña oharkabean sala, eta batera mesede bat eskertu behar... Etxearen alogera eta argia eta ura eta gaza, dana, Elsa'k ordaindu zuen Azaroan; eta Luc'ek erreparatu ere ez itxuraz. Nahiago hau, halere, zorrik txikiena, hobaririk apurrena ixtimatu eta ordaindu behar baiño.

«Bellergal» en ordeztu «Martini» gorri botilla pare bat erosi zuen, mozkor «demas» eta oso bat harrapatzeko delibero irmoan.

Azken bolada hartako ohiturari jarraituz, afari arin bat egin zuen: lata kaxkar bat «tartine» mehe batekin, eta platano bakar bat. Eta «Martini»ari eman zion: baso bat, eta beste bat, eta hirugarren bat, hirurak gaiñezka beterik. Irratia piztu zuen, eta dantzan hasi zan. Musika alaia zitzaion, «rock» asko beharrik; baiña tristura illun bat gainditzin hasi zitzaion. Hau garaitu nahiz, ekin egin zion edateari, eta berotasun eramangaitzez bete zan:

—Nork nahi nau? —entzun zitekean irratikako musikarekin nahasturik.

Eta farre egiten zuen algaraz, eta mogida lizunak egiten, ez hurri; eta dantzari ekiten zion. Lehendabiziko botilla bukatu bezin laister, bigarrena ideki zuen; eta, ahal zuen modura, gero eta nekezago, burua gero eta galduago, dantza eta dantza.

—Ez nau iñork nahi? Gizon guziok zerate bildurtiegi!

Leihoa zabaldu zuen, eta haize hotza sartu zan tartetik. Leihoan gelditu zan Elsa, azkenean hatsaturik. Baillako lurra bustirik antzeman zuen, eta hezatasun sarkorra.

—Toujours de la flotte! J'en ai marre! —egin zuen karrasi zorrotz bat baillan. Erantzunik ez iñundik.

Atzera egin zuen, eta konturatu orduko ohean exerita zegoen. Tristura danari gaillentzen zitzaion, marigoran olatuak hurrek hondartzan eraikitako ontziei bezela; eta berotasunarekin batera gora zijean. Beroak kiskaldurik, etxe-zapatak erantzi zituen, jerseia eta gona urdiña kendu, eta berriz jaiki zan, oso nekez, gaiñerako harropa arin hura ere gehiegizkoa zitzaiolarik. Baiña zerraldo erori zan, eta ia billuzik alfonbraren gaiñean loak hartu zuen...

Biharamunean, buruko oiñaze ikaragarriaz minduta esnatu zan. Irratia piztuta zegoen, baiñan ez zan ezer entzuten: zirudienez, mahaiñetik eroria zan. Egunargia kanpoan. Gelan hotz izugarria: besoak, iztarrak, sabela bera, muiñetaraiño izoztuta. Elsa dar-dar, ezin eskuratuzko ikaran, 41 gradotako sukarrak hartua balitz bezelaxe. Leiho-alde bat guztiz zabalik. Bere burua begiratu zuen, eta izutu egin

zan: «itxura ederrean iku-i naute hauzokoek». Ahoaren ondoan, alfonbran, tatxa haundi itsusi gorriska bat ageri: konturatu gabe, erruz oka egin zuen gauean zehar. Nolako kiratsa danari! Nolako hotza hezurretan beretan! Nolako buruko min bortitza batez ere!

Jaikitzen saiatu zan, baiña zorabio batek joa berriz erori zan. Estali egin nahi zuen bere gorputza, baiñan eskuarrean deus ez. Bere besoaren azpian hotz heze berezi bat nabaitu zuen: bere okaegiña zan, arras hoztuta. Usaitzeko burutazio zorigaitzokoa izan zuen, eta goragaleak berriz etorri, eta alfonbran botatzen hasi zan berriz, oiñaze bizitan, behazuna esteetatik beretatik atera behar bazitzaion bezela. Aurtiki ahal zuen guzia, agiri zanez, han zan, alfonbran. Behazunezko zurrutada garratz bat egin zuen, eta gero beste bat, eta... Zein galesti kobratzen zion gorputzak bezperako atsegin apurra!

Azkenean, laugarren edo bosgarren saialdian, leihoraiño iritxi zan zabuka, eta hetsi egin zuen.

Nolako buruko miña! Nolako hotza! Elekrika-berontzia ere piztuta zegoen, bai, eta gori-gori; baiñan ez zirudien, benetan. Bi aspiriña irentsi zituen urik gabe, alasan zeuzkan jersei guziak gaiñean jarri zituen, eta hiru gona ere bai, berriz bata bestearen gaiñean. Ezin berotuko halere?...

Gela hirukoitz nagusira irten zan: Luc'en arrastorik ez. Sukaldera joan, eta esne eltzeto bat surtan jarri zuen. Eta mingaiña kiskaltzen zitzaizolarik, zurrutada batez edan zuen.

—Eta hemendik astebera berriz istillu berbera? Ez horixe... Urte-Zaharrean, bestalde, gutxiago nabarmenduko naiz kaferen batera bakarrik joan arren.

Eta hala egin zuen.

Moltsaren aldera jo zuen zazpiak aldean; eta ordubetetsu guzietan aldatuz, kafetik kafera aldatu zan gaueko hamabiak entzun arte. Leku guzietan dantzan ikusi zuen jendea, urtebete galdua ospatzeko nunbait; eta dantza-egin-behar zentzu- gabe harek Zorba Greziarraren azkeneko dantza burugabe hura gogoratu zion: «dantza egiteko arrazoiñik ez dugunean hain zuzen erabakitzen bide dugu dantza egitea geure buruari eta geure tristurari iseka egin nahi bagenie bezela».

Bi aldiz atera-arazi nahi izan bi gizonek, milla losentxa eta aitzakia asmatuz; baiña norbaiten zai zegoela esan zuen Elsa'k bietan, eta paketan utzi zuten.

Etixerakoan ez zeraman irteeraz kutsu txarrik.

Eta burutazio bat izan zuen: «Zergatik ez bakarrik joango ni neu Andaluzia'ra? Nork debekatuko dit? Luc'ek?... Bakarrik joanik ere eguzkia hantxe aurkituko dut; eta ba dut horren beharrik. Zergatik aspertuko, bestalde? Nork daki? Gaur ez dut gaizki pasa».

Vleurgat'eko «International School» era bihurtu zan berriz urrengo astean:

—Barka nazazute: lan haundiegia izan nuen orain dala lau hillabete, eta horregatik ez nintzan hasi. Hitza jan nuen, eta damu dut ez etorria. Oraingoan etorri egingo naiz, benetan.

—Ez duzu azalpenik eman beharrik, andrea. Zeure kontua da noiz hasi nahi duzun.

Liburuak miatu zituen, eta bereala ekin:

—Bai, hemen ikusten dut: De Potter andrea. Irakasle: Loza jauna. Astean bi aldiz. Hortantxe zaude oraindak?

—Bai, bai: ez naiz iritziz aldatu.

Handik irtetzean Espaiña'ri buruzko «Guide Bleu» dalakoa erosi zuen. Ba zeukan aurrerakoan gauetan zer irakurririk eta zertaz amets egiñik.

VI

—Buenas tardes, Sra. De Potter —esan zuen Loza irakasle ñarro beltzaranak. Eta besoaz bere nahia argituz, eta hitzak poliki-poliki emanaz, bigarren herrenkadan exeritzeko eskatu zion Elsa'ri. Ikasle guziek batera frantsesez azaldu zioten egin behar zuena.

—Milla esker —esan zuen Elsa'k pittin bat ez-erosorik.

Gela txikia. Eskuin aldean Espaiña'ko mapa bat eta arbela bat, guztiz beltz hau, izkriburik batere gabe. Hamar bat mahain, bi lerrotan jarriak. Sapaia oso gora. Ezkerraldean, Vleurgat-galtzararen aldean, leiho zabal bat. Lau emakume eta gizaseme bat aurrean, eta beste gizaseme bat atzean.

—¿Ha comprado ya usted el libro que seguimos aqui?

«Il vous demande si vous avez déjà acheté le livre du cours», entzun zuen Elsa'k bi aldetatik.

—Ez, ez dut oraindik erosi.

—Jar zaitetz nere ondoan —esan zion irribarrez atzeko herrenkadako gizaseme batek, flamenkerazko doiñu nabarmenaz.

Konturatu orduko Elsa exeria zan hunen ondoan: —Arratsalde on, jauna, eta anitz esker —esan zion aurreko ikasleak berriz ere aurreruntz begiratzen zutela ikustean lasaiturik.

—Vanden Broeck deritzat, Jean Vanden Broeck. Eta zuri? —entzun zuen ahapeka.

—De Potter andrea neri.

—Atsegiñez ezagutu —erantzun zuen Vanden Broeck'ek.

Liburura begiratzen zuen Elsa'k, gauza haundirik ulertu gabe egia esateko; baiña Vanden Broeck harek ezta hori ere. Elsa ia-ia lotsatua zan; eta Loza jaunari laguntza eskean begiratzen zion. Ordubete hartan ezer gutxi ikasi zuen Elsa'k, noski; baiña are gutxiago Vander Broeck'ek, hunek bere eskolakide berria baizik ez baitzuen begiratzen.

—Nik laguntzea gaitzi zaizu? —galdetu zion irtetzean hogei-ta-hamabost bat urtetako jaun plantako harek.

—Ez, ez. Ez zait gaitzi. Molière aldera noa ni.

—Ongi da. Lagundu egingo dizut.

—Ezer konprenitzen duzu Loza'k hitzegiten duenean?

—Gaur ezer ez!

—Eta biak farrez hasi ziran.

Españiar hizkerari buruzko zailtasunaz mintzatu ziran; gero Espaiña'ri berari buruz, eta gero ordurarteko beren biziez.

Harrituta zegoen Elsa etxera sartzerakoan. Harrituta zeren ordu erdi batean Vanden Broeck ez-ezagun haren bizieraz eta izaeraz asko ikasi baitzuen; eta areago, axalez bederen, Vanden Broeck'ek Elsa'renaz. Nola hori? Ez zekian. Aspaldidanik ezagutzen bide zuten alkar.

Vanden Broeck holandarra zan, ezkongai, eta Amsterdam'en bertan zuen etxe bat. «Philips»ek Belgika'tik Txile'ra bidaltzeko asmoa zuela, eta espaiñeraz ikasteko agindu zion. Hillabete hartantxe hasia zan, hain zuzen, ikastaroa.

—Ezin ederragoa zera, benetan —esan zion ausarki Vanden Broeck'ek Molière'ko etxe-aurreko burdin-hesian.

—Ez da nere errua. Jaungoikoak hunelakoa egin nau —asmarazi zion Elsa'ri ateka hartatik jaregin nahiak. Vanden Broeck'ek ez zuen ezer erantsi, eta agur esan zion. Baiña zutik gelditu zan hantxe, eta Elsa satora sartu arte begiratu zuen zirkiñik egin gabe.

Elsa pozik zegoen. Adiskideago agertu zitzaion gelatxo bakartia bestetan baiño. Eta ez zuen Luc'en giltza-soiñua entzun loegiterakoan.

Otsaillaren 18-an illun eta hotz arratsaldeko zortziak eta hamarretan. Ostirala.

Elsa'ren ganberako atean norbaitek deitu zuen eskuaz. —Nor da hor? —Elsa' harriturik galdetu.

—Luc naiz. Zurekin hitzegin nahiko nuke.

Elsa'k ispilluan begiratu zuen bere burua: bere illea narratx iruditu zitzaion, eta bere masaillak zurbil. Bi eskuez ariñiketan ferekatu zuen aurpegia.

—Ideki zazu atea, arren —ekin zuen Luc'ek.

Elsa'k ez zekien zer erantzun. «Bai itsusia nagoela gaur!, esan zuen ahapeka. «Hau zorte txarra!». Eta illea pittin bat orraztu zuen. «Luc??»...

—Bai. Ba noa.

Nola ideki zuen? Zergatik ideki zuen? Ez zekien.

—Gabon, Elsa. Aspaldi huntan! Zer egin ohi duzu? Ez zaitut iñoiz ikusten.

—Hori esan behar zenidan? —erantzun zion Elsa'k zakarki, atea erdizka baizik zabaldurik ez zeukala.

—Ez, ez. Gauza asko nahi dizut esan. Goazen hor nunbait alkarrekn afaltzera. Goazen «Wagner»enera, Grand Place'n esate baterako. Ez zera gogoratzen? Ez zan Otsaillan, baiña...

Bihotzean zauskada bat nabaitu zuen Elsa'k. Ezetz esan behar zuen, eta ez zuen «ez» esan.

—Han berandu arte afal diteke, eta orain zerbitzari dagoen alemaniar emakumeak ezagutzen nau.

Min eman zion xehetasun hunek Elsa'ri; baiñan ixildu egin zan: «aitortzen ez duena okerrago da hau baiño».

—Brugge'tik egun hartan itzuli giñanean berandu zan... Geroztik zazpi urte, Elsa... Erdiko Geltokian jetxi giñan hamar t'erdiak aldean, eta han afaldu genuen. Hantxe galdetu nizun...

—Bai, ixo arren!

Barne-poza berriz ezin izkutaturik, ahalik eta hotzenik agertu nahi zuen Elsa'k, eta atea ez zuen osoki zabaldu.

—Zer, Elsa? Bai ala ez?

—Ongi da. Emaizkidazu hamar miñutu.

Eta maratillaz hetsi zuen atea.

Jazterakoan galtzerdi bat urratu zitzaion, eta atzeko botoiak oso nekez lotu. Hura eziñegona! «Luc'ekin berriz?... Nork esango atzo berean?». Otoitz egin nahi zuen eskerrak emateko, baiña nori ez zekien...

...«Wagner»enean jende gutxi zegoen; eta Grand Place'n iñor ez, ezpada «Roi d'Espagne»tik sartzen eta ateratzen ziran gazte taldeak. Leihotik ezer ikusgarririk ez zegoen ezkerre, atzeko aldera jo zuten De Potter senar-emazteak, barraren ondoko mahain txiki batera; eta, Elsa'k hala eskaturik, aurrez aurre exeri ziran.

—Proposamendu bat egin nizun nik orain dala lau hillabete. Ez dut sekulan erantzunik izan.

—Zein?

—Egia osoa jakin nahiago bide duzu, egia zenbait aldiz garratza izanagatik ere. Nere berri zuri kondatzeko gertu nauzu.

Jakiñarazi egin nahi zizkion Luc'ek bere gorabeherak, bere maitasunezko balentriak eta arrakastak. Huntaz bere emazteari hitzegitea ez zitzaion gogorra, atsegiña baizik. Emakumeak berak maite zituen Luc'ek, dudarik gabe, jostailluak haurrek maite dituzten bezelatsu. Ez zuen iñoiz pentsatzen, esate baterako, emakume bat beregatik benetan zorigaiztoko izan zitekeanik. Maitasun-samiñak olerkarien belaskeria hutsak iruditzen zitzaizkion, maitasunean haragiaren atsegiñaz kanpo ezertxo ere somatuko ez balu bezela. Emakumeengandik lortzen zuena Elsa'ri kondatzea, hildo berean, kilikagarri zitzaion, atsegin mota berri bat, sadismo zantzu bat. Atsegiñaren billaketan, beraz, emakume bat atsegiñez eta beste bat atsekabez betetzea bururatu zitzaion. Pozik haundiena, beraz, Elsa'ri dana xehetasunez, haragia asaldatzen dituzten xehetasunez batez ere, azaltzea zitzaion. Emakumeen bihotzaz jabetzea hutsa zitzaion, «ipuin» bat; haragiaz jabetzea, hobe baiñan ez aski; denbora berean beste bat sofriaraztea, egiazko betetasuna. Proposamendu hura, hitz batez, ez zuen Elsa'ren interesetan egiten, bere buruarengatik baizik.

—Suzanne'ri buruz hitzegin nahi didazu beraz? —galdetu zuen Elsa'k alegiazko mespretxuz.

—Hura aspaldi bukatu zan.

—Nola aspaldi? Aspaldi eziña da.

—Egia duzu: hiru aste dira. Aspertu egiten ninduen azkenean, eta ez dut azken bolada huntan birrikusi. «Moderne»ra behin eta berriz deitu izan du, baiña behin eta berriz ere ez nagoela esan diote. Nolako aztuna jarri zan! Nere agindua garbi dago: «De Potter jauna ez dago Brusela'n».

Zergatik poztu zan Elsa izkutuan? Nun ote zan aurreko asteetan bildutako gorroto-mendia? Bihotzak opa duena siñisten dugu maizegi.

Afaria aurrera zijoan, eta Elsa'ren poza gero eta nabarmenagoa zan. Halako batean parre-algara zalapartatsu bat ere geldiarazi behar izan zuen erdi lotsaturik.

—Zure tristuren erdian aisa aurki dezakezu pozgarririk, ikusten dudanez —esan zuen Luc'ek. —Nik, ordea, nere atsegiñetan eta menturetan murgildurik ere, egarriak nago, eta illun; eta zergatik biziko ez dut ikusten...

«Luc ez da aldatu», pentsatu zuen Elsa'k. Zenbatetan ez zion horrelakorik entzun lehenengo urteetatik beretatik?

Zirrara hotz batek astinduta, «Wagner»eneko pareta-lanpara bati so pausatu zitzaion begirada Elsa'ri, gogoetan galdurik... «Ez da aldatu»...

...Ilgande batean zan... Gaueko bederatziak, euria beti ari; eta Antwerpe'tik Brusela'rako autorruta oso labain... Luc ixillik zegoen. Ixillik zirauen hobe, Porsche'aren gidoiña helduta, arratsalde guzian barrena hitzik batere ez baitzuen atera...

—Elsa —moztu zuen ixillunea abots harrigarriaz—. Zugaitz horiek ikusten dituzu, bide ertzetik haraxeago?

—Berebillaren markagailluak 140 km/o.

—Bai. Zer ba?

—Zergatik ez beretara jo? Eta kitto Markagailluaren argi-printzei esker, Luc'en begien ditzira ikusi zuen Elsa'k; eta piztia bildurgarri baten begirada antzeman zuen; eta konturatu orduko karrasi zorrotz bat bota zuen.

Urrengo xegunduetan zer gertatu zan ez zekien. Porsche berriak jauzi zakar eta bortitz batzuk egin zituen kamiñoaren ertzean, eta handik laister, motorra eta kristal-garbikaillua gelditurik, eta batere argirik gabe, lokamuts batetik geure baitaratzean

bezela iratzartu zan Elsa. Zugaitz baten enborra ondo-ondoan erreparatu zuen, bizpahiru dezimetrotara. Berebillaren karrozan tanto lodien «tok-tok» soiñuek xirimiri fiñaren xurrumurru ezti jarraikia eteten zuten... Luc'ek lasai lasai galdegin zuen: «Zergatik egin duzu deihadar hori? Dagoeneko egiña izan zitekean. Izutu egin nauzu, ordea, eta ez dugu jo. Tamala izan da, benetan... Ixtripu bat gehiago, zer axola munduari? Bost lerro «Le Soir»en eta hamabost «La Lanterne»n. Eta gu biok geure buruengandik libro!»... «Ez duzu aditzen? Zer ari zera pentsatzen?», entzun zuen Elsa'k oso urrutitik bezela.

—Zer dudan? —Arnasa hartu zuen sakonki. —Ene, ene'. Nolako izua! Burutik egiña zaude? Eroa zaude?? —Elsa'k karrasika.

—Zertarako bizi gera gu? —jarraitu zuen Luc'ek lasai. Zer espero duzu ezertatik? Zerk biziarazten zaitu zu? Ez duzu ezta seme-alaben aitzekiarik. Heriotzaren bildurrak? Ni neu aspertu egiten naiz; gero eta sakonkiago. Eta zu, Elsa?

—Utz nazazu pakean. Urrengoan, bakarrik joango zera kotxe huntan. Zure burua ziurkiago hiltzeko nahi zenuen Porsche hau?

—Bai. Azkar ibiltzeak baretu egiten nau, hiltzeko arriskuak areago. Hiltzeak arras egingo ninduke...

—Tira, Luc. Egin atzera, eta goazen etxera: aski izan da gaurkoz. Gauza bat agindu behar didazu.

Kotxeak habailla haundian igarotzen ziran autorrutatik, atzetik hezetasunezko aztarna txixtukari bat utziaz; eta bat ere ez zan gelditu.

—Heriotzak bizi gaitu, Elsa.

—Gauza bat agindu behar didazu: ehunetatik gora ez zerala pasako; bestela...

—Maitasuna? Ez da egia. Olerkarien hitzez egiña da.

—Agindu zaidazu esan dizudana, ala ez noa... —Haragia? Laister iraungitzen dan atsegin-garra.

—Entzun Luc, ala ba noa.

—Dirua? Dirua bai. Baiña maitasunik eta haragiaren atsegiñik gabe, zertarako? Beren burua biltzen ez duten agure guziak zozoak eta eroak dira!

Elsa irten egin zan Porsche'tik, eta autorruta aldera joan zan korrika. Bere ondotik, bandik laister, Luc bere berebillan pasa zan atzeraka; eta ezer galdetu gabe, Brusela aldera jo zuen. Elsa'k, illunpe euritsuan, «auto-stop»en kiñuak egin zituen hamar bat miñutuz...

...Luc'en «zergatik biziko ez dut ikusten» hitzak aidean bide zeuden oraindik, oroitzapenaren giro garratzean nahasturik.

«Neuk ere ez», erantzungo ziokean Elsa'k gogotik beste edozein egunetan. Baiñan egun hartan ez:

—Ez duzu maite. Hori da kakoa, Luc.

—Zertan ari zera orain? Debussy'ren soiñu aspergarri horietakoren bat irudimenez entzuten? Ez duzu konponketarik, Elsa: beti ametsetan, beti hodeietan bizi.

—Orain harrapatu zaitut, Luc. Oraindik ez ahal zera konturatu gure diskoak aspaldidanik zoko batean pillaturik eta hautsez beterik daudenik?

—Irratian entzun dezakezu halere.

—Ezin nezake, hain zuzen!

Ez zuen jarraitu. Aurreregi zijoala garaiz konprenitu zuen. Luc'ek irribarre egin zuen, eta eskua hartu zion:

—Oraindik ere pittin bat maite zaitudala iruditzen zait. Baiñan ez zaitut zu maite, ba dakit; eta zeuk ere ba dakizu. Bekaitz natzaizu, hau bai, bizian siñisten duzulako.

Elsa lastu egin zan: «Ni baiño etsiagorik izan ote diteke, hortaz, munduan?»...

—Nik bizian siñisten? Gehiegi sofritu dut dagoeneko: nere lillurak listu egin dira, nere nahikundeak hutsean suntsitu. Lokamuts lantsurik ez dudan gauetan, ez dut ametsik batere egiten. Eta hau aspaldidanik. «Ma Chaumière»ko garaietan, ordea, gaeuz eta egunez nengoen ametsetan.

—Ez nauzu siñistuko, Elsa. Baiña zoritxarrekoa naiz aspaldidanik. «Ma Chaumière»ko lehenengo urte hura ken, eta benetan esaten dizut: haizea izan da geroko guzia, axalekoa, ase ala gogaitu nauen atsegin-egarri hutsa.

Luc'en eskuaren bero ahaztu hura senditzen zuen Elsa'k, eta azkeneko hitzak ez zituen xuxen ulertu. Vanden Broeck'en irudiak txinparta batek bezela gurutzatu zuen haren barnea, eta ezabatu egin zan.

Berebillean sartu ziran goizik, etxerako bidean; eta hitzik esan gabe Luc'ek hertsiki eta ustekabean besarkatu zuen Elsa Grand Place'n bertan. Aspaldi hartan, sekulan ez beharbada, ez zuen hunek halako zorion-dardararik senditu; eta Luc'ek odola zirakiola nabaitu zuen...

Molière'ko burni-hesiaren atea eskuaz bultzatu zuen Luc'ek: bustia eta hotza.

Ezer esan gabe, bost miñutu baiño lehenago Elsa'ren gela txikian zeuden biak ohe berean; eta biek batera nabaitu zuten argia itzaltzeko behar gorria...

...Noiz ezker ez zuen Elsa'k halako gau malkotsurik igaro? Ezin esan. Otsailleko ostiral gau hotz hartan siñistu zuen, dana dala, barne-tristura latzak ez baiña pozak ixurarazten dituela negarrik oparoenak. Musutan eta atsegiñetan itotako zorion-malko etengabe haiek ezagutzeagatik, aurreko sofrikari guziak onartu uste zituen. Berriz ere lau hillabete haiek (eta aurrekoak!) jasango zituela iruditzen zitzaion. Nola ordain halako momentuak?

Urruti zegoen Luc emaztearen pozkariotik: «Datorren udaran Andaluzia'ra alkarrekin joango gerala ere, ez ahal diot ba berriz agindu azkenean?»... Harrituta zegoen: zorionaldi hura hondatzen ez zan ausartu: Micheline Degroot'ekiko «flirt» berria xehetasunez eta gaixtoki aipatzeko asmo tinkoa hartua zuen atea jotzerakoan; baiña atsegiñaldi hura lardazkatzea zillegi ez zitzaiola iruditu zitzaion, eta ixildu egin zan. «Hau belaskeria!»... «Beste batean kondatuko diot»...

Gau hartan Elsa'ren arnasa geldia entzun zuen bere eskubian, eta ez Micheline'rena ezker aldean. Illunpe ixil hartan, paretetako apaingarriak begiz berezten saiatu zan ohetik, loak hartu eziñik: «Nere foto alerik ez bide da hemen agiri... Emakumeak beti egia izkutatzen»... Ez zuen gela hura ezagutzen.

«Besterik merezi ote duk —berekiko esan zuen irribarrez— senar zintzo eta fidel horrek?». Eta loak hartu zuen.

VII

Hiru egun geroago De Rijke'k garbiki erabaki zuen:

—Bihar arratsaldean ez dugu lanik egingo, Elsa. Laurak arte errezebituko ditugu behar gorria duten bezeroak; eta gero kalera. Zer iruditzen zaizu? Iñaute-Motzean jai-erdi bederen!

—Neri oso ondo, ba dakizu. Urtero hala egin ohi dugu, eta asmo hori txalotzen dut.

—Ezer interesgarririk egiteko asmorik ahal duzu? Nungo iñauteria ikustera zaramazki aurten De Potter jaunak? Eupen' goa? Hasselt'ekoa? Aalst'ekoa? Halle'koa? Binche ez dizut aipatzen: zu Mons'ekoa izanik... Jemappes'ekoa, barka!

—Ez dakit, jauna. Iñora ez, nere ustez. Biharko asteartea beste astearte pipergabe bat izango da, nik uste.

Eta hau esanda ixildu egin zan. Zerbait bederen jakin nahi zuen De Rijke'k, eta erantzun hori entzunda ba zekien: «De Potter gizatxar horrek ez luke iñoiz nere barkamendua lortuko».

Elsa'ren arima beste norabait aldatu bide zan: «Nola siñistu ote nuen nik ezer ostiralean? Esan egin zidan, gaiñera, maite ez nauena, nigan ez duela ikusten atsegiña gaztetan ezagutarazi ziona baizik, gure artean ez dagoela zalantzaren bizigarririk, ahal izanak igartu duela bere griña... Eta larunbat eta igandean han utzi nau. Berriz ere zai, berriz ere alperrik zai, ametsak berriz ere hauts bihurtuz. Enea da errua. Garbi esan zidan-eta beregan ez siñisteko...

—Ez, ez De Rijke jauna. Iñora ere ez —erantzun zuen barne-tragedia ezin izkutaturik.

Astearteko bost et'erdietan agur egin zion De Rijke'k biharamuna arte:

—Barka, Elsa. Beranduago da nik uste eta nahi nuena baiño. Zerbait egiteko beta izango duzu oraindik. Ongi izan.

Elsa poliki-poliki etxe aldera abiatu zan.

Eskallera igo zuen, giltza sartu, eta bapatean harritu egin zan: telebixta piztuta bide zegoen, eta dantza-musika entzun zitekean barruan ataritik. Luc han zan, ez zan dudarik. Nor bestela? Nola ukatuko, beraz, itxaropen izpi bat sortu zala Elsa'rengan, eta laister hazi? «Nere zai ote?»...

Giltza jiratu, atea bultzatu, eta bihotzaren taupadak arindu eta asaldatu egin zitzaizkion osagille bat bildurtzeko moduan. Halako zerbait zitzaion infartua lokamutsetan. Bere senarra orduan bizi zan aurreko gelaren atea zabalik zegoen, eta Luc dantzan ari. Urteetan zehar ezkon-gela izandakoa, dantzaleku bihurturik... Nor zuen dantzakide? Elsa'k ez zekien. Ez zuen Micheline ezagutzen. Oso neska gazte batek, hemezortzi-hogei urtekoa itxuraz, Luc'en aurpegiaren kontra jartzen zuen berea, zerbaiten billa urduri ari balitz bezela. Zapatak erantsita zeuzkan, eta ille xerlo luze kirruiek bizkar billoizaren larrua estaltzen zioten tarteka. Neskaren jazkera ariña, erazkera deitzea zuzenago, bi pieza soilletan, egokia gerta zitekean udaran De Panne'tik Zoute'rako itsasertzean; baiña Otsaillean, eta Molièreko lo-gela nagusian, ez zeukan azalpen bat baizik: ohe-aurrea zan, eta Elsa ez zan huntaz okertu.

Ur izoztu kupela oso bat ixuri bazioten goitik behera, ez zuen halere Elsa'k bizkarrean hotzago sendituko. Zenbat iraun du zuen lokamuts-ikustaldi harek? Xegundu batez ote? Hor nunbait. Salacrou'ren esakuntza bortitza egoki legokioke: «Rien n'a plus de sens, sauf la solitude et la mort».

Atea kontuz hetsi zuen, eta haztamuka —eskallerako argi itzalia berriz piztutzeko ideia gogoratu ez zitzaiolako— sotoraiño jetxi zan.

—Arratsalde on —esan zion Vanhecke'k, bigarren estaiako hauzokoak, Elsa'ren ondotik pasatzerakoan. Baiñan Elsa'k ez zuen ezer entzun; eta ez erantzun.

Burni-hesiko atea zabaldu zuen, barneko alderuntz erakarritz; eta burnia izoztuta zegoela ez zuen erreparatu. Kalea piztuta zegoen, eta noizean behin tranbia baten soiñu urruna entzuten zan. Nora joko? Ezkerretara? Eskubitara? Ez zekien. Ibilli egin behar, hori bai, nora nahi. Heriotza bera berdin zitzaion. Berdin ez: desiragarria, desiratua, hirrikitua bapatean. Lehenengo aldiz egia esateko?

Bularrean nabaitzen zuen ziztada zorrotz sakon hura ez ote zan gertuko heriotzaren zantzua? «Hala biz», esan zuen.

Eskubi aldera jo, eta Porte-Louise'runtz abiatu zan. Etxeko ikuskaria oroimenean zeukan hiltzaturik, aurrean beti ere; etxe eta zugaitz illarak ikusi beharrean, soin eder, gazte, maitekor, zoriontsu haren larruaren irudia zekusen; Molière'ko pareta sakratu haien artean, nabarmen eta laidogarri, beste

emakume bat, bizi baten betiko galgarri. Kaleetan barrena ibilli arren, oiñak hotzik zeuzkan, izoztuta benetan; eta burua aldiz sukarretan.

Gaixorik ote zegoen? Ekialde-haize bala fin batek lagundu zuen, beharrik, Porte-Louise'tik Epai-Etxe'runtz galtzara zabala gurutzatzekoan, barneko goragalea hotz hotz hutsez gaindiarazten. Goruntz hartu zuen Waterloo'ko bulebarra. Ezin bere hartan eutsi, eta Nemrod'enera sartu zan, kafe bero bat hartzekotan. Agiriko sutegi hartara so, azkura nabaitu zuen begietan; eta maitale-bikoteek urruntasun-giroa piztu zioten bihotzean, larogei-ta-hamar urteko atso zahar bati sendiaraziko liotekean bezela.

Nazka nabaitu zuen bere buruarekiko. Egia, egia garratza, gauza ageria zitzaion: Luc'ena bukatua zan. Ahaztu egin behar zuen bere senar-ohia, ordurarteko biziera latza alde batera utzi behar zuen arras, eta gusta ala gostarik. Ebaki egin behar zuen: hauxe zitzaion bide bakarra. Baiña guztiz hautsi gero: ez gela batean izkutatzuz, ez itxurak berak salbatuz, ez bihotz-ondoan itxaropenaren galda ixilpean elikatuz. Ez. Gogorra zan, bai, baiñan eten egin behar zuen, osotara eten; barkatu-nahiaren hauspoa geldiarazi. Eta Luc kanposantuan ehortzia balitz bezelaxe jokatu. Nemrod'eneko zurezko pareta bero illunen artean, eta sutegi hartara begira, hauxe egiteko gauza izan zitekeala iruditu zitzaion. Lehenengo aldiz iruditu, bere ustez: guztiz ebakitzeko lehenengo aldiz gertu zegoen. Gogor jokatzeko egarria piztu zan Elsa'rengan. 1958-etik 1966-era arteko urteak igaroak ziran, bai; eta igaroak izateaz gain, aurrerakoan ahaztuak izan behar zuten.

Beste kafe bat eskatu zuen. Bularreko ziztada ematu egin zitzaion, eztarriko lakardura legundu; eta pittin bat horrela bizkorturik Porte-de-Namur aldera jo zuen. Handik, Place Royale'tik arkupeetan behera, erdiruntz abiatu zan, Neuve-Kaleko almatzen nagusietako erakustegietan entretenitzeko asmotan. Baiñan emakume gazte haren irudia aurrean zeukan beti, baleak arpoia noranahi daraman gisa.

Eta handik nora gero? Ez zekien. Ibiltzeari ekin nahi zion.

Bourse'ren ondoan, kafetik kafera zihoan iñauteri-banda batek gurutzatu zuen. Emakume zahar eta gizen alproja batzuk aintzindari, soiñeko nabarretan eta txapel-hegalak buruan, hiru bandera eskuetan, Elsa'ren ondotik pasa zan multzo jatorra: danak, gizonezkoak eta emaztekiak, iñori farragarri gertatzeko lotsatik kilometrotara, dana irri sano eta axolagabekeria. Brusela'ko flamenkera bitxia gehien ahoetan. «Anderlecht» hitza irakurri uste izan zuen; eta eskean ondoratu zitzaion atso alaiari hogeitaz libera eman zizkion. «Iñauteri», pentsatu zuen. Eta bekaizkeria izkutuaz begiratu zuen talde koloretsu hura, soiñu ikaragarritan Brouckère-Enparantza'runtz urruntzen hasia.

Neuve-Kaletik abiatzean iskanbilla eta zalaparta haundiago egin ziran. Supanpak eta gazte-talde kalapitariak usuago agertzen ziran ipar-aldera jo ala; eta konfetiak gero eta ugariago pillatzen ziran ezpaloietan eta galtzaran. Elsa'k irribarre egiten bide zuen... bere buruaz iskirio ixillean nunbait...

Iparreko Galeriaren ondoan okerrago jarri zitzaion gauza. Gazte-talde batek Elsa'z arduratzea erabaki zuen: konfeti-eskukadak ugaltu egin ziran, behin eta berriz aurpegira aurtikiak (eta ez beti otzanki!). Aurrera ezin Elsa; eta gazteek ekin eta ekin, beste erantzunen bat jasotzekotan nunbait. Kirru luze batek konfeti-pillo bat hartu eskuetan, eta bortxaz Elsa'ren ahoan sartu zuen. Taldeko gazteak algaraz hasi ziran, eta pakean uztea pentsatu bide zuten. Ez denek halere:

—Zaputz oraindik gurekin? Gaur Iñaute-Motza da! Gaur ez dago emakume politentzako ez tristurarik eta ez pakerik. Tori beste hau beraz!

Eta hori esanda, supanpa haundi bat bota zuen Elsa'ren oiñetara; erdi bonba bat iduriz. Hau lehertzean, zarata bildugarria egin zuen, eta gar harrigarri bat lurrean piztu; eta Elsa'k oiñaze-kiñu bat erantsi zion bere aho betearen muzin itsusiari. Eskuaz ikutu zuen txonkatilla: esku-ahurraren berotasunak, miña ematu beharrean, kiskaldu egin zion larrua, eta biziago egin oiñazea.

—... putza zuontzako! —esan nahi izan zuen. Baiña hitzak eta konfetiak batera eta nahasturik irten zitzaizkion; eta, etsirik, ixildu egin zan.

Txistua botaiaz saiatu zan ahoa hustutzen eta garbitzen. Baiña bere mingaiña itsaskor zegoen. Aho-sapaia, masail-barneak, hobiak, dana, paperez jantzia zan. Konfetiek kilikaturik, eztarriak berak eztul eragiten zion. Hura nazka! Behatzez baliatu behar azkenean... eta ia-ia banaka banaka bota.

Iparreko Geltokira iritxi zan, eta Mons'erako lehenengo trena hartu. Bizkar billoiz hura beti irudimenean nagusi... Gurasoek bederen egia osoa jakingo zuten gau hartan berean. Aski zan komeria!

Halle'ko geltokian saltsa eta zarata ikaragarria zegoen. Elsa'k berriz ere oso urrun, txit urrun, guztiz urrun, ikusi uste zituen gazte eragabe eta iskanbillazale porrokatu haiek. Ez zan behin ere konturatu: ez ziran bere kideak. Haiek gazteak ziran, eta bera ez.

Iñauteria bapatean besteen eta besteentzako jaia iruditu zitzaion, Mons'eko meza nagusiak aspaldidanik iruditzen zitzaizkion bezelaxe. Gazteria hura gaitzi zitzaion, arrotz, «beste». Eta bera, Elsa Scheelen, 29 urteetan, edonoiz bezin eder, iñoiz baiño xarmangarriago hobe esateko, gaitzi, arrotz, «beste»... zahar zitzaie la gazteei ordaiñez.

Gisakoa ote zan susmo hau? Baietz uste zuen: bihotzaten euskarri zan hari nagusia etena zan betirako.

Elsa'ren gaztaroa, egiazki, bizkar larrosa legun baten irudiak ebaki zuen kupidarik gabe. Fidantza urratzen dan egunean bukatzen baita gaztaroa.

VIII

Mons'eko Geltokian tranbia orixka zatar hura hartu zuen gaztetandik bezin gogaiturik; eta Jemappes'era asperturik iritxita, eskubitara jo zuen beste milla aldiz bezelaxe.

Laister itzaldtu zan bakardadean tranbiaren zarata; eta illunpe betean, haurretandik bezelaxe ere, ezkerretan adrilluzko murru luzea utzirik, maldan behera abiatu zan Elsa.

Hotz haundia. Etxe apalak eskubi aldean. Ezpaloirik ez, eta putzuak ugari. Arrimua txarra eta labaiña, ohi bezela:

—Beti bat! —pentsatu zuen Elsa'k—. Langilleak bizi diran kaleketan, beti dago putzurik eta lokatzik!

Kalearen behereko muturrean, lantegi ate eskerga batek kukutua, eta adrilluzko pareta gorria bukatzen zan puntuaren parean, etxe apal bateko atean jo zuen, eta amak ideki:

—Nola haugu hemen gaur eta garai huntan?

Elsa'k ez zuen ezer erantzun; eta ama besarkatuz, negarrez hasi zan.

—Zer gertatu zain Luc'ekin? —galdetu zion ziplo, miñutu pare bateko ixillunearen ondoan.

Nekez hasieran, baiña gero eta garbikiago eta ausarkiago, Elsa'k azken hillabeteetako gorabeherak azaldu zituen zehatz-mehatz. Lehenengo aldiz aipatzen zuen hura guzia iñoren aurrean; eta aitormen latz harek poza eta bildurra ematen zion batera. Bere bihotzean ixillean bildutako behazuna ixuri ala, lasaiago somatzen zuen bere barnea; baiña zauriaren sakona barneago azaltzen ere bai.

—Aita ez zegon etxen, Elsa. Berak ere jakin behar din hau guzia. Siñistu eziña! Lasai hadi bederen. Laster heldu dun. Gaur hain zuzen kalera joan dun afal ondoren, Leroy, Agostini eta Clerici'rekin uste diñat. Ba dakin, gaur, astearte, Iñaute- Motz...

Elsa'k ekin egin zion bere Kondairari. Segitzeko beharra zuen.

—Jasan eziña dun. Ez diñat horrelakorik sekulan entzun. Eta, siñistuta egon: entzun diñat denetarik nere 54 urteetan.

«Gabon», entzun zan etxean. Scheelen etxeko-jauna umore onean zetorren itxuraz.

—Hara! Hi hemen? Zerk ekarri hau hemengo aldi?

Eta begitartea guztiz aldatuz emazteari so:

—Baiña, zer gertatu da? Zer esan diozu zuk, Marie?

—Nik ezer ez. Presta zaitetz, Jojo, izugarrikeriak entzuteko. Luc'ek...

Bazkaldegi apal hartan exeri ziran. Erredizek beltzago ziruditen pantallarik gabeko eletrika-argi hartan. Alabak noizean behin xehetasunen bat aldatuta, Scheelen andreak azaldu zituen Elsa'ren gorabeherak. «Alu horrek», esaten zuen Joseph Scheelen'ek behin eta berriz, ahapeka, goratik, abots mailla guzietan, eta ezpaiñak hestutuz eta hoxkatuz.

—Bi gertakari erantsiko ditut bakarrik —esan zuen Elsa'k ordurako aski bere baitaratua—. Bata gitarraz gertatu zaidana.

—Zein gitarra? —galdetu zuen aitak arras harriturik.

—Bai. Zuek ez zerate beharbada gogoratzen. Aspertu egiten nintzala ni Ukkel'en, eta Luc'ek gitarra bat opaldu zidan. Zazpi urte dira hortatik. Itxaropena nuen nik (amets hutsa ikusi dudanez) gitarra poxi bat jotzen ikasteko.

—Bai, egia dun —esan zuen amak— nik ikusia diñat hori aspaldian hire gelan.

—Horixe! «Ma Chaumière»n agirian egon ohi zan, diskoak bezela. Molière'n ez.

—«Ma Chaumière» hartaz ezer gutxi oroitzen naun. Giro legun burges hura gaitzi zitzaidan, eta dana ahaztu diñat.

—Aita, ez has, otoi!

—Egia du, Jojo.

—Postaz ikasi nuen zerbait nere aldetik, eta iñoren laguntzarik gabe.

Etenaldi bat egin zuen. Aitak ez zuen begiratzen, eta beheiturik zituen begiak.

—Ez dut nik sekulan ongi jo, noski: hau egia da, eta ba dakit. Nundik nora ongi joko nik? Baiña batzutan (bolada batzutan maizago beste batzutan baiño) jotzeko gogoia nuen; eta arratsean, afal

ondoan, jotzea maite nuen, hortarako irratia itzaliz. «Ma Chaumière»enean, bestalde, ez nuen hauzokorik galazten, etxe hartako maistar bakarrak gu geu giñan eta. Arrats hartan ere, orain dala bost bat urte...

—Bost urte ixillik...

—Orain dala bost bat urte hortan ari nintzan ni. Luc irakurtzen ari zan: hori uste nuen nik behintzat. Ni akorde batzuk egiten hasi nintzan, denbora berean aidea neuk kantatuz. Django Reinhard'en album bat erosi berria nuen, eta «Nuages» ematen saiatzen nintzan. Hortan ni ari, eta deusik entzun gabe noski, gitarra kendu zidan Luc'ek zakarki, ezer ere aurretik esan gabe; eta belauna altxata, iztarraren kontra hautsi zuen. «Aski dut zure zarata eta karrasi aspergarriez. Aski, eta milla aldiz aski!!!»...

—Eta hik zer egin huan? —galdetu zuen amak.

—Hori berdin da —aitak hasarrean moztu—. Zer egingo duen orain! Hauxe da nere galdera bakarra, Marie. Emakumeok, jakiña danez, ostikorik gehienak eta basenak ematen dizkizuen gizona maite duzute. Nazkagarria da!

—Hitzegiten uzten banauzute, beste pasadizu bitxi bat kondatuko dizuet. Azkena.

—Bai, Elsa. Eta zu, Jojo, egon zaitez ixillik apur batez.

—Baiña hori garbi dago!

—Ongi da. Entzun halere. Uztazu Elsa bere herra erraietatik itzurarazten.

—Tira, tira. Aurrera! —Eta zurrumurru ulergaitz bat entzun zan Scheelen jaunaren aldetik.

—Beste batean Antwerpe'n giñan. Luc'ek biziki maite zituen, nerekin zegoenetan ere, gaztetandik ezagutzen zituen erdipurdiko trabena haiek. Eta ba dago han horrelakorik; Gehiago omen zegoen lehen: ba liteke, baiñan ez dakit nun, kale batzutan behintzat tarterik ez baitago. «Metro» izeneko bar luze hestu hura ez zan, egia da, ez kabareta eta ez gau-bilgua. Hori ez. Baiña hara doazen emakumeen bertutearengatik ezin diteke ezer arriska, nere ustez. Gizonengatik are gutxiago, laguntsa billa nabarmen ibiltzen baitira. Sartu ala, barra dago ezkerretan, luze xamarra, argi gorriskatan edo berdaskatan aldika, argia aldatzen baita. Gaiñean, ezkerretan, barraren luzera guzian eta balkoi gisa, eta illunpe beltzean benetan hau, mahain batzuk daude. Sarrerako atearen arabera aurrez-aurre, estaia ttipi batean, eta balkoiaren mailla berean, beraz, neska gazte bat ageri da, exerita, illea gorri, mototsa oso gora, eta orain aipatzen hasten dan «mini-skirt» bat jantzirik; exerita esan dut, baiña aldi

berean dantzan. Zertan ari? Disko-pillo bat du bere aurrean, bostehun bat disko, milla beharbada, eta zaharrena igazkoa nik uste: snob'en parabisua! Neska horrek aukeratzen ditu «Metro»-enean entzuten diran aireak. Bar guziko altabozak eta tresneria guzia (ez hurria!) berak gobernatzen ditu, beretertsa gisa, «kulpito» berri harrigarri hartatik.

—Eta?

—Beherean dantza egin ohi da. Azkeneko jazkerak han ikus ditezke Piccadilly'n baiño lehenago; eta hantxe ere azkeneko dantzakerak ikas. Nik ez nuen leku hura batere maite; baiña Luc'ek bai, gogotik itxura zanez. Orain dala hillabete batzuk, ez dakit zenbat, berriz hara joan giñan. Bestetan ia sartu-atera hutsa egiten genuen. Egun hartan luzeago gertatu zan gauza; eta garagardo bana zutik edaten ari giñalarik, bi neska sartu ziran, bi emakume gazte hobe, gerria hestu eta takoiak luze. Beretako bat oso gogoz hasi zan Luc'ekin mintzatzen, aspaldi hartan birrikusia ez balu bezela. Flamenkeraz ari baitziran, ez nuen ezer ulertu; baiña farre-algarak gero eta usuago entzuten ziran. Eta, usterik gutxienean, emakume harek kiñu bat egin zion eskuaz «kulpito»ko diskolariari, hiru behatz erakutsiz; eta Luc'ek «barka» esanez, flamendarrekin hasi da dantzan; eta beti irri eta algara biak. Hura gehiegizkoa zitzaidan...

—Luc'en ama ote zan puta hori? —moztu zuen Scheelen aitak.

—Otoi, Jojo. Utz bukatzera.

—Barrean zegoen gizon bat, illea zurdinduta uste dudanez, neri so paratu zan, zirkiñik egin gabe hasieran. Baiña bigarren diskoarekin, ondoratzen hasia zitzaidan diximuluan. Ez nuen nik ezertarako gogorik, pentsa zazute. Eta barrukaldi batek bultzaturik, kalera irten nintzan iñori ezer esan gabe; eta geltokiruntz abiatu nintzan. Uste ote duzute ni etxera sartzean Luc, berebillean joanda, han zegoenik? Ez horixe: Molière'n ez zegoen iñor. Loak hartu ere egin ninduen Luc etxera sartu aurretik!

—Ene, ene! Nolako piztia tokatu zaigun, Elsa maitea!

—Nik hau hasieratik soma nekazean —erantsi zuen aitak—; baiña zuei kontra ez egiteagatik, ixildu egin nintzan; eta horra orain fruituak, horra ondorioak.

—Zer somatu zenuen zuk? Tira! Ezer ez. Guk haiña! Alaba bakarra ezkontzen zitzaizula: hau zan zure samin bakarra.

—Ez da egia! Elsa Ukkel'a ezkondu zala jakin nuenean, galdutzat eman nuen nere alaba. Eta zuk ba dakizu! Sozialismoaren alde egin dut burruka urteetan zehar. Nere jakinduria eskasa da, ba dakit; baiña nere bihotza hemen dago, zulo beltz huaetan zikintzen eta zimeltzen diran nere kideekin. Ez Ukkel' en. Ez gure zapaltzailleen hauzoetan.

Orratz mordo bat hiltzatzen zan Elsa'ren barnean.

—Gu pozik giñan, Jojo, guk ezagutu dugun zorigaitza Elsa'k ezagutuko ez zuela jakin genuenean. Ez da egia?

—Ez da egia! Zeuk pentsatu zenuen hori, ez nik. Elsa'k beharbada ere bai. Ez dakit.

—Nik ez! Luc maite nuen! —atera zitzaion ia karrasika. Baiña karrasiak ez zuen gezurra izkututzen, eta aurpegia eskuen artean hartu zuen.

—Zer espero zitekean —ekin zuen Joseph Scheelen'ek— flamendarra dan batengandik? Flamendarrak nazi dira, danak nazi; danak dira arrazakoiak, danak katolikuak, danak zerri galantak beraz. Eta urde hori, zuek oraindik «Luc» deitzen duzuten piztia zital hori, burgesa da gaiñera. Burgesa! Faltsua, harroa, hantustez betea, zekena. Hire «senar» hori Flandre'ko kastako seme da, bai; ez da dudarik. Eta ni zozo hau, ixildu egin nintzan halere... Merezia dut!

Elsa'k Luc defenditzeko gogo nabaitu zuen; baiña bizkar haren gaiñeko xerloak aurrean bide zituen; eta ordurarteko irain guziak, kondatu berriak izaki, biziago. Eta ixildu egin zan. Baiña gaizki egiten zuela iruditu zitzaion, koldarki jokatu balu bezela.

—Tira, tira, Jojo. Txatxukeriak. Zure biziera ez da oso arraskastatsua izan. Aitor zazu.

—Bai, ba dakit. Ez dut etxe bat Menton'en! Safo izan omen da emakumetan olerkari bakarra; eta hau lesbitarra zalako. Hori entzun diot lehengoan partiduko buruzagi bati. Eta siñistuta nago. Jaungoikoa gizon egin zan, omen, ez emakume. Noski! Arrunkeriaren deia da emakumea.

—Aita!

—Maite haut, Elsa, eta horregatik barkatu hindudan. Elsa negarrez hasi zan.

—Gauzak huntara ezkerro hobe dugu ohera joan. Erreta gaude hirurok gertaerengatik. Bihar, hotzean, zer egin ikusiko dugu.

—Bihar? Hori garbi dago —esan zuen aitak—. Hori bukatu egin behar da. Berrogei bat senar-emazte berezten omen dira Brusela'n egunero. Nor ikara diteke kasu huntan soluzio hortaz pentsatzen badut? Heuk erabakiko dun, Elsa, ez nik, ez guk; baiña nik neuk, gizakumea naizen aldetik, eta hirurogeietan laister abiatua, gixontto hori utzi behar dunala argi eta garbi ikusten diñat. Bihar De Rijke'ri dei egion, eta urrengo astera arte azalduko ez haizela esaion. Hau ez dun ostatua, heure etxe propioa baizik. Egon hadi hemen lasai. Ondo lo egin, eta bihar arte.

Ohi ez zuena: kopetan muiñegin zion Elsa'ri, eta bere logelara joan zan. Zer ote zan eztul aldi hura? Somatu egin zuen Elsa'k bere ixillean, baiñan ez entzuna egin zuen. Eta pentsatu: «Egia du. Baiña nik ez dut iñoiz izan federik».

Oherakoan Elsa pakean zegoen, barne-pakean. Ez zuen aspaldian horrelakorik nabaitu. Bidaia luze eta zail batetik itzulia balitz bezela begiratzen zuen Wilson-kaleko aspaldiko bere ganbera hotz apal hura. Leioa pittin bat zabaldu zuen, eta haize bala bat sartu zan. Xirrikitu bat baizik ez zuen utzi.

Iñauteri-soiñurik batere ez kaletik.

Geltokitik soillik, bakanka, bagoi-tankatekoen soiñuaren oihartzun urruna, illunak irentsia. Eta, tarteka, haurretan bezelaxe, dei etsia, baforezko makiñen txistukada zorrotza.

IX

Urrengo igande gauean Elsa Brusela'n zan, barne-asaldua ustez baretua.

Baiña Molière'ko eskallera igotzen hasi zanean, bihotza agudotu egin zitzaion: lehendabiziko estaian dantza-musika entzuten zala antzeman zuen. Hurbildu egin zan ete ondora halere, eta, bihotza ezin gobernaturik, zabaldu egin zuen. Barruan apalago zan musika-oihartzuna eskalleretan baiño. Beharrik! Goitik zetorren, bigarrenetik. Hura ikara!

Aitak garbiki emana zion bere iritzia: Molière-kaletik joan, eta Luc'engandik arras berezi. Besterik ez. Hortantsu zegoen ama; baiñan erabakien obratzearen hastapenari buruz luzakorragoa zan. Momentu hartan, dana dala, egia aitak zuela iruditu zitzaion Elsa'ri: noiz arte zalantzetan? Zer irabazteko? Biharamunean bertan, De Rijke alde batera utzita, etxe baten billa abiatuko zan. Zein aldetara? Brusela'ko beste muturrera, noski, ipar aldera, Luc iñoiz topatzeko erarik gertatuko ez zitzaion eskualdean. Jette? Sint Josse? Schaerbeek? Kalean bai, baiña parke baten ondoan nahi zuen etxea: barnetik etorkizuna igartua zetorkion ezkerro, etor zekizkion kanpotik bederen berdetasuna eta hostoen zurrumurrua.

Jette bereala baztertu zuen: flamendar gehiegi, bere ustez. Sint Josse'n bazter zugaitzurik antzematen ez. Bapatean itxaropenak hartu zuen: Josaphat! Schaerbeek'eko Josaphat parkearen ingurua! Hantxe, ahal izan ezkerro.

Biharamunean Molière'ko gartzela hartan Luc'en arrastorik ez zegoela jakitean, pentsatu bezelaxe Josaphat parkearen aldera jo zuen. Nola billatuko? Inguru osoa oiñez egitea bururatu zitzaion; eta Lambremont bulebarretik hasi zan, kalez-kale, kalekatik kalekara, sototik satora. Hutsik zeuden etxeak uste baiño ugariago ziran: han hemenka, anitz tokitan beltz eta laranja-koloreko aluntzioak topatu zituen. Ez danak beretzako egokiak, ez danak alogeran ematekoak ere; hain zuzen, bi etxe oso eta estaia bat, hirurak segidan, aurkitu zituen salgai. «Salgai», pentsatu zuen; «alegia, debekaturik». Telefono batzuen nota hartu zuen, eguerditan deitzekotan. Parkearen ondoko «Cafe du Parc» dalakoan ogi-bitarteko bat garagardoarekin jan zuen eguerdi irian; eta telefonoz arratserako hiru ikustamen finkatu. Eta ekin egin zion birari bazkalondoan. Vandenbussche-kalean «studio» txukun bat aurkitu zuen, lehendabiziko estaia batean; baiña galestitxo.

Ingurua ia osatua zan; eta, hein batean berantetsia zalarik, Pâquerettes-kaleko 18-an, beheeroko estaian, etxe txiki batean, hau irakurri zuen:

«Studio moblatua. Lo-gela haundi bat, bazkaldegi, sukalde berria ur-berogailluarekin, maiñu, gazezko berontzi, telefono. Lagun ezti paketsu bat edo birentzako egoki. Atzeritarrak saiatzea alperrik. 2.500 libera hillean. Etxea ikusi nahi izatekotan, goiko Laurent andreari hotsegin. Dagoenetik hutsik eta alogeragarri».

Hori egin zuen; eta hirurogei bat urtetako andre gizen zahar batek, walon doiñua ezin izkutaturik, etxea erakutsi zion. Garbi zegoen, eta erredizak ez ziran oso zaharrak. Laurent andrea alarguna zan, bereala jakiñarazi zionez. Etxe hartan ez zan biez kanpo besterik iñor izango; eta bi estaien nagusia, Dumoulin jauna, merkataria, La Louvière'n bizi zan, eta oso bakanka azaldu ohi zan.

Nola galduko halako mauka bat? Arratsean bertan tratua egiña zuen telefonoz; eta biharamuneko goizean izenpetu ere bai. Arratsaldean, gauza guziak (ez danak, egia esateko, baiña bai Molière'ko logela berezian sartuak zituenak) etxe-aldaerako «Taxi Berde» batean garraiarazi zituen. Epailaren lehen astearte hartan, beraz, Pâquerettes'ko etxea estrañatu zuen Elsa'k. Nekeaz birrinduta zegoen, eta dana pillotan utzi zuen atarian biharamunerako. Pozik halere.

Eta laister loak hartu zuen.

* * *

De Rijke'ren kontsukazioa urruti zuen Pâquerettes'tik.

Baiñan ez zan hau lana uztera bultzatzen zuen inportanteena: bihotzean min haundia harturik ere, bestek hartaratu zuen. Zergatik? Bere igaroari buruz guztiz, arras, osotara, nahi zuen ebaki, errotik hautsi eta erauzi. Elsa'k berriz bizitzen hasi nahi zuen; eta hortarako lehen-lehenengo urratsa zitzaion aspaldiko gauza guziak xahutzea eta ahaztutzea. «Hortik hasi behar», uste zuen. De Rijke gizon prestua zan, ongi tratatzen zuen, nahi dan guzia; baiñan alde batera utzi behar zuen, Molière'ko bizialdiari lotuta zegoelako. Urte zoritxarreko haien lekuko zanez, baztertu egin behar zan. Nola esango zion, ordea, lanari uztea erabaki zuela?

Bi astez luzatu zuen hinka gaistoa.

—Ez saia ni atxikitzen, De Rijke jauna. Erabakia hartua dago: midikuntzari dagokion guzia maite baitut nik, eta zure kontra ezertxo ere izan ez arren, tristura bihotzean, barnea goibeldua, lan hau uztea erabaki dut. Hillabetez etorriko naiz oraindio, hau bai, nere ordaiña zuk aurki ahal dezazun; baiña gero ba noa.

—Ez didazu dana esan, Elsa. Bestela ez dut ulertzen.

—Egia da: ez dizut dana esan. Baiñan oraintxe esango dizut: nere senarrarengandik bereztea erabaki dut; eta orain arteko mundutik eta bizimodutik arras aldendu nahi dut. Molière kaletik ere aldatu naiz: hau duzu oraingo nere zuzenbidea.

Eta paper bat eman zion: «Pâquerettes, 18 - Schaerbeek».

—Gauzak zertaratuko diran ez dakit, De Rijke jauna. Hori geroak esango du. Oraingoz bakarrik bizi erabaki dut. Gero... ikusi egingo dut; neronek ere ez dakit.

De Rijke'k ez zuen deus esan.

Gauean, oherakoan, eta oso berandu arte, behin eta berriz gogoratzen zitzaizkion Elsa'ren hitzak. Gauza harrigarria: ez zuen ia deus ordaiñari buruz pentsatu, ezta Elsa joanaz sortzen zitzaion problemaz. Bere kontsultazioa hutsik bezela somatzen zuen Elsa gabe, eta bere burua tupustean nagitua, gogaitua, higuindua, ezindua.

—Emakume gaixo hori! —zion berekiko gelako ixiltasunean—. Zergatik beti ederrenak zorigaistokoen? Berrogei ta hamalau urte ditut. Elsa Scheelen (ez dut «De Potter» andrea deitu nahi) nere alaba izan zitekean. Baiña nere kezka hau, nere etsipen-mota hau, nere xamurkera bitxi hau, ez dira osoki guraso-tristura bat. Gau huntako eldarniora naraman tema malenkoniatsu eta illun hau, aspaldidanik ez nabaitua, ez da oso... Eziña da halere!

* * *

Elsa'k urrengo asteetan etxea piskanaka txukundu zuen.

Diru ugarririk ez zuen, noski: beharrik, geroa somaturik, De Rijke'ren irabaziaz osorik gorde zituen aspaldi hartan banku- kontu izkutu batean. Pâquerettes'era sartzean 82.000 libera zituen. «Nere aita gizajoak ez du sekulan izan horren laurdena».

Arratsero, kontsultaziotik itzultzean oso berandu izanik ere, gauero egiten zuen apainketaren bat bederen: oheaz bestaldera Brusela'n erositako margo-kopia ipiñi, ezkerreko horman argazki batzuk zintzilikatu, leiho nagusiko errezelak garbitu, hondatzen hasia zan harropa pasaratu eta tajutu, pittinka mahain-lanpara bat konpondu, eta abar, eta abar. Sekulako lanetan egunero murgildua, eta pozik.

Berontzia oso eroso zitzaion: bi termostatoak erregelatu (logelan bata, eta paziñan bestea); eta kitto: berontzia egoki ari. Beharrik! «Molière'ko ikatzezkoa zikiña zan beti».

Bakardadea zitzaion nabarmen. Hau egia da. Nabarmenegi. Molière'ko etxean, nahiz azkeneko hillabeteetan bakarrik bizi izanik, ez zuen Elsa'k bakardade-kutsu mutu hura ezagutu. Pâquerettes'en bai. Batzutan biziak hartzen bide zituen paretak eta sapaia; eta eskubitara lo egin beharrez, bestaldera jarri behar izaten zuen, lokamutsen etorrerari jaramonik ez eginda.

Bakardade hura lagunarte ez-ezaguna zitzaion. Laurent andrearen oinkaden soiñua entzuten zuenean, pixtortu egiten zitzaion barnea. Hauze zan ezin aitortuzko egia. Irratia maiz piztutzen zuen; beti, hobe esateko. Telebista erostea bururatu zitzaion; baiña dirurik ezaz, lehendabizi etxea polliki-polliki antolatuz joatea erabazi zuen: alfonbra bat behar zuen atarian, etxeko zarpail hura gorde ahal izateko; eta epeka erosi zuen. Gauza bera besaulki gorri illun pare bat, sukaldeko tresna batzuk; eta hiru maindire eta burusi pare bat. Elsa hozpera zan oso.

Ezin azkar joan aurrerakoan.

1966-eko Epailla eta Apirilla oso euritsu gertatu ziran Belgika'n, baiñan Elsa'ri ez zitzaion hau batere gaitzi izan. Hobe. Bera etxen egon ohi zan beti; ahalean, lanean jo-ta-ke. Aspertuta zegoenean, edo egurastu nahi bizian, kalera ateratzen zan. Pausu batzuk egin eskubitara, eta Azalees'kaletik igota, Josaphat'en ingurua egiten zuen zugaitzen azpitik, eta arnasa gogotik hartuz. Euria ari zuenean, baiñan epel, berdin: atsegin zitzaion tantoek masailletan behera uzten zioten azkura-aztarna. Gauean oso goiz oheratu ohi zan: sarritan bederatzietarako oheratuta egon ohi zan, irratia piztuta.

Horrela jokatzuz, Apirillaren 10-ean, igande kariatara, etxera gomitatu zituen gurasoak. «Maiteago diñat hauzoa lehenagoko beste biak baiño», esan zion aitak. Ama lilluratuta atera bide zan handik: «oso txukun dana, Elsa», esan zion behin eta berriz. Eta Scheelen'darrek Ipar-Geltokian trena hartu zutenean, pozik ez, baiña kotsolaturik bederen abiatu zirala esan zitekean: Elsa egoera berriaz nagusiturik atxeman uste zuten. De Rijke'ren kotsultazioa uztearena ez zuten ongi ulertzen, amak batez ere. Baiñan ez zuten kontra egin.

Scheelen jauna pozik zegoen: Elsa'ren beraren ahotik entzun baitzuen azkenean aste hartan bertan joango zala De Riemaker lege-gizonarengana, eta dibortzio-eskabidearen gorabeherak ahalik eta laisterrenik prestatuko zituela.

Amak ongi ezagutzen zuen alaba; hau egia da. Baiña Apirillaren 10-eko ikustamenean, ez zuen Elsa'rengan ezer berririk nabaitu; eta huntan oker egon zan.

Elsa ez zan sakonki aldatua. Hau ez. Baiñan «International School»era ez zan joan ohi guztiz hotzean, eta ez xoilki españera ikastearren. Ba zegoen besterik. Elsa'k ez zuen uste. Baiñan askotan, nahiz Edith Cavell-go kontsultaziotik leher-egiñik irten, zazpietarako Vleurgat-Galtzaran egon ohi zan zintzoki.

Astelehenetan Jean Vanden Broeck aurkitu ohi zuen, eta astelehenero ordubetetsu bederen pasa ohi zuten alkarrekin berriketan. Elsa ohartzen ez bazan ere, Vanden Broeck'en hitz legunak eta zurikeriak behar zituen: jostaketan ibilli uste zuen, baiña beharra sakonagoa zan: Vanden Broeck'ek fidantza berpiztu zuen Elsa'rengan, eta hunek bihotzez eskertzen zion; eri egon danak ikustera heldu zaizkionak eskertzen dituen gisa.

* * *

Maiatzaren 30-ean eguraldia bikaiña zan, eta illunabarra polliki-polliki, presarik batere gabe, Mendebalde gorrian mamitzen zan.

—Oso leku polita ezagutu dut lehengoan ustekabean. «Un sitio precioso», Loza'k irakatsitako hitzak erabiltzeko. Nahi duzu han freskagarri bana alkarrekin hartzea?

Vanden Broeck'en «Mercedes» urdiñean sartu ziran biak, eta bizpahiru miñututan Ixelles'ko aintziraren ondoko «Les Etangs» kafeko egutera exeri ziran.

—Eta ez zaizu iñoiz damutu dentistaren kontsultazioa uztea? Orain egiten duzun administrazio-lana baiño interesgarriagoa zan hura. Ez da hala?

—Bizieran arras ebakitzen ez dakiena galduta dago —Elsa'k irmoki.

—Emakume zoragarria zera, Elsa. Zoragarria alde guzietatik.

Eta ezkerreko eskua hartu zion maitekiro; eta hitzik esan gabe miñutu erdi batez edo laztandu zuen Vanden Broeck'ek. Denbora, Fujita'ren margoetan bezela, gelditua bide zegoen, eta giroa ixiltasun-hodei trinko igarokor batek gerizatua.

Elsa'k ez zuen eskua atzeratzeko betarik izan, egia esateko. Ez zuen halakorik espero; ez zuen «Elsa» izena entzutea pentsatzen, etxeko deituraz egin baitzuen beti anartean. Ezustearen perlesiak jota zirudien.

Pâquerrettes'ko izkiñan «Mercedes»tik irtetzerakoan, barne-zirrara bitxi bat nabaitu zuen, ordurarte iñoiz ez senditua: hoben izugarri baten errudun gertatu izan balitz bezela. Eta gauza bat zitzaion

tamalgarrria, denbora berean: hogeita-hamar xegundu igeskor labur argitsu haiek hain arinki, hain arreata gabarik, igaroak izatea. Iñoiz senditu ote zuen Elsa'k halako eziñegon bitxirik bere buruaz nagusitzen ari? Ez zan zoriona, ez zan atsegin paketsu bat, ez zan poza. Ez zan, edo-ta ere, Luc'ekin iñoiz ezagutu zuenik ezer: hau eskierki segurta zezakean. Hiruetarik zerbait zuen egarri berri bat zan. Egarrri izkutua, iñoiz iñori salatzerik izango ez zuen egarri ixilla.

Geroztik denbora ez zan Elsa'rentzat jarraikia, laua, uniforme. Denbora, odola bezelatsu, taupadaka ixuritzen bide zan Elsa'ren egutegian, jauzika, astelehenetik astelehenera. Ostegunetako eskolak berak utzi ez zituen bada?

Urrengo asteetan Vanden Broeck'ek ez zuen pausurik batere egin aurreruntz; eta Elsa kezkatzen hasia zan: pittin bat mindua, mikaztua, akullatua. Azkeneko bietan, hain zuzen, presatua zala esan holandarrak, eta bakarrik utzi zuen etxerakoan.

—Iñoiz helduko ote dizkit berriz nere esku bakar hauek? —pentsatu ohi zuen igande arratsetan. Vanden Broeck hotz agertu ohi zitzaion, ordea: oso atsegin, oso begiko, bai; baiñan oso hotz ere bai, Elsa'ren aburuz bederen. Eta hunen emakumetasuna minberatu egiten zan: Elsa'k «ez» esan nahi zuen noizpait, eta ezin zuen.

—Farragarria da hau —pentsatu zuen halako batez. —Gi

zon horrengatik tematzen hasia naiz, eta ez du balio. Ez dut bere jostaillu billakatu nahi; eta hortaratzen hasi naiz, nik uste. Gogorkiago jokatu beharko.

X

—Zer berri? —galdetu zion Vanden Broeck'ek «International School»etik irtetzerakoan. —Gaur ez nago presaturik.

—Hara. Lanak amaitu?

—Dana azalduko dizut. Nahi duzu berriz Ixelles'ko aintziren ondoko «Les Etangs»enera joatea?

Vanden Broeck ez zan makala bere ehize-lanean, eta emakume eder haren begietan ditzira berri bat antzeman zuen.

—Nahi baldin baduzu —Elsa'k. Eta berekiko ia dardar: «Eskuok: heldu zaizkizue!».

Kanpoko mahain berean exeri ziran, kasetasaltzailleaz bestaldera. Uztailleko illunabar ederra zan, Maiatzakoan baiño argiagoa. Zingiraren gaiña, Mendebalde'ko ditzirak zillarturik, ezin begiratu ziran begiak bildu gabe. Epérons d'Or-kaleaz bestaldera, Louise-Ibilbidetikako orro urrunaren gerizatzaille, etxeen murrua islatzen zan.

—Ostiralean Amsterdam'era noa, Elsa.

Lehenengo unetik beretik ezagutu zuen hunek esakuntza horren atzetik zetorrena: gomitu bat. Eta zorabio batek astindu zuen goitik beheraiño. Zer erantzungo? Bai? Ez? Eta zergatik ez, egia esateko?

—Ez zenuke Loosdrecht'eko nere bela-ontzia ezagutu nahiko? —ekin zuen, Elsa'ren eskua hartuz.

Aspaldidanik hirrikitzen zuen ahur beroa sendi zuen, eta asaldatu egin ziran atsegiñaren bortiztasunaz: ez zuen ez baietzik ez ezetzik esan. Esku haren laztanak idarokitzen zion menturaren arriskuak eta suak zurtu egiten zuten, eta iñoiz ez baiño erakartzenago ere bai. Luc'i atsekabe-zorrak kittatzea ez epelkiago: «neu ere gauza naiz beste gizon bat maitemintzeko».

—Eta, noiz itzuliko? —galdetu zuen Elsa'k, barne-oreka galdurik, eta ezer ukatzeko ahalmena zeharo agorturik.

—Igande arratsean bertan. Larunbat eguerdian atera gaitzke. Azalees-kalera joango naiz zure billa. Gau bakar bat izango dugu artean, beraz; eta ez duzu neregatik kezkatu beharrik. Gizon zuhurra naiz.

Nolako burutazio-txirimela Elsa'rengan! Pentsakor gelditu zan, barruan ezertarako zalantza-izpirik ez bazegoen ere: «azken bururaino joango naiz. Neure burua neurtzeko besterik ez bada ere, azkeneraino helduko naiz.»

Zer zan zorabioaren kakoa? Ez zekien. Vanden Broeck'ek ez zion ordura artean iñoiz esan maite zuenik; eta ixiltasun horretxek bultatzen bide zuen Elsa aurrerago bere baietzetan: hain zuzen kontrara egingo zuen beste edonorekin, baiña Vanden Broeck'ekin bildur zan. Hasieran Elsa'k ez zuen egiazki maite, ez zuen maite-uste bederen: mendeku-bide eta harrotasun-iturri soil bat izan uste zuen bere lagun berriarengan; gero aitzekia kilikagarri eta arriskuko bat antzeman zuen; eta piskanaka besterik ere bai. Zer besterik behar zuen aurrera jotzeko? Zerk tenkegin zezakean? Jaungoikoaren bildurrak? Ez zuen siñisten. Senarrarekiko leialtasunak? Senarrik ez zuen aspaldi hartan, artxiboetako papertzarretan baizik. Ondorioak? Zein ondorio, Dekraene sendagillearen esanak guztiz beteak gertatu ondoren?

* * *

Larunbat arratsaldean Loosdrecht'eko lakuetan zeuden Elsa eta Jean Vanden Broeck, maiñuko harropan eta betaurreko beltzak begietan. Bi pieza urdin argitan, eta buruan gomazko txano loretsu hestu bat, danean malgu eta lirain, Elsa ezin-ederragoa goitik beheraino. Jean, sendo eta zaintsu, kiroltzale bat dudarik gabe. Hego-haize epela ari zuen; ez batere zakar, baiña bai bela-ontzia azkar xamar eragiteko lain. Eguzkiaren azken ordu haiek laister igaro bide ziran, oso laister, laisterregi. Elsa'ren irribarrea maiz azaltzen zan musura. Vanden Broeck'ek lan gaitza bide zuen tramankulu guziak gobernatzen, eta ontzi hartan ohituta egon arren, bi aldiz uretara erortzeko zorian egon bide zan.

—Hementxe har dezakegu zerbait askaritarako, nahi baduzu —proposatu zuen Vanden Broeck'ek. — Barneko gelatxo hortan ba dago zenbait janari eta edaririk. Eta segidan Amsterdam'eruntz abiatuko gera. Ados?

—Oso ongi da. Ni beti ados zurekin...

Lakuaren hegira ondoratu, belak bildu, jersei bana jantzi, eta haizearen zurrumurru izuti jarraikia ur geldietan suntsitu zan. Bere ordeztan pick-up batek hartu zuen segida; eta ontziko gela txiki txukun hura musikaz trinkotu zan, eta giroa arras epeldu atea hestean.

Elsa'ren zorian lodi hura kanpoko haize-bala bakanek eramanez, igesi zijoakiola nabaitzen zuen. Gelditu egin nahi zituen miñutu laister haiek. Leihatillatik lakuaren inguruko argiak banan banan

piztutzen ikusten zituen; eta bela-ontziek ere, presarik batere gabe, beren haga nagusia herronka larruturik, gauerako kulunka geldian ainguratzen zituzten. Dana patxaran egiña. Eta dana azkar igesi joaki!!

—Maite duzu beraz bazter hau? —esan zuen Vanden Broeck'ek ia Elsa'ren ezpafiñak bereez ikutzen zituelarik.

—Oso maite dut, oso benetan. —Jean'en begiak iñoiz baiño bertagotik ikusten. —Zentzuen atsedenu leku bat, ziñez. Eta Belgika'n ez bide da...

Musuen illara luzea hasi zan. Eta arratsalde hartantxe lehenengo aldiz erabillirik bezin berri eta sendibera antzeman zituen Elsa'k bere ezpain hotzak... «Ustez igartuak eta nagituak; baiña kresalak itzasituak bezin sendibera»...

...Elsa'k ez zuen Amsterdam ezagutzen, eta ez zitzaion oso eder iruditu. Zikiña batetik, ubideetako kiratsa nabarmenegi, kale asko txit beltz, txit illun. Vanden Broeck'en etxera nahiago zuen. Luzeegia zitzaion ikustaldi hura:

—Zure ezpafiñak maiteago Amsterdam baiño —esan zion Elsa'k kotxean, odolak hartaturik. Eta Vanden Broeck'ek ez zion esana damuarazten utzi.

Langendijk-Straat'eko etxea oso haundia zan; baiña nahiz zahar xamarra, biziki ongi zaitua, etengabe txukundua eta berritua.

—Eta bakarrik bizi zera hemen? Siñistu eziña zait.

—Bakar bakarrik.

Kopatxo batzuk zerbitzatu ondoren, gela dotore batera gidatu zuen, eta musu luze bat emanaz, agur egin zion:

—Hementxe duzu zure pausalekua. Ni aldamenen nauzu. Ondo loegin. Bihar arte.

Ez zuen Elsa'k hau iñolaz espero, eta bere buruaz etsirik gelditu zan. Erazterakoan, maiñu-harropan eten zuen erazketa; eta soiña aztertzen hasi zan ispillu baten aurrean, oso harriturik eta oso hilletari: «ez nuen nik uste... iztar hauek mehegi ote... edo beharbada lepoko gizentasun kutsu hau...»

Hamar miñutuz azertu zuen bere burua, eta ez zuen ezer konprenitzen.

Ohe-ertzean exeri zan pijama berde hertsu batez jantzirik, kemena agorturik: eroria zan arras, apurtua: «Gizonek ez dute inoiz neurtuko nere huntan emakume batek jasaten duen kolpe latza norainokoa dan... Bertutea galdu nahiago dugu milla aldiz, desiratuak ez izanik gorde baiño».

Gogoeta hauetan barrena abiatua zalarik, eta oheratzeko gertu, atean jo zuen Vanden Broeck'ek. Laztu egin zan Elsa, pozez lazturik, hain zuzen.

—Bai. Zer da?

—Ezer falta ote zaizun galdetzera etorri naiz.

Elsa lipar batez egon zan zalantzan: «Ohorearen aitzekia ere ez dit utziko! Zergatik ez ote da zuzenean sartu? Oihu bakar baten aitzekia ere ez?».

—Ez, ez zait ezer falta.

—Ziur?

«Zeu falta zatzazkit» esateko gogoia etorri zitzaion; baiña emakumetasunak geldiarazirik ixildu egin zan. Atea zabaldu egin zan. Laister zeuden biak ohe berean...

* * *

Elsa'ren bizieran gaurik zoriontsuena? Ez zuen memento hartan hori uste. Biharamunean bai: gaurik gogoangarriena zala bederen, izkutuan ebatsitako atsegin-bala haiek hutsunez eta gau ixillez jantzi eta edertu izan balira bezela. «Izkutuan lapurtua ez dan hatagi-aldia, ez da atsegin-zorabioa, epeltasun-urrua laburta baizik», pentsatu zuen Elsa'k.

Delft lillutagattian bazkaldu zuten biharamunean, Vanden Broeck'ek ongi ezagutzen zuen bazkaldegi itzaltsu batean. Baiña Delft'eko barne-argitasuna arrats argizkoa zitzaion Elsa'ri, gaillurretik behetakoa, malenkoniatsua hitz batez. Zubitxo haietaz, eta Ubide Zahar zugaitsu olerkitsuz gogoratzen zan batez ere; Elsa'ren otoimenean haiek Brugge'koen oihartzun urrun ikutu bat balira bezela. Vanden Broeck'en eskuen behar gorriaz oroitzen zan batez ere, ezin baitzizkion laxatu ere itxura zanez arratsalde guzian.

Zer erantsiko, beraz, Kinderdijk'eko oroitzapenez? Alegia, bi egun gogoangarri haietako azken ikuskariak? Seirak aldean iritxi ziran Rotterdam'eko inguru hartara. Lek-ibaia zabal eta paketsu. Eurikara Mendebalde'tik. Intetan ur geldia. Etxeen arteko tarte hertsietatik errota-mordoa agertzen. Dendetan postalak eta zurezko eihera-iduriak erruz salgai. Turistak ez hurriago.

—Ez dituzu ezagutzen, Elsa, Kinderdijk'eko errota?

—Ez. Entzun dut, bai, zoragarria dana.

—Hauxe izan zan Holanda'ko «polder»gintzan errota-mordo nagusi bat.

Ettxetxoez bestaldera joan ziran gerritik heldurik bidexka batetik. Mendebaldetik hodei beltzak zetozen; eta berekia igortziriaren orroa, gero eta bertago lehertzen hasia. Hogeii errota haiek bakardadean geldirik, aspaldi hartan abandonaturik, erraldoi-imajiña antzo, beren beso eskergak harrigarriro kokaturik, ekaitza mehatxatu edo kikildu egin nahi bide zuten. Zelai zabala eta urtsua beherean, aldiz, antsikabeki pausatua eta ahaztua, hilla zirudien.

Elsa'k ez zuen ezer esaten: ixiltasun ixil hura entzun nahi bide zuen. Vanden Broeck ere geldi eta pentsakor, bere amorante berriaren lillura nahasi nahi ez balu bezela; bildurrez eta muzin hits batez begirada samur hura honda zedin. Besterengatik ere ixildu ote zan hau? Beste katramillaren batek hausikitzen ote zuen? Hamar bat miñutuz egon ziran biak era hartara, hitzik gabe so, ikuskari paregabe eta ezin tristagarriago hura patxaran dastatzen. Baiña tru

moiarra orro hurbillari tantoak, tanto lodiak, erantsi zitzaizkion.

—Elsa. Aldegin egin beharko genuke. Berebilla urrunsko dugu, eta tantoak hasiak dira.

Elsa'k ez zuen ezer erantzun. Vanden Broeck'ek ikusi ez zituen bi malkok busti zuten haren masailla:

—Bildur naiz, Jean! Oso bildur! Besarka nazazu, arren!

—Zer duzu? Haurrak bezin bildurti?

—Ez da hori. Kinderdijk'eko errota zahar hauek eta igortziri zakar horiek bihotz erdiraiño hunkitu naute. Zerua da bortitza, ez gu, ez gure egiñak. Gure samiñak dira gugan bortitzena, eta denborak suntsitzen ditu.

—Zer duzu, Elsa? Zerk mindu zaitu horreraiño?

Ez zion azaldu. Zeren bildur zan ez zuen aitortu nahi izan iñolaz ere. Zoriona laburra dala ongi zekien Elsa'k. «Joanak joan»... Bi egun zoragarri haiek betirako joanak antzematen zituen, zoritxarraren mortu zabal legorreen laister mugarri bakarti bihurturik, sekulan itzuliko ez ziran ordu argitsuen lekuko ixil eta illun, bi errota zahar gisa oroimenean bertan ia ezabaturik.

Urrengo egunetan, urrengo asteetan, urrengo hillabeteetan, izialdurako miñutu haietan bezin lazki zulatzen zuen bere barnea Kinderdijk'eko irudi harek... Errota-gorputz hotz gizatar haiek, aspaldidanik utziak, aspaldiko gudari mutu, lanean antziña akituak, gaur zelai haizetsuan zai... Zeren zai, ordea, beren buruen zaharrakatzearen eta akaberaren zai izan ezik? Huntatik Elsa'ren ikara sakon hura. Huntatik dar-dar Elsa, zorion uneetarik hain bertan zalarik ere, nahiz azkeneko atsegin-ugin oparo aratz haiek dastatu berriak izan.

«Joanak joan... joanak joan... Eta egarria gelditu».

XI

Biharamunean Vanden Broeck ez zan espaiñerazko eskolara agertu. Ordu erdi batez egon zan Elsa atera adi, herio-suhar, Loza'ren irakaspenez zipitzik ulertu gabe, berandu bederen Jean agertuko zan itxaropenean; baiñan ez zan agertu. Zer ote zuen? Zergatik ez ote zan azaldu?

«Philips»-eneko bulegora deitzeko asmo bizia etorri zitzaion, baiñan irtetzerakoan beranduegi zan. Ez zion, bestalde, iñoiz hara deitu; eta deitu behar gorriaz harritu egiten zan: «Berekiko hotzago banengo, berdintsuago izango litzaidake deitzea. Baiña sobera maite («maite»?...) dudalako, hain zuzen, ahalke naiz, herabe, lotsa. Egia jakin dezan oso bildur naiz; itxuraren beraren azkeneko geriza fundituko litzakean segurantzian».

Eta ez zuen deitu: ez astelehenean, ez asteartean, ez asteazkenean... Garaitzapenaren latza bakoitzean! Asterik luzeena, hutsena, beltzena, huraxe izan zitzaion.

Baiña urrengo igandetik hasi zan Elsa'ren bihotza aldizka bizkortzen, aldizka urratzen: «Gaua luzea izan bada, egunsentia hortxe heldu dan seiñale... Omen! Siñistu egin nahiko nuke. Baiñan ezin. Zeren-eta ni bildur bainaiz (ia ziur hobe), hillagiñaren gau luze neketsuaren ondoren, neri egunsentirik iñoiz zabal ez dakidan».

Elsa, gaua laisterrago helarazi nahiz, zortzietan etzan zan; baiñan alperrik etzan ere bai: gaitzegia zan kezka hari zegokion eldarnioa.

Biharamunean, Dagonillaren 7-an, eta hillabeteko lehenengo astelehena hain zuzen, zeru urdiña eta eguzki argitsua agertu ziran Brusela'n. Goiza nagikiegi igarotzen zan, arratsaldeko lehenengo orduak miñututsuegi gertatzen.

Vanden Broeck espaiñerazko eskolara berriro azaldu ez.

—Ez nukean iñoiz siñistuko Jean'ek horrenbestera iño nere bizia betetzen zuenik —zion Elsa'k berekiko Vleurgat-galtzaran behera abiatzean. —Eskola hau gogaikarri bihurtu zait, arras funsgabea eta aspergarria. Nun ote da Jean? Nun ote da nere...?

Ez zuen esana burutu.

Biharamunean, hillik gabeko gau-beila amaigabe baten ondoren, telefonatzea erabaki zuen, eta egin egin zuen:

—Bai, bai, andrea —entzun zuen— ulertzen zaitut. Ez dakit, ordea, zer esan. Vanden Broeck jauna ez dago hemen. Amsterdam'era itzuli bide da.

—Ameriketara ez ote? Txile'ra joan behar zuen —esan zuen Elsa'k erantzuna entzuteko ikaran.

—Ez dakit. Ez dakit ezer, andrea, hemen ez dagoela baizik. Noren partez da? Vanden Broeck'en buruzagiarekin jarriko zaitut nahi baldin baduzu.

—Ez, milla esker.

Eskuak izoztuak zituen Elsa'k.

Betarik ez galtzekotan etxera joan zan, eta zuhertasuna arras galdurik, egia osoa argi eta garbi aitortzera deliberatu:

«Brusela'n, 1966-eko Dagonillaren 8. Nere maiteen hori:

Bi astelehenetan segidan zu Vleurgat-eko «School» era azaldu ez, eta zure berri jakin behar gorriak «Philips»-eneko bulegora hots eragin nau. Joana zerala esan didate; eta nora ez dakitela. Txile aipatu dut, baiñan ez didate ezer zehatzik erantzun.

Nere Jean kuttun ahaztu-eziñezko hori: ikasguan ez bide dago neretzat gaur ez ezer ez iñor. Eskolakideak, halere, begikotasunez hartzen ditut: ezin gorroto ditzaket, ezin mespretxa, ezin beste iñor bezela ikus. Bereziki maite ditudala pentsa diteke, zurekin han igarotako orduak gogoratzen dizkidatelako. Hauxe duzu egia.

Zeuk egin nauzu zorientsu.

Ikusi egin behar zaitut joan aurretik. Behin gutxienez, otoi! Ez dut zure ahotik ondoko hau behin ere entzun, ez zure ezpaitatik ere: maite zaitut. Kupida zaitetz bederen nitzaz, eta dei nazazu. Noiz irten behar duzu haruntz? Arren, Jean. Gaixotu egingo naiz.

Elsa.

P. S.—Irakurri ondoren, arren, erre zazu gutun hau.»

Egunak joan zitzaizkion haiduru, ordea, banaka banaka, telefonoaren eta posta-kutxaren beti jopu; eta egun bakoitzaren pena etsiak pittin bat aurrerago pikatzen zuen Elsa'rengan berantespenaren hildo mingarria.

—Arrastorik ez! Gogorra da hau! Nitzaz ahaztu dalako? Nere haragiaz horren azkar osoki ase dalako? Aideportuko agurraz bildur zalako? Ezer ez dakit. Nere zalantza-itsaso hau nola xukatuko?

Elsa'ren eldarnioari nagusitu nahian, laister hustutzen ziran «Bellergal»en botillatxoak:

«Beharbada bost axola zaio dana... Beharbada gaitzi natzaio! Beharbada hastio nau!!... Eta ni hemen, berantetsia, hilduratua, desegiña. Funtsik ez du nere egoerak. Baiña, nola sendatuko?».

Dagonilleko egun ederrak tristura osoan joan zitzaizkion: nagiki eta alperrik joanak, gartzelako bakardadean eta murren eskergen gaiñetik egun urdin ederrak nagiki eta alperrik suntsitu ohi diran bezelaxe.

Iraillekoak berak ez azkar, baiña bai azkarkixeago.

Elsa'k iñori ezer ezin azalduz, idatzi behar guztizkoa nabaitu zuen; eta kandadotxo batez hesten zuen liburuxka berezian hau jarri zuen Irailleko hasieran: «Ixillaldi hau ez ote da ezer baiño latzagoa? Gorroto nauela bederen ezin irakur, neregatik negar izkaturik ixuri ote duen ezin jakin, ahaztu eziña ote natzaion kontsolamendua ezin izan. Ezer ez! Eskubiderik ez dago horrela jokatzeko. Goizero bizi izan nau aste hauetan Jean'en berriz izateko itxaropen gartsuak; eta arratsero aurtiki nau barne-illunpeetara eguneko ixiltasun-mukurruak. Ez diot ifernu hau iñori desiratzen»...

Azkeneko astean, aldiz, giroa bestelakoa ageri zan liburuskan: «Udara joana da... Zein geldiro! Zazpi aste hauetan akitu egin zait bihotza, eta begi-niniak legortu. Baiña Jean'ek neregandik hunelakorik merezi ez zuela bistan da. Neuk edertu dut nere irudimenean; eta edertutako irudi alegiazko hortaz maitemindu naiz. Aski izan da huntaz konturatzea sendatua izateko. Jean'i buruzko bitasun hortaz ohartu naizenean, egiaren argitan, ametsezko irudia desegiten hasi da, elurra eguzkitan gesaltzen dan bezela; eta hunek min izugarria eman dit azkeneko egunetan, egia lillurari nagusitzea beti baitzaigu garrantza. Baiña zama aztun bat ere kendu zait bizkar-gaiñetik, eta biziaren arnasa berriz hartzen hasi naiz. Ez dut iñoiz hunenbestez sofritu, beharbada. Jean gorroto nuela pentsatu nuen hasieran, hiruzur egin balit bezela; eta halaxe izan zan egun batzuez: malenkoniatik gorrotora aldatu nintzan, gorroto amorratura. Ametsetan bederen lepoa bihurtu nahi nion, eta barkazio-eske ikusi bere begiak; baiña, gauza harrigarria, ez dut behin ere Jean ikusi nere amets-aldietan. Gaur ez dut ezta gorroto ere: gorroto bero hartatik, beheraka mingotsean, iritzi hotz eta urrikitsu huntara iritxi naiz.

«Eta sendatu egin bide naiz. Jean'ek ez du ni arduratzea merezi. Ez dut ia-ia ezagutzen. Hortaz!

«Baiñan ez dut oraingoz ongi neurtu zeren truke lortu dudan hau. Gaur, azkenean, malko gehiegiren ondotik, betirako joandako pasadizu eder bateko galaia ikusten dut Jean' engan. Etsi egin dut, adimendua bihotzaz nagusitzera utzi dut; eta aurrerakoan Jean'ez maitemintzea eziña izango litzaidake. Siñistuta nago. Hemendik aurrera hutsegingo ez didan senda- bidea aurkitu dut: lillura eder horiek azterketa hotz baten bidez lumatu, eta etsipenetik at iritxi.

«Mundua, alabaiña, larrudura urrikigabe hori dala bide, arras hustu da neretzat. Dieweg-kalean ezagutu nuen hutsunea fitsik ez zan hunen ondoan. Oraingoa bai. Orain, benetan, ziñez, bakardadearen leize hondoraiño amildu naizela esan dezaket. Eta goitik beretik argi-erraiñurik heltzen ez zaidala, kanpoko zerua izarrik gabeko gau doillor batek irentsi izan balu bezela»...

Luma utzi, kandadoaz liburuxka hetsi, eta izkutatu egin zuen.

XII

—Arratsalde on —entzun zuen Elsa'k ustekabeen Neuve-Kaleko «L'Innovation» salgu nagusian. —Zer moduz, Elsa?

Aurpegi beltzaran hura ezaguna zitzaion, baiña zertatik ez zekien. Halere zenbait aldiz ikusia zuen.

Gizon luze gazteak irribarre egin zion:

—Bai, Elsa. De Rijke'ren kontsultazioan ikusi izan nauzu. Antoine Vanhamme nauzu, igazko udazkenean sarritan zuengana joana. Bi hagin erauzi zenizkidaten segidan egun berean, eta urrengo asteetan barrena beste lau konpondu. Zeuk jarri zenidan behin nere ahoan radio bat egiteko paper puska zurrun atsekabe hura; «eta orain zerorrek eutsi zaiozu», erantsi zenuen. Nolako pena nabaitu nuen lipar hartan...

Elsa'k farre egin zuen algaraz:

—Bai, bai. Orain oroitzen naiz. Arkitektoa zera zu, ez da hala?

Hala zan. Zerbaitez oroitzen zan Elsa. Vanhamme ez zitzaion behin ere harroputz iruditu; baiña gizartean arrakastako gizona zala agiri zitzaion. Segurantziari datxekon patxaran, eta patrika beteari datxekon irmotasunean, bere abotsa entzuten bide zuen hitzegitean, eta bere hitzak ongi neurtzen. Bere frantsesak Paris'ko doiñua zuen. Bere jazkera, snob izan gabe, dotorea zan, eta oso berrizalea.

—Eta, zer moduz? Goazen whiskey bat hartzera. Onar zazu nere gomita hau.

—Goazen bada —esan zuen Elsa'k, erdi harriturik.

—Lehengoan —hasi zan Vanhamme— De Rijke'rengana joan nintzan: berriz ere minberatua nuen hagin bat. Beste bat. Eta ez zindudan zu han ikusi, laguntzaille berri itsusi bat baizik. Zalantza-une labur baten ondoan, De Rijke'ri zure galdea egiten ausartu nintzaion; eta bere kontsultazioa betirako utzi duzula esan zidan. Egia da?

—Bai. Egia da.

Ixillune bat gertatu zan.

—Eta orain, zertan ari zera? Barka zazu nere jakin-miña; baiña zu bezelako emakume eder batez ez arduratzea, eziña zaio ezein gizoni.

—Orain ikasgu batean ari naiz, paperetan beti murgildurik. Ez dut lan hau batere maite; baiña bizi egin behar da. Dana dala, anitz esker zure onginahiarengatik, Vanhamme jauna.

—Ez horrela dei, arren. Antoine hobe da. Zergatik ez?

Zer zan «zergatik ez» hura? Ba ote zekien gaiñerakoa? Hauxe zan Elsa'ren katramilla nagusia une hartan. Baietz iruditzen zitzaion: bestela ez zuen galdera hura ulertzen. Ala, beharbada, Vanhamme'k ezer jakin gabe ere uler zitekean...

—Hamar urte dira etxegintzan hasi nintzala —ekin zuen Vanhamme'k. —Aitak emanaz gain, diru poxi bat neuk irabazi dudala ukatzerik ez dago. Eta Ukkel'go apartamendua utzi, eta Kraainem'era noa. Goitik bera nik asmatua, xalet bat eraiki dut Wezembeek-kalearen ondoko karrika batean. Leku paketsua benetan. Han gozatuko dut aurrerakoan nere bakardadea. Hogei-ta-hamazazpi urteetan etxe txukun bat atsegin-bide bat zait. Ez dakit ulertzen nauzun.

—Bai, bai. Noski.

—Laister aldatuko naiz. Hain zuzen ere, datorren igandean estrañatuko dut «Les Acacias» izeneko nere bizileku berria. Hori dala bide, jai txiki bat antolatu dut. Dantza eta xanpaiña piska bat izango dugu, eta nere adiskide batzuk etorriko dira. Gehienak beren emazteekin etorriko dira; nere garaieko lagunak ni baiño sendiberago gertatu baitira... Gazteago batzuk ere etorriko dira, beren andregaiekin edo laguntsekin. Hogei-ta-hamar bat bilduko gera guzira. Zergatik ez zatoz zu ere? Ni bakarrik nago.

Ideiek ikaragarritzko zurrunbilloan jarraitzen zioten alkarri Elsa'ren irudimenean: «hunek ba daki dana, bestela ezin da hau konprenitu... dana baldin badaki, gisakoa da nik baietz esatea... De Riemaker lege-gizonak lehengoan esan zidanez, dibortzioa legez osatu artean, kontuz ibilli behar dut eragozpenik ez sortzeko, eta aitzekiarik Luc'i doharik ez eskeintzeko... hogei-ta-hamar baldin bagaude, ordea, zer axola duke?»...

—De Rijke jaunak —moztu zuen Vanhamme'k— maiteegi zaitu, zutzaz hitzegiteko aukera gertatzen zaionean bururairiño ez baliatzeko. Dana kondatu zidan. Baita bera nola gelditu zan alargun! Horrengatik ausartu natzaizu gomita hau egiten.

Azken zalantzak bapatean suntsitu ziran Elsa'rengan. Zergatik ez, egia esateko? Katea bat sortzen hasia somatzen zuen: Luc mendekatzeko Jean Vanden Broeck, hunekiko samiñak gozatzeko Antoine Vanhamme... «Ez —pentsatu zuen—. Joan bai, joango naiz; baiña hasieran bertan moztuko dut edozein gauza. Zin dagit. Burubidea nagusi».

—Bai. Joango naiz. Nola eta nora joango, ordea?

—Neuk jasoko zaitut zure etxean.

—Ez. Nere etxean ez, otoi. Etxetik ez urrun bai, atsegiñez. Nahiago dut.

Igandeko bostetan Pâquerettes eta Azalees kaleetako izkiñan egongo zan zai Elsa, zugaitzen aldetik. Hau izan zan adia. Trenaren gaiñeko zubitxo pasatzen, beraz, eta hantxe, segittuan, Josaphat'en ertzean.

—Igandera arte.

* * *

Bostetan, agindu bezela, han zan Elsa, eguzki kiskaltzailletik itzalean gerizatua. Ez zai, zai egoterik ez zitzaion egokitu eta. Bostak eta bostetan Jaguar-sport gorri ditziratsu batetik klasona jo zuen bi aldiz Vanhamme'k, bere besoa agirian eta lehiatillaz kanpo zeramala. Alkar agurtu, eta laister, laisterregi Elsa'ren ustez, sargori nekagarri hartan habaillaren haizeak azkenean bizkorturik, Kraainem'en ziran. Kaleka paketsu batean, paketsuago eta bakartiago oraindik igande arratsalde beroegi hartan, eta muño legun baten kaskoan, xalet zoragarri bat agertu zan. «Ma Chaumière» bera ez zan haren maillakoa izan.

—Hori duzu «Les Acacias», esan zuen Vanhamme'k.

Uztai antzeko atari batetik gora abiatu zan «Jaguar»a arinki. Berebillaren motorra ixildu zan.

Hura pakea! Aurretik zugazti trinko bat agiri zan; eta han hemenka, baiñan ez alkargainka metaturik, Verviers'eko bazterretan zugaitz-mordoak bezelatsu, xalet batzuk, jauregi batzuk hobe, «Les Acacias»tikako musika epelean lozorroan igeri. Arbelazko teillatua, gaillurra zorrotz, eta sahetsean piziña urdin urdin bat, tranpoliña zaindari.

Xaleta estaia bakarrekoa zan: behereko planta besterik ez zuen: «Zahartzaroan igo eta jetxi beharrik ez dut izango», esan zuen itzalgaizka. Tximene bitxi luze bat gaillen, etxearen zelatari, leiho zabalak alde guzietara; zenbait pago eder atzeko aldetik, enborrak arras lizundurik. Eta aurrean, atariaz gain,

agiriko harriz eraikitako hesi bat, estalpe menditar bat erdian, eta parkin'ean bospasei berebil. Elsa'k ez zuen espanturik egin nahi, baiña lilluratuta zegoen arras.

—Atsegin zaizu nere txabolatxoa? —galdegin zuen Vanhamme'k harro-harro, eta irribarre haren segurtasunak, segurkeriak ia-ia, hitz haiek faltsu egiñez.

—Nori ez?

Baiña hitz hauek ez zitzaizkion bihotzetik irten, zeren-eta une hartan Vanden Broeck'en irudia bururatu baitzitzaion, nahiz laister baztertua eta ahaztua. «Zertarako, ordea —pentsatu zuen Elsa'k— jauregirik ederrena, barruan zorion izpirik ez dagoenean? Nun nabarmenago gizonaren etsi-beharra Taj-Mahal paregabearen aurrean baiño?».

«Ma Chaumière»z oroitu zan; eta Vanhamme'ri ia-ia urrikaldu egin zitzaion. Besteek bestela senditzen ote mundua? Ezin iñoiz hau jakin. Elsa'ren aburuz, ordea, hobe itsuskerian murgilduta bizi: «edertasunak zoritxarrekoago egiten gaitu».

—Goazen barrura —esan zuen Vanhamme'k. —Ikus dezakezunez, hor ditugu zai nere lagun batzuk, botillak eta gaiñerantzekoak hustutzen ari. Zer hartuko duzu zuk?

«Atsegin zait Elsa Scheelen zuri aurkeztutzea», esaten zuen Vanhamme'k behin eta berriz, etxeko living-bazkaldegi nasai hartan barrena gomitatuei ezagutatuztean. Elsa bestetan baiño ere ederrago bide zegoen, eta ez zan hau erreza izaten: begirada sakonago, ibillera ariñoago, mototsak luzatua soiña liraiñoago, soiñekoaren berdeak agerrerezita larrua larrosago eta beroago kolorez. Izen haiek guziak gogoan hartzen saiatu zan, baiñan eziña izan zitzaion. Arkitekto batzuk, hiruzpa- lau, aurkeztu zizkion. Huntaz gogoratzen zan. Bakar bat, iruditu zitzaionez, ezkongai; eta gaiñerakoak, ezkonduak eta aita-familiako; Vanden Borne zeritzan osagille bat ere bai, emazte eder baten senarra; «artista»bat (margolari ote?), kokotzean bizar kirrua, eta pittin bat konkortua, ezin dotoreago; etxegille bat, bi industria-gizon; eta, bukatzeko, merkatari ondasuntsu bat. Iñor gehiago? Ezin esan. Danak ezin apaiñoago eta ezin aberatsago, zirudienez.

Arratsaldea aurreratu ala, ematu egin zan sapa jasangaitz hura, eta eguraldia zoragarri mamitu illuntzerakoan. Gehienak kanpoko belardira irtetzean hasi ziran; eta han zeuden, multzo txikitari, zutik, edaria eskuan, irriz eta farrez. Bi zerbitzarik erratilluak hustu ala ornitzen zituzten.

Giroan zegoen musika, hutsunean zintzilikaturik, iduriz haizez egiña; edo haizea musikaz egiña, nahiago bada. Alta- bozak —hamabost, gero jakin zuenez— oso apalki ari, eta abilki diximulaturik

apaingarri gisa. Musika, hortara, iñundik bereziki etorri gabe, giroari berari zerion, behelañoan lanbro-ttanttak bezela. Etxe-barneko habeak eta zurezko zutarriak zuraren berezko itxura hartantxe zeuden agiri, besterik gabe; baiñan illun, ia beltz, margoturik. Nola uka hura zoragarria zanik? Edaria ez zan hurri, bestalde: herri eta erresuma guzietarik ba zegoen. Ezin denetarik dasta: hauxe zan buru- hauste bakarra! Mahain luzean eta erratillu ibiltarrietan ez zan deus falta: ba zegoen joera guzietarako litxarkeriarik: gazi eta gozo, bero eta hotz. Umorea ondu eta alaitu ala, platerak eta basoak behin eta berriz hustu ala, hizketa ozenago egin zan; eta, zerbait entzun nahiz, hiru bider goratu behar izan zan musika, algara-nahaspilla hartan suntsitua. Ausartenak (zaharrenak!) laister hasi ziran dantzan, gutxitan nor bere emaztearekin.

Vanhamme trenpu onean zegoen, eta oso berritsu. Elsa ez. Ez zan laket giro ez-ezagun hartan. Berria zitzaiolako? Antwerpe'n halako zerbait ezagutu zuen behin Luc'en ahaide batzuen etxean; baiña hura apalago izan zitzaion.

—Hemen bizi zaitetzke, bai —esan zion Vanhamme'ri halako batez hogeita-hamar bat urte zituen emakume apain batek. —Guk Uccle'n ez dugu giro hau aurkitu, eta ez aurkituko. Han soiñua, ke-usaia... ifernu bat.

—Egia duzu, bai —erantsi zuen Elsa'k, zerbait erantzun beharrez. —Dieweg-kalean bizi izan naiz ni luzaz, eta mogimendu haundiegia zegoen, jasan-eziña.

Hau gezur hutsa zitzaion, baiña kejati agertzea guztiz beharrezkoa da «haundiki»en artean, eta Elsa'k ba zekien.

—Hara! Eta Lasalle'ko Kondea ezagutzen duzu? Hantxe bizi da, Observatoire'ren ondoan.

—Ez, ez; ez dut ezagutzen.

—Tamala da: oso gizon interesantea da. Zirtolari bikaiña, bidari amorratua, emakume kontuetan fiña.

—Zertarako nahiko zenuteke zuek, ordea —ebaki zuen Vanhamme'k— hunelako xaletik? Zure René ez dakit nola moldatzen dan; baiñan aurtengo Otsaillean Suiza'n egon zerate biok hiru edo lau astez, eskiatzen omen...

—Bi astez, Antoine —zuzendu zuen andreak, zigarroaren ke urdinska sudurretik ugari zeriolarik.

—Bego! Bi astez. Eta udaran Saint Trop aldera joaten zerate urtero, bizpahiru hillabetez, hango zuen «zulo»ra (René ren hitz berberak erabiltzeko). Zertarako beharko zenuteke Bruselan hunelakorik ezer? Noiz gozatzeko?

—Hori da aurpegi gogorra! —errepikatu zuen andreak. —Entzun duzu hori, René?

—Bai, bai: ez duk lotsarik motel! —René'k erantzun.

—Zuk bai —ekin zuen René'ren emazteak— zeuk behar duzu, beraz, hunelako jauregi bat, eta ez guk... Horra zer entzun behar dugun! Guk haurrik gabe bixigarriren bat behar dugu, ez duzu uste? Baiña zuk, Antoine Vanhamme gizajo horrek, zertarako? Zenbat hillabete da Acapulco'tik eta Denver'tik bihurtu zerala? Ez dut ikusi, horrengatik nere ustez, «Quick» zure zaldia. Nun duzu orain?

Vanhamme poztu egin zan hauek Elsa'ren aurrean entzunda.

—Barka, Antoine —entzun zan soprano abots batez. —Vanden Linden jaunak (nere senar maiteak, hobe...) baimena eman dit etxeko-jaunarekin rock hau dantzatzeko. If you want, of course...

—With pleasure, Lily. Elsa'k ez zuen ezer esaten.

Vanhamme'k bere xanpaina-txola berriz ere beterik, ate ondoko aulki baten gainean utzi zuen; eta barru aldera jo zuten bi dantzariak, oiñak aixago irristatu beharrez. Lily'k galdetu:

—Eta nor ekarri behar duzu zure piziña hortara? Tristeza litzaizuke, nik uste, hor bakar-bakarrik zuk igeri egin beharra. Ez didazu ukatuko, Antoine! Gaiñera, eta hau ba nekien lehendik, ongi aukeratzeko duzu beti. Esate baterako: ni alde batera utzi ninduzun orain dala hamar urte... eta orain, hori hartu. Truke azkarra, alajainkoa!

Eta begi-kiñu gaixto bat Vanhamme'ri egiñez, Elsa begiratu zuen nabarmenki. Elsa, haiei begira lipar hartan, kezkatu egin zan poxi bat, dana entzun balu baiño areago eskierki.

—Zorionak merezi ditut, beraz, ez da hala? —galdetu zuen Vanhamme'k, baiezkoa bere buruarentzako losentxa hartuz.

—Uste dut edozein zozokeria egin ditekeala beragatik —ekin zuen Lily Vander Linden'ek. —Zuk ez duzu egin, ba dakit...

—Oraindik ez.

—Ez duzu iñoiz egiten. Baiña kasu hortan, baita ezkondu ere egin ditekeala dirudi! nundik atera duzu?

Vanhamme pozik zegoen.

Musika gelditu, eta biak Elsa'ren lagun-multzoarengana joan ziran. Lily zuzenean Elsa'rengana; eta belarrira, baiñan ongi goratik, esan zion:

—Elsa omen deritzazu. Ez zaitut ezagutzen, Elsa; baiñan Antoine Vanhamme bai. Aholku bat emango dizut. gogor egiozu huni, gogor! Ez du piztia hunek besterik merezi. Mendeka nazazu, mendeka gaitzazu, hobe!

Itxura egiñez, Vanhamme'k hasarretu-iduri egin zuen, esanez:

—Adi zazu, Lily. Otoi! Zer dira «aholku» eragabe horiek... eta nere aurrean!

Zer egin behar zuen Elsa'k? Harrituta zegoen, eta bere muziña bertago zan negarretik irribarretik baiño. Ia-ia itsusi zegoen. Beharrik Vanhamme, nunbait oharturik, dantzan egitera atera zuen.

—Ongi ari? Ez zaituzte gehiegi galerazten, espero dut. Esatea daukazu bestela. Mutilzarrok, ba dakizu, emazteen tema gera: funtsean ezkonduetako emakume guziek gorroto gaituzte. Eta ezkongaietan, ez gutxik.

—Ez naute galerazten, ez. Baiñan ez ditut ezagutzen. Ez nago ohituta.

—Tira, tira, Elsa. Ez didazu siñistarazi nahiko ez dizutela sekulan horrelakorik esan... Zu bezelako B. B. batek, eta zurikerietara eta zirto bihurrietara ohitua ez? Eziña.

—Ez pentsa, Van...

—Ez pentsa, Antoine.

Eta «Antoine» hitza agerrarazi egin zuen.

—Ez pentsa, Antoine. Luc'ek, nere senar-ohiak, ez du horrelakorik bere aurrean esatea nahi. Nere senarra ikaragarri jeloskorra da.

Vanhamme algaraz hasi zan.

—Bai, bai. Siñistu eziña zuri izanik ere, Luc oso jeloskorra da.

Arrats gorria Mendebaldean, oso polliki illuntzen ari. Ezkerretan amets-zingira urdiña argiturik, hiru xirripa aratz eta oparok elikaturik, arratsaldean baiño urdiñago eta kilikagarriago.

—Oso ederra, benetan —esan zion Elsa'k—. Argizko eta ditzirazko hiru ur-uztai horiek, urdiña lau zatitan banaturik, emendatu egiten dute urdiñaren urdiña, sakonago egiñez. Oso ideia ona izan duzu.

Piskanaka dantzari utzi, eta piziñaren ondora jende-talde ugari bat bildu zan, denen artean giza-arku bat marratuz, eta xirripa etengabeen xuxmurra beti lagun. Elsa'ren ondoan exeri zan Vanhamme, eskubiko besoa hunen aulkiaren atzetik jarrita, itxuraz bizkar agiri hura laztanduz.

—Baliatu egin behar ditugu, bai, azkeneko aukera hauek —esan zuen Vanden Borne osagilleak. — Laister gureak egin du; eta belgikarrok Belgika'tik aldegin beharko dugu.

—Bai horixe —baiezto zuen Vanhamme'k. —Europa'ko Merkatu Batua dala-ta, dana ingelesez eta amerikarrez betetzen ari zaigu; eta Casteau'ko NATO'ren Buruzagitza dala-ta, yankeez ere bai. Administrazioan ez dago ezer «flamen» horiek baizik. Kongo'n jipoi ederra eman zigun Lumumba'k, beste ero askoren eta komunisten laguntzaz; baiña gure politikari maiteek ez dute deus ikasi; eta Brusela «bougroul»ez beterik dago, Mobutu'ren zerbitzu itsuan, eta nun-nahi belzkoteek gure lepora hemen ikasten dute eta, geroenean, buruan berriz emango digute!

Inguru guzian entzun ziran algarak.

—Azkeneko olatua, noski, espagnolena da. Midi aldera, Tanneurs, Blaes, Haute kaleetan, eziña da ezer: hura España da. Edonun gizonsko txiki, mehe, beltzaran, eta zalapartatsuz betea. Dendetan: «Comercio Español», «Especialidades Españolas». Barretan gitarra eta «flamenco»...

—Hemengoa baiño interesgarriagoa azken hau, jakiña —esan zuen espaiñeraz zerbait zekien norbaitek. Batzuk farrez, bestek harriturik.

—Inguru horietan, hortara —jarraitu zuen Vanhamme'k—, erdi-flamenkerazko «marollien» hizkelgi bitxi hartatik, espaiñerara ari gera igarotzen zuzenean, frantsesaren arrastorik gabe!

—Zelebrea, baiñan egia —entzun zan algaren artean.

Elsa'k ez zuen ezer esaten. Nola esango ezer entzule mordo haren aurrean? Espaiñarren hauzia berdin zitzaion. Hobe esateko, berdin izan zitzaion «Les Acacias» hartara joan arte.

—Horixe! —baietsi zuen Vanden Borne osagilleak. —Atzo nere bezero batek esan zidana kondatuko dizuet bi hitzetan. Bere adiskide bati gertatu omen zaio; beraz, egia dala esan diteke. Sartu omen da berriki Merode-kaleko denda batean, ez dakit zeren eske. Eta ba ahal dakizute zer erantzun zaion dendan? Hauxe gutxi gora-behera: «Mesié: isi nu ne trabaión pa pur les etranyé».

Hura algara!

Eta espaiñerazko doiñua iduritzuz, berriz esan zuen fran-sesera kaskarrean gauza bera. Alegia: «jauna: hemen ez dugu guk atzerritarrentzako lanik egiten».

—Egia ote da hori? —batek. —Eziña da! —beste batek.

Hortik aurrera bero bero jarri zan alkarrizketa. Gutxi gora-behera danak bat zetozen puntu batean: Brusela hondatzen ari zan; eta kakoa hortantxe zegoen: alegia, flandretarrak barne, atzerritar gehiegi.

—Ez, ez da arrazakoikeria —argitu nahi zuen Vander Linden'en emazte pertxentak. —Baiñan, espaiñarrak, esate baterako, zikiñak dira, oso zikiñak. Ez da beren errua, baiña geurea ere ez. Tanneurs edo Haute kaletik sartu, eta han espaiñiarrez beterik dagoela esan diteke ezer galdetu gabe: sotoak hondatzen hasiak dira nun-nahi, paretak (barka!) pixatoki bihurtu dira, eta ateen zurek, margorik ezaz, ardurarik ezaz batez ere, pipiak janak dirudite. Emakume beltz narratx horiek, bestalde, anak lodi eta motz, abotsa beti zorrotz, beren hizkera presatu hortan. Soiñua, zarata, saltsa barretan, berandu arte. Ez dira gure bizi-moldera jartzen. Eta danaren gaiñetik, desordenua eta kiratsa.

—Benetan —ekin zuen Vanden Linden andreak— nik ez nuke iñolaz ere iraunduko hauzo horietan. Eta «Marolles» tarrek berek ere ez; hauek jatorriz waloniarrak baitira, eta belgikarrak beraz.

Elsa bere aitaz oroitzen zan horiek entzutean. Txikitandik italiar eta turkiar asko ezagutua zuen etxen, Mons'en, aita mia-zulo guzietatik ateraiak. Ordurarte, flandretar arazoa alde batera utzi ezker, bere aita urrutiegi joan ohi zala iruditzen zitzaion: «Sozialista baten bihotzean eta etxean —esan ohi zuen Scheelen jaunak— ez dago nazio arteko mugarik». Lehenengo aldiz aita egia ote zuen somatzen hasi zan Elsa «Les Acacias» eneko giro harro eta arrazakoi hartan. Oso hotzean eta erdizka oraindik; baiña zerbait.

Areago: «ez ote dira flandretarrak berak, hau eroaldia, funtsean kasu berean?». Zorabio bat nabaitu zuen, pekatu larri baten aurreko erabakia hartzean bezela edo. Eta atzera egin zuen: «Hemen esaten

dana onartu eziña da, nere aitaren alde naiz dudarik gabe. Baiña flandretarren kaso desberdiña da: gu zanpatu nahi gaituzte».

—Atzerritarren ezagupide nagusia hau da: zikintasuna —entzun zuen Elsa'k.

Danak farrez eta pozarren. Begirada goititu zuen: «Edertasuna eta zozotasuna maiz alkaturik!».

Musika giroan zegoen, lehen bezela, beti entzungarri eta eder. Baiña algaren arteko ixilluneetan baizik ezin entzun. Goi izartsuan hodeirik ez.

Handik laister zenbait lagun, herronka, joaten hasi ziran; eta Elsa'k aukera hura baliatu zuen Vanhamme'ri ordua gogoratzeko:

—Nik joan egin behar dut. Hamaikak eta erdiak dira, eta bihar lanera joan behar dut. Ezin hutsegin, bestalde: hasi-berri xamarra naiz, eta hiru hillabetetako saio-aldia ez dut amaitua.

«Hau txatxukeria: hunelako xehekerietan hastea», pentsatuko zuten hango guziek gutxi gora-behera, Elsa'ren hitzak entzun izan balituzte. Burgesen iritziz langilleek ziztrinkeriaz hanpatzen dituzte lanegin beharraren gorabeherak: «Gizajo horiek ez dute kategoriarik: txikikeritan ittotzen dira. Ez dute goitasunik».

Behera lagundu zuen Vanhamme'k, eta Jaguar'ean urrundu ziran biak burrundara haundian, irtetzean klasona behin eta berriz joaz. Berebillaren leihoetatik haize epelak laztantzen zuen Elsa'ren aurpegi beroegia. Laister ziran Josaphat'en ondoan.

—Agur —esan zuen Elsa'k, Vanhamme'ri eskua emanez.

—Hunela ote zoazkit, Elsa? —galdetu zuen hunek Pâquerettes'ko izkiñan, Jaguar'aren motorra geldiarazi ondoren.

Noizpehinka zugaztiko hostoen zurrumurru olerkitsua aditzen zan, haize bala batek eragiña.

—Agur —esan zuen hozki berriro Elsa'k atea ideki nahiz.

—Ongi jolastu zera? Ixillik ikusi zaitut askotan.

—Bai, bai, ondo —erantzun zuen Elsa'k gogorik batere gabe. —Orain joan egin behar dut. Nola ideki diteke ate hau?

Urduri jartzen hasia zan: ez zuen asmatzen, eta Vanham-e'k zirkiñik egin gabe begiratzen bide zion. Ez zuen Elsa'k egon hartan segi nahi.

—Eta, noiz arte orain? —galdetu zuen Vanhamme'k.

—Geroak esango du hori.

—Zergatik presa hori? Bakarrik zaude. Hori uste dut bederen... Zenbat hillabete da zure senarrarengandik berezi ziñala?

—Berdin da hori orain. Utz nazazu joatera.

—Lau hillabete? Zortzi? Eta... gaiñerakoak... ustegabeko serora... Eta orain, etxera, bakarrik? Ez nauzu kafetxo bat hartzera gomitatzen? Hunelako gau eder batean, Elsa... Ez nuke oraintxe eta bakarrik bihurtu nahiko...

—Utz nazazu pakean!! Idekazu ate madarikatu hau!

—Ezin siñets. Hunela agurtzen nauzu, beraz? Hunela jokatu izan duzu beti zure miresleekin? Hortaz, zergatik utzi zaitu De Potter jaunak?

Eta indarka besarkatuz, musu luze bat eman zion masailla legun beroan. Ezpaiñak alperrik billatu zituen, Elsa'k eskuaz estali baitzituen.

—Atea, eta kitto! —Eta karrasika hasi zan: «Au secours!».

Bapatean atea zabaldu zan.

—Zakar hori! —esan zion Vanhamme'k. —Horrelakoxeak maite ditut nik emakumeak: eskuragaitzak.

Agurrik esan gabe joan zan Elsa goruntz, bihotza oso hestututa. Jaguar'a laister abiatu zan indar guziaz, eta ikaragarritzko burrundan, hegoalderuntz, laisterketan ari balitz bezela urrundu.

Elsa minduta zegoen, oso minduta: «Nortzat hartu nau ni horrek? Zer adierazi nahi zuen, bestalde, 'zenbat hillabete'ren galdera nazkagarri haren bidez? Horren «egarriak» nagoela uste du? Gizonak beti bat! Eta hunek, danaz gain, munduko nagusia dala uste du, eta bere besoetan ez erortzea eziña dala»...

Ohera joan zan. Txit urduri alabaiñan: ezin loak har. Ordu biak, hirurak... Molière'n bezela berriz. Eta kanpoko atea iñork oraingoan idek zezan itxaropenik gabe... «Zenbat hillabete senarrarengandik berezi ziñala?... Horrela agurtzen nauzu?... Hunela jokatu izan duzu beti?... Zergatik utzi zaitu hortaz De Potter'ek?»...

—Ez diot sekulan barkatuko! —esaten zuen ahapeka. —Zer uste zuen urde harroputz horrek? Beharbada, bere eroaldian, eta irudimenez, bere piziñan ikusi nau, billuzik, berari irribarrez so... Ondo jaioa dago!

Eta beranduxeago erantsi:

—Errua enea da, eta ez berea. Nork deitu nau ni sasi aiton-semeren saizulo hortara?

Amorrazio hartan, konturatu gabe ezker aldera jarri zan, eta bereala oiñaze bizia sendi zuen sahetsean. Zutitu egin zan ikaraz. Berriz aldegiña zan. Beti bat. Legunki etzan zan eskubi aldera, eta gogoetari ekin zion.

Aurrerakoan kontutan hartuko zuen gertatutakoa: hau izan zan gau hartako erabaki pozointsua. Handik aurrera kontuzago jokatuko zuen. Senarrarengandik berezi dan emazte ederra, emagaldutzat, edo kaskarintzat bederen, hartua da eskuarki. Vanden Broeck'en kakoa ez ote zuen alde huntatixek billatu behar? Hura entzuna zuen lehendik ere, baiñan ez zuen erdizka baizik siñistu. Orain bai. Orain bere buruz ikasia zekien: esaera hori xuxena da arras.

Gizonetan arra ikusiko zuen aurrenik: arra jelean, susara, gori, abereak baiño okerrago. Hau ikusiko zuen beti lehenik, eta hitzetan ez zuen deusik ere sinistuko. Iñolaz ere ez onerizkoan eta lagundu nahiean hurbildutako gizon presturik: «emakume ederrekiko ez dago gizon onik». Arra emea lillu

ratu nahiz, eta besterik ez.

«Gizonekin kupidarik ez, eta mespretxua gidari. Eta haiek urrunago eta hobe», idatzi zuen.

XIII

Liburuxka izkutua ideki zuen berriz handik zenbait egunetara, eta arratsean idazten hasi zan:

«Kaskarintzat hartzen naute gizonen: hauxe da denen kakoa. Ez dago dudarik. Senarra lehen izan, eta gaur ez dudalako, edozein gizonen besoetara nere burua aurtikitzeko zorutzen naizela iruditzen zaie...

«Horrela idazten da Kondaira...

«Zein urrun, ordea, ni ideia horietatik...

«Bi aldiz maitatu dut nik bihotzez; eta bietan izan naiz iraindua, mespretxatua, ahaztua.

«Irteerarik ezean, barne-hotzak ikaran, otoitz egin nahi izan dut; baiña haurretan ez nuen Jaungoikoarekin mintzatzen ikasi, eta nagusitan sarriago izan dut Jaungoikoa madarikatzeko aukera, bedeinkatzen eta erregutzen ikasteko baiño.

«Malkorik gabeko negar-saio amaigabeak izan dira hortara nere otoitz bakarra.

«Eta bietan damu izan dut maite ukana. Nere bihotza eman berriz nik? Iñolaz ere ez! Ematea eta galtzea bat dira.

«Funtsezko erabaki guzietan nahastu bide naiz. Zertarako erabakiko aurrerantzean besterik ezer? Behin eta berriz, utzi nuen bideak salba bide nintzake, eta aukeratu nuenak hain zuzen kondena...

«Probetasunetik igesi, gogoz hautatu nuen Luc, gogoz eta bihotzez bai; eta Romain gizajoa aixegi arbuiatu: Romain txiroa zan, Luc aberatsa. Ez nuen kalkulokerian jokatu, halere, edo diruzalekeriak eragiñik. Nere aukeraren kakoa sakonago zegoen. Aberastasunaren irudia Mons'eko txirotasunak eta behartasunak berak edertu zuten, sapa legorak itsasaize heze hozkirria bezela.

«Descamps'en salgu nagusian, polita naizelako hartu ninduten. Hamazazpi urteak bete berriak: «horren ederra izanik, Elsa, hemeretzi edo hogeituzula ematen du; eta bulegora aldatzeko unea helduko zaizu. Ez kezka. «Aitaren ahalegiñen ondoren hartarako; sindikatoaren faboreak hartarako. Lanegin behar, ordea, eta lanbide hoberik ez. Lau urtetan barrena ikusi nuen eguzkiaren argia ateez bestaldera alperrik deika eta alperrik iraungitzen; eta ni beti saltzaille, beti eginkizun berean, beti katibu batez ere.

«Ilgandeetan beretan, zer egiten nuen nik, zozo hunek, nere askatasun apur hura uxtiatzeko? Zer da askatasuna poltsikua hutsik daukanarentzako?

Aitaren hitzetan siñistu nuen azkenean, erdizka bederen: burgesia nagusi dagoefio, txiroa izatea da mundu huntako zorigaitzik gaitzena'. Aitak 'erreboluzioa' egin nahi zuen. Nik ez nuen erreboluzioa siñisten, ez dut gaur ere siñisten, dirudunak gero eta gorrotoago baditut ere; eta neuretzako «erreboluzio' txiki bat egitea pentsatu nuen.

«Nola ez nekien.

«Baiña Luc nere bidean egokitu zalarik, berak erakutsi zidan ustekabeen nik, txiro hunek, pairatzen duten ifernutik aldegitoko ateka bat. Zergatik arbuiatuko? Bizia behin ematen zaigu, ez bitan. Zergatik «ez» esango?

«Eta amor eman nuen.

«Zer espero nuen nik aberastasun berritik? Jator aitortuko dut: haur asko izan, danak musugorri eta danak aisian haziak; trenen txistu zorrotza arratsetan eta lo-egiterakoan entzuten ez zan etxe zabal bat, negu miñean epel; alperrik galdu beharra nuen denbora igarokorra, asti paketsu billakatu; soiñeko ederrak jantzi, eta nere eskuetako larrua beti legun atxiki; musikaz eta izadiaz gozatu ahal izan; norberaren zorte gaistoa mendekatu nahiz ameslariak elikatzen duen politikieriatik aldegin, erreboluzio-nahiaren oiñarria herra baita, eta ez amodioa; Kreta, Riviera eta Côte d'Azur'eko itsaso urdiña eta kresal sarkorra dastatu ahal izan.

«Helburu nerekoia, ba dakit. Eta besteenak? Nere aita miresten dut; baiña hodeietan bizi dala uste ere bai. Sozialismoaren lillurak alperrik xahuarazi dizkio egunak. Frakasu horren alaba eta mendekatzaille naiz ni.

«Harira bihurtuz, Luc ez zan nigan izan Luc De Potter antwerpetarra, aberastasun-lillura horien ekarlegai baizik: gure haurrek Nikolas Saindua maite duten bezelaxe maite nuen nik Luc. Jator aitortzen dut: Luc nere gorputzaz maitemindu zan bezelatsu, eta ez nitzaz; ni neu ere, Luc'en bidez lortuko nuen bizimoduaz maitemindu nintzan, eta ez Luc'ez.

«Gero topatu nuen nik Luc: aurkitu egiazki, eta ez idoro, ez bainuen billatu. Askoz beranduago, nere lilluren funditzeaz bestaldera: neuk ez baiña nere gorputzak ase zuela konturatzen hasi nintzanean. Ohartu gabe, nik Luc tronpatu nahi nuela ikusi nuen; eta berak ni ere bai. Aberastasunaren lilluren ipuiña eta haragiaren hurria gure aurrean billuzik agertu ziranean, laztu egin giñan biok, eta bateratsu

nik uste. Luc'en mespretxua sendo aurkitu nuen beregan: nere gorputzaren eskasiaz etsita zegoen, eta beste emakumetara jo zuen. Huntan itsuago agertu zan ni baiño, irteerarik gabeko bide batean barrena abiatu baitzan.

«Nik garbi ikusi nuen nere okerra: Luc antwerpitar zoritxarrekoa maite behar nuen, ez De Potter dirudunaren atzeko sasi-parabisua. Orduan nahi izan nuen Luc bera maitagunez irabazi, baiña berandu zan: maitekorrago ni agertu, eta bera zakarrago; arrastatzen hasia ni, eta bera hanpatuago zanpatzen; belauniko ni erreguz, bera gero harroputzago eta kupidagabeago. Amodioaren hazkurria mespretxua baita: arbuiatzenago eta maitatuago, maitatzenago eta arbuiatuago.

«Hori dala bide, isiz, amorruz, Holanda'ra joan nintzan Jean Vanden Broeck'ekin; baiña handik bihurtzean, Loosdrecht'eko eta Amsterdam'go zorionaren ur freskua edan berria neukala erreparatu nuen... Berantegi! Nola lortzen ote dute nere adiñeko batzuk haragiaren eta sendimenaren arteko berezketa guzizko hori? Nola gerta ditekete atsegin-mentura huts bat, izpirituaren joranak eta begirada baten oroitzapena laister erantsi gabe?

Ez nau ni atsegiñen laburrak mindu, begitarteko muzin gogorak eta maitagunearen suntsierak baizik. Lizunkeriak ez nau iñoiz biziki erakarri, eta mota hortako lillurazioen garaia pasea da neretzat.

«Axaletik jokatzetik ez dudan ezkerro, beraz, nundik irtengo? Irteerarik ez.

«Ba dakit... somatzen hasia naiz... somatzen hazia hobe... Zoritxarraren hesi gaitzak ez dit aterik utziko, ez atekarik, ez zirrikiturik, ez arraildurarik: ezin gotorragoa da nere inguru guzian...

«Zaratatik iges egin nuen pake billa, eta Dieweg-kalean nere ametsetako bat obratua uste nuen. Baiña laister kale zalapartatsuen iskanbilla etengabea billatu nuen, ixiltasunak ni errotik minbera nintzan bildur...

«Herri txiki batetik iges egin nuen hiriburura: «Kalakariak eta kontakatilluak urrun utziko ditut», pentsatu nuen. Eta laister Jemappes'eko ezaguera haiek falta zitzaizkidala erreparatu nuen, eta Brusela'ko izengabekeria, ez deus senditzea, gorrotoago nituela utzitako berriketa salatari guziak baiño...

«Egokia zitzaidan gaztetan emakume ederra izatea. Baiña gaur madarikatu egiten ditut nere liraintasuna eta nere begi nabar illunak. Emakumeek betidanik gorroto izan naute: ez dut iñoiz neska lagunik lortu: inguruko guziak, ikastetxean eta lantegian, izan zaizkit beti maisetzaille gartsu eta gogor. Gizonek, aldiz, ez dute iñoiz egin nere gorputza desiratu besterik; eta sendimenduak nigan bi

aldiz hozitu diranean, eta itsatsi, bietan malkoekin batera haragikeriaren legorteak igar-arazi ditu berengan nigan sasoiean erauziz.

«Zertan gertatu zait adiskide, beraz, gogaituta naukan nere edertasun hori? Zenbait aldiz harrokeriaren atsegiña ezagutarazi dit, egia da; baiñan ez da hau behar nuena. Zorionekoak zuek, emakume itsusiok; zuen begietan josten diran begiradak ez baitira beheragoko bidean estakuru gisa pausatu!

«Heriotzatik iges egin nahi izan nuen, azkenik. Luc'ek heriotzaren tema izan du beti, lizunkeriarena bezin ziña; biziaren eta heriotzaren iturburuak samintasunezko mendi-mazela berean jarioko balira bezela. Heriotzaren tema hori urte askotan nere pentsamenetik baztertzen saiatu naiz. Zertarako, ordea? Zergatik ez nere buruaz beste egingo? Eta kitto! Nori damutuko litzaioke? Egia du Luc'en huntan... Ez nuke egingo, halere. Bere burua hiltzen duenak munduan siñisten du era batean; eta munduaren bitxitasuna eta biziaren sentidurik eza bere burua ezdeustatuz ezkontarazi nahi ditu.

«Bere burua hiltzen duenak konpondu egin nahi du mundua, oreka birrerosi nahi du, bere patuari dagokion absurdutasun atala fundiaraziz.

«Lillura horietatik at nago ni: zirika-bide horiek errotik ukatzen ditut. Bizia joko bat da, joko garratza; baiña haundikeriarik gabe, apalki, jokatzen ikasi beharrekoa. Apaltasun horren lehenengo frogakaria, suizidioari uko egitea da. Etsi egin behar da baita geure buruaren heriotzaz. Ez du ezer konpontzen.

«Bizieraren etsipenaren itsasoaz bestaldetik itzuli berria naiz. Olerkia gelditzen zait, musika, bidaiak, abereak. Hitz batez gizonaren bidez lortu behar ez diran helburuak eta atsegiñak.

«Urrutira joan, oso urrutira, bakar bakarrik; eta haizea txistuka ari entzun.

«Atzerritarra naiz ni ere, Baudelaire'ren arreba bizkia; eta berarekin diot:

—Zer duk maiteenik, gizon bitxi horrek? Esak: hire

aita, hire ama, hire arreba, hire anaia?

—Ez dut nik ez aitarik, ez amarik, ez arrebarik, ez anaiarik.

—Hire adiskideak ote?

—Gaur arte neretzat funts ez-ezaguna atxiki duen

hitz batez baliatu zera zure hortan. —Hire aberria?

—Ez dakit nik zein eskualdetan dagoen.

—Edertasuna?

—Pozarren maitatuko nuke, jainkosa eta hillezkor.

—Urrea?

—Gorrito dut nik zuk Jaungoikoa gorrito duzun hainbat.

—Hara! Eta zer maite duk hik, hortaz, atzerritar harrigarri horrek?

—Hodeiak maite ditut... igarotzen diran hodeiak... han uruti... uruti... hodei zoragarriak!

Baudelaire'k ba zekien, bai, nere etsipenaren berririk!»

Luma utzi zuen; eta idatzitakoa irakurri zuen berriz hitzetik hortzera:

«Ez, ez, ez da hau: besterik da senditzen dudana», esan zuen. «Senditzen dudana at dago, haruntzago, askoz haruntza

go, illunpeetan barrurago. Ez naiz gauza! Mutua naiz! Mutua da gizona; eta mintzo dalarik ere, mutu dago».

Eta ingurraztia hartu zuen, eta anitz puskatan bota zuen zakarretara.

Eta gaiñean gelditu zan paper puskan hau irakurri zuen: «igarotzen diran hodeiak... uruti... hodei zoragarriak...».

XIV

Udarako azken igande hartan biziago ziran koloreak bestetan baiño, itzalak illunago, eta argia orixkago, epelago behar- bada. Eguraldia berotxo zegoen egunsentitik beretik; baiñan udara bukatua zan zalantzarik gabe, eta udazkena gertu.

Goizegi zan, baiñan Elsa'k goiz jaiki nahi zuen, hain zuzen. Eta etxeko lan batzuk egin ondoren, tranbia hartu, eta Anderlecht'eko azoka ezagunera joan zan.

Bertago eta zaunkak zaratatsuago. Bederatzi t'erdiak baizik ez izanik ere, erosleak eta ikusleak barrura eta kanpora ari ziran: kartoiezko kaja bat besapean abiatzen zan zenbait; beste zenbait, beren txakurtxo berri eta ñimiñoa soka batez alperrik tiratuz eta ibillaraziz; banaka batzuk doillorki zintzilika eramaki. Saltzailerik gehienak flamenkeraz mintzo, mendeetan barrena bezela. Zenbat urte hartan Elsa hara ez azaldua? Behin etorri zan Luc'ekin, aspaldi, oso aspaldi; baiña Luc'ek ez zuen ezer erosi nahi izandu: «Aspertu egiten naute abereek». Hau entzutean gorroto txinparta bat piztu zan Elsa'ren barruan.

Oraingoan katu bat erosi nahi zuen Elsa'k, beltza ahalean. Hau izango zuen aurrerakoan bere lagun bakarra. «Nork ukatu du abereak lagun hobeak diranik kristauak baiño?». Zakurren postuak pasata, eta ezkerretara jo baiño lehenago, ta aterpe beltz itsusi haien azpian (pittin bat Paris'ko «Les Halles» zaharretako aterpeetan bezelatsu), hegaztien eta untxien saltegiak alde batera utzi zituen, eta katu batzuk ikusi zituen, txori-kaiioletan sarturik salgai. Ia-ia farre egin zuen.

—Gizajo hori! —esan zuen—, saltzailleak katutxo beltz bat eskeintzen ziolarik. Zenbat balio du?

—Berrehun libera —erantzun zion andreak—. Oso maitagarria da. Eta bere ama, nik aginduta, txit garbia da, benetan. Amaren ezpalekoa gertatzen baldin bada (izan-bada!) ez zaizu damutuko.

Elsa'k altzoan hartu zuen; eta laztandu ala, katutxoak bizkarra altxatzen zuen, eta segidan isatsa, «miau» izuti fin-fin bat entzunaraziz.

—Bai, beraz? Eramana ez zait damutuko?

—Ez, ez. Lasai egon.

—Ongi da. Emaidazu.

Eta bere txori-kaiola hartara berriz sarrerazten zuen artean, aholku-zerrenda luze bat eman zion Elsa'k maitekiro.

* * *

«Hektos»-eneko bulego berrian maiz oroitzen zan katuaz; eta etxerakoan pozgarri zitzaion han zai topatzea. Gauetan, halere, Elsa'k bere lo-gelako atea hetsi ohi zuen. Arramazka edo koska egingo ziolakoan? Ez, ez zan «Mimu»ren bildur. Baiña gauez Elsa esnatu ezkerotan, eta illunpetan katuaren bi begi argitsuak beltzean ustekabez erreparatzekotan, hura ikara!

Bereala laketu zan «Mimu» Pâquerettes'ko etxean; eta majiña bat festa, triska eta jauzi egiten zion arratsean, aldiz Elsa' rengandik ero moduan urrunduz, aldiz konkorr-konkorturik eta saiheska ondoratuz. Elsa'k farre egiten zuen komeria haiek ikusita.

Telefonoa, beltza ere, mutu beti. Hura tresna bitxia! Telefonoa etxen eta, zertarako, egia esateko? Apaingarri? Ixiltasunaren lekuko? Besteen ahaztutzearen neurri? Etxea hartzerakoan, hobari bat eta oso egokia iruditu zitzaion, ia-ia beharrezkoa. Nor deitzeko, ordea? Noren deiak erantzuteko? Ez zuen pentsatu.

Bakardadea aste-bukaeretan, bakardadea gau-miñetan, bakardadea Neuve-kaleko eskaparate jendetsuen beren aurrean. Egunak laburtu eta hoztu ala (eta laister laburtzen eta hoztutzen Brusela'n), zaillago zitzaion Josephat'eko parkera azaltzea. Emakume bat eta han bakarrik... zertara joana? Gauez ez zan iñolaz ausartzen: gizon bakarti batzuk han ikusiak zituen behin eta berriz, illunabarrean; eta susmorik txarrenak siñisteko gertu zegoen.

Azkenengo igande arratsaldean gertatu zitzaionak oraindik ere uzkurrago eta etxekoiago egin zuen.

Laurak aldean, eta euripean, lanbropean hobe, handik ari zan Elsa pasean, ezertan pentsatu gabe. Bere atzetik gizon baten urratsak hurbiltzen entzun zituen; eta laister abots bat:

—Arratsalde on, andre hori —entzun zuen—. Joan dan igandean, eta ordu huntantxe, hemen ikusi zindudan, eta orduan ere bakarrik. Siñistu eziña da...

Elsa'k arindu egin zuen ibillera, eta etxe aldera jo. Beharrik ez urruti.

—Parke huntan mamitu nituen nik nere ametsik ederrenak... Hogeit urte ia... Gaur, alargun, ez nuen nik uste...

Beltxargen zingira eskubialdean utzi, eta bidexkatik gora abiatu zan, ustegabezko lagun aztun hura beti ondotik eta hizketan zerraikiola:

—Nere emazte zana gogorazten didazu. Antza haundia duzu, benetan... Nere bizierak, haren heriotza gertatu ezkeroztik, ez du funtsik.

Azalées'ko ezpaloiean zeuden. Elsa'k ez zuen aditzen, entzun arren.

—Zugan somatu uste dut, beraz... Kontuz!

Gizonaren karrasia, klason-aldi luze bat eta gomatiku-kirrinkada garratz bat batera gertatu ziran. Balkoi batetik andre zahar bat begira. Presaka joan nahiz, eta galtzaraz bestaldera, ia Pâquerettes'ko izkiñan bertan, itsu-itsuan hasia zan Elsa gurutzatzen. Itxuraz eskubialdeko kurpil-hegoak ikutu zuen, baiñan ez zan egia. Motorraren aurretik korrika igaroz, Elsa'k bere bideari ekin zion. Berebillaren lehiatillatik oihuka hasi zan gizon bat, bere onetatik arras aterata:

—Zozo hori! Hobe huke begiratu, ezta?

—Lasai zaitetz, gizona —esaten zion Elsa'ren «jarraitzaille» ez-ezagunak, bapatean arazo hartan erantzule eta errudun.

Elsa korrika Pâquerettes'tik gora; eta bi gizonak hantxe, ibiltaria eta xoferra, izkiñan, eztabaida gorrian.

—Beharrik! —pentsatu zuen Elsa'k etxera sartzean.

Atea bultzatu, hasperen bat egin, eta saltoka hurbildutako katuari agur egin zion: «Zer dugu, Mimu? Ez dakik zer gertatu zaidan. Parketik ninjoalarik...».

Tinbrearen soiñua entzun zan.

—Nor ote? —galdegin zion Elsa'k bere buruari. Eta ideki egin zuen.

—Barka nazazu. Ezertxo ere gertatu ez zaizula ikusten dut. Hobe hola! Barka...

Josaphat'eko abots berbera ari eta ari... Berrogei-ta-hamar bat urtetako burusoil apain bat begiztatu zuen Elsa'k.

—... eta ba dakit hau modu bat ez dana. Baiña ni gertu naiz zurekin oraintxe tratu bat egiteko: esaidazu nun nahi duzun bizileku bat, apartamendu bat...

Elsa'k zakarki hetsi zuen atea; giltza jiratu zuen, eta krisketa zeharkatu. Zoritxarrez ez zegoen beste zerrailurik...

Ateaz bestaldera abotsa beti ari:

—... xaleta bat, nahi duzuna; eta bihar horixe izango duzu. Ez duzu aurrerakoan diru-kezkarik izango. Zein opari nahi duzu nik bihar eskeintzea? Bihar bertan...

—F... moi la paix!

Eta irratia piztu zuen, goratik, ahal bezin goratik, karrasi bizian:

—Ba dut beste kezkabide bat gaur gauerako. Berriz etorriko ote zait «eskuzabal» zerri hori? Danak hasten berdin: nahi dudana emateko gertu, nere begirada behar omen eta ez besterik, nere bakardadeaz ohartu eta lagundu nahi nautela... Ipuiñak! Gauza bakar bat nahi dute nigandik! Danak gorroto ditut... «Danak gorroto ditut, bai, gizon guzi-guziak!»

* * *

Gero eta goizago oheratzen zan, goizago loak hartu nahian. Zortzi t'erdietarako egoten zan maiz ohean.

Baiña gero eta zaillago lotan hastea, gero eta ugariago barbiturikoak.

Noiz arte hala? Noraiño jetxi beharko? Ez zuen mugarik ikusten.

XV

Elsa'k leihoa idekitzerakoan, gelditasun osoa nabaitu zuen. Bazter haietan harrigarri, urrungo galtzara orroa ez baitzan sarri falta. Zer ordu ote zan? Ez zekien. Esnatu berria, erdi itzarrik, goruntz altxa zuen begirada, eta, eguzkierreak itsuturik, begiak hetsi behar izan zituen. Soñurik batere ez: goizegi nunbait.

Zer zan hura? Pakea? Eta, pakea zertarako? Eguraldi bikain hura zertarako? Igandeetako astia, zertarako-? Itsu-une labur hura gaindituta, hodei zabal, goibel eta bakar bat ikusi zuen berriz, zeru goia ia guziz estaltzen zuelarik, bere zabalera nasaiean barrena beti bat: txuriska, kolore-litsik gabea. Eta kopetan, bigarren aldiz, oiñaze berbera etorri zitzaion. Argitsuegi, zuriegi nunbait ohetik begiratzeko. Jaiki egin zan. Egun- sentia aspaldian urratua, eta giroa hozkirri. Pâquerettes-kaleko bi buruetako tellatuen artetik, apaingarri gisa, zeru-zerrenda urdin bat agiri, koroa modura, hodei bakar hura Brusela'ko estalki berezi bihurtuz.

Mingaiña itsaskor sendi zuen Elsa'k:

—Ene! —esan zuen—. Hau urdail txarra!

Eta gelako barru aldera itzuli zuen aurpegia. Burua axolagabe azkatu, illeak behin eta berriz (eta umore errean) begitartetik baztertu, irratia piztu, eta erlojua begiratu zuen: bederatziak hamar gutxi:

—Bederatziak hamar gutxi besterik ez! Eta ixiltasun bitxi hau halere... Igandea da, bai, baiñan...

Eta hitz zantar bat erantsi zuen.

—Igandea oraindik! —esan zuen ohean exeriaz—. Beti bide da igandea!

Berriz jaiki, eta gelako atea ideki zuen. Orduantxe sartu zan katua, igesi baiño azkarrago.

—Egun on, Mimu! Igandea diagu berriz. Zertaz beteko? Egun oso bat libro... zer egiteko? Bizi oso bat haizez eta dolorez betetzeko!

Gosaldu, gela txukundu, harropa batzuk jabatu... Deus ez.

Hamarrak irian berriz leihora zan, gogaituta, eta zerbait egin beharrez sagar bat zuritu zuen, eta jan. Lehenagoko hodei bakar hura bere hartan zegoen; eta inguruko koroa urdiña ere bai bere hartan, urdiñago menturaz.

Aldameneko hauzokoa, ekonomista bizibidez Laurent bigarren estaiako andre alargunak jakiñarazi zionez (eta Laurent andreak inguru guzikoen berri ba zekien, nolatan Elsa'k ulertzen ez zuela), postu goren bat zeukan Loosberg harek ministerioetan. P.L.P. partiduan entzute haundiko gizona omen zan, eta Belgika bakar eta hillezkorrean siñisten zuen.

Egun hartan —eta igandero bezela, egia esateko— jazkera berezi hura zeraman Loosberg jaunak; eta berebillaren ondoan lau zigillu zituen, kolore desberdiñetakoak, eta laurak ezin polittago: bat ur garbi et xalbointsuz betea bide zan, bigarren bat pasa ondoko ur arrez, hirugarren bat ur gardenez nunbait; eta laugarrena... zelako? Ezin esan. Koloniako urez ote? Litekeana. Ba zituen ere, aulki txiki baten gaiñean, bospasei zapi, kolorez eta lodieraz danak desberdiñak; bi kartoiezko kaja haundi, eta beste hiru txiki; eta beste majiña bat poto, tresna bitxi, zepillo eta garbikaillu. Loosberg jauna, apaizen modura Elsa'k somatu uste zuenez, liturjian ari bide zan, eta zapien illara ez zan sekulan aldatzen: Elsa'k errepara zezakeanaz, eta bakanka ikusitako mezen oroitzenak gogorazten zionez eskubitara aurrenik, ezkerretara gero; ardoa lehendabizi, ura segidan; eta abar. Gauza bera Loosberg jauna. Lehendabizikorik, berebil guzia ur xalbointsuz nasaikiro bustitzeko, zapi berdea hartu ohi zuen, eta bigarren zigilluan xukatzen zuen, berebilla kontuz eta legunki ferekatu ondoren.

Lehenengo pasada hura bukatzean, hirugarren zigillua erabiltzen zuen, zapi gorri batez; eta leihatilletako kristalak garbitzeko beste bat. Zillarraideak, jakiña, beste bi zapiz egiten zituen: bata hezatzeko, eta bestea ferekatzeko eta ditzira aterarazteko.

Ezpalo ertza busti ez zedin, zigillu, sulla, eta poto guzien azpian, «Le Soir»-en horri batzuek ipintzen zituen. Eta bere lanean ari zan artean, txistu egin ohi zuen eten gabe, trenpurik onenean; eta batzutan ozenki kantatu ere bai. «Apaiz eta txantre batera. Bapo!». Jendetzarik ez zan egiazki handik igarotzen; baiñan ondotik norbait zijoakionean ere, eta berari so igaroagatik, Loosberg jaunak ez bide zuen erreparatzen. Bere eginkizunean murgildua zan osotara.

Hamabi t'erdia aldean bazkaltzera etxeratzen zan; baiña bazkal ondoan berriz ere, eta zirudienez losustarik egin gabe, garbiketari ekiten zion. Bostak aldean, hortara, emaztearekin eta guztiz dotore jantzirik irtetzen zalarik, fabrikatik beretik ateratzean baiño ditziranteago eta apaiñago zegoen. Ba zituen, esan beharrik ez, apaingarri guziak: kurpilletan, barruko aldean, nun nahi, Peugeot'ek saltzen zituen eraskin guziak erosirik zituen salgai agertu ala; eta, hau dala-ta bestea dala, lau argi zuri eta bi hori jarrarazirik.

Nora joan ohi ote ziran «ekonomista» hura eta bere emazte flakuxka eta argala? Elsa'k ez zekien, eta ansi ez zitzaion; baiña Laurent alargunak ez zekien, eta oso axola zitzaion. Elsa, dana dala,

«antiklerikalago» jartzen bide zan Loosberg «apaiz» haren liturgia eta azalkeria ikusita, oso noizpehinka Schaerbeek' eko kalean topatzen zituenak ikusita baiño. «Jaungoikoak kurpillak ditu gaur», esan ohi zuen Scheelen jaunak; eta Elsa'k aita onartzen zuela nabaitu zuen.

Gutziz biguinduta, eta igandeetako ohitura ongi ezaguturik Elsak, nabarmenki hetsi zuen leihoa; hain zuzen ere Loosberg'ek entzun zezan moduan. Baiña hunek ez zuen erreparatu.

—Horra hor gizon bat —esan zuen etxe barnetik—. Horra hor piztia hiliezkor bat, omen... Eta farrez hasi zan. —Nere aitak egia zuen.

Eta katua magalean hartuz laztandu egin zuen luzaz, ezer esan gabe.

Bazkari arin bat prestatu, moltsa gorri beltzean sartu, eta Josaphat aldera jo zuen, han eguzkitan bazkaltzeko asmotan.

Beltxargen zingiratxo paketsua ezkerretara utziz, goiko belardi garaiean pausatu zan. Udazkeneko tristura giroan igeri. Haizerik ez, jenderik ez, soiñu haundirik ez: goitik igarotzen ziran tranbien eta berebillen hotsaz kanpo: halaxe maite zuen Josaphat'eko parkea: «tamala hestuegi dala».

Bakardade berriak alde on bat izan zuen beretzako: billatzen dan ixiltasunaren kutsu olerkitsua, negarretatik haruntz eta bestaldera aurki ditekeana, ezagutarazi baitzion. Eta hau ez zitzaion gutxi. Aspaldian irakurritako liburu batzuk (Dieweg- -kaleko usaiez inguratuak ez gutxi) berriz irakurri zituen, eta guztiz desberdinki sendi eta ulertu zituen. Hauxe zan, dana dala, «Hektos»-eneko lan berriak zuen alderdi on bakarra: liburutegi ugaritxo bat bere eskuarrean jarri ziola.

Luc'ekin sasi-biziera bat eraman zuela antzematen zuen. Eta «Ma Chaumière»koa ez zala bakartasuna izan, alperrik eta berantetsirik zai egotea baizik. Olerkariak eta santuek bakardadea billatu egiten dute, pariek eta legendunek pairatzen. Zenbatetan pentsatzen zuen: «ai hemen banitu Ussel'en nituen diskoteka eta estereofonia ederra! Ez zitzaizkidan gaur gaitzi izango».

Laister hasi ziran gauzak parkean aldatzen. Arratsalde hartan, maiz bezela, arkulari-txapelketa zegoen. Goiko zelaiean lau tantai berde luzeak (burdiñazko zelosian eta aldagabe azpian, arin eta hagaren antzeko eta jiragarri goiko partean), tente zeuden, zai, lerro-lerro. Txapelketako laguntzailleak tantaien muturretan koloretako arteskarrak ipintzen hasi ziran, hartarako goiko hagak ardatzean jiraraziz. Soka batetik gero helduz, eta piskanaka soka hura laxatuz, hagak ardatzean jirutzen ziran balantza egiñez, poxi bat errota-besoan modura; eta hagak zutitzera uzten zituzten hortara. Sarde

bitxi haien makilla erraretan, hiru maillatan, eta punttaren punttan ere bai, lore sorta gisa, arteskar mordoak agiri ziran, arkularientzako tentagarri eta epaikari.

Talde txikitan, eta oso nagiki, goruntz zetozten arkulariak. Bi arkudun eta lagun bat hemen, hiru arkudun eta hiru lagun han; eta hortara. Zenbat guzira? Hogeita-hamar bat?

Ordu erdi batean joko hasteko gertu zegoen.

Burdin-sarez antolatutako aterpe txikietan inor ez: arkulariek ez bide zuten gerizatzeko beharrik senditzen.

Begiratraille gutxi inguruetan. Danak flamenkeraz mintzo. Jokoaren txabola berezian, edo trabenan hobe, Elsa'k ulertzen ez zuen idazki hau: «Koninglijke St.Sebastiaan's Gilde, 1598- 1948».

Arkuak haundiak ziran, eta oso mota desberdiñetakoak. Tente jarrita jaurtikitzailleen burua baino gorago agertzen ziran. Zenbait arkuk zuraren kolorea atxikitzen zuten, beste batzuk aldiz beltz eta berde, beste batzuk urrezkoak iduriz. Danak, hau bai, ezin apainago, ezin zaituago, ezin diztiratsugo. Denen artean arku bakar bat aukeratu behar izan ezkerro, aski lan!

Elsa'k arretaz, txunditurik, eta ez hizkuntza eta ez egiñak ulertzen ez zituela, prestamen haiek aztertzen zituen. Jaun zahar illezuri batek koipez (eta amodioz...) igurtzitzen zuen bere arkuak; beste batek, haur batzuen begirada harrituaren aurrean, saiatu egiten zan behin eta berriz, azkarki tinkatuz eta largatuz, eta azkenean gezi bat belardian polliki botaiatz.

Halako batez arkulari dotore bat, besaburuak larruz jantzirik, lehenengo tantaiaren ondora joan zan, bigarren tantaia arteskarrez gertatzen zuten unean. Belaun bat lurrean jarri, eta arkuak errara, zeharka. Muturrean, goian, zintzilik zeuden sasi-lore ori haiek. Arteskarrak geziez erauzi behar: horra jokoak.

Lehenengo arkulariak, luzaz begiztatu ondoren —eta egoera ez-erosoan bestalde, Elsa'ri iruditu ziztzaionez— jaurtiki egin zuen azkenean. Gezia xut-xut, goruntz abiatu zan azkar, tantaiaren ondotik pare-parean iduriz, eta zuzenki sasi-lore haietara. Baiña arteskarrik ikutu gabe tantaia baiño gorago igo zan, segidan beheruntz abiatuz. Hutsa, beraz.

Urrengo arkularia hurbildu zan; eta gero beste bat, eta gaiñerakoak. Gero danak bigarren aldiz, eta hirugarrenez. Arteskarrak, geziek erauzita, lurrera erortzen ziran; eta arteskarrak aitzean, sokaz makurrarazten ziran hagak ardatzetan jira- araziz, mutturra jetxi arte; eta orduan berriz ornitzen ziran, bospasei «lore» ipiñiz, edo gehiago, kolore desberdiñetan. Gora eta behera hauetan hagak honda ez zitezen, aulki edo langa berezitan pausatzen ziran punttak, lurraren kontra lardazka ez zitezen.

Luzaz hortan? Ez zekien Elsa'k. Uste zuenez lehenengo aldiz ikusi zuen kirol-sorta bitxi hura; eta entretenigarri izan zitzaion lehenengo momentuetan. Ez zuen Elsa'k sumatzen, dana dala, Belgika'ko Arkularien Alkartasun bat izan zitekeanik.

Piskanaka petankaz gertatzen zitzaiona gertatu zitzaion: alegia, aspergarri zitzaiola arras, eta hartan denbora gizonen pasa ahal izatea ulertu eziña.

Arratsaldea aurrera zijoan gelditasunean: oso polliki eta oso ixillik. «Fontaine d'Amour» deritzan parkeko aldera jo zuen Elsa'k: «Eguraldi eder hau nik gaur modu huntara hondatu beharra!... Eta geziak botiaiz igarotzea, goragarriago ote? Gure aspertzea izkutatu: horra hor mundu huntan lortu nahi dan bakarra»...

«La Laiterie»ko mahaiñetan jendetza ugaria ikusi zuen, muskerrak bezelatsu eguzkitan egonean, eta hauek bezin aspertuta itxura zanez.

Loosberg jaunaren lanak gogoratu zitzaizkion. Arkularien ordu hutsak ezagutu zituen; eta, egia aitortzeko, beteago ahal ziran hauenak Elsa'renak baiño? Ez egun hartan, noski; baiñan ez aurrekoetan ere. Noiznahi Luc zugaitz baten kontra abiatzeko gertu egotea, egon ohi zan bezela; hitzik esan gabe Luc'ek eta Elsa'k ordu osoak igarotzea; gogorik batere gabe oheko atsegin hits hartara, Luc'ek jo ohi zuen bezela, ez haragiak deitua baiña haragia deitu nahiz, zer zan? Zer zan lizunkeriaren sasi-egarri hura Luc-engan, urteetan zehar anitz eratara elikatua, aspertze funtsezko bakar baten seiñalea baiñik?

«Jendea aspertu egiten da —zion Elsa'k berekiko—. Ni neu ere aspertu egiten naiz; baiña Pâquerettes'era etorri arte ez nekien. Orduan Luc falta zitzaidan, haurrak falta zitzaizkidan, gauza askoren gabea nabaitzen nuen. Gaur, aldiz, dana sobera zait, mundu osoa zait gehiegizko eta larregi».

Eta aurrera ekin zion gogoetari:

«Nere bakardadea, eta beste horien jokoak, Coca-Colak eta ekintzak; sasi ezkertarren erreboluzio-nahia eta kabaretak, mistika eta ordikeria, funtsean orobat, katramilla izkutu berberaren ondorio dira: denboraren igaroaren ito behar ixilla eta aitortu-eziña uko egiteko moduak. Ez du gizadia denboraren ixuri etengabeak izutzen. Areago lazten gaitu denbora huts aspergarri hau bete behar hertsia. Denbora polikiegi igarotzen da: horra kakra. Nere bakardadea nabarmena da; besteena itxuretan diximulatua. Funtsean biak gauza bera.»

Arratsalde urdin zoragarri hura, itsasoaren baretasun zabala, illunabarretako pake naharea, olerki eta itxaropen zoriontsuen oiñarri gertatu beharrean, kezka-iturri mingotsak zitzaizkion Elsa'ri; ez baitzuen hunek, ez baitu iñork, haien arabetako egiazko betegarririk. «Zerua beti izan zait ederregia», ohi zuen esan.

Hutsunea nekez mukururu diteke hutsez. Hutsunea, aitzitik, hutsa erantsiz, haundiago egiten da, sakonago, gorriago, hutsago.

Elsa etxera zanean, hortara, erdi filosofia hartan hausnarketa egin ordoren, astelehenaren gertuari zatxekon goragaleaz gain, besteak baiño zoritxarrekoago ez izateko ustea zeraman buruan. Eta uste

hunek, ukaera hutsa izanik ere, gozatu egin zizkion igande hartako ordurik illunenak. Beretzat igande argitsu epel hura, hutsa izan zuen; baiña betetzeko asmoari eroaldi bat zeritzan, sekulan iñork betetzen ez zuen lillura zoroa.

Zubiaren ondoan, «La Caravelle» bar ñimiñoaren ondoan, gazte talde bat topatu zuen, itxuraz zai. Elsa'ren etxetik bertago, Pâquerettes eta Azalées kaleetako izkiñan, «La Taverne du Parc»—eneko billar-mahaiñak jendez inguraturik.

—Horra —esan zuen— Horra hor horiek ere nere pentsamendu garratzen lekuko. Berek ez dakite; baiña nik orain ba dakit. Ba dakit nekez izkutatzen duguna danok gure norarik eza.

Emakumerik batto ere ez: «beharrik»-esan zuen harropuzturik.

Etxera sartu zan:

—Eta datorren larunbatean berriz De Riemaker'engana. Zertarako? Ez dakit. Egia esateko, zertarako nere dibortzioa? Zertarako egia legetuko?».

Beti bezin jostalari «Minu» etxen.

Elsa'k galdera berberak egin zizkion. Katuak isatsa altxa zuen:

—Hire barruan egon nahiko nikek batzutan, Mimu.

Eta muturrean muiñegin zion.

—Beti bustia hire sudur punta, zikin hori! —Eta zoruan pausatu zuen.

XVI

—Jar zaitetz—esan zuen De Riemaker legegizonak. —Eta barka zaidazu itxaron araztea. Lehengoan ere gauza bera gertatu zitzaigun, ezta?

—Ez dio axolarik, —erantzun zuen Elsa'k exeritzen zalarik. Hunen aurrean, paper pillo bat nekez tajutzen ari, gizon sendo bat mintzo, berrogei ta hamar urtetan adiñez. Hunen atzean apal luzeak, hiru herrenkadatan, liburu beltzez beterik. Zahar-kutsua erredizetan, eta dena illun. Elsa'k hotza sendi zuen eskuak mahaiñaren gaiñean ipintzean: mahain gaiñeko beiraki lodiak izoztuta zirudien.

—Berri txar bat eman behar dizut —jarraitu zuen De Riemaker'ek, beti paperetan alperrik miatuz— Berri txar bat, bai; uste dut bederen... Etzi astelehenean erabaki behar zan zure hauzia, luzatua izan da. Idorotzen ez dudan paper hortan esan didatenez, 1967-ko Otsaillaren seia arte itxaron beharko dugu. Lan haundiegia omen dago. Dirudienek ezkontzen bezin aixa berezten ere da gaur; eta Hauzitegian gaiñezka bide daude.

—Ia lau hillabetez luzatu, beraz? —erantzun zuen Elsa'k, agirian nardaturik.

—Bai, andrea. Hiru hillabete t'erdi dira, ia-ia lau hillabete oso hain zuzen.

—Ene, ene! Hau nazka!

—Barka zaidazu nere galdera —ekin zuen De Riemaker'ek. —Eginkizunen bat ote zenuen epe horren barrurako, asmoren bat ote? Ez dakit nik. Beharbada... beharbada ezkontzekotan zaude. Nik dakita?

—Utz nazazu pakean!

Esanda segittuan, izutu egin zan Elsa, erabilitako doiñuaz batez ere. Liburuen herrenkadak arrotzago agertu zitzaizkion bapatean.

—Barka nazazu —ekin zuen Elsa'k, askoz ere emekiago. —Barka zazu nere doiñuaren zakarra batez ere, De Riemaker jauna.

—Ez da ezer. Enea da errua.

—Uler nazazu. Istillu hauen ondorioz ez dut ezertarako presarik. Ezkontzeko asmorik ez dut, eta ez izango ere. Gizon baten... beharrik... ez dut iñundik! Siñistuta egon zaitetz!

Berriz hasia zan Elsa gorago hitzegiten.

—Ongi da, ongi da —erantzun zion De Riemaker'ek, hizkeraren leguntasunaren bidez Elsa lasaitu nahiz. —Ongi da. Baiña ba dago beste eragozpen txiki bat oraiño.

—Beste bat? —berriz Elsa'k garratz eta goratik.

—Ez da gauza larri bat. Baiña nik esan nizuna esan didate Hauzitegian. Alegia, gure hauzi-txostena irakurri omen dute, eta ez omen dago garbi zure kasoa...

—Ez dagoela garbi? Ez dagoela garbi? Zer dago garbi, hortaz?

—Berek, nik bezela, ez dute zutzaz dudarik egiten. Kakoa ez da gure iritzi hori, ordea. Kakoa gure txostena da; eta guk ez dugu, egia esateko, frogabide haundirik aurkeztutzen txostenean. Ulertzen duzu?

—Zer da frogakari bat horien ustez?

—Gutun mordo bat, esate baterako, De Pottet jaunak besteri idatzia: maitale bati bidalia, gonbarazio batera. Behin —lehenagoan esan zenidanez— zure senar ohiaren gutun mamitsu eta nabarmen bat aurkitu zenuen, hain zuzen, beste emakume batekiko bere maitasuna eta hartu-emanak aipatzen zituena.

—Bai. Nola eskuetara zitzaidan ere azaldu nizun!

—Tamala da, esate baterako, gutun horren kopiarik edo fotorik guk ez izatea, eta ezin hortaz deus aurkeztutzea.

—Eta, nola? Nola nahi dute paperkoi horiek horrelakorik nik lortzea edo biltzea? Nola nahi dute, batez ere, lortu ezker ere, horrelakorik nik atxikitzea, eta alde batera eta bestera erabiltzea? Nik bihotza dut!

—Ba dakit, bai —esan zuen berriz hotzean De Riemaker'ek.—Hara! Hemen duzu, gostata, neri iritxitako gutun hori: «Komeni izango litzake frogakari batzuk hauzi-txostenari erastea: gutun batzuk, fotografiaren bat, zenbait lekukoren deklarazioak, eta horrelakorik».

—Foto-makiña bat erabilli ordez, zizpoleta bat erabilli beharko nukean nik nere senarra foto mamitsu bat ateratzeko «eran» harrapatu ezkerotan!

—Ba dakit, andrea. Baiña Legeak frogakariak behar ditu, eta nik neuk ere bai.

—Legeak paperak epaitzen ditu, ez pertsonak. Ni ez naute sekulan epaituko. Huntaz ziur nago!

—Legeak ezin dezake sendimenduen arabera joka. Egia duzu, beraz, hein batean.

—Legea ez da sortu gizonen zerbitzuko, paperen laguntzaille baizik. Erresuma guziak dira pertsonaren etsai!

De Riemaker ez zan pozik, eta ez gutxiagorik ere; eta bere hizkera lehen baiño ofizialago egin zuen!

—Nolanahi ere, lau hillabetez itxaron behar. Gogorra zaizu, ba dakit. Gure txostena ahula baita, zu kontuzago ibiltzea komeni izango litzake.

—Nola?

—Barka nazazu berriz ere; baiña, legegizona naizen aldetik, legearen izenean mintzatu behar natzaizu, hau atsekabe baldin bazait ere; eta gure arazoan gerta dakizkigukean estropozoak ezagutarazi behar dizkitzut.

—Zergatik kontuzago? Zer dala-ta? Ez naiz kantoiñetan zai gelditu ohi!

—Begira. Jendeak aixa egiten du berriketa gauza hauetaz. Maizago falta du hortaz hitzegiteko aitzekia, gogoia baiño; lizunkeria izan baitzaio betidanik hutsunea diximulatzeke eta ahaztutzeke bide bakarra.

—«Ia neuk esango nituzkean hitz berberak esan ditu» — pentsatu zuen Elsa'k, ezer aipatu gabe halere.

—Etxerakoan, esate baterako: goitzo joatea hobe; eta gizonen batek noizpait laguntzen badizu, eta hau normala da zure kasuan, edertasuna ez baitzaizu falta...

—Uztazu alde bat nere edertasuna, otoi.

—Gizonen batek lagundu nahi badizu, beraz, hobe duzu, esaterako, zure etxe ondoraiño ez dedilla joan. Ehun egunez kasu eman beharko duzu. Ez duzu beste erremediorik. Esamesak errotik erauzi behar ditugu... Lehen ere hau esan nizun, nik uste.

—Aski da! Ezer besterik? —ebaki zuen Elsa'k murrizki, zutik jartzen zalarik.

—Noizpait —ekin zuen De Riemaker'ek, beti hotz-hotzean— De Potter'en gutunen bat eskuratzen baduzu, edo horrelako zerbait, oso eraskin egokia izango da gure paperen gehigarri. Eta, gaitzi zait gogoratzea: berrogei milla libera eman behar ditugu bururairiño joan nahi duzula adierazteko.

Ez zuen Elsa'k ezer erantzun segidan. «Berrogei milla libera?», pentsatu zuen izaturik. Eta, nori eskatuko? Nundik aterako? Azken xoxa tturrindu, eta halere zer?».

—Bai jauna —erantzun zuen Elsa'k, esaten zuena neurtu gabe.

Bere onetatik aterata irten zan bulego illun hartatik.

Zerk nazkatzen zuen gehienik? Ez zekien. Ez zuen ezkontzeko gogorik, gizonak bihotzaren erditik gorroto zituelako azken bolada hartan: ez zuen, beraz, alde hortatik ez iñorako eta ez iñolako urratsik egiteko asmorik ondoko hillabeteetan. Zer axola zekiokean, beraz, egon hartan egotea? Deus ez, noski. Pâquerettes'ko sotoan bertan hau irakur zitekean tinbrearen ondoko plastikozko laukitxoan: «Elsa Scheelen». De Potter izena, alegia, ez zan iñun agiri. Zergatik, beraz, presa hura? Zertarako egoera legetuko?

Egia. Baiña paperen eta egiaren arteko berezketa guztizko hura, beti zai egon beharra, oraindik ere lau hillabetez epaitzaren haiduru egon beharra, gaitzi zitzaion. Bere burua mementoko kutsu igarokorrean murgildurik somatzen zuen; bere senar-ohiarekiko lege-egoera zentzugabe hura zala-ta, ez zuen ezer egiten, eta ez zan ezer egiteko abiaduran jartzen. «Oraingoz... bi hillabeterengatik...». Zenbatetan harrapatu zuen bere burua «oraingoz» hitzari datxekon gogoeta idor eta elbarrizaille hortan azpiraturik? Baiña, dirua orain?

Musua lepo-zapi urdin batez estaliaz zijoan Elsa etxeruntz, urrats txikitan, arras barreiaturik. Rogier-enparantzatik igarotzean, Larousse-eneko termometro eskerga argiduna begiratu zuen: bost gradu goitik. Hotzak zegoen, bai, eta harritzekoa ez zan. Jaietan bide zeuden inguru haiek. Seirak baizik ez izanik ere, arras gaua zan; eta soiñuek eta kolorezko argi fluoreztatuek alkar gainditu nahi bide zuten, pittin bat Dagonillan iri'ko ferietan postuek arratsean alkar zanpatu eta ixillarazi eta illunarazi nahi izaten duten bezela. Hura bizitasuna! Hura joan-etorria! Hura eroaldia! Alkar bultzatuz aurreratu behar zan ezpaloietan. Mendebalde aldera berebillen argi-herrenkada bikoitz luzea, aldika hirukoitz, Koekelberg'eko

Eliza Nagusirairiño hiru kilometrotan ikusi zuen marratua, poliki-poliki mogitzen ari: argi gorriak urrundu egiten ziran; eta txuriak urbiltzen, baiñan iritxi aurretik, lurrak irentsirik itxuraz, enparantzaren azpitik izkututzen.

Nahaspilla hura ikusita, ba bide zuten gizonak eta emakumeek noruntz jorik. Millaka argiak han eta hemen ñir-ñir, millaka pertsonak honuntz eta haruntz, korrika larran; millaka berebillak, ia alkar joaz. Eta Elsa'k zurrunbillo nahasi hartan galdurik harrapatu zuen bere buruan ustekabean, argi berdearen zai geldirik, begira, pentsakor, jendetzaren erdian bakarrik, Brusela'ko erdian Sahara-betean; eta beste igande baten bezperan, ezereen zai ez egonik ere, jendea zoriontsu antzeman uste zuen: «Denek bide dute eginkizun bidezko bat, emakume guziek bide dute senar zintzo bat, nora jo ba bide dakite guziek... nik ezik! Larunbatero tristura bera!».

Ipar aldera jo zuen. Arkupeetako erakustegiak ez zituen begiratu ere egin: gauza harrigarria. Zerbaitek hestutzen bide zion bihotza, eta hotzari esker har bide zezakean arnasa. Zer ote zan ziztada zorrotz hura, gero eta maizago senditua?

Lau hillabetez! Berrogei milla libera bahitura!

Hauek zituen buruan.

Eta belarran, iñoiz baiño nabarmenago, kanpotikako orro trinkoa.

XVII

Ondoko lau hillabete haiek hutsak izan ziran Elsa'rentzat. Igarotzen motelak eta ezin luzeagoak; igaro ondoan, ezin hutsago eta ezin arinkiago joanak iduriz.

Luc ezabatua bide zan: ez zuen batere berririk izan, eta jakiten ez zan saiatu.

Bi aldiz baizik ez zan, bestetik, Jemappes'era azaldu, Eguberrietako egonaldia barne.

Horra bere hartu-eman guziak. Jarraitzaille itsaskor bat behin Adolphe Max-kalean, baiña taxi baten bidez galdurik utzia.

Eta besterik, zer? Deus ez.

Etxetik «Hektos»enera, eta «Hektos»enetik etxera. Eta kitto. La Limite-kalea ongisko ezagutzen zuen...

Lanean gutunak egin, ehunka; eta nori bere izkribua edo ariketa bidaldu. Behin ere ez zuen Elsa'k somatu postazko horrenbeste ikasle izan zitekeanik. Ikasleek beren ikasketak eta ariketak igorri ala, Elsa'k erantzunak eta arikizun berriak bidaltzea. «Horra hor lan mamitsu bat!», esan ohi zuen astelehen goizetan.

Vanden Broeck'en arrastorik ez. Jokabide bidezkoa ez zala siñistuta, mespretxatu egin zuen azkenean hozki, eta ahaztu. Hau uste zuen bederen.

Gartzelan luzarorako dauden presoek gertatu ohi zaien bezela, Elsa'ri tema bakar bat nagusitu zitzaion: denbora nola ariñago pasaraziko. Horra bere kezka bakarra; heriotzaren kinka erakarri eta ahalik laisterrenik dastatu nahi balu bezelaxe.

Larunbatak eta igandeak bereziki luzeegi zitzaizkion. Asti guzia samintasun-iturburu bat baizik ez!

Gero eta goizago oheratzen zan. Askotan, negu miñean batez ere, zortzietarako ohean egon ohi zan. Baiña, noski, ez baitzan ezertxo ere nekatu egunean barrena, logalerik ez zuen; eta, loak hartu beharrez, gero eta barbituriko ugariago irentsi behar izaten zuen. Ohitu ala, bestalde, emendatu egin behar pastilla-araua, eta mota aldatu behar: «Bellergal», «Librium», «Valium», eta abar. Gero eta beharrago, gero eta ahulago eragiña. Elsa'ren gau-mahaiñak farmazia txiki bat zirudien: botillatxo ñimiñoak eta koxkorak, orixkak eta gorrixkak, botillatzar urdin hura erdian... Pozointzeko arriskurik ez ote? Itxuraz bai.

«Mimu» bere adiskide bakarra. Baiña laister konturatu zan «Mimu»ren mundutxo eta irudimentxo hurriez: egunero jostaketa berberak, egunero kiñu berberak, egunero bat denean. «Mimu» maite zuen, bai; baiña hasieran ia haur bat aurkitu uste zuen beregan; eta denbora igaro ala, oker zegoela nabaitu zuen. Maitasunari urrikia nagusiturik, «Mimu»k kupidarazi egiten zuen Elsa'ren bihotza, perlesiak jotako zorigaistoko batek bezelatsu. Elsa'k katua poztutzen zuelakoan maite zuen, eta ez alderantziz. Ematean zetzan Elsa'ren sendimendua, ez jasotzean. Hoztu egin zala iruditu zitzaion; baiñan ez zan hoztu, egia esateko, emalle bihurtu baizik. Maitetasun guzietan bezela ote?

Elsa'ren mundua, eritasun luze eta larrietan bezela, hestutu egiten zitzaion egunetik egunera. Gero eta izaki gutxiago maite zuen; eta maite zituen haiekiko berekiko, epeldu egiten zala iruditzen zitzaion, ezari-ezarian erreparatzen baitzuen ez iñundik eta ez ezertarik bete zezekeanik ezer etorriko ez zitzaiola. Gero eta jende gutxiagorekin hitzegiten zuen: «Hektos»eneko irakasleak, ahalik eta hozkienik; eta etxe ondoko dendari batzuk. Eta hauekin ere gutxi, dendaz aldatu beharra nabaitzen zuelako.

* * *

Hortan zegoelarik iritxi zan Otsailla. Eta, zergatik ez bazekien ere, gogoa ba zuen, gogo bizia, sei hura iritx eta igaro zedin, ikaslea, etsamiñetan bezela, edo DeRijke'ren bezero batzuk hagiña erauzi ondoren jasandako izuak azaldu ohi zituzten bezela beharbada.

—Etzi libro izango nauk! —esan zion Mimu'ri esnatzerakoan, bazkal-ondoko losusta luzea egin ondoren. Eta magalean laztantzen zuelarik, kantari hasi zan. Geroxeago zutitu egin zan, eta, katua besotan, dantzan abiatu.

Harrigarria. Ia iñoiz gertatzen ez zana, orduantxe gertatu zan: telefonoa deika hasi zan eta.

—Nor da? —galdetu zuen Elsa'k, zentzugabeko bere poz hartan ezin sosegaturik. —Bai, bai... bai,... bai... Bapatean gorritu egin zan:

—Milla esker jauna. Ahaztuta neukan... Milla esker... Bai, bai: ez da zure errua... Noski!... Agur, De Riemaker jauna. Anitz esker berriz ere... Ez duzu zertan desenkusaturik: ahal zenuen guzia eta gehiago egin duzu neregatik... Agur.

Eta bortizki utzi zuen telefonoa bere gakoetan, ia-ia harrika bota balu bezela.

—Berriz ere! —oihu egin zuen. —Ba noa! Ba noa ez dakit nora! —esan zuen goitik. Eta troskazko irudi txiki bat paretaren kontra bota zuen, anitz puskatan hautsiz. Mimu'k, dana ulertu balu bezela, eta soiñu harek bildurtuta, begirada tristeaz so egin zion ohearen azpitik, barka zezan eskatu nahi balio bezela.

—Gizajo hori! Heu ere Mons'era etorriko haiz nerekin.

Eta «Mimu» garraiatzeko bereziki prestatu zuen moltsa armairu gaiñetik harturik, hartan sartu zuen...

* * *

...Jemappes'eko Wilson-kalera iritxi zanean, afaltzeko garaia zan. Bi aldiz jo zuen tinbrea segidan, ohi bezela.

—Gabon, Elsa —esan zion amak, besoak zabalduz, eta moltsa begiratu. —Zer da hori?

—Esango dizut, ama, Koko besterik da. Nere hauzia ez da datorren astelehenean ere garbituko —esan zuen Elsa'k negarrez abiatzen zalarik.

—Baiña, nere maite hori: lasai hadi! Hori ez dun hondamendi bat!

Bazkaldegitik zetozen gizakume-abotsak eten egin ziran, ama-alabaren arteko alkarrizketa hura barnekoek entzun nahi balute bezela. Ixillunean Elsa'ren negar-zotiñak entzun ziran, eta «Mimu»ren ñau batzuk ere bai, hauek eta haiek ezin izutiago.

—Ixo, Elsa, arren! Gaur gomituak dizkiñagu; eta ez niñake huntaz konturatzea nahiko. Emaidan moltsako adiskide berri hori. Aitak ez ikustea hobe; ba dakin maite ez dituen.

—Nor dugu mahainkide? —galdetu zuen Elsa'k, arras gogaiturik. —Nik ez dut gaur ezertarako gogorik. Hortaz, ohera joango naiz, eta akabo. Agur, beraz. Bihar arte.

—Zer dugu, Elsa? —galdetu zuen Scheelen jaunak, bazkaldegiko atera agerturik. Barruko abotsek berriz ekin zioten alkarrizketari.

—Tira, tira, Elsa. Zer da? —birresan zuen aitak, Elsa'rengana ondoratuz; eta kopetan muiñegin zion.

—Hauzia luzatu egin dala berriz. Datorren Garagarrillaren 5-a arte ez omen dago ezer egiterik: Hauzitegian lanak gairiditurik omen daude. Oraintxe telefonatu dit De Riemaker jaunak, eta berri

nazkagarri hori gaztigatu dit. Albistek espero, eta hori... Eta, kasu, De Riemaker'ek ezin zezakean hobeki joka: garrantzia gisa utzi behar ziran 40.000 liberak (bahitura modura, alegia) berak eman ditu. Hobe ezin zezakean joka gizajoak.

—Ziur, Elsa?

—Arren, aita! Ziur. Aurpegiaren somatu zuen nunbait nere diru-egoera, eta ez dit inoiz ere aipatu buruhauste hori. Horra hor gizon bat.

Scheelen jaunak ez zuen ezer erantzun.

—Eta, hori da dana? —ekin zuen aitak. —Otoi, Elsa! Hator hunat. Zer axola hiri Hauzitegiko papertegiaren gertatzen dana? Bejondeiela; eta paper-pilloak irents ditzala danak. Ez liñake Belgika'k ezer ere galduko... Hator, hator: bi lagun dizkiñat gaur afalkide. Nere semeak izan zitezkean, eta nere adiskideak ditun.

Eta Elsa aurretik joan araziz, bazkaldegira sartu ziran aita-alaba.

—Heldu naiz bereala —esan zuen etxeandreak, moltsa eskuan eta sukaldaruntz zijoalarik. —Laister hasiko gera afaltzen. Sarri artio.

Mahaiñaren ondoan exerita zeuden bi gizon gazteak, zutik jarri ziran.

—Hunat hemen Elsa, nere alaba bakarra —bere bihotzean Scheelen jauna harro-harro zegoelarik.

—Hemen dun, Elsa, Pierre Meunier; etxe huntan, noski, Pierre xoilik; eta hemen dun Jean Ghislain, etxeren berebat Jean deritzaguna. Gaur gurekin afaltzera etorri ditun, eta ziur negon ezagutua ez zaiñana damutuko. Gogaide ez izanagatik ere, hemen bi gizon ditun; bi intelektual, baiña batera bi mia-langille. Heuk esango dun gaiñera gizon izena merezi dutenetz. Exeri gaitezen.

—Gabon, denoi —Elsa'k, mokanesa beti musuan. —Gabon —bi aldiz entzun. Azalpen bat emateko beharra nabaitu zuen Elsa'k:

—Barka zazute nere itxura hau. Ez pentsa, batez ere, agiri diran betazpi heze hauek tristurazko negarren seme diranik. Amorruek eragin dizkit malkoak, benetan. Ni baiña azkarragoa izan da bihotzaren ukoa; eta zaiñak burubideari nagusitu zaizkio.

Oso ahapeka esan zuen guzia, areago inoiz baiña, beti Elsa izuti gisa mintzo bazan ere.

—Ez dun azalpenik eman beharrik, Elsa. Negarrez ari danak egia din beti.

Pierre Meunier'ek ez zuen deusik esan. Elsa'ren begi gorrituak begiratzen zituen, zirkiñik egin gabe; eta gela hartan besterik iñor ote zegoen ahaztu egin zitzaion. Elsa'k, mokanes urdin txiki-txiki batez, behin eta berriz xukatzen zituen betazpiak eta masaillak, eta behin eta berriz zintza egiten.

—Zer gertatu zaio ba? —galdetu zuen Pierre'k, jakin-miña ezin luzaroago idukirik, eta begirada Elsa'rengandik zipitzik iñora aldatu gabe. —Nere galdera eragabea izan da beharbada; baiña zerbait jakin nahiko nuke.

—Elsa'ren arazoa astelehenean erabaki behar huan Hauzitegian —esan zuen etxejojaunak— eta azkenean luzatu egin duk. Haiek ez ditek behin ere presarik, ba dakik...

Pierre'k ez zuen deusik ulertu; baiña berriz galderarik egitera ez zan ausartu.

Zein «arazo»? Ixtripuren bat? Zer egin ote zuen emakume zoragarri triste harek?

—Goazen piska bat alaitzera —esan zuen Scheelen jaunak. —Gaur hauengatik, eta zuentzako, «Gancia» botilla hau ekarrarazi dut. Azken diru-kondarrak! Zein izan diteke idekitzeko arrazoin pisuagorik, ordea, oraingo gure billera hau baiño?

Laister bihurtu zan sukaldetik, botilla eskuan eta idekirik; eta baxo erdi bana eskeiñi zien bazkaldegiko hiruei, bere buruarentzako eta etxeoandreatzako laugarren eta bosgarren bat hartuaz.

—Topa Elsa'ri —esan zuen hunen aitak, alabari begira eta basoa altxatuz. —Topa Elsa'ri, eta hunen nahia opa izan bezela bete dedilla!

Klink egin zuten basoek, eta laurek lehendabiziko xurrotada bana edan zuten.

—Bibliak dionez —erantsi zuen Scheelen'ek maleziatsuki—Izpiritu Sainduak sortu omen zuen ardoa. Eta hala dirudi, ez da dudarik.

Denek irribarre egin zuten. Baiña Pierre batez ere algaraz hasi zan, lehertu beharrez. Elsa'k berak ere, giro hartaz pittin bat kutsaturik, lehenengo aldiz egin zuen irribarre labur bat; eta bere aurpegia argitu eta esnatu egin zala zirudien, goiznabarrean aintzira itzaltsua bezela, nahiz-eta begietako ditzira hezeak negar berria salatzen bazuen ere.

—Bikaiña da, bai —esan zuen Elsa'k. —Hauxe behar nuen, nik uste.

—Zalantzarik ez —erantsi zuen aitak.

Eta Jean'i begiratzuz:

—Zertan giñan, Jean? Nere alabak deitu duenean, zerbait oso interesgarririk ari hintzaidan esaten. Zer zan? Nere alaba etorrita ere gure alkarrizketari ekin dizaiokegu. Elsa erdi filosofoa duk, nere ustez, eta gogoz entzungo zaitue. Horretxek kenduko ziok ondoenik Hauzitegiko istillu hits horien kutsu mingotsa.

—Bai, bai —baieztu zuen Elsa'k. —Ez naiz ni filosofoa, eta ez laurdenik ere. Baiña neregatik ez ezer alda, eta ekin zuen hizketari. Ohituta nago bestalde, edo ohituta egon nintzan hobe esateko, bukatu eziñezko eztabaida horiek etxe huntan entzuten. Ez naiz ikaratuko, benetan. Eta beti ikas diteke zertxobait.

«Ni ez naiz filosofo; olerkari nintzake, zerbait izatekotan», pentsatu zuen Elsa'k. Aitaren ustez olerkari eta filosofo, gauza bera...

...Solasaldi haietatik zer gorde zuen Elsa'k xuxenki? Erlijiorik eza, dudarik gabe, eta legeari buruzko mespretxu sakon bat. Eta ia besterik ez:

—«Ze axola neri Belgika'ko gobernuak egiten duena? Zer axola hau edo hura agintari jartzea? Danak dira berdiñak! Agindu egin nahi dute denek, eta iñork ez zerbitzatu», uste zuen.

Jaungoikoari buruz, noski, eta esan dugun bezela, ezer ez, ezpada gorroto izkutua. Dieweg-kalean, 1960-eko urtean batez ere, Molière-kalera aldatu aitzin hain zuzen, beste «zerbait»en beharra idarokitzen ziola pentsa zitekean. Baiñan Elsa'k ez zuen hau uste. Olerkiari buruzko bere sendiberatasuna haunditu zan, bai, nabarmenki: Elsa bera harritzen zan bere egoeraz. Baiña olerkimenaren jaiotza zala iruditzen zitzaion, eta besterik ez. Uste hortan, hain zuzen, Olerkia irakurtzen hasi zan itzalgaizka, gidaririk gabe, guztiz bere gisa liburu batzuk aukeratuz. Baudelaire atsegin izan zitzaion gehienik.

—Ez ote dago bestelako olerkirik? —pentsatu zuen batzutan. Baiña, nori galdetuko?

Ixiltasunak dei berezi eta ixil bat egiten bide zion Elsa'ri udarako arrats luze bakartietan; eta leihoan, baratzen, edo Dieweg-kalean pasean, luzaz egon ohi zan abots harrigarri haren entzule. Baiñan iñork ez zion esan Jaungoikoaren egarri hutsa zala hura; eta Elsa'ri ez zitzaion horrelekorik iñoiz bururatu.

Politikaz ez zuen ezer gorde. «Zertarako?», pentsatu ohi zuen. «Aita gizajoa gaztetandik ari izan da saltsa horietan sarturik, eta «erreboluzioa» aipatzen. Eta, zer? Hor dago Dupont, koldar harroputza, sindikatoetan oso goian; hor dago Van Loo, Charleroi'ko Tirou-bulebarrean bizilagun, burgestzar guzien kide bihurtua; hor dago Tessière, zurikatzaile gartsu eta lotsabako; eta... hor dago Joseph Scheelen, neure aita... erreboluzioaren eguna urratzeko zai... Nor oroitzen da gaur Mons'en Scheelen «sozialista garbiak» jasandako kolpeez?

Iñor ez. Neu, beharbada, eta neure ama. Gu biok, bai... aita ixillik ikusita, eta afariak ezin hurriago billakaturik, ahaztu ez zaizkigulako. Eta ezin ordainduzko zor haiek... Nolako lotsak pasa ditudan; ...Ez zuen balio, benetan!».

Burgesen kontra zegoen Elsa batzutan. Nola ezkondu zan De Potter'ekin? Bi milloi t'erdi jasoak 1956-ean, eta garajea ongi ari. Aixekeria hau nazkagarri zitzaion Elsa'ri hasieratik; baiñan odola zornatzeko moduan ez.

Politika, hitz batez, egunen umorearen arabera, edo kaltegarria zan, edo-ta guztiz alperrikakoa. Hau iruditzen zitzaion; baiñan aita maite zuelako, gorde egin zuen bihotzean, eta ez zuen iñoiz aipatu...

...Pierre'k Elsa'ren begietara begiratzen zuen aldiz, eta aldiz ezpafiñetara. Azkeneneko esakuntza entzutean, dana dala, ahoaz besterik ez zuen ikusi. Are gehiago, ez baitzuen ezer ulertu Elsa'k esandakoaz. Entzun egin zuen dana, bai; baiñan aditu ezer ez. Norbaitek, ordea, Elsa'ren ezpafiñen aldakuntzak eta mogimenduak xehetasunez azal zitzan eskatzekotan, aixa egingo zuen: ikutu eta dastatu balitu bezelaxe ezagutzen bide zituen miñutu bakar batean.

—Zertarako ekingo? Ez gaituk ados. Hauxe duk dana —esan zuen hozki Jean'ek—. Ez dik balio jarraitzea. Alperrik hasarretuko gaituk.

—Hasarretuko? Tira! —Scheelen'ek errepikatu—. Sindikatoetan neri, Mons'eko kalerako, eta miatik urrunerako beraz, postu tentagarri batzuk eskeiñi zizkidatek dagoeneko. Danak ezetsi dizkiat. Belgika'ko sindikalariak funtzionario hutsak zaizkidak, langilleekiko hartuemana galdua ditek; eta «sozialista» izena darabilkitelarik ere, burges hutsak dituk. Horiek ez ditek ez Erreboluzioa nahi, eta ez siñisten. Nik langilleekin segi nahi nian; eta hortan negok. Mia-zuloetara adiñarengatik azken bolada huntan jeisten ez banaiz ere, egunero tratatzen dizkiat ondoko langilleak: eta horri esker zekiat, eta odolean jakin gaiñera, ifernu hori gaur dagoena.

—Hire jokabide zuzen hori ez diagu guk behin ere maixeatu-esan zuen Jean'ek maitekiro. —Hortan hire alde gaituk. Baiña hik heuk aitortzen duk hire alderdiko zuzendariak, eta sindikalariak berak,

usteldurik daudena. Hor ez dagoela ez itxaropenik, ez nahirik eta ez garrik batere. Hire eginbidea, nere ustez, gure ustez, hi hortik ateratzea duk; eta sozialismoa oraindik ere gaur, 1967-an, egiazki nahi duen mogimendu batean sartzea. Zein erakundetan? Pierre eta ni biok, dakian bezela, ez gatoztik bat huntan. Alegia: ados gaituk, hau bai, P.S.B. dalakoa utzi behar duala iruditzen zaigulako bioi. Spaak joanda ere, Spaak bizi duk hor, eta nagusi itaun; eta Spaak'ek 1936 ezkeroztik jokatu dik eten gabe sozialismoaren kontra. Hik hau ba dakik guk bezin ongi.

Elsa mahaiñetik jaiki zan ezer esan gabe, eta sukaldera joan. Pierre'k azkeneko liparrera arte jarraitu zuen begiradaz, hizketaren haria arras galduaz. Egia esateko lehendik ere galdua zuen, hiztunari begiratu beharrean Elsa'ri so egiten ziolako. Hau bazkaldegitik irtendakoan, eta bapatean, Pierre'k etxe arrotz batean harrapatu zuen bere burua. Zer zan aldaketa hura? Etxea zelatari eta bitxi zitzaion une berean, baiña Elsa ez-ezagun hura aspaldidanik ezagutu uste zuen. Ez zitzaion halakorik behin ere gertatu.

Handik laister ama eta alaba sartu ziran, zuku-ontzi zuri bat eta beirakizko pitxar bat eskuetan, eta afaria hasi zan.

—Kontuz! Zopak kiskaldu egiten du, egin berria da-ta, esan zuen etxeoandreak.

—Kontuz beraz —erantsi zuen etxejoaunak—. Hau ez da ostatu bat, bestalde: nor bere etxean bezela joka bedi. Ez dut hau birretan esango: apainkeriek eta itxurakeriek betidanik nazkatu naute. Hi, Pierre, ideki zak «Stella» hori, eta emai guk garagardoa. Egariak gatxeudek!

Pierre'k pozik onartu zuen bere eginkizun apal hura, Elsa' ri edaria eskeintzeko aukera ematen zion eta:

—Baia? Nahi duzuia? —galdetu zion irribarrez.

—Bai, bai; anitz esker.

—Gure politika-eztabaida hauek dirala bide, aspertu egingo zaitugu.

Eta ia ahapeka erantsi:

—Barka nazazu. Oraindik ez dut ezer ulertu. Zertara joan zera Hauzitegira?

Galdetuta bereala, eragabekeria bat egin ote zuen kezka bete, eta aurpegian odol ukaldi bat nabaitu zuen.

—Hor ez dago izkutukirik. Ez naute harrapatu ez lapurretan ezta ez hilkintzan! Ez naiz gaur Hauzitegira joan, gaiñera.

Baiñan etzidamu erabaki behar zan nere ezkontz-austearen arazoa, eta luzatu egin da lau hillabetez. Hauxe da dana.

—A, bai —esan zuen Pierre'k, eta segidan pentsakor gelditu zan. Iñor emakume maitagarri harengandik berez zitekean pentsatzeak txundituta utzi zuen. Eziña zitzaion guziz. Eta katramilla bakarra hau zan Pierre'ren kaskoan: zergatik berezi nahi ote zuen Elsa'k bere senarrarengandik?

—Ez duk hik ere uste? —galdetu zion Jean'ek, Pierre'ren ustekabeen.

—Ez diat entzun, Jean. Elsa'rekin ari ninduan. Zer zan hire galdera?

—Hemen garagardoak bereala piztu dizkik bihotzak eta mingaiñak askatu!... Hauxe esan diat arestian, Pierre: ez ote duan hik uste, hemendik aurrera (eta orain dala zenbait urte!) Jojo'k P.S.B.an jarraituta kalte haundiagoa ekarriko digula sozialistoi, eta berak lagundu nahi duen helburuari beraz, P.S.B. hortatik irtenda baiño.

—Alde batetik hala zirudik, bai. Baiña nere iritziak apur bat aldatu dituk azken bolada huntan. Eta zuen artera biltzen bada, gaur uste diat, ezer aurreratuko ote dugun eta duen ez zekiat; zuen F.S.T. berri hori ez baita fitsik.

—Zer? Hori bai dala, hain zuzen —errepikatu zion Jean'ek gogor xamarrean— sozialista geranok sekulan onartu behar ez dugun jokabidea. Burgesia hor diagu, gaiñean, jaun eta jabe; hain jaun eta jabe nun askatasunaz hitzegin baitezake! Guk ez diagu horrenbesteraño hitzematzen: guk behekoen zigorra eta mendekua aipatzea, baita jopuak jaregitekotan erabiltzen danean ere.

—Nik etsi egin diat —erantzun zuen Pierre'k, itxuraz gogaituta—. Nik neuk ere, zuek bezela, siñistu egin nian; eta letra haunditako Sozialismo lilluragarri hori ekartzeko hazia emateko gertu ninduan. Gaur ez negok ezertarako prest. Burgesia arbuiatzen diat osotara, lehen haiña; baiña komunismoa ere arbuiatzen diat erabat. Eta hi, Jean, eta zuek guziok, zuek marxista «ezkertarrok», eta haiek marxista «ofizialak», kupidagarri zatzazkidate.

Ongi hitzegin zuela pentsatu zuen. Eta bukatzean berari begira harrapatu zuen Elsa, pentsakor, arreta barreiaturik itxura zanez, eta asalduz bete zan Pierre. Elsa'rengandik urrutiegi zegoela iruditu zitzaion, mahaiñaren zabalera bapatean haundiegia bailitzan. Ez zuen Elsa'ren aurpegian xuxen irakurtzen;

zeren-eta, ideiei zegokienez bertan xamar egonik ere, Elsa'k ezin onar zezakean aitari zauri hura egitea. Aita ongi ezagutzen zuen, eta hura entzunaraztea bizia alperrik sakrifikatua zala entzunaraztea zan; eta pairamendu hau ematea ez zitzaion zillegi iruditzen, eta beti ixildu izan zan etxen. Kanpotar batek esatea, horrengatik, gaitzi zitzaion oso, eta Pierre gorrotoz begiratu zuen hasieratik.

—Hori guzia egia duk hain zuzen! —esan zuen Elsa'ren aitak—. Eta ni siñistuta negok Errusia'n, Txina'n, Kuba'n, Gizon Berri eta Mundu Berri horiek sortzen hasiak dirala. Nere alderdiko gehienen kontra, hori siñisten diat nik. Hargatik komunista ote naiz? Berdin zaidak izena. Ni hortan negok.

Elsa'k urrikiz begiratzen zuen aita, lagundu nahiz, oiñazetan pairatzen duen eria bezelatsu.

—Ez zekiat nik, Pierre —ekin zuen Jean'ek—. Burges ideologiak irentsi gaitula, fenomenu nabarmena iruditzen zaidak; Belgika osoa irentsia dik. Gizona bere gizarteak, bere ikaskintzak, bere klaseak, bere geografiak, kutsatzen eta mugatzen duten ezkerro, nork esango digu orain Gizon Berri bat agertzea eziña danik? Hamabostgarren mendean burges gizadia pentsatu ere eziña huan. Gaur nagusi zegok. Gizarte-eraketa berri batek Gizon Berri bat ekarriko dik.

—Gizajook! Teologilariak dirudizute —esan zuen Pierre'k— eta zer esaten dudan ba zekiat. Alkar erretzeko gertu, eta danok oker! Herejerik ez zegok, adiskideok, teologia guziak faltsu baitira. Vaticanismoa teologia txuria baldin bada, marxismoa teologia gorria duk, eta faltsua beraz. Marx, Engels, Lenin, Stalin, Trotsky, Mao Tse Tung: danak, ameslari, seirak nor baiño nor utopikoago!

Elsa'k onartu egiten zuen hau; baiña ixillarazteko gogoia zetorkion barne-barnetik: «Hori ez da etxe huntan esan behar!».

—Baiña, burutik egiña hago gaur? Ze ameslari eta ze ameslari ondo? —erantzun zuen Jean'ek bere amorrazioa ezin izkutaturik—. Castro'k egia esan dik berriki: Kuba'ko erreboluzioaren alde dagoenak eskubide guziak; erreboluzioaren kontra jokatzen danak, bat ere ez.

—Nerekin dagoenak eskubide guziak; nere kontra dagoenak, baiño ere ez! Bapo! —Pierre'k eztenka nahiean.

—Gizona goseak hiltzen dan herrietan ez zegok erreboluzioaren kontra jartzerik! Liberalismoa ez duk berez gauza on bat. Liberalismoa, hain zuzen, gauza txarra duk. Ahulak ez beste dira liberalak.

—Egiaren bildur diranak ez beste anti-liberalak!

—Beharraren eta egoeraren arabera epaitu behar diagu. Ameriketan ezin diteke ez Castro'ren kontra eta ez Che Guevara'ren kontra joki. Castro ez da Blanquizale bat, eta Che ere ez. Hori esaten duenak kapitalismoa gerizatzen dik. Lenin ere Blanqui huan 1917-an. Beharrik!

—1905-eko Lenin «ero» bat huan, eta 1917'an «ertebokv ziolari» xuxen bat... —erantzun zuen Pierre'k—. Baiña hori beranduegi jakin diagu!

—Kapitalistez bestaldera, burgesiaren kontra jarri, amerikarren aurka jokatu. Horra bidea —Jean'ek oihuka.

—Horien kontra neu ere ba negok. Baiña zeren alde?

—Herriaren alde!!

—Jean'ek hasarrean.

—Nor da herria? Mao? Stalin? Khrutxef? Beria?

—Herria eta hunen buruzagiak!

—Zein buruzagi? Nola ezagutuko ditugu?

—Hik ez, beharbada. Herriak bai: ongi ezagutzen dizkik.

—Aingeruren batek esaten die ote?

—Seriotan ari gaituk.

—Aingeru batek ala Partiduko poliziak? U. R. S. S.eko herriak jakin zuen hori, ala N. K. V. D.k odoletan jakiñarazi?

—Gauzak alperrik zailtzen dituzute nere ustez —ebaki zuen Scheelen'ek, amartean ixillik entzule egon ondoren. —Sozialismoa helburu ederra huan; eta zuek intelektualok hondatuko duzute. Zuez ez dakizute zer dan Marcinelle'n sortu eta Marcinelle'ko mia baten hiltzea.

Etxeakoandreak belarrira esan zion zerbait alabari, eta joan egin zan.

—Igaz zer? Siniavsky'ren ipuiñez dana ankar gora botako ote zuten dardaraz! Ez zian balio, ez dik balio! Zerbait, eta oso sakonik, gezur hutsa duk zuen filosofian-esan zuen Pierre'k ixillunea bukatu nahiz, baiñan Elsa'ri adi.

—Eta zertara hator, hortaz mia-leizeetara? —esan zuen Jean'ek hasarre bizian.

—Zertara? Joan hadi burgesetara, eta utz gaitzak pakean!

—Egiaren billa etorri nauk. Bi urte huntan billatu diat, Lieja'n eta Mons'en, nekearen izerdi patsetan, erhiak maskurturik, eskuak lehendabiziko aldiz latz eta lodi, soin guzia arratsero konkordurek gogorturik eta minberaturik, ikatzetan eta lurpean zikindurik eta bezturik, ohean hotzak ezin loak harturik. Eta aurkitu egin diat, bai, azkenean. Eta egia hauxe duk:...

Eta erpurua mahaiñaren gaiñean tente ezarririk, bigarren behatzaz inguru guzia egin zuen eskua jiratzuz; eta, higuñez beterik, hitz bakar bat entzunarazi zuen: «Hutsa!».

—Baiña, zer duk gaur? —esan zuen Jean Ghislain'ek, bere adiskideak guztiz harriturik. —Hori ahal da Scheelen guk gazteok, edo gazteagook bederen, bizkortzeko modua?

—Hara —esan zuen etxeakoandreak. —Sukaldetik beretik entzuten dira zuen karrasiak. Aski da gaurkoz. Berandu da. Beste batean jarraituko duzute. Neri ez zait atsegin zuen eztabaidak mikaztutzen hastea; eta beste gai batzuk aipatzea eskertuko nizueke. Zer egin behar duzute bihar? Eta, Inauterietarako, zer? Binche'ra, ohi bezela?

Iñork ez zuen ezer kontra esan; funtsean ados ziran: eztabaida beroegi jartzen ari zan.

Elsa'k, gau hartan lehenengo aldiz, barne-zauskada bat nabaitu zuen «Iñauteri» hitza entzutean. Ez zekien bezpera zanik: «Zahartzen hasia naiz, ez dago dudarik: bihar Iñauteri, eta nik jakin ez». Aho-sapaiean konfetiak itsatsirik nabaitu bide zituen berriz, tupustean; eta oroimenean bizkar billoiz gazte hura birrikusi zuen, bere ezkon-ganberan dantzari... «Bart ikusi nuela iruditzen zait, oroitzapen bortitzentzako denbora ez baita igarotzen...»

Jean'ek behin eta berriz begiratu zion Pierre'ri, begiez galdera hau egiteko asmotan: «zer gertatu zaik?». Ez zuen ezer ulertzen. Eta begiradaz galdetu nahi irmo hartan, beste gauza bat erreparatu zuen: Jean'ek Pierre'ren begirada billatzen zuen bezelaxe, Pierre'k josirik zituela begiak Elsa'ren begitartean, hunek begirada noiz ordainduko zai. Ordurarte ez zuen Pierre sekulan era hartan ezagutu. Ba zekien, bai, komunistekin ari izana zala azken hillabeteetan; eta, alde hortatik, igarri uste

zuen Pierre'ren kristau fedea, eta «ustekeria» eta «alienazio» batzuk koloka zeudela noski. Baiñan ohituraz, barne-mogiduraz, bildurraz, edo nola edo hala, beti uzkur eta bakarkoi antzeman zuen bere mia-laguna emakumeekiko hartu-emanetan; apaiztegiko aholkuek eta debekuek tinko iraun bazuten bezela puntu hortaz. Hain zuzen, alderdi hortatixek izan zituen Jean Ghislain'ek lehenengo susmoak, gero baieztuak. Alegia, Pierre Meunier apaiza zala.

Gau hartan, aldiz, Elsa'ren aitaren aurrean (eta amaren aurrean!) lotsagabeki begiratu zuen emakume hura; arreta behin eta berriz barreiatu zitzaion; eta bere gogaikeria guztizkoa zan benetan, politikaz eta danaz, hitzak asma baditezke ere, doiñua ez baita asmatzen. Zergatik?

Etixerakoan, eta eskallerako atarian, Pierre'k nabarmenki hestutu zuen berean Elsa'ren eskua; eta agur etsi hartan luzatu egin zan edonor konturatzeko eran. Elsa bera ere bai, jakiña.

Wilson-kale lohitsura irtetzean, beraz, zakarki galdetu zion Jean'ek: —Alperrik duk diximulutan saiatzea, Pierre. Zer gertatzen zaik? Ez diat hire jokabidean ezertxo ere ulertu. Emakume hori nabarmenki begiratu duk afari guzian, eta bere ama ohartu egin duk. Scheelen gizajoa, bestalde, hoztu egin duk osotara hire ezkorkeriaz. Nere ustez, gaiñera, gaur gauean Elsa horren aurrean hire burua apaintzeko esanak izan dituk. Gaur gauean higan dagoen arra mintzatu bide duk hire ahotik, ez Pierre Meunier. Bestela ez diat tutik konprenitzen.

—Ez, ez, Jean. Emakume horren negarrak dardarazi egin nau muiñetaraiño, egia duk. Baiñan oker hago. Hori ez duk nere jokabidearen iturburua, nere barne-egoeraren ondorio baizik. Alderantziz dituk biak beraz. Gure eztabaidan egia hutsa bota diat gaur.

—Egia hutsa? Eta zertan gelditu da hire marxismoa, hire neo-marxismoa bederen? Hunek erakarriago hinduen mia-zuloetara (heuk aitortua hau) Ebanjelioak baiño. Ezta? Eta... eta, hire apezgoa bera, zertan da saltsa hortan? Scheelen'ek ez zekik hunen berririk; baiña nik bai. Zer duk?

—Begira, Jean. Orain berandu duk. Bihar hitzegingo diagu danaz, nahi baduk.

—Nun hori?

—Betiko lekuan: «Café de la Poste»n, bazkal ondoan? —Ondo zegok. Ez adiorik, Pierre; eta gabon pasa.

Noiz ikusiko ote zuen berriz Elsa? Pierre Meunier ganbarako bere lo-gela hotz eta txiroan sartu zanean, hotzikarak nabaitu zituen. Hura hotza! Bere ahotikako lurriñak hodei koskor bat sortzen bide

zuen, zigarro haundi bat erretzen ari izan balitz baiño zabalagoa. Leihotik begiratu zuen: patio itsusi beltz hartan ezer ez, ezta argiño bat ere. Leihoaren ondoko teilla zahar eta lizunduak, heze eta illun.

Elsa'ren begi nabarren irudiak bizirik zirauen Pierre'ren irudimenean. Eta irudi hura egiñahaletan barnetik ikusi nahiz, loak hartu zuen.

XVIII

Jende apala gailen Mons'eko «Café de la Poste»n. Buru askotan kasketa bat, eta anitzen ahoan pipa. Giroa ketsu, hatsartu eziña ia-ia. Pierre Meunier'ek ez zuen oraindik guztiz ondo ulertzen walon hizkera hura; eta hortan flamendarrago antzematen zuen bere burua: Flandre'ko herriskarik galduenean ez zitzaion hau gertatzen.

—Egun on, Pierre —Jean Ghislain'ek agurtu.

—Kaixo! —Pierre'k erantzun. —Eguraldi hitsa, alajaiñetan! Nolako arratsaldea! Eta...

—Bardako zoroaldia igaro ote?

—Ez zegoan zoroaldirik, Jean, esan nian. Hori baiño askozaz ere larriago duk nere barne-etsipena.

—Elsa ote deritza?

Bihotz ukaldi batek astindu zuen Pierre.

—Ezetz. Ez duk hori. —erantzun zuen Pierre Meunier'ek bere sendimenduak izkutatu nahiz; baiña nere sendiberatasunaz harriturik. Hura izua! Eta goiz guzian ez zan Elsa hartaz oroitu: hauxe zan egia. Ba zegoen halere zerbait. Eta Pierre'k ez zekien, ez zuen uste, hobe.

—Zer gertatzen zaik, hortaz, Pierre? Bart egin huana ulertu eziñezkoa duk, eta barkatu eziñezkoa ere bai. Joseph Scheelen gizajoa, bere adiñera arren, gu biok baiño beroago eta siñistunago duk. Ni bederen lotsatuta nengoan.

—Zertan lotsaturik ez diat ikusten —esan zuen Pierre Meunier'ek, garagardo pare bat eskatzen zuelarik. —Ez diat siñisten: ez hortan eta ez ezertan. Gauzak horrela, siñistu-itxura nik egitea izango hukean lotsatzeko modukoa. Okerrago zaizkidak federik gabe mezarara joan ohi diranak, federik gabe joan ohi ez diranak baiño. Egia aitortzea garrantza izan diteke, edo pozgarria, zirraragarria, istillu askoren iturri; baiñan egia aitortzea ez duk iñoiz lotsagarria.

—Bego! Baiña uztak sasi-filosofia alde batera, eta goazen harira. Lotsagarria duk hire egoeran egotea; eta are lotsagarriago aitortzea, eta hire jokabide lotsagaldua aipatzea. Andre Gide'ren akatsa lotsagarria huan; baiña bertutetzat harek aurkeztu nahiak bere garaieko askoren etsaitasuna ekarri zioan.

—Bego, esango diat nik ere... la hiru urte dituk apeztu nintzan ezkeroztik. Apaizgaitegian egon nintzan artean, nere kezkek eta nere zalantzek apezgaitegiko giro bitxian zutela oiñarri uste nian. Gogotsu begiratzen nian ikastaro hartako azken-aldera. «Txikikeria-zulo huntatik irtetzean —nerekiko nioan— besterik izango da gauza. Munduan sartuko naiz; teoriak eta lizifriñak alde batera utziko ditut, eta egiazki gizona zerbitzatzeko une zorionsua iritxiko zait». 1964-eko udara, hortaz, Helderghem'era joaterakoan, nere bihotza pozez beterik zegoen.

—Bai. Behin esan hidakan. Ninove'ren inguruan, ez dea?

—Bai. Herrixka txiki-txiki bat duk, arras flamendarra. Uste nian nik, harakoan, Kristo'ren eginkizuna azkenean hasteko eta iduritzeko aukera ematen zitzaidala. Baiña Helderghem'eko pake harek, XX-gn. mendeko sosegu oso harek, nere bihotza asalatu ziaten. Gerra nahi nian nik, ez pakea. Eliztarrak jende prestua hituan, ez baitzuten gaistoak izateko erarik izan. Jende harek, halere, mundu huntan siñisten zian errotik, eta ez beste ezertan, nekazarien artean usu gertatu ohi dan bezela. Elizarekiko ohiturak zintzoki betetzen zizkiaten; batez ere nola edo hala aisa neur ditezkeanak: halako egunean haragirik jan ez, eta abar. Hauxe duk, hain zuzen, Ebanjelioan kupidarik gabe kitzikatzen dan farisaukeria, modu hauetan letra nagusitu baitzaio izpirituari .Laister asetu ninduan hartaz, hitz batez; eta gudu-bizia nahi nuela esan nioan Apezpikuari: mia batera langille gisa joan nahi nuela, esate baterako. Hori dala-ta, eta ni osoki bimintzoduna izaki, Walonia'ra bidali ninduten, Lieja aldera. Han ezagutu genian alkar, dakian bezela, orain dala urte bete t'erdi inguruan. Ni baiño lehenagotik joana hintzan hi, langilleen bizimodua langilletasuna norturik hik heuk dastatzera.

—Bai, gogoratzen nauk bai.

Jean Ghislain'ek arreata haundiaz entzuten zuen dana, eta Pierre Meunier'ek gero eta gogo biziagoa zuen azken tantoraiño guzia lehenengo aldiz iñori aitortzeko.

—Han, eta gero Mons'eko inguruetan, mia-gizonek, eta nere ustez zanpatuta bizi diran guziek, egia dutela ikusi diat. Huntaz zalantzarik ez zegok: partida galdu duten guziek egia ziaten; partida irabazi duten guziak, aldiz, oker zeuden, eta oker zeudelako hain zuzen irabazi ditek. Garaitu behar zutenak, menperaturik eta mespretxaturik hiltzen dituk Kondairan; eta garaitu behar ez zutenek, garaitzen. Kondairaren hildoa Gaitzaren hildoa duk, ez Egiarena. Kondaira Gaitzak idazten dik, eta tintatzat errugabeen odola eta malkoak erabiltzen. «Praxis»a aipatzen duzute marxistok; baiña zuek diozutenaz bestaldekoa froga diteke. Ehunetatik ehunetan oker zerate hortan.

—Ez neri horrela begira, Pierre. Gero entzungo duk. Jarrai orain.

—Ni ahulen alde ninduan, eta ahulen alde natxegok. Jesukristo'k parre egiten dutenak eta aberatsak madarikatu zizkian, eta ahul guzien alde altxa huan. Gauza bera nik; eta horretxek egin ninduan kristau. Eta sentidu huntan kristau natxegok, eta kristau hilko nauk, Elizatik kanpo hil banadi ere. Nik neuk ere parre egin dezateken guziak eta txirotasuna ezagutu ez duten guziak, bihotzaren erditik madarikatzen dizkiat.

—Burgesiak entzungo bahindu, txalo joko liakek! —ebaki zuen Jean Ghislain'ek. —Hori, horixe behar ditek: umiltasuna, garaitu-nahi-ez otzan hori, beste masailla jartzeko gogoia, eta zozokeria horiek. Hi beti ikusiko haute ongi: Belgika'n lasai biziko haiz, dudarik ez zegok. Segi, segi!

Eta irribarre egin zuen eztenka nahiean.

—Negarrez ikusten zaituedalako zatzazkidate maitagarri zuek, trotskistok. Sendimendurik eza aipatzen duzute, eta Kondairaren joeran sartu nahi omen duzute; baiña bihozpera hutsak zerate hain zuzen, eta urrikitasunak eraman zaitue marxismora.

—Burgesiaren kontradizioen azterketak eraman gaitik gure huntara. Bihozkadek ez ditek muntarik batere Kondairan, eta guk hala ulertu diagu.

—Berriz esango diat, Jean: negarrez ikusten zaituedan neurrian maite zaituztet xoilki. 1917 baiño lehenago ni leninista nindukean apika; gaur ez. Stalin'en ondoan iñola ere ez. Eta orain, 1967-an, stalinismoaren beraren ondoren, are gutxiago, marxista-leninisten pentsakera, garaitzaille eta parregille guzien pentsakera ustel eta harroputz bihurtu baita U. R. S. S.'en eta U. R. S. S.-etik at.

—Hortantxe negok ni ere: Stalin'ek saldu zizkian Erreboluzioa, Marx, Engels eta Lenin bera. Eta gaur munduak ez dik Erreboluzioan siñisten.

—Garaitu duten guziek hondatu ditek Erreboluzioa. Garaitu artean egia ditek erreboluziolariak, eta garaitu ondoren iñoiz ez. Budismoaren mezua Asoka'k ihartu zian, eta usteldu; Mahomet'ena Ali'k, Rousseau'rena, Robespierre'k, eta Marx'ena Stalinek. Hori duk legea.

—Apaiza haiz, eta apaiza izango haiz hil arte. Betirako alienatu haute Apezgaitegian! Nola jar ditezke mailla berean, eta alkarren segidan aipatu, Gandhi eta Guevara? Lehenengoa atzerazale amorratua huan, eta India geldiaraziz salbatu nahi zian: goiburutzat tximenea hartu beharrean, killua hartu zian! Guevara'k, aldiz, Kondairaren kakoa argi konprenituz, Erreboluzioa egin dik, eta Hego-Ameriketara aldatu duk orain, nora ez dakigula, lur berritan Erreboluzioa ereiteko asmo zindoan.

—Che Guevara eta Gandhi anaia bizkiak dituk, Jean; eta biak saildu hutsak eta gorenak. Camilo Torres, nere kidea, hildo hortatik beretik abiatu huan, «besterik eziñean» bere hitzez esateko; eta Torres'en saildutasuna ukatzerik ez dagoela uste diat.

—Ez haut ulertzen —esan zuen Jean Ghislain'ek, bere lasaitasuna galduz eta kiñu atsekabe bat egiñez.

—Che Guevara eta Camilo Torres saildutzat dauzkak; eta zer esan huan bart, beraz, dana berdin dala?

—Dena ez duk berdin. Baiña Kondairan ez ditek sailduek irabazten; eta zuek sailduek garaitzeko esperantza duzute. Puntu huntan zaudete oker. Zuek oraindik saildutasuna eta zuzentasuna garaitzaille ikusteko itzaropena duzute, eta nik ez. Lehenago ere esan diat: garaitzapenak eta zuzentasunak alkar ukatzen ditek.

—Gora urde zerriak! —oihuka Jean'ek.

—Behera ipuiñak! —Pierre'k errepikatu, odola zirakiolarik. —Zein ipuin?

—Mundu Berri eta Gizon Berri horrenak! Haurrak berak baiño siñesperago zerate. Orain arteko Kondaira ez ote zaizue aski, hutsegingo duzutela jakiteko? Stalin'en saldukeria xuxen ikusten duzutelarik, nola ez duzute urrengo pausua egiten? Eta nik bezela aitortzen: «Eziña da: Erreboluzio guztizko hori amets bat da, mito nabarmen bat».

—Burgesiak guk hori esan dezagun nahi duelako; eta zapalduta daudenek gure laguntza behar dutelako. Horra zergatik!!!

—Zer eskeintzen diezute zuek?

—Zer eskeintzen? Erreboluzioa!

—Eta hori zer da?

—Mundu zahar nazkagarri huni amaia ematea.

—Zertartzeko?

—Gizona lehenengo aldiz gizentasunean jartzeko, eta bere buruaren jabe egiteko.

—Nun lortu ote da hori iñoiz?

—Iñun ez.

—Hortaz!!

—Hortaz orain gertatuko da lehenengo aldiz. Geuk gertaraziko diagu, hain zuzen.

—Trotskistok?

—1967-ko erreboluziolariak. Nola egin ba zekiagu; eta nahi diagu.

—Eta horri «objektividade» deitzen diozute? Zuek «nahi duzute», eta orain arte «iñoiz» gertatu ez dana, oraintxe gertatuko da. Nahi duzute... nahi... heuk esan duk «nahi» hitza. Baiña zertan gera? Zuek «nahi» duzute, ala herriak «behar» du? Zuek «nahi» duzute, ala herria «entzuten»duzute? Hori mistika, alajainkoa: zuek «nahi» duzutena, nola ez dakigula, Kondairak «obratu» behar du, eta herriak «behar» du. Hala biz!

—Herriak behar dik, bai, eta guk nahi diagu; eta Kondaira hortara ari duk. Mundua sozialismora ziak, eta sozialismo bakar bat zegok, ez bi edo hiru: hori duk Marx'ek frogatu duena... Frogatu, bai, Freud'ek eta Planck'ek frogatu duten bezela.

—Sozialismo gauza bat duk, eta marxisten ipuiñak beste bat. Zerurik ez zegok, Jean, izartegi gisa baizik, urrun, illun, betirako lortu eziña. Askoz ere beltzago nauk ni azkenean munduari buruz, zuek marxistok baiño. Zerok duzute zerua siñisten, ez guk; ez nik batez ere.

—Demagun. Hori berdin zaidak. Nun hago hi gaur, beraz? Zer gertatu zitzaikan bart, funtsera ezkerok?

—erantzun zuen Jean Ghislain'ek bezperako esanak berriz ere garbitu nahirik.

—Esan egin nian. Ez diat siñisten: hiru hitz. Ez diat, beraz, zuen Erreboluzio nagusi hortan batere siñisten. Zer besterik nahi duk nik erastea? Ez duka aski?

—Gora oraingo soziedadea, beraz. —Ez. Nik ez diat hori esan. —Hire egiñek bai.

Jean'ek eskuaz agurtu zuen kafetik irtetzera zijoan gizon zahar bat. Pierre'k ez zuen ezagutzen.

—Helburua, Jean, marxismoa duk zuen ustez. Gaur zuen propagandaren menpean bizi gaituk, zuen propagandaren eragiñean bederen. Baiña Bakunin'ek, orain dala ehun urte Marx' ekin hasarretu ondoren, marxismoak ekarriko zituen izurrite guziak salatu zizkian. Bakunin, alde huntatik, Marx baiño igarle hobea izan duk; zeren-eta Bakunin'ek gehienetan xuxen asmatu bazuen, Marx gehienetan

nahastu huan. Bakunin, halere, ez duk aipatu ere egiten, noski. Marx, Marx, eta Marx. Eta kitto. Marxismoa zientzia dan aldetik, halere, aspaldidanik ahaztua izan behar huan: erreboluzioa gertatu behar ez zan herrietan, gertatu egin duk hain zuzen; eta, alderantziz, gertatu behar zan herrietan, ez duk gertatu. Zuek baiño tematuagorik eta mugatuagorik nekez aurki diteke Kondairan!

—Eta zuek Kristo duzute beti aurrean eta ahoan; Eta atzean burges atzerakoi bat!

—Ez duk egia, eta egia ez dana ba dakik hik. Guk zuen temaren eta mugakeriaren laurdena baizik ez bagenu, fanatikotzak harreraziko ginduzkezute.

Jean Ghislain'ek farre egin zuen algaraz.

Zurrutada batez hustu zuen azkeneko «Ekla» basoa, eta beste bat eskatu zuen. Ixildu egin zan pittin batez, eta Pierre'k mintzagaia aldatzeko gogo nabaitu zuen; baiña nola lortu ez zuen ikusten.

—Jean: hirekin ados ez izanik ere, maite haut. Hunat hemen egia —esan zuen Pierre'k oso hunkiturik—. Zerbaitetan siñisten duk, siñismenak eusten hau: nabarmen zaidak hau arratsalde huntan. Ni, ordea, hutsean natxegok, egarri nauk, etsita.

Jean Ghislain harriturik gelditu zan aitorten illun hura entzunda. Eta pittin batez zalantza egin ondoren, hau erantzun zion izuti:

—Baiña... zergatik ez hator, hortaz, ez Dupont eta ez nerekin? Gugandik hire Ebanjelioak berezten hinduela uste nian... Ez nauk esatera ausartzen; baiña... hori ere ez zegok, ez dea?

—Ezta hori ere. Iñork ez dakien erabaki bat esango diat: apezgoa uztea erabaki diat. Jesukristo'rengan siñisten diat hein batean; baiñan Elizak utzerazi zidak. Jesukristo eta Eliza ezkondu eziñak dituk. Jesukristo maite diat, eta Eliza gorroto. Ezin komeria hau aurrerago eraman.

—Iñork ba ahal daki hori?

—Heuk ez beste iñork. Erabakia hartua zeukeat, baiña hillabetez-edo ixillik egongo nauk enkas. Erabaki larriak hotzean hartu beharra zegok.

—Zorionak, Pierre! Gizon bat haiz! Gizona apaizari nagusitu zaiok higan. Ez duk hau egunero gertatzen...

—Ez zorionik opa neri. Ez zekiat xuxen jokatu ote dudan.

—Eta, zer egin behar duk?

—Hasteko danak utzi. Eta zerok eta Mons'eko mia ere bai. Ez diat nik zuen fedea, eta ez kristau fedea ere. Zerk geldiaraz nintzake ifernu hortan? Ez diat, bestalde, zuen sua itzaldu nahi. Ekin, Jean, aurrera! Segi! Bekaitz natzaitzue, benetan! Nere huntan bide bakar bat ikusten diat: zuengandik aldegitia. Aspaldiko adiskide batzuekin mintzatua nauk iadanik, eta lanen bat izango bide diat Brusela'n.

Aitormen luze hau mingarri zitzaion Pierre Meunier'i, urte askotan barrena okerretik abiatua zala aitortzea baitzan. Baiña beharrezkoa ere bai. Eta, piskanaka, garagardo-zurrutada laburren artetik, bere izpiritu-billakaera guzia azaldu zion.

—Lieja'n lanean hastean, orain dala bi urte beraz, Marx'en ideiek kulunka utzi zidaaten apaizgaitegiko fede orbangabea: hau duk egia. Dupont'ekiko nere hartu-emanak hestu-hestuak izan dituk batzutan. Mons'en bitan «marxista-leninistekin» lotzeko zori-zorian egon nauk. Kristau fedearen illunpeen orde, Marx'en ideietan argi betea aurkitu uste nian; eta, batez ere, marxismoa kristautasun moderno iruditzen zitzaidan. Marx'ek gizona maite zian; eta pairamenetatik eta zapalketatik jaregiteko, arrazoiñaren eta zientziaren arabera kristautasun berri bat asmatu bide zian. Hau siñistu nuenean, trukatu egin nizkian fedeak: Jesukristo'ren orde, ni arras konturatu gabe noski, Marx ipiñi nian buru eta gidari; pittin bat atso elizkoiek Jaungoikoaren orde Ama Birjiña jarri ohi duten bezela: ez kontra, tarteko gisa baizik. Kristau aurrera-zaletasunetik marxismo betera igaro ninduan hortara ezari-ezarian; eta Fedea arras galdu nian. Kristau Ebanjelioa eta marxismoa alkarrekin ezkon omen ditezke. Gaur garbi ikus dezaket arazoa; eta hori marxistek esatea, beren lanetarako egoki izan dakieke beharbada, eta era berean zenbait kristauri; baiña hori kristauek siñistea txorakeria hutsa iruditzen zaidak. Marx eta Kristo trukagarri gerta ditezke, baiñan ez alkarren laguntzaille. Ez zegok huntaz zalantzarik. Bi mundu dituk.

—Hortan kristau burgesa haiz! Kristau burges hago, hobe!

—Ni ez nauk, otoi Jean, ez burges eta ez kristau. Kristauek Kristo'ren jarraitzailleak dituk, eta munduari uko egiten zioatek; eta burgesek soziedade huni eutsi nahi zioatek.

Ni ez negok ez batean eta ez bestean. Eliza eta gaurko soziedade mailla berean jartzen dizkiat, eta era berean gorroto.

—Hortaz?

—Azkeneko aldiz esango diat, Jean —erantzun zuen Pierre'k, etsi duenaren modura—. Ez diat zuen Erreboluzioan siñisten, Marx'engan siñisten ez dudalako. Marx'engan siñistu dudan ezkerro, ba zekiat zer dan hori: hori, siñistuta egon hadi, kristauen fedearen kide berbera duk. Gauza berbera, benetan. Marx ez duk Einstein' en anaia, Mahomet'ena baizik; marxismoa ez duk errelatibidadearen kidea, Koran'arena baizik. Apaizgaitegira ni gazterik joan nintzanean, sendimen berbera neraman barruan: Egia nian nerekin, eta ez nian ezertarako bildurrik. Zuen ustez, siñistun guzien ustez bezelaxe, gauzak oso errazak dituk: Egiak eskubide guziak dizkik, Makurrak batere ez. Gizon onak eta prestuak zuekin batera doazenak dituk; gizon gaistoak eta afusillagarriak, zuekin batera joan nahi ez dugunok.

Eztabaida berandu arte luzatu zan. Eta halere puntu berean gelditu ziran iritziak, zipitzik aldatu gabe.

Beste mahaiñetan jendea aldatu egiten zan, eta azkenean ordezkariak utzi gabe joan. Ondoko mahain kaskar hartan, ordea, bi gizon gazte, jo-ta-ke, eten gabe mintzo.

Pierre Meunier hamarretan etxera zanean, nekatuta zegoen oso. Bidean bar batean, ke haundian, eta leihoen lurriñaren atzean, zahar batzuk ikusi zituen dantzan, pozik eta lotsagabe, moldakaitz eta farragarri. Mahaiñetako bezeroek irribarre egiten zuten onez-onetara dantzarietara begira.

Esku hotzak poltsikuan sarturik, hartan so gelditu zan Pierre kaletik; eta burutazio arrunt batzuk etorri zitzaizkion. Hunek batez ere hunkitu zuen: «Eta nik orain hauei gaur arratsaldeko alkarrizketa azalduko banie?... Eta langilleak dira danak, ziur nago!...»

Atsegiñez erantzi zituen oski bustiak gelan. Eta oherakoan hau esan zuen etsita: «Munduak ez du soluziorik. Garbi dago».

XIX

Astearte arratsaldean, lhaute-Motz kari, Jean Ghislain'ek Pierre aurkitzeko gogoan zuen, baiñan ez zuen lortu. Berdantzako eztabaidari ekin nahi zion. Ba zekien, bestalde, Pierre Meunier borondate oneko gizona zana; eta bere hartara ezkeron, kontsolatu egin nahi zuen. Trotskismoarentzako irabazteko itxaropena, bestalde, ez zuen galdua. Nun ote zan arratsalde euritsu hotz hartan? Nora ote zan etxetik? Mons'etik aldegiña ote zan?

Bapatean gogorazio bat izan zuen: Binche'n, noski, Scheelen'darrekin! Joseph hara joatekoa zan, larunbatean emazteak esan zuenez; eta bere alaba ere bai. Pierre'k, beraz, Jean oso oker ez bazegoen, ez zuen halako aukera bat galduko...

—Gizona ezin diteke hutsean bizi —zion berekiko—. Pierre'k beti maitatu izan du bihotzez: Jesukristo maite zuelako egin zan apaiz, zoritxarrekoak maite dituelako joan zan mietara. Bata eta bestea utzirik, nork beteko du bere bihotza?», Ez zuen erantzun; baiña berdantzako jokabide bitxi hura ulergarriago iruditu zitzaion.

Pentsatu eta egin: arratsaldeko hiruretarako Binche'n zan Jean Ghislain. Laister ikusi zituen, eskaratzetan eta kaleetan, bakanka eta multzotan, soifneko orixkak, bizkarrak ikaragarri konkor, buruan Erdi-Aroko kapelo hestuak batzutan eta luma luze zuriak bestetan, txiliñak orpoetan, Binche'ko iñauterietako «parteliantak» prestatzen ari. «Binche'ko Gilles» dalakoak, urte osoan barrena prestatuak omen, Binche'ko loria. «Les Gilles de Binche ne sortent jamais de Binche»... Hantxe ikusi behar egiazkoak, omen.

Erdi aldera jo zuen. Giroaren hezeak eta hitsak apalago eta txiroago egiten zituen etxeak; eta Jean Ghislain'i barrua asaldatzen zitzaion ikuskaria begiratzean: «Telebista-antena ez dira falta, egia da; baiñan antena irudimenaz ken, eta ez da zailla herri koxkor hau guztiz zapalduta asmatzea... dagoen bezela. Zenbatek egingo du gaur hemen, ordea, gogoeta hau? «Gilles» en lumak ikusiko dituzte. Etxe hauetako langillen pairamenak nork? Folklorea ikusiko dute, eta herria ez.»

Jendea ugari zegoen, berebillak gaiñezka alderdi guzietatik, zerua goibel eta eurikara, baiñan oraindik ateri. Marrokotarrak, argeliarrak eta greziarrak ez bide ziran han eskas, eta Jean'ek ba zekien; ezta yugoslabiarrak, italiarrak eta españarrak ere. Ba zekien Jean'ek, baiñan ikusteak kiskaldu egiten zuen bere arima. «Hemen dira gizon beltzaran hauek, bizi- behar hutsak hunat etorriak, eta orain Binche'n ikusle... Hauek 'nahi dutelako' etorri omen dira hunat... Horra hor burgesek diotena! Belgikarrek egin nahi ez dituzten lanak egitera etorriak. Hauentzako ez dago «ez» esaterik. Hauetxek dira, beraz,

langille «ereduak»... Edozer ordaindu, eta beti prest daude haiñak. Paperak berritu ez, bestela, eta berriz atzera. Belgikar langilleak, aldiz, «gaistatuak» omen daude: eta askok, burgesek haiña atseden irabazi nahi omen du... Telebista nahi dute, bakantzak nahi dituzte, «guztiz beste klasekoak» balira bezelaxe: «burgesek haiña irabazi nahi dutela pentsa diteke». Atzerritar gizajo horiek, berriz, «onak» omen dira, «oso langilleak». Atzerritarrek diran ezker, gaiñera, (eta nolako erresumatako biztanle jatorriz...) oso mia-gizon «egokiak» dira omen. Ez dute ezertarako eskubiderik askotan, ixilpean eta legetik at tratua egiteko hiruzurrak ez baitira beti salatzen eta zigortzen»...

Bi gizon beltzaran illun bere ondotik pasa ziran une hartantxe, arabieraren «h» ugari dalakoak arrastatuz.

—Eta Mehdi Ben Barka nun da? —pentsatu zuen Jean'ek—. Erresuma-arazoa omen da! Urde zerriak! Eta gizajo horiek ixillik, marmarrik sekulan ez... Hauek ez dituzte, beraz, bazterrak kakaztutzen. Telebista izan dezaten nahi hainbat erospide dute. Zer gehiago behar?»... Eta txistua bota zuen, eta berriz txistu, eta karkaxa lodi bat azkenik.

—Burgesen osasunera! —esan zuen goratik. —Baiñan iñork ez zion kasorik egin.

Bereala igaro zan lehendabiziko «Gilles»-taldea, hogeitabat lagunek osatua: beren ibillera harrigarrian abiatu, txiliñen soiñutan eta laranja aldean ehunka, millaka, ikusleei egotziaz. Nolako herra Jean Ghislain'en bihotzean! Jostatu egin behar Binche'n, langilleak hartaturik! Xirimiria hasia zan une hartan, oso poliki; eta hezetasunak haztaturik, gero eta sarkorrago egiten zan laranja azalen usaia. Taldeak igarotzean, alde batera eta bestera gurutzatzen zuten aidea laranjek; eta itxaferoak ziruditen argi epel lanbrotu hartan. Ikusleek ez zuten muziñik egiten; eta gazte jendeak batez ere, berariazko zakutan sartzen zituen laranja, Binche'ko «Gilles» famatu haiei arraspostu bortitza emateko asmotan. Beste talde bat, eta beste bat, eta beste bat... Danak berdiñak, berdiñak ibilleraz, berdiñak kolorez; eta laranja gehiago, eta gehiago, hormetan lehertuak, lurlean zapalduak, masailletan geldituak. Eta xirimiria gero eta trinkoago, eta laranja usaia gero eta nabarmenago eta hertuak, lurlean zapalduak, masailletan geldituk. Eta xirimiria paretak laranja-tatxex gero eta nabartuago. Hemen eta han, burni harizko sare batek gerizaturik, binche'tar familia bat, irriz eta farrez. Jean'ek berak batzutan, laranja-kadak aldendu nahiz, makurtu egin behar...

—Hau alienazioa!

Ueltu eziña zitzaion Jean'i jende txiro haiek gaur (eta XIX-garren mende guzian barrena, beraz!) diruketa gaitzak xahutzea halako folklokeria batean. Belgika'ko famak dionez, urte osoan

aurreratzen dute dirua binchetar langilleek, iñauterietan txano eta soiñeko dotore horiek «behar dan bezela» jantzi ahal izateko... Zer adierazten du, bestetik, kanta zaharrak: «Gilles-t'auras fagne-de pagne-demagne»; bihar ogi-goseak egongo haz.

—Aurreratzea: beste burgeskeria bat! —zion Jean'ek berekiko—. Eta luma txuritan xahutzekotan aurreratzea, azkena!

Eta zalaparta betean, eta iñork ez entzuteko giroan noski, goratik esan zuen: «Horrela barreiatzen zaituzte burgesek: «Gilles de Binche», Belgika hillezkorra, abertzaletasuna... Ipuiñak! Behin eta berriz ipuiñak eta alienazio hutsa! Walonia desegiten ari, eta zuek dantzan, eta «ohiturai eutsiz»... Nork nahi izan du turkiar eta argeliar horiek hunat etor ditezten? Zuek binche-tarrok? Etorritakoek berek? Ala zuen industria-ugazabek, gutxiago ordaindu nahirik? Ez duzute ezer ulertzen!!»...

Une hartantxe leher egin zuen laranja batek Jean'en begitartean, puntu bero, itsaskor, eta minbera bat utziaz.

—Horra! —esan zuen goragotik, oraingoan. —Horra! Ederki! Segi, segi hola! Lantegiak hesten diran arabera, zuek laranjatxoak alkarri botatzen! Sozialisten bilkuretan ez dago iñor, baiña Binche'ko Iñauterietan eta Blankerberghe'ko ondarrezko dunetan, multzoka, millaka! Josta zaitetze, bai! Ekin «tradizioari»! Ekin, ekin!

Jendeak ez entzuna egin zion. Nor ote zan erretxin ernegatu hura? «Gaur jolas eguna da. Zer ari da ero hori hemen politikeriak nahasten?», entzun zuen emakume zahar batengandik. Beste iñork ez zuen Jean'ek esandakoa aintzakotzat hartu. Zelebre bat, eta danak laranjetara...

Masailla hezea eta mindua nabaitzen zuen Jean Ghislain'ek, eta bapatean oso hotza. Mokanesaz garbitzen hasia zanean, farre algara bat entzun zuen bere ondoan:

—Zer ari haiz, motel?

Joseph Scheelen zan. Scheelen eta bere alaba, eta Jean'ek ezagutzen ez zuen beste gizon bat.

—Arratsalde on, Jojo —erantzun zuen Jean'ek, bere amorrazioa nekez izkutatuturik.

—Bai hiri ere. Zer gertatu zaik, ordea? —galdetu zuen Scheelen'ek irribarre gaistoan. —Ez dakika hire burua hobeki gerizatzen? Hemen baimenik eskatu beharrik ez zegok, ba dakik. Jo eta hautsi; eta ixillik egon behar.

Ezer esan gabe begiratu zuen Jean'ek, bere nazka-muziña ager ez zedin saiatuz.

—Pierre Meunier ikusi duzute? Hitzegin egin behar diot- esan zuen Jean'ek, bere aurpegia azkenenکو aldiz legortzen zuen artean.

—Hain zuzen harritu egin nauk hirekin ez ikusita. Ez zekiat.

—Ez zekiat neuk ere. Hirekin eta hire alabarekin egongo zalakoan etorria nauk Binche'ra. Ez zozokeria hau ikustera, noski! Iñauteri-jai hau barne-muiñetatik gorroto diat!

Eta hau esanda Elsa'ri begiratu zion. Hunek, aldiz, zapi garden bat buruan, zintzilikario borobillak belarrietan, gabardiña urdin illuna soiñean, eta aterki urdin argi bat besoan eta hetsita, galtzara erdira begiratzen zuen antsikabeki, Jean'en hizketaz jaramonik egin gabe. Eta ez zuen Jean'en eztenkada hura harrapatu. Jean Ghislain'i, dana dala, larunbatean baiño ederrago iruditu zitzaion Elsa. Eta hunela mintzatu zitzaion:

—Lehengoan, zure etxean, nere adiskidea itsutu ote zenuen bururatu zitzaidan; baiña neu naiz itsu nengoena.

—Milla esker —erantzun zuen Elsa'k, beti galtzararuntz begiratzuz.

—Ez, ba —moztu zuen Scheelen'ek. —Hire apaiza ez zegok gurekin...

—Zer esan duk, Jojo?

—Hire apaiza hemen ez dagoela.

Ongi entzun eta ongi ulertu balu bezela, eta irribarre eztitsua ezpaitan, buruaz baieztu zuen Elsa'k, lehenengo aldiz Jean aurrez aurre begiratzuz.

Ez zekien Jean'ek bere barne-zartakoa nola izkutatu. Zergatik zartakorik, egia esateko? Ez zion hori Seheelen'i esan, egia zan. Eta batez ere, ez zuen hura espero; eta espero ez zuelako, nundik jo ez zekien. Larunbateko eztabaida itsusia gogoratzen zitzaion. Scheelen'i, bestalde, ez zion sekulan azaldu nahi izan Pierre Meunier laguna apaiz-langillea zala: Scheelen'en elizaren kontrako gorrotoa ezaguturik, gizona ezagutaratzea pentsatu zuen aurretik, eta gero lanbidea. Orain, halere, bildurrago zan egia azaltzeko, lapur bat ixilka ezagutarazi izan balio bezela, eta etxean sartu.

—Zergatik ez hidakan egia osoa esan? —galdetu zuen Scheelen'ek, pittin bat mespretxu antzera.

—Begira... Ez nekien orain arte apaiza danik —erantzun zuen Jean'ek segurantzirik batere gabe.

—Ezagun dik bai!

Ez zekien Jean'ek ateka hartatik nola irten. Ustekabean harrapatua zan osoki.

Soiñuak eta zalapartak berriz haunditzen hasiak: beste «gilles»-talde bat goitik heldu.

—Kontuz! —esan zuen Elsa'k oihuka— hemen dator-eta beste astakillo-talde bat, eta hauek ere ez dituzte laranjak faltako.

Xirimiria euri billakatzen zan: ez euri larria oraindik, ez erauntsi; baiña bai ikusle guziak blai-blai uzteko modukoa. Laranjak zirala-ta sortu zan iskanbilla hartan, berezi egin ziran gure lagunak.

Eta Jean'ek, nahaste borrhaste hura aitzekiatzat harturik, tranbia bat hartu zuen, eta iges egin zuen etxe aldera, Scheelen'darrak berriz topatzeko bildur.

XX

Handik hamabost egunetara Elsa, egunero bezela, La Limite-kaleko «Hektos» ikasgura joan zan; eta atarian, nahi izan gabe ere, berriz ere irakurri zuen: «Hektos: Académie par correspondance».

Paperen artean murgildu zan: zuzenkizunak banatu eta irakasleentzako prestatu, ikasleei ikaskizunak postaz igorri, diru-kontuak tajutu... Betikoa.

Tinbreak erauntsi zuen.

Hamar t'erdia erlojuan. «Hasia da gaurko erronda», pentsatu zuen Elsa'k. «Irakasleren bat zuzenketak ekartzera etorria, edo zuzenkizunak eramatekotan». Eta atea zabaldu zuen.

—Egun on, jauna —esan zuen Elsa'k, atea eskuaz heltzen zuelarik. —Zertan lagun zaitzaket?

—Elsa!!! —entzun zuen bisitatzaille haren ahotik. —Elsa! Baiña, baiña... zer ari zera zu hemen? Hemen ari zera lanean?

Abotsak eta esakerak barne-asaldua salatzen zuten hitzunarengan. Eskallerako erdi illunpe hartan ez zan ia ezer agiri, eta gizon hura nor ote zan errazago zan abotsaren bidez asmatzen, itxura illun hartan ezagutzen baiño.

—Zure abotsa nunbait entzun dut, bai, baiña nor zeran ez dut asmatzen —erantzun zuen Elsa'k hotz-hotzean, eta eskallera hartako illunean bere begiak zerbait sumatzen hasten ziralarik.

—Pierre Meunier nauzu. Zure etxera negarrez azaldu ziñan egunean, hantxe ninduzun. Jojo Scheelen zure aita ezagutzen dut. Orain dala egun batzuk, Mons'etik aldeginda, latifñezko ariketak zuzentzen hasia naiz hemen. Dufrasnes jaunaren bidez lortu dut lan hau. Ez nekien nik zu hemen... Ez nion antzik ere ematen!

—Sar zaitetz, jauna —erantzun zuen Elsa'k hozki, eta «Hektos»-enean biak buruz buru zeudelako pittin bat gaitzi.

—Bizia ulertu eziña da batzutan —ekin zion Pierre'k, Elsa' ren begirada alperrik gurutzarazi nahiz. — Patuak alkargana egozten gaitula pentsa liteke, Elsa.

—Hemen lanean ari naiz, jauna. Lanari dagokion zerbaitetan lagun badizaizuket, pozik egingo dut. Hain zuzen ere, ba dira hor hamar edo hamabi latifñezko ariketa-mordo, latifñaren erakaslearentzako (eta zerorrentzako, beraz). Har itzazu.

Eta paperen artean lipar batez billatu ondoren, eskura eman zizkion:

—Tori, jauna.

—Ez nekien hemen ziñanik. Bistan da ez nekiena, bestela ez nuen egun hau hunenbestez luzatuko. Gaurko egokiera hau ahaztu eziña izango da neretzat, Elsa.

—Hemen ni Scheelen andrea naiz.

—Eta zure senarraren izenaz, zer gertatu da? De Potter, edo... nola da?

—Berdin zaizu hori, jauna. Ni hemen Scheelen andrea naiz. Arren: dei zaidazu hortara aurrerakoan. Maiz etortzen da Dufrasnes jauna; eta, bestalde, bestela deitzeko ziorik ez dut aurkitzen. Ez nauzu behin baizik ikusi.

Tinbreak berriz erauntsi zuen.

—Barka miñutu batez. Atea idekitzera noa.

—Bai, bai. Noski.

Pozik abiatu zan Elsa atea zabaltzera. Buruz buru Pierre' kin egotea atsekabe zitzaion. Gizon asko bere inguruan begira ikusi ondoren, ba zekien Pierre'ri atsegin zitzaiola; eta emakume gisa atsegin zitzaiola bestalde. Aterako bidean gogoeta anitz etorri zitzaion burura, eta hau batez ere: «aurrerakoan egunero izango dut hemen apaiz bitxi gezurti hau nere inguruan; eta askotan bakarrik egoten naiz. Hau nazka!».

Korridorearen barrena urrundu zan artean, takoikadak tantoka gisa entzunaraziz, begia kendu gabe begiratu zion Pierre'k; eta Elsa oso «sexy» ibiltzen zekiela iruditu zitzaion, eta soiñez lerdena zala txit. Denetan zala, hitz batez, oso erakarle eta oso besarkagarri. Zangoak aztertu zituen ere aterakoan, eta aspaldi hartan ederragorik ikusi ez zuela pentsatu zuen. Ille-mototsa, argitan beltz-beltza islatzen, beltzago ageri zan atzetik. Lepoa, kontrara, zuria eta fiña zan, zuriago eta fiñago motots beltzaren arabera.

—Egun on, Lacoste jauna —entzun zan bulegotik.

—Egun on, Scheelen andrea. Bakarrik ote?

Pierre'ri iruditu zitzaionez, ba zegoen «bakarrik ote» hitz legezko haietan, konfiantzakeria eta legunkeria pittin bat. Zerbait ba zan, uste zuen: maite duten gizonen modura esan zituen hitz haiek Lacoste ez-ezagun harek. Eta kezka hura jelosiaren zantzua ez ote zan bururatu zitzaion Pierre'ri:

—Ez, ez, otoi! Eziña da! Eziña da! —esan zuen ahapeka bere kolkorako. —ez dut emakume hau ezagutzen. Ez da posible.

Gizon gazte bat aurkeztu zan, hogeitaz hamar bat urtetan.

—Lacoste jauna duzu hemen —esan zion Elsa'k Pierre'ri. Hemen duzu zure erakaskide bat: Algebra Modernukoa.

—Atsegiñez jauna —erantzun zuen Pierre'k, haren jazkera eta itxura osoa xegundu laurden batean goitik behera miatuz.

—Meunier nauzu, zure zerbitzuko.

Baiñan ez zuen zein lan-mota egiten zuen erantsi. Txorakeria zan, zeren-eta Lacoste harek azkenean errazki jakingo zuen dana; eta, zer axola bestetik? Elsa'k ba zekien. Baiña latifnezko ariketak zuzentzen zituela esan beharra, bere apezgoa salatzea zala iruditu zitzaion. Eta ez zuen, enkas, Elsa'ren aurrean esan nahi. Errazkiago somatuko zuen Lacoste'k agian bere apezgoa Elsa'k baiño. Pierre'k ba zekien, bestalde, bere aurreko erakaslea apaiza zala; eta Lacoste'k galderaren bat egin zizaion bildur zan.

Baiña hau guzia txorakeria zala ulertu zuen Pierre'k, eta beste xegundu batez ixilluneari eustea okerrago izan zitekeala sumatu zuen. Eragabekeria zan: apaizek ez bestek erakats ote dezateke latifñera ala?

Bi xegundu haiek, halere, gehiegizko ziran:

—Meunier jaunak latifñerazko ariketak zuzenduko ditu —argitu zuen Elsa'k. Aita Laval, ba dakizu, Mauritania'ra joan da.

Larrugorrian zegoela iruditu zitzaion Pierre'ri, eta guztiz lotsatu zan. Hasarretu ere egin zan: Elsa'ri buruz, eta Elsa'ren aurrean, menpekeria osoan harrapatu baitzuen bere burua. Ez ote zekien Elsa'k ere bera apaiza zanik?

—Latiñera erakasten dut, bai —esan zuen besterik eziñean. Baiña bildurtuta zeukan galdera ez zetorren, eta hizketagaia aldatu nahiz esan zion Elsa'ri:

—Scheelen andrea. Beste zuzenkizunik ez ote da gaur neretzako?

—Ez, ez dago besterik. Mahain gaiñekoak hartu badituzu, horiek dituzu gaurko danak.

—Ongi da. Zuzendutakoak hor dituzu, andrea.

—Ondo da, jauna. Milla esker —Elsa'k erantzun, bere hizkerari administrazio-kutsua erantsiz.

—Agur! Urrena arte! —agurtu zuen Pierre'k besterik gabe. Eta eskalleretan behera abiatu zan, etsirik, lotsaturik, nazkatirik.

Baiña kezkatirik ere bai. Lehenago nola ez zan konturatu ez zuen konprenitzen. Alegia, Elsa eta «Lacoste jauna»... buruz buru gela epel hartan. Aitzekia bat asmatu eta gora igotzekotan egon zan zalantzan; baiñan ez zuen egin. Eta etxe aldera jo zuen.

Ez zijoan lasai, ordea. Behin eta berriz zetorkion burura esakuntza labur hura: «bakarrik ote?». «Hektos»-enera joan aurretik, zer zitzaion Elsa? Zerbait bai, egia da. Ihaute-Motz arratsalde euritsu hartan Binche'ra jo zuen Elsa aurkitzekotan, nahiz zoritxarrez ez ikusia azkenean; eta Brusela'ra Otsaillaren 12-an aldatzean, tristura sakon batek bete zuen ixil-ixilleen: Elsa zoragarri hura, bere bizi guzian lehenengo aldiz modu hartara iñarrozi zuen emakumea, ez zuela segurki berriz ikusiko.

«Hektos»enean ustekabez topatzea, hortaz, pozgarri izan zitzaion arrunt, bihotz betegarri hobe, mirari bat; baiñan ixilka bezela sartu zan maitasunaren pozoin ezia Pierre'ren bihotzean, ezari- ezarian; eta eskalleratik jetxi arte ez zuen uste sendimendu hura benetan hiltzaturik zegoenik, eta iñolaz ere aihenatzen jakingo ez zuenik.

Lacoste hura, eta bere galderatxoa, egokitu ez balira behintzat! Baiña bai: arazoa mikaztua zan hasieratik beretik. Behin eta berriz saiatzen zan Pierre bi «lankide» haien arteko adiskidantza neurtzen; baiñan ustekeria hutsak ziran danak: Pierre'k ez zekien ia ezer Elsa'ri buruz, eta ezertxo ere ez Lacoste hartaz.

Pierre gelditu egin zan kalean bapatean, eta erlojua begiratu zuen: hamaikak eta hogeia. Zergatik ez atzera egingo? Beharbada «biak», Elsa eta Lacoste alegia, alkarrekin irtengo ziran ikasgutik. Elsa Scheelen eta «Lacoste jauna» alkarrekin ote? Lazgarri izango bazitzaion ere, jakin egin nahi zuen egia.

«Hektos»en aurreko kafe zahar kaskar batean sartu zan, La Limite-kalean bertan; eta barrean zutik gelditurik, «Ekla» bat eskatu zuen. Hamabiak hogeia gutxi... hamar gutxi... bost gutxi... hiru gutxi... Taupadak gero eta arifago: «hau eragabekeria hutsa da; burutik egiña nago ala?»...

Hamabiak!

Miñutu bat ozta pasa zan, hantxe zegoen Elsa, eskaratzean, zai itxuraz. Bestetan bezin ederra, ederrago beharbada. Buruan zapi garden bat lotu zuen aurretik, eta gabardiña urdiña gerrikoaz hestutu. Atzetik, aterki urdin argi bat eskuan, Lacoste «jauna», Elsa'ren prestamenen zai. Pierre'ren bihotzaren taupadak gero eta desordenatuago:

—Madarikatu hori! Ba nengoen ba ni! —atera zitzaion bihotzaren erditik. —Hilko ahal haiz!

Elsa'k eta Lacoste'k, alkarren ondoan, baiña besotik ez heldurik, ezkerretara jo zuten. Agiri zanez, maiz egiten zuten gauza bera. DS urdin zahar baten ondoan gelditu, eta Lacoste'k eskubiko atea ideki zuen: Elsa sartu zan aurrenik berebillean; eta Lacoste'k, atzetik ingurua egiñez, gidoiñaren aldetik sartu zan segidan. Piskanaka berebilla pittin bat jaso, eta abiatu egin ziran Sint Josse'ko udaletxearen aldera.

Nola azalduko Pierre'k sendi zuena? Ezin aixa esan. Lehenengo aldiz nagusitzen zitzaion halako sua: gorrotoa, herra, ezertan ezin pausatzea, mozkortzeko behar gorria, dana batera.

Lozorro betean eta iratzartasunik erneenean batera, barraren ateruntz abiatu zan gogaiturik.

—Barka, jauna —entzun zuen Pierre'k, kafeko sehiak oso legunki geldiarazten zuelarik. —Barka nazazu: zure «Ekla» hori ez didazu ordaindu.

—Ene, ene! —Pierre'k guztiz lotsaturik—. Sekulan baiño okerrago nago! Barka, jauna: oso berri txar bat izan dut. Zenbat zor dizut?

—Zortzi libera, jauna.

—Tori hogeitako txartel hau, eta gorde zazu dana. Ene! Barka nazazu!

—Ez da ezer izan, jauna. —Eta irribarrez agurtu zuen.

Kalera irten zan. Osotara burua galdurik; eta, egia esateko, zergatik? Ez zuen ulertzen. Elsa hura ez zuen sakonki ezagutzen, seriotan hartzea merezi ote zuenez ez zekien. Zer axola izan zekiokean? Egia, hala zan. Baiñan erraietan iñoiz ere nabaitu ez zituen gorrotoa eta maitasuna, biak eroak, biak neurrigabeak eta adimenetik at elikatuak, alkargainka jabetzen ziran Pierre'z. Lacoste'rekiko, bekaizkeria eta herra. Elsa'rekiko maitasuna, xamurtasuna, eta mendeku-behar izpi bat.

Nor ote zan Lacoste zorioneko hura? Gazteegi Elsa'rentzat, Pierre'ren ustez; gazteegi batez ere pentsakeraz, Elsa ez baitzizaion gazte errugabe iruditzen.

Zer ote ziran Hauzitegiko gorabeherak? Zer ziran, beraz, katramilla haiek? Ezer merezi ahal zuen Elsa'k? Nork eskatu ote zuen dibortzioa: Elsa'k... ala De Potter jaunak?

—Ederregia da bigarren hau ez izateko! —pentsatu zuen Pierre'k. —Nola burura zekidakean besterik? Puta bat da, baiñan ez du koberatzen. Nahi dituenak hautatzen ditu ohaide! Eta ez zaizkio falta, noski! Hunat hemen seguru asko bere senar-ohiak ukatuko ez zidana! Gorroto dudala uste dut; baiña berandu ez ote dan bildur naiz.

Baiña gorroto hura beroegia zan, tema hura jarraikiegia... Alperrik saiatzen zan Pierre Elsa'ren oroitzapena lardazkatzen.

Pierre'ren barruan, oso sakonean idatzirik, izen bakar bat aurki zitekean idatzirik: Elsa Scheelen.

XXI

Pierre pozarren joaten zan «Hektos»enera azken bolada hartan. Egunik illunenak larunbatak eta igandeak zitzaizkion, zeren-eta egun horietan Elsa ikusteko aukerarik ez baitzuen izaten.

Gaiñerakoak, aldiz, itxaropen-iturri bat zitzaizkion egunsentitik beretik: «gaur Elsa ikusiko dut». Hauxe zan eguneroko bere otoitz berria. Eta bakarra! Apezgoari datxezkonak aspaldidanik utziak zituen; eta Elsa'ri buruz esaten zuena, Jesukristo'ren izenaz ornituak antziñan egiten zituenak baiña aixa gogotikago esaten zuela erreparatu zuen.

Bere burua nabarmenegi ez uzteko, egun batzutan berariaz gelditzen zan «Hektos»enera joan gabe; eta era hortara igarotako egunak, biharamuneko itxaropenak betetzen zituen.

Elsa'k hozki hartzen zuen beti: hotz eta eratsuegi. Gauza nabarmena zan Pierre atsegin ez zitzaiola: edonork suma zezakean hau, eta Pierre'k berak ere bai funtsean. Baiña hunek ezin ikusia egiten zion, eta aurrera jotzen zuen; eta ikasguko tinbrea jo bezin laister, bere barne-pakea guztiz zuen galtzen; eta are galduago Elsa'ren begirada, alkarrizketarik hotzenean, bere begietan lipar labur batez aurkitzen bazuen.

Gogorkiago eta zuhurkiago jokatzeko erabaki irmo guziak, dardaratu eta desegin egiten ziran Elsa'ren abotsa entzutean; eta hunen begiradarik igeskorrenean gesaldu egiten ziran. Elsa trufatu ere egin zitekean lasai Pierre'z, hau, zernahi pentsatuagatik ere, behar bezela ihardukitzeko gauza izango ez zan segurantzian. Batzutan gogoia ez zitzaion falta; astetan barrena joan arren, Pierre'k apezgoaren berririk aipatzen ez baitzion.

Ba zekien jakin Pierre'k, bestaldetik, belaskeria hartan egotea zala jokabiderik kaltegarriena eta galgarriena. Lieja'ko espaiñiar langille harek eman zion aholkuaz ez zan aixa ahaztu: «Tangoak dira egiarik haundiena. Sasi-gizona da emakume baten atzetik arrastaka ari dan gizona. Behin eta berriz arreguratzen da tangolaria bere kantan, ezen behin eta berriz, nahiz bera negarrez itoa ikusi, emakume maitatuak kasurik egin ez diola, eta maitale berriarengana jo duela». Eta ekiten zuen: «Nola ez? Emakumeak ez du ezer mespretxu haundiagotan idukitzen, maitatzaille ahul eta negartia baiño. Emakumeak ez du negarti bat ondoan nahi, agintari garratz bat gaiñean baizik».

Ba zekien Pierre'k, bai; eta egia zana, egunero sumatzen zuen Hektos'enean. Baiña sobera maite zuen; eta bere hartan, ezin zitekean bestela joka. Bere barneko sua izkutatu beharrean, agertu behar gorriak hartzen zuen Elsa'ren aurrean; eta hunetxek galtzen zuen.

Bi parte zituen egunak, hortaz, Pierre'ren ustean: bata, Elsa'rekin pasatzen zuen beta; bestea, Elsa ikusi gabe pasatzen zuena.

«Hektos»-enera maizago joan ahal izateko, zuzenkizunak batera har ahal izanik ere, piskanaka eta mordo oso hurritan baizik ez zituen hartzen; eta gauza bera zuzendutako ariketak: pillo haunditan eman beharrean, ia banan-banan eramaten zituen, gehiagotan joateko aitzekia billa. Posta, noski, ez zuen iñoiz baliatzen: dana eskuz esku. Egun batzutan goizean eta arratsaldean agertu ohi zan Elsa'rengana, edozein estakuru aipatuz. Telefonoz gutxitan deitzen zuen. Elsa'k bereala moztutzeko aukera aurkitzen baitzuen; eta lotsa hartatik ez zuen berriz pasa nahi.

Buruz buru Elsa ikustea gaitzi zitzaion oso hasieran; eta lankideen aurrean ez hitzegiteko, ezer esan gabe joan ohi zan, Elsa halere begiez maitagunez musukatu ondoren. Baiñan Elsa' rekin buruz buru gertatzeko aukera oso zail izanik, nola edo hala zerbait esateko aukera aurkitzen zuen azkenean; eta bide huntatik, apurka apurka, Elsa'ren berri ugari bildu zuen.

Hunen erialdiek larritu zuten Pierre gehienik; eta, gero damutu bazitzaion ere, aspaldidanik Pierre'k ezagutzen zuen barbituriko marka baten botillatxo bat egin zion opari; eta, Elsa'k esan zionez, erabilli egiten zuen gauero, eta dosis bikoitzean: «batzutan bestela, eldarnio gogorak gainditurik, ez bainaiz gauza gau osoan loak hartzeko».

Piskanaka, beraz, hitz aspertutan, ixtorio bat gaur eta bihar pasadizu bat, maite dutenek maitatuarengandik ikas dezateken haiña ikasi zuen Pierre'k Elsa'ren ahotik, xehetasun txikienik ere ahaztutzen ez zitzaiolako. Eta Elsa zorigaitzaren atzaparretan ikusi zuen, iñor baiño galduago. Eta bihotzaren erditik maite zuen, gero eta sakonkiago.

Elsa, beti goganbehartsu eta aiherukoi, apezgoaren aitorpenaren zai zegoen, eta aitorpen hau ez zuen entzuten. Eta ezinbestean Pierre'ri buruz iritzirik beltzenak elikatzen zituen: «Hau haragikoia da, gizon guziak bezela; baiña horrez gaiñera zozoa da, eta zozotzat nauka».

Egokiera haietako batzutan Pierre'k Lacoste topatu zuen; eta bi gauzak lasaitu zuten Pierre alde huntatik. Alde batetik, Lacoste ezkondua zala jakin zuelako: eraztuna ikusi zion halako batez, eta Jaungoikoak eta Pierre'k ez bestek uler dezateke eraztun hura Lacoste'ren eskuan erreparatzeak eman zion pake burugabea; eta, horrez gain, Pierre'ren galdera bat erantzuteko, farre algaraz hala baietsi zion Elsa'k handik egun batzutara: «Bai, Meunier jauna. Ezkonduta dago, eta oso maite ditu bere emaztea eta semetxo bakarra»... Eta farre egiten zuen berriz Elsa'k, Pierre'ren barruan argi eta garbi dana irakurririk.

Bestetik, berriz, apropos jakin-miñez «Hektos»-enean luzaz gelditurik, bi aldiz gutxienez puntu bat agertu zitzaion garbi: Lacoste hura goizago joaten zala eskuarki etxe aldera Elsa baiño.

—Berebil kaskar bat banu nik bederen —pentsatu ohi zuen Pierre'k. —Baiñan egiaren bildurrak ez gutxitan, ez izatea hobe zala uste zuen: «Ezetz esango balida halere?... Orain ba dut itxaropena bederen...»

Hau guzia ez zan aski Lacoste'ren zalantzari zegokionez; ez zan deusik, hobe. Alde batetik, Lacoste ezkondata egotea ez zan iñundik ere garantia bat: horrelako iritzi ximple baten kontra mintzo ziran Pierre'ren buruan aski gora estadistikak, herriaren esanak, filmak, eta konfesionalean Pierre'k berak sarritan entzundakoak. Elsa'ren beraren iritzi lotsagabe hura joera berekoa zan: «nor da gizonetan bere emaztea iñoiz engañatu ez duen senarra?». Behin entzun zion hau Hektos'enean, eta entzule zeuden hiru gizonak ixildu egin ziran irribarrez.

Bestetik ere, era berean, bulegotik alkarrekin ez irtetzeak ez zuen ezer frogatzen: hain zuzen ere, hartu-emanak sakonago egin baziran, bidezkoa zan hain zuzen zuhurki eta izkutuan jokatzeari. Halere Pierre pozik zegoen.

Ez zuen deus haundirik behar gizajoak Elsa'rengan siñisteko!

Lacoste eta Elsa'ren artean ez zegoen ezer. Egia zan. Baiña Pierre'k ez zuen jakin, siñistu baizik. Ikusi gabe siñisten ohitua nunbait...

* * *

Goiz hartan, beraz, bestetan bezelatsu, hamarrak irian deitu zuen Pierre'k «Hektos»-enean, tinbre ezagun eta itxaropentsu hura erauntsiaz. Gehienetan itxaropen hura ez zan mamitzen, gorago agertu dan bezela: bat edo beste, beti norbait egoten baitzan gela txiki hartan, batzuk lanarengatik joanak, bizpahiru gutxienez luzakor, Elsa ikusteko edo mintzatzeko ustean.

Elsa'k ideki zion atea. Martxoko egun eder bat zan. Ipar-haizea azkenean, kostata benetan, gelditua zan. Elsa bakarrik zegoen.

Aspaldidanik zegoen Pierre halako okasio baten zai, eta alde zuzetik asmatu zeukan esango zion guzi-guzia. Bildur zan alkarrizketan eten-uneren bat gerta zedin; eta hortarako, berariaz prestatu eta gogoan ondo harturik, ba zituen bos- pasei pasadizu arin eta zenbait «berri» (berri bitxi, baiña zaharrak, horrenbeste egunez zai egon ondoren).

Bulegoaren aldera sartu ziran biak, Elsa aurretik. Pierre'k bere barne-oreka galdua zuen berriz, eta arras, eta nundik has ez zekien: «zein zan sartzean esan behar nion gertakaria?... zein zan?... Ez naiz oroitzen!». Soiñeko larrosa bat zeraman Elsa'k (gona hestu xamarra eta jaka motxa), eta blusa txuri bat azpitik. Kopetatik oso gora, ohi bezela, ille motots beltza. Belarrietan zintzilikario luzexko pare bat, eta ille-mototsaren erditsuan pitxi borobil koxkor bat. «Nabarmensko», pentsatu zuen; eta pentsamendu hunek min eman zion: «Zergatik nabarmenegi?».

Exeri egin zan Elsa bere aulki jirakorrean, eta eztenka nahiean-edo, gaistoki esan zion:

—Zer moduz, «signore Meunier»?

Eta, hori galdetuta, jiraka hasi zan bere aulkiarekin batera, eta farre algaraz. Begirada, halere, uzkurrago egiten bide zan denbora berean; eta begiak beltzago, pikea bezin beltz hobe. Kiñuak ausartak bide ziran, baiña begirada izuti eta lilluragarri.

—Hemen nauzu, ba —erantzun zuen Pierre'k, oso herabe— lanera etorria hobe.

Piperrik gabeko esaera hau, motela, geza, ttattala, hutsa, eta nahi dan guzia iruditu zitzaion Pierre'ri. Bere burua garaitua ikusten zuen berriz. Eta bozaren soiñua eta ozena bazan ere, Pierre'k somatu zuen, eta Elsa'k ere bai noski, sasi-ziurtasun hura hutsa zala.

—Lanera, beraz, «signore Meunier»?... «Signore Meunier»- ek lan egin nahi du gaur, eta nik ez. Udaberria heldu dala dirudi gaur. Nik behintzat nere odolean nabaitzen dut. «C'est le dégel». Zuk ez duzu senditzen?

Eta berriz hasi zan jiraka bere aulkian.

—Pierre —esan zion hitzik gabe Pierre'k bere buruari— gogora hadi espaiñiarraren aholku zuzenaz. Uztak, arren, alde batera hire apezgo-giroa. Garbi zegok: emakume hau hire gomituaren zai zegok, eta deitzen hau. Aurrera jo zak. Egin ez ditugunak zaizkigu damugarri; egin ditugunak iñoiz ez. Sendimenduez gero mintzatuko hatzaio.

—Kontuz, Elsa —esan zuen Pierre'k— erori egingo zera halako batean, eta...

Bere burua sendi zuen Pierre'k, harrigarriro.

—Eta?... Zer egingo luke «signore Meunier»ek ni lurrean eroriko banintz?

Elsa aspertuta zegoen bere bizieraz; eta Pierre'ri buruz guztiz nagusi izanik, pittin bat jostatzeko gogo nabaitu zuen. Arriskurik ez zuen batere. Pierre ez zan Luc, ez zan Van- hamme, ez zan Vanden Broeck: Pierre haur bat zitzaion, haur errugabe bat; eta hunen gaistakeriak berak, xinpleak eta errugabeak. Arriskurik ez; eta zergatik ez jostatuko pittin bat udaberriko epeltasun hartan?

Begirada hura, ederraz gain (eta beti zan ederra Elsa'ren begirada, beti triste, eta beti olerkitsu), tentatzaille iruditu zitzaion Pierre'ri. Hunek arras galdua sumatzen zuen bere burua: bere odolak goitik beheraiño zirakien. Haitzartean amildu beharraren txorabioa nabaitzen zuen.

—Ni ez nago ohituta, ez emakumeak era hortara ikusten, eta ez zorutik besotan jasotzen.

—Signore Meunier: izutia zera oso.

Trenpu onean bide zegoen Elsa.

Ezpata bat hiltzatu zitzaion Pierre'ri barruraiño «izutia zera» hura entzutean. «Egia da —pentsatu zuen— izutia naiz emakumeekin. Nola ez? Apezgaietxe madarikatu hartan irendu egin ninduten. Han galdu dut gaztaroa; eta orain konplejoek eta alukeriek hesten naute».

—Zurekin batez ere —esan zuen azkenean.

Horixe zan, eta berealatik konturatu zan, behin ere aitortu behar ez zuena. Ba zekien. Gizasemeak nagusi, eta pittin bat kupidagabe, agertu behar du. Adiuntza zail hartan, gizonak agertu behar zuen garaitzaille eta lotsagabe, dudarik ez. Ez iñolaz ere alderantziz. Baiñan Elsa maiteegi zun; eta maiteen duenak galtzen du beti hastapenetako burruka harrigarri hauetan. Elsa, agiri zan, hotz zegoen, txantxetan: Pierre'ren zorabioa ikusiaz, are jolastutzenago. Nola ez irabaziko?

—Berriz ere —pentsatzen zuen Pierre'k— gauza bera: liskar mota huntan ere, irabazi egin beharko lukeanak galtzen, eta galdu egin beharko lukeanak irabazten. Beti bat! Maite ez dutenak nagusi, maite dutenak morroi, jopu, mirabe.

—Signore Meunier: gaur arratsean ez naiz etxera zuzenean joango. Zer deritzazu?

«Garbiago ur garbia», pentsatu zuen Pierre'k. Eta behar zuen ausardia nundik bildu zuen ez zekielarik, hau erantzun zion:

—Nora goaz, beraz, gaur arratsean?

Haize aztarnarik ez Pierre'rentzat.

—Bai?

—Nora nahi duzu?

—Jatetxe polit eta bitxi bat ezagutzen dut nik Sint Josse'n —erantzun zuen Elsa'k, erantzun hura guztiz normala irudituko balitzaio bezela.

—Nora nahi! Nun itxarongo dizut? —galdetu zuen Pierre'k, bere bihotz-taupadak kanpotik beretik entzun zitezen bildur.

Orduantxe erauntsi zuen tinbreak.

—Lanetik seiretan irtetzen naiz, eta «64» tranbia hartzera joan ohi naiz beti Traversière'ko izkiñara. Beharbada alkar topatuko dugu. Ez da hori?

Elsa'k hozki esan zuen hau guzia, atzera egingo balu bezela. Hau iruditu zitzaion Pierre'ri bederen. Eta atea idekitzera joan zan.

—Egun on, Lacoste jauna —agurtu zuen Elsa'k.

—Egun on zuri ere. Bakarrik zaude? —Lacoste'k galdea.

«Horra: berriz ere galdera bera», pentsatu zuen Pierre'k, bere nazka ezin menperaturik. Baiñan arratsean adia eman zion Elsa'k, eta hunek egundoko barne-segurantzia ematen zion. Lacoste sartu zanean, beraz, oso haundiro agurtu zuen Pierre'k, esaten ziolarik:

—Egun on, Lacoste jauna. Johan dea? Zer moduz Papy' ren munstrokeria horiek?

Lacoste'ri ez zitzaion hau gustatu, noski. Baiña berdin zitzaion momentu hartan. Pierre'k Elsa begiratu zuen, Elsa Lacoste'ri so zegoelarik hain zuzen; eta administrazioko begiez begiratzen zuela iruditu zitzaion.

—Agur —esan zuen Pierre'k brauki. —Hor uzten zaituztet buruz buru. Gogor lanegin!

Hitzik esan gabe begiratu zuen Lacoste'k, hein batean txunditurik:

—Agur, agur, Zizeron.

Behingoz hamar bat urtez gaztetua bide zan Pierre: ibillera ariñoagoa, arnasa sakonagoa, etorkizunari buruz baikortasuna gailen, naturalezaren sendimena askozaz ere biziagoa. Egiazki Pierre goiz hartan jaio zan. Etxeen illarak lehenengo aldiz antzeman uste zituen eder; eta Brusela lehenengo aldiz ikusten zuela, Utrillo'ren margoetan Paris'ko hauzo ezagun horiek lehenengo aldiz birrikusten diran bezelatsu.

Baiña pozaldi hau ez zan luzea izan. Bereala etorri zitzaizkion zalantzaren hodei illentitsuak: «eta arratsean adiarra ez badator? Eta dana neri adarra jotzeko modu bat baizik ez bada izan? Lacoste horrek, gaiñera, haur errugabe bati bezela begiratu dit orain»... Erlojua begiratu zuen: hamaikak eta hamar. Zazpi ordu oraindik!

«Hobe» —pentsatu zuen—. «Dana ongi prestatzeko aukera izango dut horrela».

Eta azterketa egin ala, bildurrez josita egoteko arrazoiñak zeudela nabaitu zuen. Egia esateko Elsa edozein gauza izan zitekeala: emakume saindu bat edo puta bat; gau hartan alkarrekin ohe berean buka zezaketela edo guztiz hasarreturik; eta Lacoste izan zitekeala lankide huts bat edo Elsa'ren maitalea. Ez zekien ezer ziurki, ezertxo ere.

Halaz ere, eta enkas, kolonia-ur botilla apal bat erosi zuen, eta usaiña sarkorregi eta arruntegi gerta zedin bildur izan zan. Alkandora berri bat erosi nahi izan zuen, baiña kontuak egin zituen, eta aski ez zuela erabaki zuen: «ezta gaur ere ez naiz nere buruaren jabe!».

—Garbitu egingo naiz bederen —moztu zuen gogoeta—. Txirotasunak maitasuna bera lardazkatzen du eta itsusten... Olerkia bera burgesen berezkeria da!... Ghislain hemen banu, besarkatu egingo nuke, nik uste.

«Oso izutia zera» hitz asaldagarriak gogoratzen zitzaizkion eten gabe; eta berriz horrelakorik ez entzuteko deliberaturik, ahalik eta ongienik garbitu zuen gorputza, eta goitik behera kolonia merke hartaz ferekatu eta urrintzatu. Bere gorputza hartara prestatzea (eta berak sekulan aitortuko ez zituen asmoek hartara zuten...) harropuzkeria haundia iruditu zitzaion; baiña, bada-ezpada ere, nahiago zuen prest egon. «Edo-ta ere, zion bere gela itsusian, Elsa'k ez dit berriz 'izuti' deituko. Horixe ez behintzat!». Gizon bati egin dakiokean iraiñik zitalena egin ziola iruditzen zitzaion adiazen ordua hurbildu ala. Aukera izatekotan, beraz, Pierre bururaino joatera deliberatua zan egiazki, edozein Don Juan mundutar baiño deliberatuago.

Bazkal ondoan kafe batera joan zan. Ezin etxen geldi.

—Hirurak eta hoge! Oraindik! Ene!!...

Aldameneko mahaiñean gazte bikote bat, aurrez aurre exeriak. Ezin begia ken Pierre'k neskarengandik: oso politta iruditzen zitzaion. Ez ote zuen beste egunetan ikusi? Neskaren hitz guziak aditzen zituen Pierre'k, egun hartan jakin-min itsuan, eta kiñu guziak jarraitzen eta hausnartzen. Behin eta berriz neska hura pozarren algaraz ikusten zuen, eta gaiñerakoetan irribarre eztsuz. Pierre'ren eskubian 25 bat urtetako ikasle bat, kokotz-bizarrarekin eta liburu mordo bat ezker aldean, hotz xamar itxuraz neskari begira. Neska mintzo maizenik, eta mutilla entzule. Neskak aurreratu egin zuen bere aurpegia mahaiñaren gaiñetik, eta musu bat eman zion mutillari ezpaiñetan, musu luze bat. Pierre'k ezker aldera begiratu zuen, berekiko hau pentsatuz: «zer ote da hau? Arratsaldekoaren zantzua? Baldinba! Elsa!».

Erlojua begiratu zuen berriz: hiru t'erdia.

Bestetan baiño maiteago zituela emakumeak iruditu zitzaion: «Oker nengoen huntaz: maitemintzean besteekiko gogorrago egongo nintzala uste nuen, eta alderantziz da. Aldameneko neska hau besarkatzeko behar gorria nabaitzen dut gaur; eta Elsa dut bihotzean, ez da dudarik. Ez nekien hau».

Berriz eskubi aldera begiratzen ausartu zanean, neskak bi ukondoak mahaiñaren gaiñean ezarririk zituen, eta bi eskuez mutillaren jakaren bi solapak heltzen zituen. «Neska hunen zoriona!», pentsatu zuen. «Eta aldameneko zozo hau zer ari da hor, hotz, harro, axolakabe? Arratsean bere egoeran banengo ni! Jaungoiko maitea!»...

Zertara zetorren «Jaungoiko» hitza giro hartan? Nazka sendi zuen: «betirako markatua!».

Neskak mutillaren begi batera eta bestera begiratzen zuen, txandaka, eten gabe aldatuz, maitagunea zeriola, ez ezkerrekoan eta ez eskubikoan xegundu laurden batez pausatzen ez zalarik; begi haietan zerbaiten billa ari balitz bezelaxe. Eta, noizean behin, hitzik gabe, mutillaren lepokoa tajutzen zuen, lehenengo aldiz begirada begietatik aldenduz. «Maitagarria zera, neska», pentsatu zuen Pierre'k. «Maitagarria da maitasuna» esan behar zuen; baiñan ez zuen hau ulertu.

Seietarako, esan bezela, han zan zai Pierre, La Limite'ko kalean; eta, esan bezela ere, Traversière aldera jo zuen, tranbien geltokiaren aldera beraz. Izkiña hartan ez zegoen Elsa.

Eskarataruntz so Pierre, seiak eta bostetan hantxe agertu zan Elsa; «Siñistu eziña».

—Arratsalde on, Elsa —agurtu zuen Pierre'k, bere-barne poza xularme guzietatik zeriolarik.

—Arratsalde on, signore Meunier —esan zuen Elsa'k zirikatu nahian, eta goizeko esaerari helduaz.

Ez zekien Pierre'k ez nundik eta ez nola. Baiña hartatik miñutu labur batzutara jatetxe bitxi txukun batean zeuden biak; eta sukaldaria, txano zuria gora, biengana joan zanean, adiskide gisa agurtu zuen Elsa.

—Huna hemen —esan zuen Elsa'k— bulegoko lankide bat.

—Ezagutzeaz poztutzen naiz —esan zuen Pierre'k mekanika modura.

—Gaur neuk gomitatzen dudan ezker, hasteko ardo pinta on bat eskatuko dut. Ardoa maite duzu zuk, Elsa?

—Bai, bai. Nola ez!

Pierre'k ez baitzituen ardo-motak ezagutzen, prezioen arabera hautatu zuen bat: 160 libera. Frantsesa, «Château» bat, zein ez zekiela:

—Hiruzpalau ordu neketsu eta atsekabe hunela xahutuak... Baiña, bizi egin behar da ere; eta utz ditzadan gogoeta hits horiek alde batera —pentsatu zuen.

—Bai, bai: prezio ona da, ez da dudarik —esan zuen Elsa'k—. Baiña, merezi ahal dut?

Desegokiro erantzuteko bildurrak, Pierre'k ez zuen ezer erantzun.

Aingira prejitua eta oillaskoa: hori izan zan oturuntza. Pierre'ren eskubian exeri zan Elsa. Bazkaldegian jende ugaria. Sapaietik koloretako girlanda batzuk zintzilik. Argi zuririk bat ere ez: danak koloreztatuak eta epelak. Ezkerretan barra bat hutsik bezeroen aldetik, baiña botillaz oso beterik: pillotan metaturik botilla asko, errara eta alkargainka jarriak, eta hautsa aski nabarmen.

—Ez nuen atzo berean hau siñistuko —esan zuen Pierre'k.

—Zergatik ez? Mundua beti izaten da holakoa: espero ez genuena gertatzen zaigu, eta espero genuena ez zaigu gertatzen. Hauxe da legea.

Zergatik onartu zuen Elsa'k arrats hartako adia? Zergatik jostau nahi zuen Pierre'rekin? Zeren-eta joko bat baizik ez zitzaion: ba zekien Pierre'k maite zuena, nahi zuena bederen: itsu-itsuan, griña eragabean, zerua beregan eskuratzeko lillura osoan. Eta hau gizon batengan nabaitzea ez zuen Elsa'k

istimatzen. Zergatik kilikatu nahi zuen, beraz? Ez zekien. Bere bizia oso aspergarria zan; eta hain atxematen zuen Pierre aingeru eta izuti, jostailu bat haur aspertuak bezelaxe nahi zueia berak ere Pierre ondoan giro epel hartan. Odolak ere ba zuen parte bat: udaberri zantzu harekin batera, amets egiteko beharra piztu zitzaion Elsa'ri; eta arriskurik gabe amets egitekotan, Pierre oso egokia iruditu zitzaion. Harrokeriak ere bultzatu zuen hein batean: arrats hartan bere menpean nabaitu nahi zuen gizon bat; eta Pierre, bulegora egunero nabarmenki Elsa ikustera joana, hunen menpean jar zezakean. Atsegin gaisto bat, dudarik gabe: Pierre erreguka, eta guztiz lilluratuta senditzea, desio bizian; eta orduantxe «ez» esan... Mendekatu egin nahi bide zuen Elsa'k, izenik aipatzen ez bazuen ere: mendekatu, pairarazi, norbait negarrez ikusi, maitasun-kontuetan borrhero izan lehenengo aldiz!

Hizketagaiak eta xehetasunik txikiak Pierre'k alde zurretik prestaturik eraman ondoren, «Hektos»-enerakoan egiten zuen bezelaxe, dana pikutara joan zitzaion. Ardoak eragiñik —eta Elsa gogoz jalkitzen bide zitzaion gau hartan ardoari— hau oso berritsu azaldu zan, eta oso trenpu onean; eta Pierre, ikaratik ikarara eramanez, ordurarteko bere biziera zehatz eta ageriko lazturarik gabe azaldu zion: De Potter'ekiko gorabeherak, De Potter'en maitaleen berri ugari, berebillean hiltzeko asmotan pasatako arrisku gaitzak, kirioen zartaldiak eta erialdiak; eta irakurleak dazkien gertakariak oro, herabetasunik gabe azalduak, eta beste anitz.

—Siñistu eziña da, siñistu eziña. Nobela bat izan da zure biziera, nobela hits bat zuretzako! Ez nuen behin ere somatu-ko, Elsa, nahiz...

—Nahiz zer?

—Nahiz zure begiradak zerbait oso tristerik salatu.

—Bai? —esan zuen Elsa'k bihotzean ikutua, baiña axola-gabekeriari eutsiaz itxuraz.

—Senarra zeuk utzi zenuela uste nuen, ez iñolaz ere alderantziz.

Elsa'k egia aitortzeko behar gorria nabaitu zuen ustekabeen:

—Neuk utzi nuela esan ohi nuen lehenago. Oraintsu arte hiruzurrak neuk pairatu nituela aitortzea gaitzi zitzaidan oso. Orain ez. Harrotasuna bera ere iraungi egin da nigan, eta egia aitortuko dizut: nere senarrak desegin du gure ezkontza.

Eta hau esatean, afarian lehenengo aldiz, irribarrea itzaldu egin zuen Elsa'ren ezpaiñetan. Besotik heltzeko behar jasan-eziña nabaitu zuen Pierre'k baiña bildurrak gelditu zuen bere besoa, eta ez zuen ikutu ere egin:

—Baiña, Elsa: gizon hori eroa da. Ez ahal zaitu ikusten? Benetan: ez dut ulertzen.

—Benetan diozu hori? —galdetu zuen Elsa'k, berriz ere irribarretsu, eta erantzun ezagun eta legun hura entzuteko gogoak eragiñik balego bezela.

Azken azken buruan tenkegin zuen Pierre'k; eta gorputz eta arimaz esan nahi zituen «maite zaitut» hitzak ez ziran entzun. Halere gogor izan zitzaion aitor hura ez egitea. Argi orizta hartan ederrago ikusi uste zuen Elsa'ren begitartea; eta oso nekez gobernatzen zuen bere burua. Elsa'ren aulkiaren atzetik besoa pasa, eta besarkada azkar batez buru maitatu hura bere soiñera bil... Hura ezin egona!

—«Benetan» galdetu didazu, Elsa? Eta, nola ez? Zure senarra tentela da; ala ni neu naiz tentelik tentelena. Emakume zoragarria zera, benetan, Elsa; eta zuk ba dakizu. Ez zera soillik emakume polit bat: emakume zoritxarrekoa zera; eta hunek maitagarriago egiten zaitu.

Oso atsekabeki hartu zuen Elsa'k egiazko uste hau. Pierre'k, zalantza izpi baten ondoren, ekin zuen: —Elsa: burua galduko nuke zuregatik; eta, hain zuzen... —Zoritxarrekoztat jotzen nauzu, ezta? —zakarrean.

—Hori uste dut, Elsa. Zure biziera hutsa iruditzen zait.

—Gizon bat falta zait, ezta?

—Zure biziera ez da betea, ezin izan diteke...

—Gizon bat behar dut, ezta? Ezagutu dugunok beharrago omen. Ez da hala?

—Arren, Elsa. Ez alde hortatik har nere esanak!

—Pierre larriturik.

—Maitagune-giroa falta dut, beraz, eta gauean... hori! Eta farre egin zuen harrigarriro.

—Elsa! Entzun arren!

—Ez nekien nik zuek apaizok hunen bero eta ausarta ziñatenik... eta gu emakume ezkonduetikiko gaiñera!

—Elsa!... Utz nazazu dana azaltzera!

—Berandu da. Orain ba dakit nolakoa zeran: beste eskuzabal bat, emakume legunen billa ari!

—Elsa! Aski da! Oker zaude arrunt, goitik behera! Maite zaitut!

Eta eskua heldu zion.

—Ken esku hori! —Elsa'k zakarki baztertu zuen—. Eta ixillikago: horko mahaiñekoak guri begira daude. Eta etxeko jaunak ezagutzen nau.

Elsa jaiki egin zan, eta berokia jazten hasi. Bere esanen garraztasuna ongi neurtzen ez baleki bezela esan zuen guzia; baiña, funtsean, Pierre'ren azken aitorra frenatu nahi zuen. Pierre'ren sendimenduen iturria agortu. Maitasunak ikara osoa ematen zion; eta hunen beharra nabaitzen zuelako, maite zutenak hastio zituen, gorroto. Bakardade hotz harek samintasunaren leize-zulora amiltzen zuen. Hunengatik guziagatik, jostaillutzat afaltzera eraman zuena, bildur-iturri bihurtu zitzaion: egia esaten ziolako nahi zuen zapaldu.

Pierre, aldiz, zorabio batek hartu zuen. Zer egingo? Hitzik bortitzenak esanak zituen bere indar eta prestutasun guziakin, eta ez ziran entzunak ere izan. Aurrera joko? Apezgoa uzteko asmoa zuela aitortuko? Ez zukean siñistuko, estakuru iñoxo bat besterik ez zala uste izango zukean Elsa mindu harek. Gogorazio hauek guziak lipar labur batez hausnartu ondoren, azalpenik ez ematea erabaki zuen; eta gau hartan, eta behar- bada betirako, ezer lortzeko itxaropena arras suntsiturik, galdetu zion:

—Nola jakin duzu? Ez dizut besterik ezer galdetuko. Dana galdua dut, eta ba dakit.

Pierre'k ordaindu egin zuen, eta dirua aittuta ikusi zuen ordaindutakoan: «Huntarako!»...

—Aitak esan zidan Mons'en, Binche'ko bezperan.

Kalera irten ziran ezer esan gabe. Haize fiña ari, eta lurra bustia. Berriz ere negua nagusiturik.

—Elsa: noiz hitzegingo dizut hotzean? Emaidazu aukera hori. Gaur eziña da ezer.

—Ez dakit. Orain beranduegi da.

Pierre'k ez zuen hitz egokirik aurkitzen bere hiztegian.

—Aita Meunier: dana jakiten da mundu huntan: aldez aurretik aitortzea hobe. Zuk ez duzu hau ikasi. Eta nik gaizki hartu dut zure azalkeria...

—Ez da azalkeria izan!

—Zure azalkeria, bai; eta nere aitak okerrago. Ez duzute aski bertuterik izan zuen izana aitortzeko. Eta ausardiarik ez duten gizonak, ez dira ezer! Ezertxo ere ez!

Abiatzen hasi ziran goruntz.

—Apaiz bakoitzarengan gizon bat dago: hau oso errazki ahaztutzen da.

Pierre izoztuta zegoen osotara: hortzak karraskan, oiñak hotzak nagituak, gorputz guzia dar-dar. Eta haize fiña eten gabe ari.

—Ez zaidazu lagun. Bakarrik joango naiz.

Pierre gelditu egin zan:

—Elsa: abitturik aurrerakoan ez jaztea oso egoki etorri zaigu. Ba zan garaia! Gizonak gera aurrenik, ez abittu bana.

—Koldarrak ez dira ezer. Eta gezurretan ari diranak koldarrak dira. Agur. Gabon!

Tranbian sartu zan Elsa, eta ez zuen agurtu ere egin.

—Ez diot dana esan, halere —pentsatzen zuen Elsa'k etxerako bidaian. Etxean esan zituenak, ikasguan egunero pinpilinpausa bat bezela nabaitzea, egia osoa ez aitortzea, arazo askotan erdizka ibiltzea, Scheelen'darren anti-klerikalismoa... eta nik besterik ez esan? Onegia izan naiz, benetan. Hau esan behar nion hain zuzen: 'Jostatu egin nahi duzu nerekin ar bat behar dudalakoan. Nitzaz jabetu egin nahi duzu haragiak niganaturik. Kontradizio hutsean zaude, beraz, eta irteerarik gabeko kale batean abiatua. Horrez gaiñera zozotzat naukazu, eta... holakotzat! Ez zera nerekin iñora helduko. Milla liberatan aurkituko duzu ohaide bat Ipar-Geltokiko inguruetan'...

Ez esana damutzen zitzaion.

Pierre'k, muiñeteraiño iñarrosirik, guztiz lotsaturik, tristurak gainditurik gogoratzen zan etxerako bide luzean begi nabar illun maitatu haietaz, doillor eta kupidagabe, behin ere baiño ederrago eta urrutiago. Guztiz etsita gogoratzen zitzaion miresten zuen abots hura, irain-iturri oparo bihurturik. Gona larrosa hestu harek nabarmenarazten zituen iztar gogorrez oroitzen zan, etsipenean desiratutako gorputz lirain hartaz. Maitasunaren zeru ifernukoia erakutsi zion emakumea ikusten zuen ikusi gabe ere, madarikazio uxola billakatua. Aldegin egin nahi zuen, lurak irentsia izan, hil, edozer.

—Nola izan diteke ni erretzen nauten sendimendu berberak Elsa aiherukoi uztea, eta hotz? «Maite zaitut» hitzak esan ditudanean, bizia bera zijoakidala nabaitu dut. Berak, aldiz, une hortantxe, eskua atzeratu du nerearen ikuera ezin jasanik!

Haizea beti ari, aurpegiaren larrua hausikiz, eta etxera ondoratu ala fiñago eta zakarrago.

Gelara sartu zanean, barne muiñetaraiño zegoen zauriturik, bihotz erdiraiño gogaiturik. Ohera sartu zan ariñiketan: ezin bestela irauhan. Maindireak busti bustiak bide zeuden, eta kuxkurtu egin zan hotzaren haundiaren bildurrez: «Hil egingo naiz hemen... Hobe!».

Elsa, aldiz, egiñaz pozik sartu zan Pâquerettes'ko etxera: «hunek ere, funtsean, ordaindu behar ez zuen eme egarti bat topatu uste zuen nigan. Ba daki orain zein oker zegoen»... Eta argia itzaldu zuen. Baiñan ezin loak har zezakean.

Gaua aurrera joan; eta zio guztiz desberdiñengatik bai Elsa eta bai Pierre esnai zeuden. Pâquerettes'ko gela epelean eta Walfelaerts'eko mandio txiro izoztuan, millagarren aldiz emakume mikaztu bat eta lehenengo aldiz gizon on bat, giza-negarraren eresia entzun zitekean, etsia, gaueko illuntasunean bakardadean ari.

Alkargandik ezin urrunago eta alkargandik ezin hurbillago.

XXII

Biharamun goizean, ustegabeko tinbre batek esnatu zuen Pierre goizeko sei t'erdietan. Egunsenti ederra, benetan! Hotza eta garbia.

—Nor ote da orain? Azkenean, eta nekez alajainkoa, lo egiten hasia nintzan, eta... kitto. —Konturatu orduko Elsa'ren esan guziak aurkeztu zitzaizkion herronka.

Leihora zan, eta leiho barnetik beretik begiratu zuen nor ote zan. Arrastorik ez. Ateri. Hotz.

—Heldu! —esan zuen goitik eskalleraz, gabardiña jantziz.

Eskalleretan behera joatean azkura bitxia nabaitu zuen begietan eta masailletan, kresalaz busti-ondoko larruaren antzeko azkura. Negar-ondoa ager zekion bildur, mokanes bat billatu zuen gabardiñaren poltsikuetan; baiñan ez zuen ezer aurkitu. Bi eskuez ferekatu zituen, hortaz, bi begiak eta bi masaillak; eta eskaratzara iritxi zan.

—Egun on, jauna —esan zion Pierre'k posta-gizonari—. Zer duzu neretzat garai goiztar hauetan?

—Telegrama bat, jauna. Izenpe zazu hemen, arren. Bart bi aldiz etorri nintzan, eta bietan hutsegin.

—Bai: berandu etxera nintzan bart. Egia duzu.

Eskalleran gora abiatu zan Pierre, pittin bat harriturik. Elsa'rena ote zan bururatu zitzaion; baiña txorakeria hutsa zala laister konturaturik, alde batera utzi zuen burutazioa. Gora iritxi aurretik zabaldu zuen, eta flamenkeraz hau irakurri: «Gure aita azkenetan zegok stop hator lehen-bait-lehen stop Roger».

—Anaiak bidalia. Nola ez zuten berebil bat lortu, eta billa etorri? Ala... beharbada etorriak dira behin eta berriz, postaria bezela; eta ez naute aurkitu.

Bi hillabete lehenago izana zan Linkebeek'en azkeneko aldiz; eta aita ongi xamar antzeman zuen. Ajeak, bai, aspaldi hartan bezela beti hilduratzaille.

Lurrean paper bat topatu zuen ustekabean, atearen ondo ondoan: «Hiru aldiz etorriak gaituk hire billa. Aita azkenetan duk. Azaldu bezin laister hator etxera. Roger».

—Beti bat mundu hau! —esan zuen papera puskatuz—. Beti bat, beti behar ez dugun lekuan, beti oker!... Hemendik hamar kilometrotara neure aita bere azkeneko gau lantsua pasatzen ari, dirudienez; eta nere bihotza eta pentsamenduak emakume baten uko kupidagabeak astindurik, hemen ezin urrutiago. Munduaren bitxia!

Eta ariñiketan jazten zalarik, aitarekiko oroitzapen guziak birrikusi zituen illaran. Urte askotan barrena sekulan ez gogoratutako pasadizu arruntak, gertaera xumeak, xehetasun ñimiñoak, danak, irudimenean bizi-bizirik topatzen zituen bapatean.

Aspaldidanik hilla eta ahaztua izan uste zuen haurtzaroa, koloretsu eta maitagarri piztu zan beregan egunsenti hotz urdin hartan. Bezperan ixuritako negarrak guztiz zentzugabeak iruditu zitzaizkion, arras eroak; eta bere buruaz lotsatu zan. Jesukristo'ren hitzak bururatu zitzaizkion: «Egiazki diotsuet ez zeratela iñoiz hilko»; eta irribarre egin zuen.

Malkoak ixuri nahi zituen, eta hauek berriz ere azaldu ez. Asalduz beterik atxeman nahi zuen bere burua, baiñan aitaren oroitzapena aurrean bizi-bizirik ikusirik ere, ez zan asaldatzen.

«Hil egingo da», pentsatu zuen; baiña naturalezaren lege huts eta hotz bat balitz bezela soillik pentsatu. Urte haietako eliztar sendo eta osasuntsu batzuez oroitu zan, hillagiñean sakramentuez berak orniturik, eta hauen gisako zahartzarorik aitak izan ez zuela nabaitu zuen: beti ajeek gaindituta, eta sarritan makal aspaldisko hartan. Eta oharketa hunek amorratu egin zuen hein batean; baiñan ez tristatuegi.

—Zergatik ez zahartzaro paketsu bat nere aitari? Zergatik ez batzuei, eta beste batzuei bai? Zergatik, nahaspilla osoan, batzuk denen orde z ordaintzen? Lanean igaro du gure aitak bizi guzia; eta orain, bapatean, atsedenaldirik batere gabe, azkenekotz abiatu da. Hirurogeita-sei urte. Ez bide dira gaur gehiegi! Bai, ba dakit: besteen orde z pagatu omen zuen Jesukristo'k ere, gaistoan orde z ordaintzen bide dute prestuek betidanik... Nik ez dut Kristo'rengan siñisten. Mundu hunek sentidurik ez duena gero eta nabarmenago iruditzen zait.

Barrière aldera jetxi zan, han taxi bat aurkitu eta hartu, eta Linkebeek aldera joan zan. Ipar haizea arras gelditurik, berriz piztua bide zan hirrikitutako udaberri berantkoia. Ederra zan goizabarra; eta ongi ezagutzen zuen zubi gorri gora haren azpitik pasa ondoren, Brusela'ko eskualde haundi bat (Anderlecht, Koekelberg, Molenbeek, Ganshoren) iratzartzen hasi-berria atzeko aldean utzi zuen.

—Gauza hitsa, benetan, munduari hunelako goiz batean betirako agur egin beharra! Udaberria gertuan, eta azken gabeko gauean abiatu behar.

Linkebeek'eko gaiñetik urrun, zabal, mugagabe, Soignes'ko oihana agiri Ekialdetik. Tarteka etxe zaharrak.

Eta laister Pierre'ren etxe ondoko eliza gorri zaharra. Inguru guzian murru bat, aurreko aldean Gurutze-imajiña bat, kanpandorre zorrotz bat, eta eliza-ondo guzian Pierre'k guztiz ongi ezagutzen zituen hillarriak: «Hier rust»... «Hier rust»... Hemen datza... Hillarri puska asko ere sakabanaturik, eta belarrak estaltzen hasiak. «Gemeente Plaatz» dalakoan ordaindu zuen taxia, eta Eliza ezker aldean utzirik, Trap der Honderdjarige karrika meharretik abiatu zan. Izkiñan betidanik irakurritako izkribua irakurri zuen berriz: «Hier verbleef Jef Vanlishout»... Eta gaztetango giroa piztu bide zan bere barruan:

—Zenbat aldiz azaldu zigun aitak Roger'i eta neri Jef'en kondaira zirrargarria!...

Goiz argi fresku hartan sekulan baiño olerkitsuago zitzaizkion bazter patar illun zahar haiek. Zeru aratz diztiratsu hartan illun islatzen zan kanpandorrea...

Ez zion Pierre'k hau sekulan iñori aitortu; baiña halakoxe goiz batean nabaitu uste izan zuen Jesukristo'k apezgora deitzen zuela. Zenbat urte lehenago? Hamabost? Goiz hartan sendi zuen barne-pakea ez zuen berriz ezagutu: poz guztizko eta atsedentsua izan zan hura. Izadia, ustekabea, anaitua zuen; tarte guziak, bai fisikoak eta bai gogozkoak, funditu egin ziran Pierre'ren aurrean. Jaungoikoa ikutu egin zezakeala uste izan zuen goiz hartan; eta Jesukristo'ren hitzak hiltzatu egin zitzaizkion barne muiñetaraiño: «Neu naiz Egia eta Bizia. Nigan siñistu duena ez da iñoiz hilko». Ez zuen konfiantza hitsu hura ulertzen, ez egun hartan eta ez gerokoetan ere; baiña Jesukristo'rengan siñistu zuen osotara, eta aurrera jotzea erabaki zuen: «Jesukristo ez da gizon huts bat, ez da igarle huts bat: gorago dago zalantzarik gabe», pentsatu zuen. Bere burua beste mundu batean antzeman zuen; eta edozein atsekabe alaitasunez beterik eta konfiantza osoan pairatzeko gertu...

Elizaren atzean, berebillak sar ezin zitezkean karrikatxo hartan, etxea ikusi zuen ixillean: pakean itxuraz, kanpoko etxaldea eta eliza bezelaxe. Linkebeek'edo nekazari-zulo harrigarri hura bihotzaren erditik maite zuela iruditu zitzaion, eta ordurarte nola ez zuen somatu ez zuen ulertzen. Linkebeek'eko pakeak eraman zuen apezgora; eta Linkebeek'eko giroak bizkortzen zuen bere gizatasunean. Liburuetan eta burrukan aurkitzen ez zuen sosegua, haurtzaroko zugazti harritsu eta aldapa gaitz haietan aurkitu uste zuen berriz etxera itzultzen zan bakoitzean; eta are nabarmenkiago Epailleko goiz hartan.

Zer zan hura, ordea? Zer da Linkebeek? Zer zan Eliza zaharraren atzeko bidexka hura batez ere? Bakardade zulo bat egiazki, antziñako gordailu bitxi bat, Waterloo eta Brusela'ren arteko hauzo ixil

bat, gaur bertan ere aski nekazari eta aski flamendar. Ezer besterik ez. Eta halere Linkebeek'ek hunkitzen zuen Pierre, ez Brusela'k; ez, egia aitortzeko, Mons'ek eta Lieja'k ere, nahiz hauetan gizon zoritxarrekoen ondoan bizi izana. Olerkia eta sendiberatasuna, itxuraz, ixiltasunari eta lurrari atxikiak ziran. Saint Exupéry eta Malraux miretsi zituen gaztetan, bai; baiñan ez kinka gaistoan abiatu zan ezkerozkik: «Ezin-egon eta burruka-behar horiek ez dira egiaren seme, larrimiña izkutatzeko aitzekiak baizik».

Aitarekin haurretan elizondo hartatik anitz aldiz egindako ibillaldiak otu zitzaizkion; eta orduan bezin zoriontsu iñoiz izan ez zala bururatu zitzaion, eta siñistu egin zuen. Haurtzaroan baloi batekin jostatu ohi zan landatxo hura (inguruetan zelaia zan bakarra) hantxe zegoen, bere hartan, antziñako sasiak eta guzti. Aldatu gabe zegoen ere Denayer hauzokoaren etxe oriska: harrizko eskallarak berdintsu ere, zahartuago eta labaiñago ez balira; beren hartan ikusi zituen sagarrondoak, historik gabe oraindik. Hamar urte hartan Linkebeek hartara azaldu ez zala pentsa zitekean: haurtzarotik egun hartaraino etendura nabarmen bat nabaitzen zuen Pierre'k.

Etxera sartu baiño lehenago, ataritik beretik, arnasa hestua entzun zuen Pierre'k, neketsu, nekagarri, asaldagarri, orro bildurgarriz nahasia. Eta dardaratu egin zan osotara.

—Zer dioke huni buruz Jean Ghislain'ek? —pentsatu zuen. —Nola izan dezake egiaren laurdenik ere heriotzaren problemaz arduratzen ez dan teoria batek? Nor dago alienatuagorik Jean Ghislain eta hunen kideak baiño?

Atea zabaldu zuenean, etxean hauspo eskerga bat, lanean jo-ta-ke ari, entzuten zala asma zitekean. Ezagutzen ez zituen batzuk topatu zituen sartzean, danak ezindurik, danak itxuraz penaturik eta etsirik. Danak zai, danak... berriaren zai! Ez besterik.

Lotan bide zan aita; baiña bularra gora puztutzen zuen ikaratzeko moduan. Aldamenean exerita ama etengabe negarrez. Gelako aidea kirastua eta bitxia, zergatik azaldu eziñik ere. Amari musu labur bat eman zion Pierre'k, eta Roger anaia besarkatu zuen. Amak gelatik kanpora jarraiarazi zuen:

—Bart eman genizkioan azken olioak, eta ba ziak. Nola ez haiz laisterrago etorri? Roger eta Denayer hiru aldiz joan hituan hire etxera, eta ez hinduten etxean harrapatu.

—Mechelen'en nintzan Andre Delwaart'ekin.

—Hori txiripa ere! Aitortu egin duk parrokiako erretorarekin. Osagilleak dionez ez zegok ezer egiterik; eta heriotza atzoko espero zian, ordubetea bukatuko zala alegia. Bihotzak eusten bide zio, baiñan

ez omen duk luzatuko. Orain ez hau senditu ere egin. Ikusi egin nahi hinduan gizajoak. Bedeinka zak, otoi.

Barneko zerbait zaharrakatu egin zitzaion Pierre'ri; eta maitasunez, eta ama bizkortu nahiz ere, gela barruraino sartu zan, eta aitaren burukoaren parean gelditu. Besoak zabaldu zituen bedeinkatzeko asmotan; eta egiterakoan bere apaiz-eskuak begiratu zituen, eta izutu egin zan. Zer bedeinka zezateken esku argal haiek? Bere burua, hain zuzen, iñorako loturarik gabe somatu zuen; ama bezin abandonaturik gutxienez.

—Bedeinka zak, otoi! —esan zion hitzik gabe bere buruari. —Fedea gauza ederra duk... Zer dago gogorragorik, ordea, nere esku hauek ezer bedeinka dezatekela siñistea baiño? Zer gogorragorik zerua «hutsik» dagoela jakiñik, eskuez espantu zentzugabe hauek egitea baiño?

Ama Pierre'ri begira zegoen, eta negarrez egiten zuen otoitz.

—Kemen orain! Ez duk orain gogoeta horientzako garaia. Ama begira zegok. Has hadi, arren! Gezur esan bazuen ere, eskertzekoa duk Jesukristo'ren mezua: gizonak itxaropena behar baitu aurrenik. Alderantziz, ordea, egia baldin bada ere, arbuiagarria duk gizonaren itxaropena iraungitzen eta hiltzen asmatu dan guzia. Bai amak eta bai aitak itxaropena behar ditek orain...

Aitaren arnasa asaldatuago, desberdiñago eta zaratatsuago egin zan. Ohituta zegoen Pierre Meunier, apezak eta osagilleak egon ohi diran bezela, jendea azken hatsetan ikusten; baiña Epailleko goiz hartan ez zan berdin Pierre'rentzat, eta aisa somatzen zuen bere burua ohe illun kirats hartan etzanik, eta arras ezindurik. Behin ere ez bezela lastu zan; ez tristuraz, bildurrez baizik; eta, amaren erreguek bortxaturik, bedeinkatzen hasi zan, pittin bat toteldurik, eta hainbestetan esandako otoitzak nekez birresanez.

Hortan ari zala, aitaren betazal batean kiñu txiki ahul bat nabaitu zuen, eta gorputz zurrun hartan harrigarri iruditu zitzaion; eta aitak ezer senditzen ez zuenik ez zuen siñistu. Hantxe gelditu zan Pierre ordu laurden batez, heriotza bere barruan goruntz nabaituz; eta gelatik irten zanean, pekatu larri bat egiten zuela iruditu zitzaion, iges egingo bailuan.

—Zer? —galdetu zion aldameneko Denayer andreak. —Ezer ez. Berdin. Piskanaka ba doa, nik uste. Halako batez hauspoaren hats mekanikoa pausatu egin zan, eta etxeakoak atzera eta aurrera hasi ziran ezin egonak eragiñik:

—Hil egin da... hil egin da... hil egin da...

Ama, bapatean, negarrari utzi, eta bizkorturik ikusi zuen Pierre'k, eta senarraren gorputza jazteko gertu.

Ba zuten hauzokoek egun hartako mintzagairik: «Meunier jauna hil da», eta «Meunier hil da»; ba zekiten, besterik ezean, alkarri zer esan; eta, azakeria osoan, betidaniko etsaiek berek ba zekiten joko-legea: «Oso gizon prestua zan... nik beti istimatu nuen... ez zan zaharra... zertaz hil da?»... Gizon baten azken sakrifizio lazarria, hizketa-gai soil bihurturik!

Bakardadea nahi zuen Pierre'k. Ez negar egitekotan, ez; negar egiteko gogorik ez baitzuen senditzen. Baiña sasikeria malkotsu hartatik libratzekotan. Etxea gero eta beteago zan; eta denek nahi zuten gorputza ikusi... pinpilinpausak kandelako argia bertatik ikusi nahi duen bezela.

Goiko estaiara joan zan, hainbeste urtez bere logela izandako hartara hain zuzen. Eta hutsune sakon bat sendi zuen barruan: joandako urteen joana. «Hauxe da kakoa», esan zuen ahapeka. «Bukatu behar hori, batetik, eta kanpo hortako zugaitz horien ixiltasuna bestetik. Gure larridurak eta kezak batetik, eta izadiaren lasaitasun kupidagabe doillorra bestetik: horra hor egiazko dialektika».

Leioa zabalik zegoen, eta zerua urdin-urdiña. Indar guziez hartu zuen arnasa: «Bizi naiz». Eta pentsakor gelditu zan. Etxe aurreko kalekkan eta urrunagoko enparantzaxoan autorik ez. Hauzokoak bakanka joan-etorrian, txingurri bakartien gisa abiadura lantsuan. Zugaitzak geldirik, oraindik historik gabe: kima izuti batzuez kanpo hillik itxuraz. Eskolatikako haur-karrasiak soillik entzuten, elizako kanpandorre zorrotzaren ondotik.

—Ezer ez, ordea. Gure gauari gau miñari darraikio, gure eritasunari heriotza, gure ametsen akaberari geure buruen ezteustatzea eta ahaztutzea bera... «Niri darraikidana ez da guztiz hilko»... Baldinba! Ez dut, ordea, hori siñisten... Lur huntan ezer ez, eta urdin goi garden hortan ezer ez. Bien erdian zer ote? Itzal igarokor hau dardar, norarik ezean galdurik, noizpehinka ametsetan, sarriago lokamutsetan, irteerarik gabeko bidean abiatu...

Samintasun osoa, baiña negar-zotiñik ez, malkorik ez.

Hain zuzen ere, mozkortu egin nahi zuela nabaitu zuen Pierre'k. Aurpegirik gabeko emakume illara baten beharra nagusitzen zitzaioela. Lizunkerietara eta sabelkeriara jotzeko gogoa zan gailen kinka hits hartan. Ez besterik. Ez iñolaz ere izpirituari zegokiokean ezer. Eta lotsatu egin zan.

Beheitik abotsen eta oinkaden zalaparta zetorkion; eta tarteka, agurtza gisa, lelo berbera: «Hil egin da... hil egin da»...

XXIII

Maiatzaren 6-ean Pierre Linkebeek'en zan, azken bolada hartako aste-bukaera guzietan bezela. Ama alargunarengatik egiten zuen hau batipat; baiña, bestetik ere, udaberriarekin zugaitzak berdeturik, hosto berrien usaia egun osoan barrena hatsartuz atsegin haundia izaten zuen. Brusela'ko kiratsak, alderantziz, gero eta nazkatuago zeukan. Wafelaerts-kaletik Duden-Parkera ez zuen tarte haundirik egia esateko; eta maiz baliatzen zuen abantail hau gogara egurasteko.

Usterik guxienean, arratsaldeko edertasunaz baratzen exerita gozatzen ari zalarik, Richard Schleiss apez adiskidea agertu zan hara, amak lagunduta. Bi apezok alkar gogoz eta luzaz besarkatu ondoren, eta Schleiss'ek parrokia berriaren gorabeherak eta istilluak xeheki azalduta gero, ikustamenaren zioa azaldu zion:

—Pierre: heldu den 15-etik aurrera, eta hiru egunez, erretiroa izango diagu Maredsous'ko komentuan. Andre Martin'ek zuzenduko dik. Ezagutzen duka?

—Bai, bai. Alegia: aditza ba diat, nortsu dan ba zekiat.

—Hire hortan, eta aita galdu berrian, garai ona dala iruditzen zaidak. Ez gaituk asko izango. Eta, Maredsous'ko eskualdearen edertasunaz zertarako hitzegingo?

—Oso duk ederra... igandeetan ezik!

—Erromesak gaur egun autotan eta motorretan joaki, bai... Nun dira antziñako erromes haiek? Egia duk, bai: jendetza haundiegia biltzen duk hara. Baiña gu astelehenetik ostegunera egongo gaituk, hain zuzen. Zer, beraz?

Ez zuen Pierre'k huntaz pentsatu, egia da, eta ez gutxiagorik ere. Alabaiña, zergatik ez joango? Zergatik ez, gertakari gogor haien ondoan, bakardade-aldi eta gogoeta zenbait guziaz egitera?

—Bai Richard. Joan egingo nauk —esan zuen irmoki.

—Hamalauko arratsean Maredsous'en egon beharra zegok. Egin itzak kontuak.

—Ongi duk. Hantxe izango nauk.

* * *

Zugaztiaren aldera zegoen Pierre'ren gela; eta igandetik beretik, jendetzak eta auto-pilloek erabat aldeginde gero, ibillaldi bat egin zuen legarrezko bide bakartietatik. Paper-puskek eta edonolako hondakiñek hango olerkitasuna lardazkatzen zuten; baiñan egia biziago eta sarkorrago egiten ez ote? Zarata hura pasata, arrasto higuigarri mordo bat baizik ez zan lurrean agertzen; eta zugaitzen adaburuetatik haize balek armoniaturik, izadiaren ixilla, kima gurien urrin gaztea, erreken zurrumurru izutia, lehenagoko eta betiko pakea berriz gailen... Irudiaren lazgarria! Gizonok eta gizadiak berak ordu zaratatsu labur batzuez Lurreko azala zikinduko eta lardazkatuko; baiña, gerora, izadiaren ixiltasuna eta mututasuna gailenduko dira gure legordietan... Horra hor gizadiaren patu ikaragarria, pentsatu zuen Pierre'k.

Gaueko lanbroa ez zan Maredsous'ko eskualde itzaltsuan oraindik pausatu, baiña laister hedatuko zan Meuse'tik hasita. Gaua izartsu agertzen zan goietan arte hartan.

Arnasa hartu zuen Pierre'k gogotik: pozik zegoen hara etorria izateagatik. Bakardadean murgiltzea beti onuragarri bere ustez.

Biharamuneko gosarikoan, bere hamar kideak agurtu zituen: danak aspaldidanik ezagunak, eta Belgika'n zehar sakabanaturik. Pierre'k ez zuen bere iritzia eman aditzera; baiñan urrun aurkitu zituen danak, oso urrun, beste mundu batetik etorriak balira bezela: beren hizketa-gaiak ximple atxeman zituen, beren iritzia arrunt, beren politika-teoria eskuidar eta huts; erlijioari buruz, azkenik, deus ez: aipatu ere ez zuten egin ezer: Jaungoikoaren gaintasuna parrokiako administrazio txepel bihurtua ikusi zuen. Jean Ghislain trotskistaren suaz gogoratu zan; eta hunengandik bertago zegoela iruditu zitzaion. Hamaika erretirokide haiekin hiru egunez mintzatu eta parre egin beharra, gaitzi zitzaizkion, eta ahalik eta luzeenik gelako bakardadean gerizatzea erabaki zuen.

Aita Martin'en predikuak eta ideiak oso egoki etorri zitzaizkion Pierre'ri: bidea eta hautakizuna garbiago islatzen zirala antzeman zuen.

Konkordismo eta alkarkeria guziez beste muturrean agertu zan A. Martin bildurrik gabe. Bortxaren kontra, mundutar garaitzapenaren kontra, dagoen guziaren uko osoan; mistikeria hutsean agertu bide zitzaien Pierre'ren lagunei.

—Arrisku bat dugu gaur —esan zien batez ere asteazkenean, saioa hesterakoan— eta arrisku hori egokikeria, errazkeria, oportunistoa da; alegia, nola edo hala mundua guregana bildu nahia. Gu ez gera, ordea, mundu huntarakoak. Munduak gorroto egin behar gaitu, anaiok; munduak ez gaitu ulertu behar, erotzat hartu behar gaitu. Erotzat eta arriskukotzat hartu behar gaituzte txiroek berek, baiñan

areago noski aberatsek eta agintariek. Kontutan har zazute hau: ia-ia hitzez hitz, zipitzik aldatu gabe, Ebanjelioko hitzak gogorazten ari natzaizue.

«Lagun urkoa maitatu behar da. Zer da, ordea, kristau gisa lagun urkoa maitatzea? Hunentzako munduko aberastasunak eta garaitzapenak opa izatea ote? 'Agintean daudenak morroi egingo dituzte' zion igarleak. Egia. Zein maillatan, ordea?

«Lagun urkoa maitatzea, adiskideok, lagun urko horren salbazioa nahi izatea da. Hots, nor da salbatuko? 'Zoriontsu zuek pairatzen duzutenok, zuena izango baita zeruetako erreñua'. Eta gu, hori jakinda, hori siñistuta omen, zertan abiatu gera? Marxistek bezelaxe pairamendu eta neke horiek erauzi nahiz! Irri-algaraz eta betekeria nahi dugu jendea Kristo'rentzat irabazi. Eskuindarkeriaren arriskua nabarmena baldin bada, ezkertarkeriaren arriskua ez da gaur txikiagoa. Biek dute oiñarrian sustrai berbera: ezin frakasoaren gurutzea jasatea, munduan garaitu nahia.

«Ez dugu federik: hau da kakoa. Gure bidea, betiko loriaren bidea, pairamenetik, sofrikarietatik eta gurutzetik igarotzen da. Eta, Kristo zerbitzatu nahiz omen, jendea pairamenetatik, sofrikarietatik eta gurutzetik libratu nahi dugu. Pekatutan zeudenak barkatu egiten zituen gure Salbatzailleak; eta ezin bestean soillik ogiak ugaltu eta ura ardo bihurtu.

«Camilo Torres'en idazkiak irakurri ditut. Bere sua eta maitasuna onartzen ditut, baiña bere konponbideak eta burruka-mailla bera iñolaz ere ez. Munta duena arimaren salbazioa da, eta Jaungoikoaren nahia borondate onez eta eraman osoz betetzea. Munta duena arimaren gosea da, eta ez urdaillarena. Kristo oiñazetan eta mesprextutan gudan nortzea, gizadiaren pekatuak geure sofrikariez ordaindu nahia, mundu huntako ezertaz ez kezkatzea: haxe da gure eginbeharra. Hau ziñegin genuen apez egitean. Baiña hinduzale batek geure bidea erakutsi arte, guruzada-giroa zan nagusi gure artean; eta gaur bertan ere ez txuri eta ez katoliku ez dan Martin Luther King

Artzaiak hartu du iñoiz guk galdu behar ez genuen otzantasun-zuzia»...

Apez lagunak ez ziran pozik. A. Martin ez zitzaien «pratiku» iruditzen. Pierre'k, ordea, besterik uste zuen: «Hunek du egia. Nork bere fedea izan, halere?».

Eguerdi irian gelara sartu zanean, leihoa zabalik zegoen, eta zeru urdiña ageri zan adarren artetik:

—Ederra litzake, bai —zion Pierre Meunier'ek berekiko—; ederra izan zan benetan nerretzat siñistuen artean... Baiña gaur fedea galdu dut... A. Martin'ek arrazoin guzia luke, egia balu! Federik ez dugu: xuxen ikusten du gure akatsen erroa. Ez dut nik federik, noski; baiña nere hamar lagun hauek

ere ez. la iñork ez: horra hor egia... Zergatik ez, ordea? Kristau helburuak ez ote dira amets eder huts bat? Pablo'k garbi ikusi zuen hau orain dala hemeretzi mende: «iñoiz piztuko ez bagera, alperrikakoa da gure fedea». Piztuko ote gera, beraz? Nork siñisten du hortan egiazki?

«Ipuiñak! Gauza ageria da, nere ustez, heriotzarekin batera bukatzen dala gure bidaia egitekotsu hau. Buruz ikasi ditudan hitzak zaizkit egia: «Le monde a commencé sans l'homme et il s'achèvera sans lui. Les institutions, les moeurs et les coutumes, que j'aurai passé ma vie à inventorier et à comprendre, sont une efflorescence passagère d'une création par rapport à laquelle elles ne possèdent aucun sens, sinon peut-être celui de permettre à l'humanité de jouer son rôle... Les hommes ont fait trois grandes tentatives religieuses pour se libérer de la persécution des morts, de la malfaisance de l'audelà, et des angoisses de la magie. Séparés par l'intervalle approximatif d'un demi-millénaire, ils ont conçu successivement le bouddhisme, le christianisme et l'Islam; et il est frappant que chaque étape, loin de marquer un progrès sur la précédente, témoigne plutôt d'un recul. Il n'y a pas d'au delà pour le bouddhisme; tout s'y réduit à une critique radicale comme l'humanité ne devait plus jamais s'en montrer capable... Qu'ai-je appris d'autre, en effet, des maîtres que j'ai écoutés, des philosophes que j'ai lus, des sociétés que j'ai visitées et de cette science ême dont l'Occident tire son orgueil, sinon des bribes de leçons qui, mises bout à bout, reconstituent la méditation du Sage au pied de l'Arbre?... jusqu'à ce que nous accédions à l'unique présence durable, qui est celle ou s'évanouit la distinction entre le sens et l'absence de sens: là même ou nous étions partis. Voilà 2.500 ans que les hommes ont decouvert et ont formulé ces vérités»...

«Marxistek ongi ezagutu dute hunen kakoa; eta Levi Strauss eta Heidegger anaia bizkiak dirala diote. Xuxen ikusia»...

Zerua begiratu zuen, eta siñistu eziña iruditu zitzaion hutsa izatea; baiña laister nagusitu zan bihozkadaz, eta gogoetari ekin zion:

—Xuxen ikusia, bai. Ezen kakoa hau baita: baikorkeria da kondenatu beharra. Baikorkeria da alienazio nagusia. Eta baikorkeria hortan, Levi Strauss'ek xuxen dion bezela, bai kristautasuna eta bai islamismoa sartzen dira. Zergatik ez ere («La Pensée Sauvage» liburuan hau agertzen dala uste dut) prometeozalekeria-mota guziak, eta marxismoa bereziki barne?

«Gogoeta lazgarri hauek ebakitzen dituzte gure kezka eta arazo guziak. Kristau fedea ez du funtsik, eta besteek ere ez... Elizetan jendea hutsunean kantatzen entzun dut nik askotan, ni lotsaz beterik aldaretik erantzule... Nere eskuetan erabillitako otamen segail baten aurrean belauniko ikusi dut nik, neu ahalkez beterik... Kanta horien entzulerik ez baitago, eta otamenetan ez bainuen nik ezer erasten

nere eskuetako koipea izan ezik!... Melanesia'ko eta Afrika'ko ritoetan agertzen zaigu nabarmen liturgia guzien hutsa eta gezurra... Gure deiei eta erreguei ez zaie iñoiz erantzun, zeren-eta erantzulerik ez baitago!... Tutankamon'en hillobian jan-gabe eta ikutu-gabe zeuden «bidaia luze»rako janari eta hazkurri guziak... Eta guk gaur irribarre egiten dugu, Osiris'en gorabeherak haurrentzako ixtorioak iruditzen baitzaizkigu... Errelatibumena falta dugu...

Geure zibilizazio eta siñesteei buruz Ptolomeo-zale gera errotik!...»

Eguzkierrea. Kopeta zimur. Hostorik meheenak berak geldirik, dana bare bare, sargori pittin bat, izadia zai itxuraz. «Zeren zai?»...

Begien aurreko hura guzia ixillean hausnartuz zijoan Pierre, ukondoak leiho-hegian pausaturik. Beharbada hura guzia, eta betirako, eta beharbada laister, utzi beharko zuen. Baiña burutazio hau etorrikerik ere, ez zuen ezer berezirik erreparatu barnean: «Hemendik bost urtetara, edo hamarretara, edo ho-gei-ta-hamarretara, edo... bihar bertan (izutu egin zan!), noiz ez baitakit, ez dut hau guzia ikusterik izango, lau metro lur izango baitira nere hillobiaren gaiñetik. Eta... zer? Zer, bai?».

Harritu egin zan: heriotz-aurreak asaldatzen bide zuen, ez batere heriotz-ondoak. Deuseztatzeak ez zuen goiz sapa hartan mendrenik ere kezkatzen. Eta hau berria zitzaion. Noizpait amaitu beharrak astintzen eta jazarrarazten bide zuen gaztarooan; baiña, itxura zanez, bapatean ezetz igartzen zuen. Bere hogeitau urteetan, sasoiaren gorengoan eta uztaldian beraz, muga guzietatik at legokeanak dardaratzen zuen: handik haratekoa, trazendentziaren kezka, heriotz-ondoa zuen problema nagusizat. Maredsous'en hamabost urte geroago, ez: egonaldi hartako idorokunde hau izan zan gertaerarik pixuena: hil-ondoa, abstrazioak, hori guzia, hutsa zitzaizkiola, gartzetango seta hutsa, mespretxagarria, ezerez eta igartua. Ustekabean Pierre'k guztiz lurtar eta mundukoi atxeman zuen: «Bizia da eskeiñi zaigun emaitza bakarra. Utz ipuiñak, eta goazen gaurdanik bizi etenkor hau uxtiatzera».

Bere hartan apezgoari eusteak ez zuen sentidurik, ez zuen funtsik: eragozgarri izango zitzaion, hain zuzen, bai gizon gisa eta bai apez gisa. Eta sekulan baiño zinkiago apezgoa uztea erabaki zuen.

Uste zuen bezin garratz ez zitzaion pausu hau gertatu. Bere erraiak urratu beharrean, lasai asko gelditu zan, zama bat kenduko bailiothekean. Eta irribarrez zion: «Erretiro batean erabaki behar nik, eta hoztasun osoan, apezgoa uztea dagokidala. Hau marka!».

Ez zien halere erretiroko lagunei ezer salatu bere asmoiez. A. Martin batez ere begiramendu guziaz tratatu zuen: zerbaitetan siñisten zuten guziekiko mirespena emendatu egin zan Pierre'ren barnean.

Elsa'ren irudia irten zan soillik kinka hartan garaille. Pierre'ren munduaren fundiera hartan, sendimendu bakar batek iraundu zuen tinko, iñoiz baiño tinkoago: Elsa'rekiko bere maitasun mingotsa. Eta beroni danaz argi eta garbi hitzegitea erabaki zuen. Ausartu ere ez zan egiten hitz hau esatera; baiña, zer desiragarriagorik emakume eder eta zoritxarreko hura salbatzea baiño?

Funtsean, egiazki, Elsa Pierre'ren arreba bizkia zan: biak hutsik, biak bidez nahasiak, biak hotzak dardar. Baiñan ez zekiten.

Anarteko Elsa'ren jokoa ulertzen zuela iruditu zitzaion Pierre'ri: nola nahi zezakean dibortziatutako emakume harek, bere gertaera latzen ondoan, apez ero ez-ezagun bitxi baten eskuetan jarri? Nolatan okerragotan jokoa berretuko? Ezifia zan, noski, Elsa'rengandik besterik jasotzea. Pierre'ren ustez haxe izan zitekean gertatutakoen kakoa; eta pentsamentu hunek bizkortu egin zuen. Agian Elsa'k Pierre beste modu batera begiratzeko erarik ba zegoen oraindik... «Agian bai!».

Opari bat eskeintzea bururatu zitzaion; eta, Elsa'k onartzekotan, etendako alkarrizketa hura berriz has. Zer opalduko? Maredsous'ko bereko edari-botilla bat? Komentu-kutsua markatzea burugabekeria zitzaion hain zuzen ere, hura ez baitzan egonaldi hartatik zekarren mezua. Hala ta guztiz ere, ez ote zan egokiena botilla haietako bat? Aitzekien artean, alegia, huraxe zan arruntena eta siñisgarriena: «egun batzuk Maredsous'ko bakardadean pasa ditut, eta likore apur hau ekarri dizut»; eta lehenengo alkarrizketan, erabakien berri emango. Besterik ezer eskeiñi ezkerro, ez ote zan harrigarriegi? Zergatik bestalde opari bat? Zergatik opari haundi bat ia bi hillabetez ikusi gabe pasa ondoren? Afariaren eguneko iraiñak eta itsuskeriak sariztatzeko? Azkenean, beraz, eta itxaropen txikiak, likore-botilla bat, ongi apaindurik, Hektos'enera eramatea erabaki zuen.

Egun gehiegi ziran Elsa ikusten ez zuela. Izkutuan egiazko egutegi bat zeraman Pierre'k Elsa'ren gorabeheraz soilki idatzirik; eta berrogei horrialdetan ezer ez zegoen idatzirik, Elsa' ren berririk izan ez baitzuen, eta izatekotan ixillaldia ez telefonoz, ez gutunez eta ez buruz buru hitzegitera joanaz, ez baitzuen eten.

Foto baten beharra nabaitzen zuen, edozein mutil gaztek bezelaxe! Eta berak lehen siñistu hauek umekeriak zirala!!... Fotorik ezean, bestela, ezin gogora begirada legun hura. Ezin. Aste gehiegi joanak. Saiatu egiten zan, baiñan ezin garbi ikus irudimenean.

Ostegunean Maredsous'tik Pierre'k bakarrik aldegitan, eta beherunzko bideetatik barrena abiatzean, harrizko murre gaitz arre haiek begiratu zituen barne-mogidarik gabe; eta «urren arte» esan beharrean, «betirako adio» atera zitzaion bihotzaren erditik. Eta negargaririk ez.

Pierre'ren biziaren aro bat amaitua eta gainditua zan, zalantzarik ez.

«Orain... Orain hasiko naiz munduaz gozatzen».

XXIV

Maiatzaren 24-ean Hektos'enera joan zan Pierre. Alde batetik, gogorik ez zuela pentsa zitekean. Elsa'rekin buruz buru ikasguan egokitzeko bildur baitzan. Hauxe nahi zuen harek, bai; eta Maredsous'tikako oparia eman egin behar zion.

Baiñan aita hildako bezperako gertaera hitsaz oroitzen zan, eta azken egunetan Maredsous'en hozitutako itxaropen kima guziak, igartzen zirala somatu zuen.

Asteazken hartan, halere, braseria batean martini hotz bat hartu ondoren, Hektos'eneruntz abiatu zan. Zazpi aste hartan harat ez agertua! Eskola-zuzenkizunak posta-kutxan uzten zituen bolada hartan; eta Hektos-Ikasguak jasoak zituela ba zekien, erantzun gisa txartel hotz batzuk ukan zituelako. Horri hori haietan, gehienik moldiztegian idatziak, Elsa'ren lerroren bat ote zetorren miatzen zuen astiro Pierre'k arreta guziaz, baiñan arrastorik ez zan agiri. Maredsous'era joan aurretik, deus ez zekien Elsa'ri buruz; deus berririk alegia, zorigaitzoko afari hartako gertaeretatik at. Ez-ikusia egin zuen Elsa'k berebat, eta ezer galdetu gabe, eta arras administrazio-gintzan, moldiztegiko txartel soillak igortzen zizkion, zuzendutako ariketen ordaiñez.

Hektos'eneko La Limite-kalean barrena abiatzean, beraz, hutsunearen hutsa zeraman Pierre'k. Sotora ondoratu ala, belaun-koxkorretan ahulezia nagusitzen zitzaiola zirudien, eta besoetan hotz hezea. Zergatik ez zekiela, Maredsous'ko botilla beharbada ahaztu zitzaiola bururatu zitzaion. Ezkerreko eskuaz irmo heldurik zeramala frogatu zuen. Baiñan oker zegoela konturatu baiño lehenago, alegia, oparia ahaztu ez zuela (xegundu laurden eskas bat ote, guzira?), barne-zauskada bortitz bat jasan zuen, bihotzaren astiñaldi baten antzera. Ia-ia ikaratu egin zan.

Eskallera gora joatean, sukarrak hartuta ote zegoen pentsatu zuen:

—Motel, motel! —esan zion bere buruari— lasai hadi, arren! Gaizki hasiko haiz berriz ere, hunelako asaldua bere aurrean hitzaz jabetzen baldin bada.

Tinbrea jo, eta bihotz taupadak kanpotikako soiñu guziak baiño azkarkiago entzuten Pierre'k. Emakume-oinkadak eta argiaren giltzatxoaren soiñua antzeman ziran eskalleratik.

—Egun on, jauna —esan zuen Elsa'k atea idekitzerakoan.

Pierre'ren bihotza guztiz nahasturik. Huraxe zan, bai, begien aurrean zeukan egun illun luze haietan alperrik bere oroimen zurbilduan billatu zuen irudia! Hogeita-hamazazpi egun illunpetan...

—Nahigabeen lagun, Meunier jauna —esan zuen Elsa'k, abotsean zintasuna agertzen zalarik.

—Milla esker, Elsa —erantzun zuen Pierre'k, bapatean bere baitan hein batean bizkorturik. —Milla esker, Scheelen andrea!

Soiñeko urdin illuna zeraman Elsa'k: hau besterik ez zuen Pierre'k erreparatu. Elsa'ren begiak ikusi zituen: ia besterik ez. Dana, beraz! Begirada ñirñirkari hura iñoiz baiño otzanago atxeman zuen. Ezpaiñak ere ikusi zituen une batez, eta hestuegi iritzi zituen: ez zitzaizkion arras laket izan. Berriz begietara so egin zuenean, zoritxarrez, begirada legun zoragarri hura bulegoaren aldera aldatua zuen Elsa'k, haruntz abiatzean.

—Zer moduz, beraz, Meunier jauna? —esan zuen Elsa'k, ixillune hura zerbaitez bete nahiz. Aurrean zeukan gizon haren begietan eta pausuetan beretan, griña sutsuaren ezagugarriak oro idoro zituen: «Gizon hunek, dudarik gabe, nahi nau». Eta Elsa'ren barrena poztu egin zan lehendabiziko mogidaz: harrotu egin zan, egia esateko, arraren desirkundea antzematean emakumea hantzen eta alaitzen dan modura.

—Ezer haundirik ez, Elsa. Eta, zu?

—Pittin bat damutua. Aitarenaz gain nerea... Egitan: damututa nago.

—Damutua diozu? —Pierre'k amets egin uste zuen.

—Zertaz damutua?

«Damutu» hitza gehiegizkoa iruditu zitzaion Elsa'ri esanda segituan; baiña tenkegiteko betarik ez:

—Bai. Damutua... Gogorregi izan nintzan azkenekoan zurekiko. Halako jipoirik merezi ez zenuela uste dut gaur... Argi eta garbi aitortuko dizut: pozoia iruditzen zaizkit gizonen hitz legunak.

Pentsatzen zuena esan zion Elsa'k hortan. Afaritakoan bildurra zitzaion nagusitu: bildurra izan zan jokabide zakar haren eragillea. Gizon guziekiko bildur zan Elsa; eta hauek beroago eta atsegiñago eta bihozkorrago, eta Elsa bildurrago, uzkurrago eta atzerago. Zeren bildur? Zerekiko uzkur? Zertatik igesi? Ez zekien garbi. Ez zan gizonik batekin ere fio. Ez zuen ez «maite» eta ez horrelako hitzik batere gizaseme baten ezpaitatik entzun nahi. Behazunezko garnataz jantzitako amu pozoitsua zitzaizkion.

—Anitz esker, Elsa. Bihotz-bihotzez eskertzen dizkitzut hitz eder horiek.

Egiaren erdia baizik ez zuen aitortu.

—Ez nauzu ezagutzen, Meunier jauna; eta neuk zu ere ez, egia esateko. Ez dugu alkar ezagutzen. Ez dago burua galtzerik.

Mesfidantza: hauxe zan entzun behar zan hitza, baiñan Elsa'k entzunarazi ez zuena.

—Nik neuk ere, beste aldetik —esan zuen Pierre'k gero eta hunkituago— dana barkatzen dizudala jakiñarazi nahi nizun. Egun hauetan Maredsous'en egon naiz erretiro bat egiten; eta soma ezin ditzakezunak erabaki ditut. Nere azken erretiroa...

Pierre'ren begietan ditziraldi izuti bat nabaitu zuen Elsa'k.

—...Eta, oroigarritzat, hango botilla txiki apal hau ekarri dizut. Bizkortu egin zaitzake egunen batean, nik uste.

Eta oparia eskeiñi zion.

—Milla esker —erantzun zuen Elsa'k harriturik. —Ez zenidan ezer ekarri beharrik. Merezi ote nuen, ala?

—Zeuk esan.

—Ez nuen merezi, ez dago zalantzarik, eta zuk ba dakizu. Damutua nago, benetan, Meunier jauna. Anitz esker. Ongiegi hartzen nauzu.

Pierre'k ehun burutazio izan zituen xegundu batean, ehunak alkarren ukatzaille. Hitz gozo haiek entzunda, giroa ondurik zegoela igarri zuen, eta aukera bikain hura galdu behar ez zuela; baiñan, aurrera jotzeko eta aurrera ez jotzeko asmoek, habailla izugarrian alkarri jarraiki, ozilazioa huts bihurtu ziran, eta Pierre'k ezin bide zezakean kinkatik aurrera egin.

—Oso damutua? —moztu zuen Pierre'k, haur errugabe batek galdetuko lukean koittautasunez, eta abots-hari fin-fin batez.

Elsa bildurtu egin zan:

—Ez gauzak har, arren, behar ez diran aldetik. Zuri gau hartan esana damu dut. Hau da dana.

«Aurrera jo zak», pentsatu zuen Pierre'k halere. «Emakumeak eman behar dik ezetza, ez gizasemeak»...

—Nik neuk ere ba nuke nere aldetik esatekorik asko... Noiz hitzegingo dugu? Patxaran eta leku goxoren batean...

Ez zuen Pierre'k ulertzen hitz ausarta haiek nola esan zituen: esan ondoren, esandakoa neurtu nahi zuen; baiñan ez zan gauza arestian esandako hitz haietxek gogoratzeko, ikarak ezabatu balitu bezela. Esankizuna, dana dala, esanik zegoen.

—Nahi duzunean —erantzun zuen Elsa'k hozki, Pierre guztiz harrirituz. —Baiñan, arren, zentzua atxiki ezazu: ikusazu nigan adiskide bat, ez besterik. Zure egoera, bestalde, ez da nerea baiña zalantzakoagoa. Uste dut nik... oso elizkoia ez izanik ere.

Hitz hauek atsekabeak izan zitzaizkion Pierre'ri; eta, bihotz ondoan, ziñez esaten ez zituela siñistu nahi zuen:

—Emakumeak beti itxura apaindu nahiz...

Elsa'k, ordea, egiazki esan zituen hitzak oro, maitasun giroari uko egiten baitzion gero eta nabarmenkiago.

Zerbait errepikatzeko gogoia etorri zitzaion Pierre'ri: apezgoari erabat uztera deliberatua zala, eta halakorik; baiñan ez zan ausartu. Alkar ikusteko proposamenduari baietz esan zion ezker, ez zuen Pierre'k, bada-ezpada ere, ezer erantsi nahi, ezer koloka jarri nahi, ezer ikutu nahi, hitz batez.

—Danaz mintzatuko gera, Elsa. Gauza asko kondatuko dizut, asko. Larunbat arratsaldean, beraz? Zer deritzazu? —galdetu zion Elsa'ri, pozkario kezkatu hura ezin izkutaturik.

—Ongi da. «Taverne du Parc»eko izkiñan, esate baterako. Ba dakizu nun dan, nere etxearen ondoan, Pâquerettes-kaleko muturrean.

—Hantxe izango nauzu. Bostetan?

—Bai; eta milla esker, berriz ere, zure opariarengatik. Gaur berean zure osagarrira dastatuko dut ttantta bat nere gela bakartian.

Hitz hauek zorrozki ziztatu zuten Pierre'ren barnea, baiñan ez zuen azkenean ezer erantzun: «nere gela bakartian»...

Bestetan baiño azkarkiago jetxi zituen eskallerak; eta, kaletik zijoalarik, gauza batez ohartu zan: etxe hormetatik urrunago zijoala: bestetan zokotik joan nahi bide zuen, bere burua nabarmentzeko bildurrak edo. Asteazken argitsu hartan, berriz, urrats luzeagoak egiten zituen, bere ibillera ariñagoa eta zaluagoa zan, orpoez ausarkiago zapaltzen bide zuen ezpaloia, irribarrea eztitsuago eta ugariago agertzen bide zan bere musuan, eta hiritar ez-ezagunak harrokeriaz begiratzen zituen, aberatsek festarakoan txiroak begiratu ohi dituzten eran-edo: «gizajook», zion berekiko eta segurantzia osoan. Eta kupidaz irakurtzen zuen aurpegi haietan aspertasun etsia.

Gazteago antzeman zuen Pierre'k bere burua, hamar edo hamabost urtez gazteago. Hogeitau urtetako neska-mutillak kideztat zeuzkan usterik gutxienean, eta ondo ulertzeko gauza zala uste zuen.

Halako batez, hogeitau ta hamabost bat urtetako gizon dotore bat igaro zan ondolik:

—Eta hik zer? —otu zitzaion Pierre'ri. —Maite dukana ikustekotan jantzi ote haiz horren apain? Ez nik uste! Noiz ezkeru ez duk, gizajo horrek, maitetasun berriaren ezti zoragarri hau dastatu?

Eta mespretxuz so egiñez, ahapeka erantsi zuen:

—Urriki natzaik, motel!

«Hiru egun», zion berekiko, «Zein diran luzeak maiteminduta dagoenaren zai egunak!».

Bi irudik kentzen zioten logalea oherakoan, eta zorion hutsez. Batean Elsa'ren begiradaz gogoratzen zan, eta gelako illunpe hartantxe begizatuko balu bezin garbiki gozatzen zuen. Eta beste batean, irudimen sukartsuan beti, Elsa'ren esku legun hotza hartzen zuen, eta hestutzen eta laztantzen. Zoriona eta estasia halako momentuz osatu behar dirala antzematen zuen. Eta sakonki miresten zuen Bertrand Russell'en iritzia: «I have sought love, first, because it brings ecstasy — ecstasy so great that I would often have sacrificed all the rest of life for a few hours of this joy»...

—Olerkariak begiramendua erdi galdurik duten gure garai teknikoi huntan, on da filosofoak era argitsu hortara mintzatzea!

Ez zuen Pierre'k maitasuna guztiz dastatua.

Baiña jai-aurre koloretzu hartan Russell'ek egia osoa zukeala somatzen zuen.

* * *

Asteazken eta ostegunean ederra izan zan eguraldia. Ostiralean, ordea, Mendebaldetik hondatzen hasi zan; eta arratsaldeko bostetarako goibel zegoen zerua, eta haizeak heze-usaia hartu zuen.

—Lan egiteko eguzki ederra izan dugu, bai; baiña larunbata gertu dagoen ezkerro, kitto: lañotu eta euria. Horra legea! Beti bat!

Ez zekien Elsa'k zergatik zan; baiña buruko min haundia jarri zitzaion bazkalondotik. Astea, egia esateko, ez zuen lantsu izan.

Aste-bukaerak berak, ordea, ez ote zituen bere larrimiña, bere bakardade-oiñazea, bere eginkizunik eza, zuzperten? Baietz zirudien. Astegunetan barrena alai xamar egoten zan Elsa, nahiz bere lana aspergarria izan; ostiraletan, ordea, gero eta maizago egon ohi zan zaputz, zital, illun, higuinduta; eta buruko miñez ez gutxitan.

Zuzenean joan zan etxera.

Josaphat'eko hosto-zurrunruak euria iragartzen zuen.

Sartu bezin laister, «Aspro» bat hartu zuen esne apur batekin. «Mimu» ondora zitzaionean, sekulan baiño azkarkiago baztertu zuen bere bidetik; eta ohe ondoan estropozo egitean, katua berriz uxatuz, eta hitz itsusi zantarrez ixillunea lardazkatuz.

Irratia piztu zuen, oso goratik; eta ez zuen bere gogokorik ezer aurkitu:

—Berrien garaia da, bai... Ezagun da: bla, bla, bla, bla. Beti berriketan! Noiz arte?

Eta irratia itzaldtu zuen.

Frigoan begiratu eta ez zuen ezer jangarririk aurkitu: urdai-azpiko xerra haiek ikutu aurretik ere asetuta utzi bide zuten; «petits suisses» dalakoak, yogurtak, basurde-burukiak, dana (eta ba zegoen denetarik...) gogaikarri zitzaion. Arrats hartarako behar zuen litxarrerria ez zuen aurkitzen: jangartsu zegoen oso, eta platano bakar bat «afaldu» zuen.

—Eta bihar larunbata! Berriz larunbata! Beti larunbata!

Irratia berriz piztu zuen; eta hiru miñutuz alde batera eta bestera alperrik jiratu ondoren, dantza-musika ematen zuen hedakin bat entzunarazi zuen oso goratik. Estali egin nahi zuen ixiltasuna, estali egin behar zuen egiazki.

Ispillura joan zan, eta zimur berri bat topatu zuen bekokian. Hurbillago zan ispillura, eta zoritxarrez egia zan: zimur berri baten hildo xume axial bat hantxe zan agiri. Soiñekoa kendu zuen, eta era berean zapata marroiak, sedazko galtzerdiak eta gonagontza arrosa; eta, bi pieza soilletan, berriz joan zan ispillu aurrera. Saihetsetik eta aurrez-aurretik begiratu zuen bere burua, behin eta berriz, orpoak altxatuz eta altxa gabe; eta oraindik ere gorputz hura desiratzeko moduan zegoela iruditu zitzaion. Baiña bere pozak laburki iraundu zuen, kiñu batek argiro adierazi zuenez. Pentsakor gelditu zan ixtante batzutan zehar:

—Desiragarri... Eta, zer?

Laztu egin zan. Galtzerdiak zorutik jasotzeko makurtu zanean, buruko min haundi hura tinko zirauela nabaitu zuen.

Berriak berriz ere irratian: «...dans une embuscade cent trente deux vietcongs ont été mis hors de combat. Ceci constitue...»

—Berriz ere Viet Nam! Aski!!

Eta irratia itzaldu zuen.

—Ohera joatea onena! Ez dut besterik! Lo! Noiz betirako loan abiatuko?

Kopetako zimur hura aztertu zuen hurbildik azkeneko aldiz, eta larru azala pittin bat tinkatu ezker ezabatzen zala kausitu: «Gaitz erdi».

Oheratu egin zan; eta, irratia berriz pizturik (zenbatgarren aldiz?), azkeneko «Paris-Match» begiratzen hasi zan. Buruko miña ematen ez, ordea, eta irratia eta gau-lanpara itzaldu, eta lotan saiatu zan.

Bederatziak... Hamarrak... Eta ezin loak har.

Ohetik jaiki zan, eta termometroa jarri zuen galtzarbean: 38,1. «Ba nengoen bada ni», pentsatu zuen; eta berriz ohera zan, beste «Aspro» bat hartuz. Eta biharamuneko adiaz hasi zan hausnartzen:

—Bihar bostetan... Meunier jauna... Meunier apeza hobe, horko izkiñan nere zai... Zergatik esan ote nion nik asteazkenean baietz? Zer egingo ote dugu biok bostak ezkerotik, lau edo bost ordu luzez?... Zer egingo ote dugu, batez ere, izkutuan edo erdi-izkutuan ibilki? Hamar egun falta zaizkit, ez gehiago, nere hauzi madarikatu hori azkenean erabaki dedin: hau esan zidan De Riemaker'ek aspaldian... Eta, azkeneko momentuan saltsaren bat billatuko ote dut, eta Luc'i aitzekiaren bat emango?... Hau ez, behintzat. Argi eta garbi azaltzea nahi dut nik, hain zuzen, ezkontza-haustea berak ekarri duela, Luc De Potter'ek, ez nik; Luc'en maitaleek, lotsa- gabekeriek, ankerkeriek eta lizunkeriek hortara gaitzuztela, ez nere arinkeriarik batek ere... Hauxe falta litzake: nik azken aste hauetan estakururen bat ematea!

Gaueko hamaikak jo zuten. Logalerik batere ez Elsa'k. Ostiralero bezela «Bellergal» pare bat hartu beharko, edo gehiago; edo-ta «Bellergal» bat eta bi «Valium». Bestela ezin lorik egin.

—Bihar bostetan... zertaz hitzegingo?... Zer egingo?... Nun sartuko?... Burugabekeria izan da nerea!

Muzin batek salatu zuen bapatean Elsa'ren higuña:

—Ba dakit, bai, nola goza ditezkean amodio berriaren ordu luzeak, eta labur egin... Ez, ez, ez!

Garbi ikusten zuen «ezetza». Nola presta, ordea, «ez» hura? «Meunier gizajoa», zion berekiko, «nabarmen dagoen maitemindurik: eskua neri ematean ez du besteek bezela egiten. Eskua luzatu egiten da ikaragarri nerea bilduz; eta maite ez nauten gizonek baiño gehixeago hestutzen dit bere ahur bero hortan. Hori nazka! Xehetasun ñimiño hauek ez dute zalantza izpirik uztea emakume baten adimenduan».

Gorrototik, bestalde, eta mespretxutik (hasieran Elsa'k mespretxatu eta gorroto izan baitzuen Pierre, apeza eta gezurtia, biak batera, zalakoan), kupidara aldatu zan; eta gorako aklakuntza hunek majiña bat katramilla piztutzen zion bihotzean. Ez zuen, noski, Pierre maite; baiña, piskanaka, egindako itsuskerien ondorioz bere ustez, gorrotoari urrikia nagusitzen hasia zitzaion, garrakeriari gozotasuna, gogorkeriari begikotasuna. Eta malda hartatik abiatu ezker, nork finkatuko muga?

Hots, Elsa'k ez zuen nahi. Ez zuen istillurik nahi. Ez zuen gizonekiko istillurik nahi batez ere.

Buruari zegokionez, gizonen arazo hau ongi xamar zuzendu zuen: gizon guziengandik ahalik eta urrutienik (laguntasun «hotz»-etik atera bezin laister); eta ondo joan zitzaion ordurarte. Luc bakar bat aski eta gehiegi. Vanden Broeck bakar bat (Luc'en ondoren gaiñera...) aski eta sobera. Hirugarren bat iñolaz ere ez: nahiago hil!

Haragiaren aldetik ere buru-haustea konponduta zeukan erdipurdi. Barekeria bakartitan atsedetea aspaldidanik bururatu zitzaion: bururatu, eta egiñez obratu. Luc'en hiruzur lotsagabeak gertatze berean eroria zan haietara lehenengo aldiz, arnasa gogotik lipar batez hartu nahiz; eta gero eta maizago ondoko urteetan. Haragi-atsegiñez hillarazi nahi zuen tristura bizi ezin zorrotzago hura; baiña haragiaz bestaldera joan ezin zitekeala laister ulertu zuen. Halere, hotzean, gizon baten berotasuna kilikagarriegi agertu bezin laister, teknika illun eta aitortu-eziñezko haietara ematen zan Elsa, eta sexoaren beharra bakarrean agortzen zuen, bihotzaren pakea alde hortatik bederen segurtatuz.

Sendimenduaren deihadarra gelditzen zan bizirik, hau bai, ixillarazten zaillena; eta hunen frutua ziran Molière eta Pâquerettes kaleetako negarraldi luze etsi haiek, logaleak eta nekeak ez bestek geroenean iraungirik. Zergatik ez dana aitortuko emakume bati? Areago (eta ez zuen pentsatu ere nahi huntaz), behin edo bitan ez ote zuen nabaitu emakume harekiko gozotasun legun berri bat?

Pierre'kiko senditzen ari zan kupida hura, beraz, buruko miñak eta eldarnioak azkartua noski, arrisku-bide gaitza eta galgarria iruditzen zitzaion. Hauziaren gertua batetik, eta kupidaren emendatzea bestetik, bildurgarri agertzen zitzaizkion. Eta biharamunerako adiarra ez agertzea erabaki zuen: «hobe da, bai, batez beste, bihar ez agertzea».

Biharamunean, hortaz, Jemappes'era joatea erabaki zuen. Aste-bukaera hura gurasoekin pasa (bi hillabete hartan ez ikusiak hauek), eta astelehenean... lanera berriz:

—Tunelera! Argi-printzarik ez, baiñan aurrera jo behar, aurrera ekin behar... Irakasle guziek diotenez, oso umore onean egoten naiz ni beti, beti trenpuan omen, iñolako aldarerik gabe, beti irribarrez. Zein zoriontsua naizen!... De Rijke'eneko bezeroek gauza berbera zioten. Ikasguan batzuk esaten dizkidaten lotsagabekeriak entzunaz, bestalde, ba dakit nitzaz zer deritzaten: ohe batetik bestera aldatzen naizela egunero atsegin billa; eta ni billuzik eskuratzea, iraupen kontu hutsa dala... Hau komeria! Hortatik ageri zait ere danak daudela etsipenetik honuntz; alegia, helburuak lorkizun dituztela, obrakizun, eta ez obraturik... Koittauak! Ez dakite munduaz eta zorionaz ezertxo ere!

Pierre'ren nahigabeaz gogoratu zan, eta min haundia eman zion bere ezetzak biharamunean jasan behar zuenak:

—Meunier haur bat da gizajoa! Ez du iñoiz nere egoera ulertuko!

Baiñan urrikialdia eten zuen zakarki, eta Jemappes'erako asmoari atxiki zion indar guziez, eragozpen guziei ez-ikusi itsua egiñez.

Euri tanten zurrumurruan gailen, hamabietako kanpai-hotsak entzun ziran:

—Berriz ere gauerdi, eta ni esnai!

XXV

Larunbatean oso goiz esnatu zan Pierre; eta, iruditu zitzaionez, erdi lozorroan baizik ez zuen gaua igaro. Erdi esnai erdi ametsetan, Elsa'ren irudia eten gabe ikusia uste zuen, eta Elsa'ren abotsa behin eta berriz entzuna; eta irribarrea azaldu zan Pierre'ren musura. «Ametsetan bederen nere ondoan izan dut», pentsatu zuen; eta pentsamendu hunek bizkortu egin zuen. Telepatia ez zuen ordurarte iñoiz seriotan hartu; baiña goizabar artan, barne-mogida batek hartaturik, ametsen ordaintasunean siñisten zuela esan zitekean. Alegia, era berean, Elsa'k ez ote zuen bera ere ametsetan ikusi?

Leioa zabaldu zuen: egunsentia ezari-ezarian argitzen hasia zan; eta egun-argia kale bakartiaz nagusitu ala, euriaren erasi segail apala eten, eta atertu egin zuen. Aidea apel. Zeruan zenbait hostarte agertu zan, gero eta zabalago, gero eta urdiñago ere bai, goietan ixillik bidari. Eta ederrago iruditu zitzaion Pierre'ri zerua hostarte haietan somaturik, hozkarbi betean baiño. Betetasunari buruz bildur zala nabaitu zuen, hostarteek idarokitzen zioten urdin-apurra ederrago eta aratzago eta sakonago bailitzan. «Egia ote da funtsean, atsegiñak betikotasuna behar duela?»« Egunsenti hartan zerura begira zegoelarik ez zuen uste; eta Nietzsche'ren iritzia ez zuen onartu. Bertago somatu uste zuen Simone de Beauvoir'en ideia ezaguna: «Betikotasunak ez du usaiñik». Hostarteak nahiago.

Lanean saiatu zan, baiña behin eta berriz barreiatzen zitzaion arreta. Tema bakar bat zan bere barnearen jabe, ordu bat, adia-leku bat: arratsaldeko bostetan, Josaphat-Parke'ko hegian. Horra hor bizi guzian baiño areago desiratzen zuen momentua.

Azken euri-erauntsiaren ondoren irtetzea erabaki zuen Pierre'k. Burua gorago altxatzen zuen bestetan baiño, eta ezpaloiean egokitu zitzaion legar koxkor bati ostiko bat eman zion konturatu orduko. Piska bat lotsatu zan, bere adiñean hortara jokatzea egokia ez zalakoan. Apaiza zan aldetik ere, burutazio berbera izan zuen, baiñan oso laburzki: apezgoa uzteko delibero irmoaz gogoratu zan, eta gaiñetik zama eskerga bat kendu zuela pentsatu zuen. Eta bihotzaren erditik poztu zan bere fedea arras galdua zuela erreparatzean. «Ziñez diot: orain jaio naiz», esan zuen.

«Les Fagnes»-jatetxean bazkaltzerakoan, jangartsu topatu zuen bete burua: esteak tinkaturik bide zeuden, sabel-kezka harrigarri batek jorik bezela. Eta platerak ia osorik bihurtu zituen atzera. «Siñistu-eziña», zion betekiko. Erlojua behin eta berriz begiratu, eta aldameneko gizon batek berari so antzeman zuenean, lotsaldi labur bat izan zuen Pierre'k: gutxienez zortzi aldiz ikusia zuen ordua bazkarian barrena.

Lau t'erdietarako Azalees-kalean zegoen. Euri-jasa labur baten ondoren, berriz ateri.

—Ordu erdi bat oraindik!

Eta Josaphat-Parkearen aldera jo zuen. Eguzkirik ez, lurra berriki bustia itxuraz, belardiak blai, kioskoa hutsik, aulkiak tolosturik; eta zugaitzen artetik Lambermont'etikako burrundara koloregabea, ixiltasunaren lardazkatzaille. Parke hartan gutxitan izana zan Pierre, baiña bereziki maite zuela antzeman zuen: Josaphat-Parkean, eta hau betirako, Elsa'ren parkea izango zan; eta hunek ez bestek emango zion betirako olerki kutsu paregabe hura.

Bostak bost gutxiagotan «Taverne du Parc» dalakoaren burni-aterpe zahar erdoituaren azpitik jo zuen ezkerretara, Pâquerettes-kalean gora. Azaldu eziñezko barne-zorion bete hura zein girotan nabaitzen ari zan ez zitzaion ahaztuko:

—Egia du Julien Green'ek: biziaren une bereziak xehetasun guziez itsasten dira gugan. Arratsalde huntako miñutu huni dagokion guzi-guzia ezabatu eziña izango da nigan. Ziur naiz.

Miñutuak nekez igarotzen ziran, eta Elsa'ren aztarnarik ez. «Glacier Cocozza»ren berebil zuria atzera eta aurrera ikusi zuen. Denbora joan ala, bizia bera zijoakiola nabaitu uste zuen Pierre'k, itxaropen-hostartea lañotzen zitzaiola, eta bizkorraldia itzurtzen; eta iñoiz sendi ez zuen etsialdi mota lazgarri bat nagusitzen.

Bost et'erdiak...

Eta Elsa azaldu ez.

Ateri. Zeru goibelean hostarte batzuk. Eguzkierrea. Azken euri-jasa arestian gertaturik. Giro epela eta hezea. Haize balarik ez.

Egia somatu zuen Pierre'k, nola ez: Elsa ez zan azalduko. Baiñan ezin etsi zezakean, ezin: osotara eziña zitzaion gertaera hura gainditzea.

—Luzeago itxarotea, zertarako? Ez da etorriko... Ezin joan, halere... Noiz arte, ordea? Hemen jarraitzea ez da ona: nere burua salatzen ari naiz, Elsa'ren aurrean ahultzen... Joan, ordea, nora?... Nora joango ni?...

Berdez jantzitako emakume batek alperrik azkartu zituen Pierre'ren bihotz-taupadak: urrundik ikusirik Elsa zala burura zitekean, nahiz haren ibillera pausatuago iruditu Elsa'rena baiño.

Tinbrea jo zuen: behin, eta bitan, eta hirutan... Erantzunik ez. Persiana jetxita zegoen; baiñan ez guztiz. Leihoaren azpiko zabalgunek hartatik, halere, ez zan barnekorik ezer ikusten. Eta Pierre'k ikusi egin nahi zuen... Persiana ez zan errara gelditua: oker zegoen, jeixterakoan kokatu izan balitz bezela: zirudienek Elsa'ren etxea zaharrakaturik eta abandonaturik agertzen zan. Eta Pierre'ren erraiak berak tristatu ziran:

—Madarikatua izan bedi De Potter!

Atariko ixillaldi etsi hartan argi-izpi bakar bat lortu zuen Pierre'k: eskubialdean, tinbre-botoien parean, bi izen izkiriaturik: goikoan «R. Laurent», irakurri zuen, eta beheara segi zuen begiez. Beherekoan, sukarrak harturik, behin eta berriz irakurri zuen: «Elsa Scheelen»... «Elsa Scheelen»... «Elsa Scheelen»...

Laugarren aldiz deitu zuen. Eta huntakoan, emakume-abots batek erantzun zion goiko leihotik. Pierre halere ez zan lastu, Elsa'ren abotsa ez baitzan hura.

—Arratsalde on, jauna —zion goiko abotsak—. Scheelen andrea ez da etxen. Zer nahi zenuen?

Ille narratxa eta zurdiña, aurpegia zimurrez betea: Laurent alarguna zan, bai, ez zan zalantzarik. Pierre'k ez zuen mespretxurik batere sendi harekiko, eta ez amorraziorik ere. Hain zuzen bekaizkeria apur bat bihotzera zitzaion, Elsa'ren ondoko norbaitekin mintzo zalako. Ez zuen, hitz batez, alargun bakar zoritxarreko bat ikusi, Berendia-alargun ez-ezaguna; Elsa'ren hauzokoa baizik. Ez zitzaion burutik pasa, azkenik, laugarren aldiz deitu zuela, eta hori zentzugabekeria zala; ez zuen bere burua farragarri atxeman, nahiz Elsa'ren ukoa eta aldegiña gauza nabarmena izan.

—Arratsalde on, andrea. Scheelen andrearentzako mandatu bat ekarri dut, eta eman egin nahiko nioke.

—Ez duzu etxen. Mons'a joan da, Jemappes'era hobe, goizean; eta, joaterakoan gaztiatu didanez, bihar arratsa arte ez da bihurtuko.

—Ez dizu besterik deus esan? —esan zuen Pierre'k lepoaren atzean miña nabaitzen hasten zalarik, eta bihotzondoan hutsa.

—Ez, ez... Ba dakizu beharbada: gurasoak Mons'en ditu, eta askotan joan ohi da hara aste-bukaera igarotzera. Azken hillabeteetan ez dut uste. Gisakoa da, beraz, joatea. Alperrik duzu itxarotea: ez da hemen.

—Milla esker, andrea... Milla esker.

Laurent alargunak ba zekien, noski, Pierre'k jakin nahi zuen gorabehera asko; zalantzarik ez. Nola galdetuko, ordea? Zer dala-ta galdetuko? Zergatik azalduko Laurent atso zahar itsusi harek? Ez zuen ekin Pierre'k, beraz, eta joan egin zan.

Pâquerettes-kalean behera abiatu zan, aldapak berak bultzaturik; eta aldapa hura gaitza iruditu zitzaion. Belaun koxkorrak minberatu egin bide zitzaizkion itxaropenik gabe jetxi behar doillor hartan. Azalées-kalearen galtzara gurutzatu, eta parkearen aldeko ezpaloiean zalantzan egon zan bizpahiru miñutuz: ez bi jokabideren artetik bat aukeratu beharrez, ez; hutsune eta noragabe osoan baizik.

Azkenean, erraietaraiño gogaituta, kioskoaren aldera jo zuen, bidexkatik berriz jetxiaz. Ordu erdi bat lehenago ikusitako parkea suntsitua bide zan!

Oihenart naparrarekin gogoz esango zukean Meunier flamendarrak kinka hartan:

«Hiltzea gaitz da; gaitzago bana maite uken, eta ez maite izana»...

Gudroiezko zorua legor zegoen puntu askotan; baiña, beste askotan, euri zetek beltzago agerrerazten zuten. Zugaitz adarretatik, bakanka, tanto lodiak lehertzen ziran bidexkan, huntan musika-nota mutuak entzunaraziz eta pikor borobillak agerreraiz. Ezkerretako zingiran, behere illunean beraz, buru berdeko antzarak eta beltxarga zuri-zuriak ikusi zituen: igeri, urezko ispilluan igeri, oso polliki higitzen ziralarik, giroaren ixiltasunaren eta gelditasunaren sorkari gisa.

—Elsa! —esan zuen soillik, eta ukabillak bortizki hestutuz—. Neure gaiñean erori azkenean ezbehar gaitz hau!

Euriaren ondoko olerkitasuna lehenengo aldiz dastatzen bide zuen; eta olerkimena eta malenkonia gauza bakar bat zirala ohartu zuen. Etsipen gozo hartan, bakardade bete hartan, antziñako absolutu-egarri huraxe ezagutu zuen. Eta asaldatu egin zan.

Beherago joan zan, belar hezearen usain sarkorra hatsartuz. Bide ertzean, hezetasunak lizundurik, harrizko imajiña bat topatu zuen: «Henry Weyts, compositeur»... Nor ote zan? Ez zuen izen hura iñoz entzun:

—Soiñu atsegiñak sortu, eta gerora... lizuna imajiña hotz bakarti ez-ezagun batean! Ahaztua izan behar hau: heriotza baiño gogorragoa...

«Maite ukan eta ez maite izana»...

Aulkiak bildurik, eta «laiterie» zuri zaharraren ateak hetsirik ikustean, kezkatu egin zan:

—Berandu azaldu ote naiz ni munduko festara?

Elsa ez zan neskatilla gazte bat, ezta Pierre mutiko bat ere egia esateko. Ordurarte ez zan behin ere adin-kontuengatik kezkatu. Eta bapatean bai, errotik:

—Beranduegi iritxi ote naiz ni biziaren jaietara? Hogeita-hamabi urte gehiegi ote dira gizaseme batentzako? Elsa'k bestalde hogeita-hamar ditu; baiñan orain dala bederatzi ezagutu zituen eztaiaeren gorabeherak. Ni baiño zaharrago da beraz. Bildurik aurkituko ote ditut nik, beraz, hemen bezela, biziaren oturuntzako aulkiak, eta hetsita ote bazkaldegia? Ene!

Laztu egin zan.

Hasarrea gora zijoan, era berean, Pierre'ren ariman. Eta ahapeka esan zuen, ezintasun guzizkoan:

—Madarikatua izan bedi Apezgaitegira eraman ninduen abotsa! Han ehortzi dut nik nere burua!

Eta geroxeago eta ez hain ahapeka:

—Madarikatua izan bedi abotsaren Esalea! Madarikatua izan bedi...

Ixildu egin zan. Birauaren haundiaz ohartze berean koldartu egin zan. Eta, lehen baiño etsiago erantsi:

—Ez dut, beraz, fedea galdu... Galdua naiz beraz! Nere gaiñetik kendua uste nuen zama, hortxe dut, tinko. Ez naiz libro. Madarikatzen duen gizona ez da bere buruaren jabe, madarikatzeko beharra nabaitzen baitu. Eta biraua lotura bat desegiteko premia hertsiaeren seme baita. Birau egiteko Jaungoikoarengan siñistu behar da.

Herio-suhar ausart hura, halere, igarokorra izan zan. Eta bereala bide hestuago eta illunago agertu ala, zingiren arteko latsaren zurrumurrua entzuten hasi ala, behereko zugaitz-hostoen hurbiltasuna nabarmendu ala, malenkonia hutsak bete zuen, gainditu egin zuen egia esateko. Denen kontra eta bere buruaren kontra, mendekatu beharra baizik ez zuen senditzen barruan: mendekatu egin behar bere zorigaitza, bai: ordituz, haragikeriara eman ez, nola edo hala. Ifernu hartatik irten behar.

Poltsikutik toxa atera zuen: 630 libera. Ba zekien Elsa'ren billa etorri aurretik. Zenbaturik zeukan hain zuzen. Ezin ezer egin alde askotatik beraz...

—Txiroak ez du ezta hiltzeko eskubiderik! Nola izango luke ezertarako aukerarik? Aberats eta dirudun guziak, guziak bai, ifernuan ikusteko itxaropena izan nuen urte batzutan. Orain ezta itxaropen hori ere! Jesukristo'k madarikatu egin zituen aberatsak; eta ez dakit ez ote dan hau Ebanjelioan maiteen nuen hitza!

Exeri egin zan Josaphat'eko aulki batean. Liburu bat eskuetan, eta irakurtzen ari, gazte mardul bat igaro zan. Pierre'k begiradaz jarraitu; eta zingirara irixtean, beltxargei so ikusi zuen:

—Beste olerkari bat! Gizajoa!

Toxa berriz atera zuen poltsikutik, eta hitzetik hortzera begiratu ondoren, diruketa berbera zenbatu zuen: 500 liberatako txartel bat, 50-tako beste orixka bat, eta lau 20-tako berde. Besterik ez iñun. Alperrik ekitea.

—Guzira 630. Ez dago dudarik... Zer egin dezaket nik? Eta bihar 28, etzi 29, eta 30, eta 31... Ondo jaioa natxegok! Olerkia bera ere beltzago egiten da hillabeteetako bukaeran! Zein burgesek siñistuko?

Oiñaze-kiñu bat egin zuen bapatean:

—Ez! Ez! Hori ez!... Egia da: gau hartakoa milla libera izan zan; eta ostatuko gela beste berrehun... eta hara joan aurreko bina whisky-ak beste hirurehun bat... Hori zan, bai: milla-ta-bostehun bat izan ziran... Eta, zertarako? Bi urte joan dira. Geroztik ez naiz iñoiz pasa kale hartatik. Ez nintzakean gauza izango... Linkebeek'era etorria nintzan Lieja'tik aste-bukaera igarotzera. Eta Camilo Torres'i buruzko hitzaldi bat egokitu zitzaidan, Brusela'n emana. Hizlari: Fontaine apeza, Bolivia eta Colombia'tik itzuli berria. Hitzaldia entzun ala, nere odola irakiten abiatzen zitzaidala nabaitu nuen: ez maitasunez, ez Torres'ekiko kupidaz, ez mistikarako gogoz, ez. Ameriketako Elizaren kontrako gorroto bizia sortu zan nigan, iñoiz baiño bortitzagoa. Bapatean Jean Ghislain'ek eta komunista lankideek behin eta berriz esaten zidatena jabetu zan nere gogoeta nahasien artetik. Fontaine hizlariaren hitzen artetik gaillen, hainbestetan entzunak zetozkidan goratik: «Erljioa alienazio hutsa duk... Eliza alukita-zulo bat besterik ez duk... Apezpikuak burgesiaren morroiak dituk... Klase-burruka duk Elizaren dialektikaren kakoa...». Zirrara lazgarri bat nabaitu nuen; eta zirrara haren funtsa huntara bil zitekean: «Pierre: zozoarena ari haiz egiten. Uxtia zak mundua bederen!». Hitzaldian, ni bezela entzule, lagun batzuk ikusi nituen; eta ez topatzekotan, eztabaida hasi bezin laister aldegin nuen bil-lekutik. «Orain arte siñistu dudan guzia ipuin hutsa da», nion nereko, eta jasan eziñezko pixua kokatu zitzaidan gaiñean. «Oker ote naiz,

beraz?», pentsau nuen... Dirua ba nuen: bi astetako soldata kobratu berria nuen. «Zergatik ez munduaz dastatuko? Udaberri alai harek nigan piztutzen zuen itzaropena, zergatik berriz ere otoitz hotzetan itoko? Federik ez, eta zertarako desirkundeak hilduratuko eta, urtero bezela, kanpoko lorealdia barnean beltz illunean sakrifikatuko?... Arrats ederra zan. Rogier aldera jo nuen, bildurturik egia esateko. Zeren bildur? Haragiaren egiaren bildur ote? Ezin esan. Matheus, Marché, eta ondoko kalexka haietan gizon bakartiak ikusi nituen, behin eta berriz leiho beretatik pasatzen ari. Herabe nintzan ni, lotsa, gogait; eta denbora luzeegia ez nuen nere hartan igaro nahi. Zigarroa eskuan, aulki gorri borobil batean exerita, argi gorrixka hartan kilikagarriago, zuriz jantzitako emakume gazte batek irribarre egin zidan, eta eskuaz agurtu. Behar zan gizatasun-giroa antzeman uste izan nuen kiñu begiko xingle hartan; eta, nere kezka guziak garaiturik, eta higuñak aihenaturik, sartu egin nintzan. Ez nekien zer esan. Brusela ezagutzen ez nuela esan nion, tratalaria nintzala, eta beste anitz gezur. Lotsagabe agertu nahi nuen, baiñan ez nintzan gauza: ageria zan, nik uste, ekintza-mota hartan ohiturarik batere ez nuela. «Oso ondo zaude gizon gisa, ba dakizu? Eta zure bizimodua oso interesgarria iruditzen zait», esan zidan besotik helduz. — «Topa zuri!». Eta klink egin zuten gure bi basoek. Guztiz galduta nintzan, ez zegoen zalantzarik...

Lehenengo muzin atsekabe berbera egin zuen Pierre'k, eskubitara eta ezkerretara urduri begiratu.

—Ene!... Gelaz ez naiz ia ezer ere oroitzen: txikia zan, orixka oker ez banago; eta ohe hartan, oroitzen naizenez, ez zegoen maindirerik. «Hartarako» propio jarrita, ez da zalantzarik...

Iribarre egin zuen, baiña laister berriz muzin-kiñada berbera agertu zan Pierre'ren begitartean.

—...Nola ote zuen izena gaixoak? Ez dakit, ez naiz oroitzen. Ba nekien bolada batez, baiñan ahaztu egin zait; eta hau gaizki iruditzen zait. Lehenengo saialdia berak ezagutarazi baitzidan. Gelara ondotixek, alde zurretik eskatu zidan dirua, eta gero erantzi egin giñan (erdizka baizik ez ni neu, egia esateko), eta bera maleziarik gabe eta lizunkeriarik batere gabe. Gure alkarrizketa hurria zan hartara orduko, ongi gogoratzen naiz huntaz; eta hortik aurrera hurriago eta hotzago. Espero nituen atsegin-giroa eta haragi-beharra, errotik lekutu ziran une hartan: itxurari zegokionez, neskato gazte baten aurrean gertatu bide nintzan usterik txikienean: abotsak eta sexoak ez bestek bizkortzen ninduten. Gorputz hura emakume baten gorputza izankizun zan beharbada, ez hartara heldua dana-dala...

Eta igesari emateko gogo nabaitu nuen... «Bi gaisto hauek ez dute hazi nahi izan», esan zidan, bi eskuez nolabait bere neskatilla-bularrak baliarazi nahiz. Oraindik ere goragalea sendi uste dut. Gajoa! Jaungoikoak berak zuzenean zigortu ninduela pentsatu nuen orduan, iñoiz baiño itsusiago eta hutsago agertu baitzitzaidan pekatua. Gaur, aldiz, emakume harek guztiz emakume-gorputza ez zuela baizik ez

nuke pentsatuko, eta kontutan ez nuela hartu... Mekanika-saio bat izan bide zan gerokoa: atsegiña mekanikaren ondorio zirudien ohe hotz hartan zentzugabekeria hutsa! Ez berriz, iñolaz ere, horrelako batera lerra! Zin egin nuen, eta zin egingo nuke oraintxe berean: gorputzen hurbiltasunari arimen hurbiltasuna datxeko. Bata bestea gabe ez da zentzugabekeria eta hutsa baizik. Pekatu-iturri eta tentaldi baiño uxagarri eta ukabide ziurra iruditzen zait arrats hartako urratsa. Eroriko-mota hartatik behin eta betirako sendatu naizela iruditzen zait...

la-ia izutu egin zan bere aurreko bidexkatik apaiz zahar bat igarotzen ikustean. Zergatik begiratu ote zion Pierre'ri era hartara? Murgilduta zegoen hau arras oroitzapen hits eta atsekabe haietan; eta agure harek ba bide zekien dana. Behar- bada apaiz gisa ezagutzen zuen?

—Hura berriz ez! —ekin zion gogoetari—. Ez nau Elsa'ren ukoak iñolaz ere hartaratzen. Atsegiñaldi sakona beharko nuke gaur; eta hotzean ordaintzen eta mekanika modura lortzen dan atsegin-apurra ez da ez sakona eta ez ezer. Garratzago egingo luke nere etsipen guzizko hau. Neri dagokidanez, bederen, hauxe iruditzen zait egia: sendimendurik gabeko atsegiñik ez dago: sexoaren teknikak ipuiñak dira. Atsegiña arimak ematen du, ez gorputzak; eta hau baita haragikeriari buruz. Puta baten eskua esku bat da; baiñan Elsa'rena parabisuko ataria.

Ezagutzen zuen emakume bat nahi zuen Pierre'k arrats hartarako. Nor, ordea? Elsa'z oroitzen zan eten gabe, baiña lazki baztertzen zuen oroitzapena.

—Gaur, bederen, beste batengan nahi dut nere burua ematu. Asmoz behintzat hiruzur egiteko gogoa eta beharra nabaitzen ditut. Izkutuan lapurtutako atsegin labur horrek birrerosi egingo bide nau, salbatu egingo nau hein batean. Sei- rehun-eta-hogei-ta-hamar liberaz, ordea, zer egingo? Deus ez! Pekatu egitea bera aberatsen abantailla da! Kondenatzea bera ez dago txiroen eskuar: txiroek nahi-ta-nahiez zerura behar dute! Jaungoikoaren beraren hitza batetik, eta pekaturik ezin egitea bestetik... zer geldituko halakoei azkenean, ifernura eziñik, salbamenduaren ipuiñaren izurriteaz gain?

Eta jaiki egin zan, eskubitara joaz:

—Ez dira gauzak garaiz pentsatu ohi. Lieja'ra ez, baiña Emakume-Katolikoek Ekintzako kapellau izan behar nuen nik... Emakumeak ezagutzea zailla dan ezkerok, mauka bat dira apez-lan horiek; eta nik garaiz erreparatu ez...

Eta irribarre egin zuen.

Irakurle ez-ezagun hura bezelaxe, Pierre ere beltzargei begira gelditu zan lipar batez; eta zingira paketsu batean beltxarga zuri geldi bat igeri baiño ikuskari olerkitsuagorik mundu huntan ez dagoela siñistu zuen. Edertasunari sustraiez josirik, berriz, Elsa'ren oroitzapena zetorkion: Elsa'ren begirada berriz islatzen zan aurrean, zingiraren ispilluan; Elsa'ren besoa heldu uste zuen zorionik bizienean bidexka illun haietatik ixilka biak pasean; Elsa'ren algara alaiak entzun uste zituen ur-xirriparen erasian gailen... Eta malenkonia eder eta epel hari uko egiñik, alde egin zuen bere burutik, iges egin zuen egia esateko.

Itsustasun egarria nabaitu zuen bapatean, Elsa'ren irudia ezainkeriaz estali nahirik; eta Schaerbeek'eko kaleetan barrena aurkitu zuen. Hegoaldean neonezko argiak piztutzen hasiak ziran, eta gosetu ere egin zala iruditu zitzaion:

—Siñale ona!

Etxera joan, ahalik eta dotoreen jantzi, anaiarentzako zan zorro hartako milla libera haiek hartu, eta Brouckère-enparantzara jetxi zan. Zortzi t'erdia.

Sexo-mentura bat lortzera osoki deliberatua zan Pierre.

Anitz pekatari aitortu ondoren (ez aspaldidanik halere, egia esateko) ba zekien Pierre'k haragikeriari buruz zerbait. Baiña katalogo batean ikus ditezkean salgaien gisa: haragien pekatuen lerrokada oso bat errazki eman zezakean.

Baiñan ia haur bat bezin garbia zan funtsean.

Rogier-aldera jo beharrean, «kabaret»en batera jotzea hobe zala bururatu zitzaion. Zergatik hobe? Gauza bakar batengatik: Pierre'k emakume bat nahi zuen, ez gorputz eme huts bat. Kabaretetan, iruditzen zitzaionez, «gizatar»ago izango zan gertakizuna: alegia, luzaz hitzegin mahain batean edo barrean «adiskidesa» berriarekin, arimen arteko hurbiltasuna hein batean bederen lortu, eta gero, uste zuen bederen, mekanikeriari gizatar nahikunde bat nagusituko zitzaion.

Ipar-aldera jo beharrean, hitz batez, Van der Elst, Cirque, eta Fleurs-kaleen aldera jo zuen. Koloreetako argiak pizturik zeuden, eta barretako atarietan emakume nabarmen batzuk ikusi zituen. Antziñako barne-kezka hura nagusitzen hasi zitzaion; eta, hartan zegoelarik, ginbailladun gizon batek geldiarazi zuen besotik, begiaz kiñu bat egiñez:

—Gazte hori: primerakoa duzu hau. Laister hasiko da «strip-tease»a. Neuk aginduta, jauna: danak zoragarriak! Horiek gorputzak! Benetan! Ez hori bakarrik. Hara...

Besotik heldu zuen Pierre. Kapeloaren hegalean, urraidezko letratan, hau irakurri zuen hunek: «Chez Mimmy». Atea erdi zabalik zegoen; eta barrean, argi gorritan murgildurik, emakume gazte bat somatu zuen, gonak motz, besoak agerian, orrazkera gora, baso huts bat bere aurrean, eta zigarro bat eskuan.

—Ikusten duzu hori? Oso atsegiña da. Ziur egon zaitez: bukatzean, nahi duzun lekura eraman ahal izango duzu. Ulertzen duzu? Suzanne deritza.

Suzanne dalakoak eskuaz agurtu zituen barnetik.

Siñistu egin behar zuen Pierre'k; eta agur irribarretsu harek, bi urtez lehenago beste batek bezelaxe, hunkitu egin zuen barrean: hartu-eman gizatar bat iragarri bide zuen.

—Baia? —galdetu zuen, erantzunaren zai egon gabe.

—Bai, jauna. Ez zaizu damutuko.

Sartu egin zan Pierre Meunier. Gela haundia zan, luze xamarra, apaingarriz betea, lurrean alfonbra gorritz ornitua, eta atzekaldean mahain batzuk. Bezeroak ez bide ziran etortzen hasiak; bederatzi t'erdia, irakurri zuen erlojuan.

Barrean Suzanne ez-ezagun hura ikusi zuen; baiña zuzenean bere ondoan exeritzen ez zan ausartu. Barrurago, danak illunpe gorrixka hartan inguru bat egiñez, emakume mordo bat ikusi zuen: sei, zortzi, hamar; gehiegi, dana dala.

—Zer nahi duzu, jauna? —galdetu zion barmanak, Pierre eta Suzanne'ren artean hiruzpalau metro ziralarik. Gizasemerik batere ez, barmanaz eta Pierre'z beraz kanpo.

Txuri bat, otoi —esan zuen Pierre'k—. Eta «goizegi etorri naiz» pentsatu.

Baso fin luze bat ekarri zion berealatik. Eta besterik gabe salneurria entzun zuen:

—Larogei libera, jauna. Zerbitzurik gabe, noski.

Kolpe latz bat izan hau Pierre'rentzat; baiñan ixildu egin zan, jakiña, eta bere izua ahalik ongienik izkutatu. Ehun liberatako txartel bat eman zion, eta hamar libera baizik ez zuen sakeleratu:

—Habaille ederra, alajainkoa!

Aberatsen kontrako gogoetak alkargainka zetozkion bere barruan; baiñan alde batera uzten saiatzen zan:

—Gaur pentsatu gabe funditu behar duk burua, motel. Jai daukak bestela! Utz moralkeriak alde batera!

Ezin izango zuela ba zekien, baiña axolagabekeria osoa behar zuen gau haragikoi hartan.

Hamarreko mordo hartatik berezirik, hogeita-hamabost bat urtetako emakume zabar bat ondoratu zitzaion. Ofizioaren ezagugarri guziak topatu zituen Pierre'k: ezpaiñak gorriegi eta koipetsuegi, illea ditziranteegi, begiak beltzegi, urriña gozoegi, haragiz gizenegi, abotsez lakarregi, jazkeraz nabarmenegi, hizkeraz azkenik ausartegi. Gehiegikeria guziak batera, eta emakumetasunaren arrastorik ez. Likiskeria saltzaille bat.

—Gabon, adiskide. Zertara gomitatzen nauzu? Whisky'ren bat? —galdetu zion Pierre'ri, ondoko aulki luze hestuan exeritzean iztar zurixka lodi lazen erdia erakutsiz.

—Gabon, bai. Sartu berria naiz. Utz nazazu, beraz, pittin bat dana ikustera —emakume hari «ez» esateko era egokiagorik ez bururatuta.

—Ez zera oso atsegiña nerekin.

—Sartu berria naiz —ekin zuen Pierre'k— eta ikusi egin nahi dut lehendabizi.

—Ikusi... ikusi... Gure jauntxoak bertako kabala, bertako azienda, ikusi behar du aurrenik. Ez da hala? Azokan bezela!

Eta guztiz higuindurik mordo hartako bere lagunetera bildu zan.

Lehenengo bere larrialdi hura gaindituta gero, lasaitxoago gelditu zan Pierre: «Bakarrik!», pentsatu zuen. Emakume-talde hartara begiratu zuen, eta argi epel gorrixka hartan bederen puta-itxura antzeman zien ia danai, eta gogaituta edan zuen ardo-zurrutatxoa bat. Igesari emateko gogoia etorri zitzaion, bi urte lehenago bere ohaidea erantzi zanean bezelaxe; baiñan iges egin, nora? Saiatu aurretik potto egingo ote zuen?

Suzanne izeneko hura ez zitzaion «ofezio»koa iruditzen; eta bezeroren bat sar, eta aurrera zekion bildur, mintzatzen saiatzera ausartu zan.

—Gabon, Suzanne.

—Gabon. Nork esan dizu nere izena? Ez dut uste gaur baiño lehenago hemen ikusi zaitudanik.

—Kanpoko zuen aingeru zaindaria salatatu dit.

—«Aingeru zaindaria» esan duzu? Hemen ez dago gutzaz kanpoko zaindaririk; eta aingerurik...

Emakumeen mordora begiratu zuen Suzanne'k, eta hau erantsi:

—Horra hor hemengo «aingeruak». Ez dut ezer ez asmatzen eta ez hanpatzen: «Tu es un ange» hitzak maiz entzun dituzte pareta hauek...

Hitz desegokiak esan zituela iruditu zitzaion Pierre'ri: zalantzarik gabe ez zan giro haietan «usatua», eta ezagun zan.

Gizon dotore barnekoi bat sartu zan, eta barraren muturrera joan zan iñora begiratu gabe; eta azken aulkian exerita, barne-hausnarketa sakonetan ari izango bailitzan paratu zan, basoari begira. Gaueko erronda hasia zan.

—Eta zuk nola duzu izena?

Ustekabean harrapatu zuen Pierre galdera hunek.

—Pierre deritzat neri.

Esan orduko damutu egin zitzaion. Zer egin, ordea? «Egia esan beharraren ohitura zozo hau, seta burugabe hau hobe»...

—Brusela'n bizi zera?

—Ez, ez... Zera... Brusela'n nago egun batzutarako. Ni flandretarra naiz.

—Hara! —erantzun zuen Suzanne'k—. Ni frantsesa naiz, Douai ondokoa. Ia-ia belgikarra, beraz.

Hasierako hestuasuna gainditurik zegoen. Emakume atsegin batekin hizketan ari uste zuen Pierre'k. Elsa'ren oroitzapena bapatean bigarren maillara aldatua zirudien.

—Zer hartuko dugu, Suzanne? —galdetu zuen Pierre'k—. Bien begiradak lehenengo aldiz gurutzatu ziran. Zenbat urte ote zuen Suzanne harek?

—Xanpaña-botilla erdi bat bion artean?

—Eta, hori zenbat da? —Pierre'k berealatik.

—Jacques —esan zion Suzanne'k barmanari—. Emaiozu, arren, edarien lerrokada.

—Bai, Simone.

Burua galdua ote zuen bururatu zitzaion Pierre'ri. Salneurrien illara merketik galestirako irakur zitekean goitik beherakoan: ardo txuri baso batek, 80 libera; gorriak, 80 libera; beltzak, 80 libera; manzanillak, 100... xanpaña'ren lerroak billatu zituen izaturik: botilla erdi batek, 650 libera; botilla osoak, 1.200 libera...

—Ni ez naiz dirudun bat, Suzanne. Har ditzagun bi txuri.

—Ai, ai —erantzun zuen Suzanne'k etorkor—. Beti bat. Beti omen zaudete gizonak moltsa tturrinduta, azken sosetan, azken txanponak xahutzeko bildurrak.

—Ez da itxura. Dirurik ez dut. Nere kartera murrirtza dago.

—Ehun-da-hirurogei libera, jauna —esan zuen barmanak—. Zerbitzuaz kanpo, noski.

—Bai, jauna.

Pittin bat galazten zuen Pierre segittuan ordaindu behar harek. Baiña Pierre'k siñistu egin nahi zuen gau hartan, eta irribarrez ekin zion alkarrizketari. Suzanne'k bere biziera azaldu ala (egiazkoa ala alegiazkoa izan, ia berdin bide zitzaion Pierre'ri lehenengo aldiz) emakume bat aurkitu uste zuen azkenean. Eta hunek bizkortu egiten zuen.

—Ez duzia zigarrorik, Pierre? —galdetu zion Suzanne'k. —Ez.

—Ez didazu paketetxo bat erosten?

Xehetasun hunek ere galazi egin zuen Pierre: hauxe zan, somaturik ere, aurkitu nahi ez zuen merkatalgo-giroa: «Ez didazu hau ordaintzen? Ez didazu beste hori ordaintzen?». Gaitzi zitzaion egia itxurari nabarmentzea.

Beste bi txuri aterarazi zituen. Gizasemeak etortzen hasiak ziran: horietatik batek emakume lerden eder kirru bat agurtu zuen sartzean, eta atzeko mahain izkutu batera eraman zuen, xanpaña botilla osoa zerbitzaraziz.

—Milla ta berrehun, beraz, pentsatu zuen Pierre'k eskaera entzutean; eta berrehun bat eskupeko, milla ta lareun... Hasteko! Eta bezero ezaguna bide da hemen... Mundu hunek ez du soluziorik: hau garbi dago!

Barru aldera begira jarri ziran Suzanne eta Pierre, barmanari bizkarra itzuliaz beraz.

—Orain segidan, gaur gaueko ikuskizunari hastapena emateko, Linda Daveau! —altabozak iragarri zuen.

Are illunago jarri zan dana, eta argi foko more batek zurbildurik, arabitar jazkeran, gelaren erdira azaldu zan Linda hura.

Ez zuen Pierre'k «strip-tease»rik sekulan ikusi, eta hau nabari zedin bildur zan.

—Oso ona da, ikusiko duzu —esan zion Suzanne'k—. Neska hau berria da kabaret huntan. Ba dakizu: oso denbora laburra egin ohi dugu denok lantoki hauetan. Maiz aldatzen gera batetik bestera.

—Bai, bai —erantzun zuen Pierre'k burua itzuli gabe, eta gezurrezko segurantzia abotsari eman nahiz.

Erazkera hura ez zitzaion Pierre'ri batere haragikoia izan. Mogida batzutan, bai, azkenekoetan egia aitortzeko, beroaldi berri bat nabaitu zuen bere zaiñetan, bazter berritara agertuko bailitzan; baiñan ez zan txoratu. Hunek lasaitu egin zuen, Suzanne'ren aurrean «ezagutzaille»aren jokoari ekin ahal izan ziolako; baiñan etsi ere bai, gau hartan haragiaren atsegiñak errotik eta osotara dastatzeko hirrika zuelako.

—Dantza egin nahi duzu nerekin? —galdetu zion Suzanne'k, Linda'rena bukatutakoan.

—Ez dakit egiten.

—Tira, tira; danok esaten duzute gauza bera. Neuk erakutsiko dizut. Hemen, gaiñera, ez gera oso ye-ye; eta urrats bat batera eta bi bestera egin ezker, egiña da.

Pierre'k ez zuen ia iñoiz dantzarik egin. Egin zuen, bai, aspaldian, familiako bilkuretan, batez ere bi izeba zaharrekin. Zenbat denbora lehenago? Hamabost urte ote? Hemezortzi? Hor nunbait. Baiñan ezer esan ezker guztiz galduta legokeala siñistuta, bihotza kikildurik erdira irten zan. Zorua beltza eta labaiña zan eskualde hartan. Eta, harrigarria, moldatzen zala iruditzen zitzaion.

—Ikusten duzu? —zion Suzanne'k—. Txit ondo egiten duzu. Zu bezelako gizon batek hau jakin ez? Nori siñistaraziko zenioke halakorik? Ba nengoen ba ni!

Ametsetan bezela entzun zituen Pierre'k hitz hauek, eta siñistu egin zituen. Eta bere dantzari-eskasia batez ere izkutatu nahirik, hestutu egin zuen Suzanne bere kontra. Hestutze berean Elsa'z oroitu zan bortizki; baiña Simone'k burutazio hura utzarazi zion segidan:

—Zertan giñan beraz?

—Zure fotoa, ia harroparik gabe diozunaz, «Le Soir»en orain dala bost hillabete agertu dala zenion, kabaret huntara etorri aurretixek beraz.

—Bai, hori da. Ikusi nahi duzu? Hortxe duzu, pareta hortantxe, igandeko «Le Soir» bereziak argitara zuen fotoa.

Eta gelditu egin ziran; eta besarkaturik pareta haren aldera hurbildu ziran.

—Oso ondo, bai —esan zuen Pierre'k. Eta ez zuen gezurrik esan, horixe iruditu zitzaion eta.

Dantzari ekin zioten.

—Zenbat urte duzu, Suzanne?

—Hogei ta hiru. Baiñan ez iñoiz egin galdera hori hemengo askori.

Farre egin zuen Pierre'k, baiña behin eta berriz desegokiro ari zala nabaitu zuen.

—Eta zuk? —Suzanne'k galde.

—Hogei ta hamabi.

—Sartzen hasia zera, beraz, emakumeok maiteen dugun adiñean: pittin bat hotz, pittin bat sendigaitz eta gogor, sakelan diru mordoak biltzen hasiak...

Pierre'k hestutu egin zuen bizkorki Suzanne'ren eskua:

—Ez dakit siñistuko nauzun; baiña pozik nago zu ezagututa—irten zitzaien Pierre'ri bihotzetik.

Eten egin zuen musika une hartan, eta gure bi lagunak barrera itzuli ziran. Pierre'k ez zuen Suzanne'ren eskubiko eskua laxatu, eta oso beroa zeukala erreparatu zuen.

—Beste bi txuri, arren —esan zuen Pierre'k.

—Eta berealaxe —altabozak berriz ari— Simone Monge, Kappurtala'ko mirabe bakartia!

Foko berde batek billatu zuen Simone dalakoa aretoaren atzean.

—Zer moduz hau? —galdetu zuen Pierre'k.

Eta galdetzarekin barnea asaldatzen zitzaiola nabaitu zuen: argi berde harrigarri hartan, garden bihurtzen zuen Suzanne'ren soiñeko ariña, eta ondartza batean ikusiko zukean modura topatu nuen, argiaren berdeak mixteriotuago eta zirikagarriago aurkezten ziolarik. Odol ukaldi haretxen billa ari zuen Pierre, eta asaldatu hain batean poztu zuen.

—Baiña, Suzanne... txit ongi zaude.

—Zer? —erantzun zion hunek oharkabe itxuran.

—Ez dakizula zer, ez didazu siñistaraziko. Begira zure iztarretara.

—A, bai! Harrigarria da argi hunek lortzen duena... Gizonok nahi duzutena, ez da?

Simone Monge han ari zuen, lizunkeriatan baiño txorakeriatan Pierre'ri iruditu zitzaionez. Suzanne'ren eskua beti helduta, alkarrizketari ekin nahi zion Pierre'k, hau begiratzeko aitzekia baitzitzaion. Baiña urrikaldu egiten zitzaion batera; eta sendimendu burugabe hura izkutatzen saiatu arren, esan egin behar izan zion azkenean. Hauxe zuen, gorputz hura hestutu nahi beroarekin batera, Pierre'z nagusitu zuen nahikundea: nola aterako neska hura giro pozointsu hartatik?

—Zelebrea zera, Pierre —esan zion Suzanne'k azkenean—. Ez naiz ni hemen uste duzun bezin cupidagarri. Ni ez naiz Aerschot-kalean exerita ikus ditezkean horietako bat. Nere lana ez da hemen

zuk uste duzuna. Artista bat naiz ni. Gizon bat atsegin zaidanean, orduan eta ez beti, zerbait gerta ditekere nere eta bere artean. Gaiñerantzean ez. Lan hau egiten ez duten emakumeak, beraz, eta gu geu, horren desberdiñak gerala uste duzu benetan?

—Eta ni atsegin natzaizu oso? Alegia... nerekin aurrera joko ahal zenuke?

—Ez dakit. Ez dut hortaz oraindik pentsatu. Izan liteke. Atsegin zatzazkit. Bezero asko baiño legunago eta begikoago antzematen zaitut.

Bi urte lehenago kale ez-ezagun hartan gertatu zitzaiona Suzanne'rekin gertatzeko arriskurik ez zeukala nabaitu zuen. Eta lotsatu egin zan bere buruaren aurrean burutazio linburi hau izatean. Uste huntantxe finkatu zan ordea Pierre dantzara berri harekin, oso baikor, arratsaldeko gertaera hitsaz ia-ia ahazturik.

«Strip-tease»ren agerraldiak berdintsuegi ziran. Miñutuak aurrera zijoazen; eta Pierre oso pozik zegoen bere Elsa-aizun berri harekin, oso baikor, arratsaldeko gertaera hitsaz ia-ia ahaztuta itxura zanez.

—Piska bat maite zaitudala esan liteke, ez da? —esan zuen ziplo Pierre'k.

Baiña Suzanne'k ez zuen erantzun.

Ezagutzen ez zuen ausardia bitxi batek bultzaturik, aurpegia Suzanne'renaren kontra jarri zuen; eta emakume batengatik pekatutan eror ditekera ulertu zuen. Bi urte lehenago mekanikaldian ez zuen ulertu.

Pareka zijoazen txuriak, eta zigarroak ez hurriago.

—Noiz izango duzu zure ekitaldia, Suzanne? —galdetu zion Pierre'k, aukietan berriz exerita zeudelarik.

—Gaixto hori! Zertarako jakin nahi duzu? Billuzik ikusi nahi nauzu? Argi berdetan somatutakoa ez duzu aski? —esan zion Suzanne'k begi ditzira bitxi batez begiratuz.

—Bai, Suzanne. Horixe da egia.

Eta Pierre'k hau esaten Suzanne'ren iztarrean jarri zuen eskua, eta hestutu. Soiñekoa oso fiña eta oso labaiña iruditu zitzaion, eta iztar gogortxo hura aspaldidanik behar zuen sari izkutua.

—Jinasia egiten duzu?... Eskuztagarri dago, ziñez diotsut.

—Dana dago horrela nigan: hor-eta nun-nahi —esan zuen Suzanne'k lizunki. —Hauek ere bai. Ez duzu zerorrek egiztatu nahi?

Eta bi bularrak hurbildu zizkion, eskuez pittin bat altxatuz. Ez zan Pierre ausartu, eta Suzanne algaraz hasi zan. Azken puntuan geldiarazi zuen Pierre'k bestetango atsekabe muziña: bi urte eta aurrean zekusen edertasun hura ez bide zitzaizkion aski. Lotsatuta zegoen, eta denbora berean hirritsaren dei kiskalgarriak guztiz menderaturik.

—Goazen berriz dantzara? —galdetu zuen Pierre'k, ateka hartatik jaregin nahirik.

—Dantzarako bildurra galdu zaizu, ikusten dudanez...

Dantza-lekua jendez bete zan. «Guantanamera» jotzen hastean, erritmu ekille harek bizkortu egin zuen bere ausardian. Beharra ba zuen.

—Hala da, bai. Baiña... beste gauza baten bildur naiz.

—Zeren bildur?

«Guantanamera» bukatzean, slow bat hasi zan; eta bien aurpegiek alkar ikutzen zuten berriz.

—Gaua bakarrik pasatzeko bildur naiz, Suzanne.

Nundik lortu ote zuen Pierre'k halako ausardiarik? Ez zekien.

—Mamuen bildur zure adiñean?

—Suzanne'k eztenka nahiean.

—Ez, ez: zeu gabe pasa beharko ote dudan bildur hain zuzen. Nora goaz, Suzanne? Nora goaz oraintxe alkarrekin?

—Irabaz nazazu, beraz —irriz Suzanne'k. —Baiña lana bukatzean. Bukatu artean ez daukat hemendik mugitzerik.

—Zenbat behar duzu? Jator mintzo natzaizu.

Kontua egin zuen ixtante labur batean Pierre'k, eta hirurehun bat libera baiño gehiago ez zuela karkulatu zuen. «Nere galdera zozo baten galdera da. Berriz ere! Apaiztegian izorratu ninduten, bai. Zozoa naiz betirako!».

Musika gelditu egin zan. Beti eskutik heldurik Pierre'k eta Suzanne'k barraren ondoko beren bi aulkietara jo zuten.

—Beste txuri bana, Pierre? —galdegin zuen Suzanne'k.

—Tira ba! Erreka joko dut zugatik.

Beste bi txuri, Jacques —eskatu zuen Suzanne'k barmanari begiraturik. Hunek kiñu bat egin zion irribarrez, baiña Pierre'k ez zuen erreparatu.

—Bai, ikusi dut, Jacques. Milla esker —Suzanne'k barmanari.

Eta Pierre'ri erantzunez, ekin zuen:

—Erreka jo? Hasieran ere gauza bera esan duzu; eta ez zan egia.

—Ez, Suzanne. Orain egia hutsa da.

Eta toxa zabaldurik, arteka guziak erakutsi zizkion, esaten ziolarik:

—Huntan ezer ez, huntan neuk bezela ikusten duzu zuk, berrehun libera... huntan, berrogei... eta, kitto! Ez dago besterik. Benetan.

Eta besotik heldu zuen, beste zigarro bat erretzen hastekotan. Suzanne askatu egin zan arinki ustekabeaz, Pierre'ri esanez:

—Barka segundu batez. Bezero eta adiskide dudan jaun bat sartu da arestian, eta agurtzera noa. Heldu naiz.

Beroak zegoela nabaitu zuen Pierre'k; eta gazte mordo bat sartzerakoan atea zabaldu zanean, gogoz hartu zuen arnasa haize bala hozkirri hartan. Urdin illunez jantzitako gizon gazteari musu bat eman ondoren, atearen ondoan gelditu zan Suzanne, «adiskide» harekin berriketan; eta lehenengo aldiz aspaditxo hartan, erlojua begiratu zuen Pierre'k: ordu biak eta hamar! Siñistu eziña zitzaion.

—Ikusten duzu? Hemen nauzu berriz —esan zion Suzanne'k itzultzean.

—Goazen berriz dantza egitera?

—Ez. Nekatuta nago. Laister gaiñera nere agerraldia egin behar dut, eta oraingoan dantzarik ez egitea hobe dut.

—Ongi da —erantzun zuen Pierre'k desgogara.

—Zer edango dugu? Beste txuri bana? Beti txuria? Zergatik ez Xanpaña-erdi bat?

Bien artean zerbait zaharrakatzen zala nabaitu zuen Pierre'k.

—Baiña, dirurik ez dut!

—Ba, ba, ba! Beti lelo berbera!

—Ezetz, Suzanne. Ez dut besterik. Benetan.

—Utzi egin beharko zaitut, beraz. Nere lagun hori zai dago, eta zuk ezer ordaintzerik ez baduzu, ezin naiteke zurekin segi. Luzaz egon naiz: lau bat orduz...

—Ez nuen siñistu nahi —erantzun zuen Pierre'k, doiñua arras aldatuz. —Baiñan orain etsi egin behar dut. Desberdiña ziñala uste nuen. Oker egon naiz!

Eta zigarroaren kondarra lurrera bota zuen.

—Ez farragarrari izan, arren. Ni hemen nere lantokian nago. Ez naiz nere buruaren jabe. Zu atsegiña izan zera nerekin, ez dizut izkututzen. Beste batean baldin bazatoz, hemen aurkituko nauzu. Bazkaltzerakoan «Sole de Torrento» deritzan bazkaldegian aurki nazakezu; ezin dut gehiago esan. Eta bazkaldegi horren zuzenbidea eman zion; baiña Pierre'k ez zuen entzun.

—Dirua xukatu didazu... Orain beste batengana!

—Agur. Ez bitxia izan, arren. Etxekoandreak gogor hartuko nau gero halere, ziur nago. Uler nazazu. Agur. Urrena arte.

Pierre'k ez zuen ezer erantzun.

Argiak itzaldu ziran berriz, eta mikrofonotik lehengo abots berbera entzun zan:

—Eta segidan Vivianne Chagny, martinikar paregabea, «Ekialdeko Esnaera» deritzan agerraldi kilikagarrian.

Zillarrezko jazkiak berriz nabarmendu ziran illunpeetan ñir-ñir. Mogida lizun batzuen ondoren, Vivianne gelaren barrenuntz begira jarri zan; eta kanpoko gona ditzirantea atzeko aldetik askatu zuen, berriro ikusleekiko aurrez aurre agertu aurretik. Higikera nabarmen berdintsu batzuk bigarren aldiz, eta berriz ere ikusleei bizkarra erakutsiz, sostea askatu zuen. Sasi-mixerio askoren artean itzuli zan ikusleetara. Pierre'k ez zuen besterik begiratu; eta ezer gehiago ikusi gabe kalera irten zan. Haizea gazte eta bizi atxeman zuen, eta sakonki hartu zuen arnasa.

—Ça a été, n'est ce pas, Monsieur? —galdetu zion atarian kapeloaren zaindaria.

—Ça a été, quoi? —Pierre'k sutan.

—Eskupekoren bat bederen emango didazu. Ezta?

Pierre'k ez zuen ezer erantzun, eta Jacquain-kalearen aldera jo zuen azkarki. «Eskupekoren bat»...

Haserre bizian zijoan, etsipen osoan, txularme guzi-guzietatik nazka zeriola.

Bapatean gelditu egin zan, eta atzera egin zuen; eta «Chez Mimmy»ren parean berriz zalarik, agurtu egin zuen kabaret-zaiña maitekiro, eta patrika guztiz hustuz esan zion:

—Tori. Berrehun eta berrogei libera. Zuretzako.

—Baiña... jauna... ez da ohitura hunenbeste ematea... Ba nekien nik, dana dala, Suzanne oso atsegiña dana.

Eta lelo bakartzat hau erantsi zuen: «Anitz esker, jauna... Anitz esker, jauna»...

Pierre'k ez zuen ezer erantzun oraingoan ere.

Etixerako bidean negar egin nahi zuen; baiña, berriz ere, malkoak falta.

Hortzean, aldiz, izar guziak agiri.

Udaberriko gau zoragarri bat, egunsentiruntz abiatua

XXVI

—Zer moduz, Elsa? —geldiarazi zuen Mons'eko geltokiaren ondoko plazan gizon gazte batek, Volkswagen berde bateko leihotik besoaz hartuz.

—Nolako izua eman didazun, Romain! —Elsa'k arnasa hestuan.

—Barka nazazu, Elsa. Aspaldi huntan zu ez ikusirik ere, atzetik begiratze hutsa aski dut zeu zerala jakiteko.

—Nolako izua! —Eta arnasa hartu ondoren, irribarre egin zion. Baiñan irribarre hunek ez zuen Elsa'ren tristura-muziña arras ezabatu.

—Barka, berriz ere, Elsa. Zer moduz? Igo zaitetz.

—Ezin dut. Trena hartzera noa hain zuzen.

Eta erlojua begiratu zuen: seirak eta hogeit... Hamar miñutu ditut beraz.

—Nora joateko?

—Brusela'ra. Atzo goizean etorri nintzan, eta bihar goizean lanean hasi behar dut berriz.

—Hara noa ni ere. Neuk eramango zaitut, beraz. Kotxe hau zatarrak da, baiña haraiño bederen eramango gaitu, nik uste. Elsa zalantzan egon zan miñutu erdi batez; eta azkenean berebillaren ingurua egin, eta sartu egin zan.

—Noiz ezker ez zaitut ikusi, Elsa? Utz nazazu zu ikustera... Beti bezin ederra zaude! Zure begirada lehen baiño tristeago egin da. Noraiño pozik nagoen, Elsa, zu berriro ikusita!

—Kontuz, Romain! Argiak gorri jarri dira.

—Bai, bai. Ikusi ditut. Ez dut ulertzen...

—Zer ez duzu ulertzen?

—Zure patua ez dut ulertzen, Elsa. De Potter'ena jakin dut.

—Zer?

—Dana jakiten da azkenean. Mons'eko guziok ezagutzen dugu zure zoritxarra. Jemappes'ko guziok, alegia, eta Mons berean ezagutu zaitugun guziok.

Kolpe dorpe bat nabaitu zuen Elsa'k azken hitz hau entzutean: «zoritxarra», alegia... Zergatik egia egiazko izenaz esan?

—Pozik bizi naiz Luc gabe. Poziago lehen baiño. Orain nere buruaren jabe naiz...

Hitz hauetan ez zuen Elsa'k bat ere siñisten.

—Elsa... Beranduegi jakin ohi dugu dana. Beranduegi jakin ohi dugu zein zan gure bidea.

—Ez nitzaz kupida! —esan zuen Elsa'k goragotik. —Azkeneko bi urte hauetan lasai bizi izan naiz.

—Zozoarena egin zenuen Luc aukeratuta. Elsa... Elsa; ez dakit nola esan... Baiña, urteak joanak zaizkigulako beharbada, gaztetan aitortuko ez nizuna gaur aitortuko dizut. Ez, noski, bihotzez maite zindudala. Hori ba zenekien...

—Ez nekien —esan zuen Elsa'k harridurarik gabe, baiña bestetan baiño barrurago zijoazkiola hitz haiek.

—Tira, tira: utz ipuiñok. Hasieratik beretik dakizute emakumeok nork maite zaituen, nork nahi zaituen, eta nork maite eta nahi.

—Ez zaigu horren erraza, ez pentsa.

Zelaia beti berde eta beti zabal Brusela'rako bidean.

—Nik ez nizun emango Luc'ek eman zizkizunak, egia da. Hogeita-hamabost urte ditut aurten, eta nere Volkswagen hunek 74.000 kilometro ditu... omen! 174.000 eman dezagun... Baiña nik azkeneko 7.000-ak baizik ez egiñak... Baiña nik, siñistuta egon, ez zindudan sekulan utziko.

Dardaratu egin zan Elsa goitik behera:

—Neuk utzi nuen bera, ez berak ni —erantzun zuen bizixko, eta harrokerian nabarmen zauriturik.

—Ez da hori zure herrian zabaldu dan fama. Baiña berdin da. Luc'ek utzarazi dizu, Luc'en jokabidea izan baita zure utzi- beharraren iturburua.

Elsa'k begiak beheitu zituen: «Dana jakin da. Egia jakin da... Luc'ek engañatu nauela ba dakite: hunetxek mintzen nau gehienik!», pentsatu zuen.

—Barka, Elsa.

—Luc gorroto dut! Ez naiz kupidagarri! —goratik—. Zorionsua naiz!!

Alkarrizketa ateka hartatik atera nahi zuen Romain'ek; eta, giroa nolabait gozatu nahian, esan zion:

—Neu naiz kupidagarri, Elsa. Neu batez ere!

Soignies'ko argi guziak pizturik zeuden, baiña egunargia ez zan bukatua. Kale koloretsu haien artetik pasatzeak, esnatu bide zuen Elsa lokamuts hartatik:

—Bildur ziñan beti, eta nik ezin nuen lehenengo urratsa egin —ekin zion Elsa'k askoz ere apalkiago, eta hasierako hariari eutsi nahiz.

—Bost axola, Elsa. Gaur beranduegi da. Haur bat nintzan orduan: hemezortzi urte. Zugan ez nituen begiak besterik erreparatzen. Miñutu batez zeharka zu ikustea, bi astetan barrena pozik egoteko aski zitzaidan. Ez nuen besterik nahi, benetan.

—Beroarena ken!

—Elsa: horixe duzu egia. Zin dagizut. Ez dut fitsik hanpatzen.

—Eziña da hori.

—Horixe da egia hutsa halere. Ezkongai nago; eta ametsetako emakumerik ez dago neretzat, eta ez da iñoiz izango. Ametsetako emakume hori zeu ziñan. Geroztik... deusik!

—Baiña, zer duzu gaur? —moztu zuen Elsa'k farrez, baiña sendimenduan sakonki hunkiturik.

—Ez dakit, Elsa. Orain berandu da. Uste asko pasa da zuri buruz etsi nuen ezkeroztik. Ba dakit zure bidea nerea ez dana... Bestetik beharbada, udaberria, arrats gorrixka hau beharbada, ni zuri mintzatu ala bukatzen hasia; nere kotxean zu ikustea, nola ez!... Dana nahasian.

Hasieran pozgarriago izan zitzaizkion Romain'en hitz legun haiek mingarri baiño. Baiña barneraiño sartu zitzaizkion. Familian topatutakoen ondoren, bizkorgarri zitzaizkion alde batetik, galdutako

mundu gazte baikor haren zantzu ahaztua. Eta haurretandik ezagutzen zuenak ziona, bestalde, egia zan eskierki.

Baiña Tubize pasa orduko, sumindura garratz bat sortu zitzaion Elsa'ri, eta ez zuen ia hitzik erantzuten, begirada beti urruti lauean galdua; eta ixiltasunean pentsakor:

—Munduaren itsua! Romain hau nik mespretxuz hartzen nuen gaztetan. Egiazki maite ninduen, ordea; oraindik maite ote nauen ez dakit. Eta nik ez-ikusia egin ohi nion huni, seriotan ere ez nuen hartzen. Izutiegia zitzaidan, errespetu haundiegiz hitzegiten zidan, maiteminduegi atxeman uste nuen; eta ez nuen nik maite. Luc'ek, ordea, gogor hartzen ninduen, diruak ez bestek ematen duen segurantzia zeukan, Brusela'koa zan eta mundutarra beraz (hala uste genuen guk), ausarta eta lotsagabea zan nerekin (eta beste emakumerekin ere bai: gaur ziur nago). Askotan ahaztu egiten bide ninduen. Eta, horra: Luc'ez maitemindu nintzan osotara... Egia da nahastu nintzala; egia da, batez ere, gaur edozertarako beranduegi dala... Beranduegi: hitz ikaragarria, sentontasuna samintzen duen hitz bakarra, garaitu ez duten guzien ezintasuna alhatzen duen ideia nagusia...

—Zer duzu, Elsa? —ebaki zuen Romain'ek. —Ezer ez. Pentsakor nago.

—Bai, bai. Ageri da. —Bai. Aita gaixorik dago.

Ez zan hau aitzekia hutsa. Osagilleak ez zekien zer ote zan; baiña hiru aldiz eroria zan bi astetan, kordea arras galdua. Romain'ek geltokiaren ondoan besotik Elsa heltzean, eritasun hortaz ari zan hau pentsatzen; eta horregatik hartu zuen hain izu haundia, heriotzaren irudia ez baitzebillen Elsa'ren kaskoan txit urrun une hartan. Bestez ari zan oraingoan, egia da; baiñan egoki zetorkion lehenagoko katramilla egiazko hura aipatzea.

—Zerbait entzun dut, bai, lehengoan, Jemappes'en. Larria dea?

—Ez dakit. Baietz bildur ni.

—Oso maite duzu zure aita?

Ixillune bat gertatu zan bien artean.

—Zoritxarrak beti alkarrekin etorri ohi omen dira.

—Aski da, Romain!! —Elsa'k oihuka. Eta negar-zotinka hasi zan...

* * *

Volkswagen berdea Pâquerettes-kalean gelditu zanean, eta miñutu batzuen ondotik Elsa berebilletik irten eta etxera zanean, zortzi t'erdia irakurri zituen Pierre'k bere erlojuan.

Bi ordu luze hartan zai zegoen Azalees'ko zugaitzen azpitik. Azkenean, beraz, ikusteko bildurrak zegoena ikusi zuen: Elsa, alegia, etxera gizon batek lagundurik bihurtzen...

—Horra hor puta hori!!! —atera zitzaion erraietatik beretatik... Zer egingo? —Gogotsu begiratu zuen nor ote zan Volkswagen hartako etsai zorionekoa: bere adiñeko gizon bat somatu zuen. Matrikula begiratu, eta hau irakur bide zitekean: BR-762. Azalees-kaletik gora urruntzen begiez jarraitu zuen; eta eskubi aldera lekutu zanean, bizi-aldi berri bat has zezakeala iruditu zitzaion.

Zer egingo? Zer egingo? Nola edo hala hitzegin behar zion Elsa'ri: nola edo hala, eta gau hartantxe. Atzera ala aurrera egin behar zuen arazo hartan; eta egunean zehar azaltzeko prestaturik zeuzkan aitorpen guziak osorik eta emendaturik azaltzeko erabaki zuen:

—Nitzaz dan-dana jakingo du. Izan naizena, eta izango naizena. Hortara, jakiñaren gaiñean erabakiko du bederen.

Eta, gogortasun harrigarri batez orniturik, Pâquerettes'tik gora abiatu zan, Elsa'ren etxean sartzera deliberaturik.

—Ni sartuko, ala Elsa irtengo! Bietako bat. Rubikon'aren garaia heldu da!

Taupadak arrapaladan, tinbrea jo zuen. Eskubi-aldean bezperako letreroa irakurri zuen: «Elsa Scheelen», eta hotzikara bat sendi zuen goitik behera. Elsa'ren begiradak legunduko ote zuen bildur zan, eta hasieratik beretik mintzatu nahi zitzaion latz eta zakar.

Baiñan atea ez zan zabaldu. Berriz deitu, eta erantzunik ez. Hirugarren aldiz, eta luzeago; eta erantzunik ez. Nornahi izanik ere Elsa'k ez zuen ideki nahi: negarraldi etsian, igande arratsari gaiñerakoak erantsirik, Romain'en hitz xuxenak beti aurrean, ez zuen iñortaz deus jakin nahi. Pierre Meunier izan zitekeanik ez zitzaion burutik pasa ere egin.

Laugarren aldiz jo zuen Pierre'k; eta erantzunik ez jasorik, persianan jotzea erabaki zuen. Eskua hetsi zuen, eta ukabilka hasi zan su-ta-gar, Elsa nola edo hala irten-arazteko bermaturik. Erantzunik ez.

—Pierre Meunier naiz!!! Ideki zazu atea, ala okerrago izango da!

Argitasun izpi bat nabaitu zuen Pierre'k atariko atearen azpitik, eta poztu egin zan. Baiña laister itzaldtu zan hau ere; eta ixillaldia nagusitu zan.

—Ideki zazu, arren, Elsa! —oihu egin zuen karrasi bizian; eta atean bertan hasi zan ero-moduan ukabilka.— Hor zaude, ba dakit!!! Ideki atea!!!

—Jauna —entzun zan goitik—. Emakumearen egoera ahula da, eta «ezetza» da bere azken aukera. Scheelen andreak, gauza nabarmena da, ez du zurekin egon nahi. Uztazu pakean: emakume asko dago Brusela'n. Eta utz nazazu ni ere pakean: zalaparta hau jasan eziña zait.

—F... moi la paix, vieille taupe —erantzun zion Pierre'k, bere onetatik aterata.

—On va voir ça tout de suite, morpion! —erantzun zuen Laurent alargunak, leihoak soiñu haundiaz hetsiz.

Pierre ez zan bildurtu: une hartan ez zan ezerengatik bildurtzeko gauza. Baiña eskaka egon hura, ahulkeria hura beraz, gizon batengan egokia ez zala bururatu zitzaion; eta, bihotza sutan, Azalées aldera joan zan beheruntz, dana eta datena madarikatuz.

Polizia, hortara, Pâquerettes-kalera azaldu zan orduko, Laurent andreak berak azaldu zien dana; eta barkatzeko eskatu zien, galazten hasi zana aldegin berria baitzan. Ez zuen izenik aipatu, eta ez Elsa. Hunek, beraz, ez zuen istillu hartan parterik hartu; baiña, guztiz gogaiturik eta kezkatuturik, poliziaren joan-etorriak eta esanak entzun zituen bere gelatik. Eta galderatan eta saltsa berritan sar zezaten ikara osoak egon zan, atean noiz deituko zuten zai.

—Astebete falta da hauzirako —pentsatzen zuen Elsa'k—, eta orain iskanbilla bitxi hau gertatu behar...

Eta, eziñegonean, alde batera eta bestera aldatzen zan, barne-pakea iñoiz baiño areago galdurik: zenbait aldiz belarria atearen oholari iratxekiz; zenbait aldiz, illunpean gerizaturik, persiana azpitik kale aldera begiratur. Pierre'k bildurtu egin zuen arras: aurpegi hura illunpeetan somatu zuen, eta gau hartantxe hil zezan bildurrak hartu zuen Elsa.

Hamaikak jo... hamabiak jo... ordu bata jo... Eta Elsa beti esnai... Aitaren irudiak, Romain'en hitzak, ate ondoko istilluak, herronka eta eroaldi betean...

—Nere izena ez da azaldu bederen. Hau bihar bertan eskertu behar diot Laurent alargunari: oso zuhurki jokatu du. Eta beharrik! Bestela nere hauzia betirako nahas zitekean. Ene!... Eta, bihar,

Hektos-enean, zer egingo? Bildur naiz, oso bildur... Pierre Meunier hara azaltzen baldin bada, zer egingo nik? Poliziari deituko? Eta ondorioak, zer? Luc irribarrez... Ez!...

Irteerarik ez.

Bi «Bellergal» hartu zituen. Handik ordubetera bi «Valium»; eta gero beste hiru. Ezin loak har... Beste hiru hartu zituen. Alperrik. Beste bi «Bellergal» eta bi «Valium», batera. Lokamuts haiek piskanaka baretu ziran Elsa'ren barruan; bere oroimen nahasia azkenean pausatu zan. Eta Elsa'k ez zituen hiruetako kanpai hotsak entzun...

* * *

—Alajainkoa! —botatzen zuen Pierre'k goratik. Schaerbeek'eko eta Sint Gillis'ko kale bakartietan zehar, bere birauak, zantarkeriak eta oinkadak entzuten zirala:

—Bi orduz emakume baten zai! Nolako zentzugabekeria! Zer egingo, ordea, kinka ahalkegarri huni bira emateko?

Ezin iñolaz ere deusik asma. Barne-tristura eta barne-etsipena gero eta tristeagoa eta etsiagoa...

Azkenean bere etxea ikusi zuen, argi motel batean loak harturik. Sartu, eta ohea egin gabe topatu zuen: maindireak mordoillo bat bihurturik, burusiak zoruan, burukoa non ote zan agiri ez. Jaka eta zapatak erantzi zituen, alkandoraren lepokoa laxotu, eta eztarrian benetako miña zuelarik, buruz behera etzan zan, arnasa nekez hartuz. Maindirearen hotzak pittin bat ematen bide zuen Pierre'ren aurpegiko berotasun kiskalgarria; eta gogoz ferekatzen zuen, beheruntz bultzatuz, musuan zeukan azkura alde batera eta bestera azkatuz; batzutan ere, hoscia gaindituz, zapien koska egiñez.

Hartan kanpandorreko kanpaiak entzun ziran; eta ixiltasunean behiñere baiño illunago gertatu zitzaizkion Pierre'ri: «Denek kolpatzen, azkenak hiltzen»... Aitaren kiñu hartaz gogoratu zan, eta lastu ere bai; baiña laister nagusitu zitzaion berriz Elsa'ren oroitzapen garratza:

—Zozoarena egin dut! —zion berekiko—. Eta erdi etsita erdi amorru bizian erasten: «Ordu laurden batez baiño luzaroago ez da sekula santan itxaron behar emakume bat. Eta ni han deika etsian, eta Elsa barruan nere lepora farrez! Nere zozoa! Nere haurkeriaren larria! Arrunt salatu dut nere burua, osotara saldu, nitzaz Elsa'k nahi duen guzia egin dezan berariaz egin banu bezela. Ene, ene! Nola konponduko hau? Konponketarik ba ahal dut?

Gizaseme-arra nagusitzen zitzaionean, ia goratik hasten zan:

—Ohean ez bestetan barkatuko diot nik neurririk gabeko afruntu eta laido hau! Urrengo ikustamena bere lo-ganberan gertatuko da, ala ez nau berriz ikusiko puta horrek. Zin dagit!

Laister konturatzen zan, ordea, hitz hutsak zirala horiek; eta, hori pentsatuagatik ere, Elsa'k ez ziola atea zabaldu, eta horregatixek joan zala etxeruntz arestian ixil-ixillik, eta burua makur. Hauxe zan egia bakarra eta nabarmena.

—Don Juan modura agertu nahi nik Elsa'ren aurrean? —zion berekiko—. Nola? Nola asmatuko nik, ordea, joko hori? Esperientzi soillak eman dezakeana, nola antzemango? Nola hotz jokatu bihotza kiskaltzen ari zaidalarik? Konfesionaletan hainbeste aldiz entzundakoa, zer? Zer da haragikeria? Maitasunaren osagarria, ala bere ezaren izkutatzaillea? Ezin Tristan eta Don Juan batera izan, eta ni Tristan naiz.

Bizkarrean hotza nabaitu zuen, baiña ez zuen estali nahi izandu:

—Zertarako? Gaixotzea zer? Hiltzea bera, zer? Bost axola neri!

Elsa'k gauza bera aitortu ohi ziola gogoratu zitzaion, eta maitasunari urrikia erantsi zitzaion: «Eta nik ezer ezin egin zorigaitzoko maite horren alde! «...Eta «maite» hitza ematean, zauskada bat sendi zuen bihotzean; eta burua altxaturik oihu egin zuen, orduaren beranduaz guztiz ahazturik:

—Betor heriotza! Betor oraintxe!

Ezin loak har, ezin ezer. Alde batera eta bestera higitu, eta dana alperrik.

Eldarnioak zimikaturik, eztarria guztiz minberaturik, arnasa ohi bezin errazki ezin harturik, jaikitzea erabaki zuen; eta zutitzean hotzikara bortitz batek iñarrosi zuen.

—Bai —esan zuen bapatean, aurpegia ziplo argiturik—. Horixe da! Horixe egingo dut! Horixe egingo dut: bero-beroan, egia nere bihotzetik emaro dariolarik, egia osoa esango diot izkribuz Elsa'ri. Irakur dezan itxaropen haundirik ez badut ere, nere barnea bederen hustuko dut; eta hustutze horri datxekon pake apurra lortuko dut, nik uste. Gaur baiño gutun egiazkoagorik ez dut iñoiz idatziko; gogozago ez dut ezertaz egingo.

Eta ia estropozorik batere gabe, ideiak etorri ala, lerro hauek idatzi zituen gaueko hirurak aldean:

«Brusela, 1967-ko Maiatzaren 28-an.

Elsa miretsia:

Huna hemen nere azkeneko gutuna. Azken lerroraiño irakurtzea eskertuko nizuke. Bihotza zabalik mintzo natzaizu».

(Eta lipar labur batez zalantzan egon ondoren, lapitza gorri batez marratu zituen hitz horiek, nabarmenago utzi nahiz).

«Gaur arratsean, arestian alegia, zure uko guzizkoari dagokion jokabide doillorra ikusi dut. Gauza ageria zait gaur ez duzula nitzaz ezer jakin nahi.

Goiak eta behereak nahasturik ere, zure etxeko atarian nere burua nabarmen-eraziz ere, ez-entzuna egin duzu. Etxean ez ziñan itxura egin duzu, atea iñolaz ere ez idekiaz. Baiña Volkswagen batetik irtetzen eta etxera sartzan ikusi zaitut Josaphat'eko Parke-hegitik. Etsi egin behar dut, beraz: zure egoera garbi dago.

Ez dizut halere agur esan nahi, ezin izango nuke, hobeki esateko, arestian irten baziña esango nizukeana azaldu gabe.

Utz nazazu berriz ere maite zaitudala azkeneko aldiz esatera, eta iñoiz iñoiz ahaztuko ez zaitudala birresatera. Josaphat'eko Parkea nere barne-bizi izkutuan mugarri pixu bat billakatu da.

Goitik behera zaude oker ni emakoi legun faltsu bat baizik ez naizela uste baldin baduzu. Emakume guzien aurrean urtetan barrena «ez» esanez, zaildu egin naiz, ez legundu; eta zurekin gertatu zaidana ez zait iñoiz gertatu. Nere lehendabiziko maitasuna izan zera nere bizian, eta azkena ere bai eskierki.

Hasieratik kontra egin arren, lebenengo egunetik beretik maitatu zaitut: zure aitaren etxeko negar haiek betirako zauritu dute nere bihotza. Eta ikusi ez ditudanak, ni erotu arte piztu dute nigan neurrik ez duen sendimendu hau.

Orain arte apezta izan naizenez, bestalde, guzia txit gogorra izan zaidala ez duzu dudan jarri behar.

Arestian berebil hortatik irtetzen ikusi zaitudanean, zalantzan utzi nauzu: zure prestutasuna, zure bertutea bera, koloka gelditu dira nere ustean. Baiña nahiz susmo hau egiazkoa izan, nahiz lagun hori nor dan jakin ez, eta nahiz dibortziatutako emakume

batez burura ditekeana labaiña bezin ezaguna izan (emakume hori, batez ere, oso ederra danean!) nik zugan siñisten dut; itsu-itsuan hein batean, ba dakit; baiña zugan siñisten dut halere. Emakume prestua eta ziñezkoa zerala siñisten dut. Hauxe duzu egia.

Hunengatik diotsut zurekiko nere istimua eta onerizkoa osorik daudela. Horregatixek, bestalde, zugatik uste duzun baiño areago sufritu badut ere, bestetan esandakoari eusten diot: edozein egun atsekabetan, kinka gaistoren bat duzunean (eta hunelakorik falta ez zaizula siñistuta nago!), zernahirengatik etsita zaudenean hitz batez, eta egun hortan nik lagun bazaitzaket, otoi Elsa, ez dudarik egin: nigan duzu, eta dukezu, adiskide ziur oso bat. Orduan bederen, Elsa, oroit nitzaz. Nere eskeintza hau arbuatuko ez duzula siñistu nahi dut.

Edonola ere, zu berriz ikusteko itxaropena ez dut arras galdua. Zure begirada tristea edateko, zu berriro farrez entzuteko, zure eskua noizpait nereetan hestutzeko ez dut itxaropena galdurik. Hitz batera biltzeko: uste duzun baiño zinkiago maite dudan nere Elsa ikusteko itxaropena ez dut erabat galdua.

Apeza naizelako gorrotoago nauzu, nik uste, eta nere egiñak eta urratsak nardagarriago zaizkitzu, eta faltsuago. Agian hau garbitzetik hasi behar nuen. Baiña puntu huntan ere oker zaude. Bart, arestian hobe, argi eta garbi nahi nizun hortaz hitzegin. Hain zuzen ere, fedea galdu dudalako, eta sotanaren komeria huni eustea eziña jarri zaidalako, apezgoa uztea erabaki dut.

Hori dala bide (esatera ere ez naiz ausartzen) nere burua osoki zeuri eskain dizaizuket gaur. Eta nik zure bizia berriz errotzeko, sustraitzeko, alaitzeko, eta birrerosteko, naizen guzia zuri emateko gartu nauzu. Gutxi eskeintzen dizut beharbada; baiña naizen guzia zure alde emateko gertu nago.

Zertarako ekingo, ordea? Ez duzu gauza bera senditzen, ondikotz! Baiña jakin dezazun nahi dut, baiezko erantzunik jasotzeko itxaropenik batere ez badut ere. Egia jakin dezazun nahi dut, Elsa; eta egia hau da: zeu zerala gaur siñisten dudan bakarra

De Potter jaunari buruz, maiz pentsatu dut. Bai, Elsa: askotan gogoratu naiz zure senar-ohiaz. Eta bihotzaren erditik gorroto dut. Zure biziera eten eta desegin du; eta bildur naiz ni, eta batzutan esan dizut, oraingoz guztiz ahaztu ez duzun zuk. Alderdi guzietatik

zoragarria dan emakume baten lillura eta bizia hondatu ditu haiñak. De Potter gorroto dut horregatik: zeuk baiño gorrotoago, nik uste.

Bukatu egin behar dut.

Ez nekien, Elsa, zu ezagutu arte, pertsona bat nola eta noraiño maita ditekean; orain ba dakit. Eta sendimendu hunen ondoan gaiñerako guziak deus ez dirala ikasi dut. Zerorrek hau zer dan oraindik ongi ote dakizun zalantzan nago; eta ezezkoan, urrikiko nintzaizuke. Barneko ezin-egon hau, begitarte baten egarri larri hau, zer diran orain ba dakit; gaur arte ez nekien. Olerkariak sukar hau hanpatzen zutela uste nuen; gaur, aldiz, gutxi gora-behera baizik hau azaltzen jakin ez dutela iruditzen zait.

Izpirituaren egarriak ezagutuak ditut. Odola falta zaie, eta odolak bizi gaitu gizonok.

Malkoak datozkit begietara; eta, siñistuta egon, ez naiz esakuntza ederrak osatzekotan zuri idazten ari. Nere arimak idazten dizu tartekorik gabe, besterik eziñean, gau azkengabe huntan.

Ustela edo koldarra izan nindekean, ba dakit; eta dana izkuta nizaizukean. Ez dago zalantzarik. Ez siñistu nahiko: gogorregia litzaidake, goibelegia bekeria hori ez dagokio nere izakerari. Nere pausu hau era hortara zuk hartzea nahiko nuke.

Zu egunen batean ikusi ezkeru, zoriontsu izango nintzake. Sekulan ikusiko ez zaitudala ez nuke nik siñistu nahiko: gogorregia litzaidake, goibelegia benetan. Saia zaitetz, arren, nere heiñean jartzen: ez zaizu horren zail gertatuko, nik uste, nik orain zuri agur hau bidaltzean (beharbada azkena!) senditzen dudana igartzea. Telefona zaidazu bazkalorduan, arren, egunen batean. Egin zazu adiskide gisa.

Hau da guzia, Elsa. Edozer gertaturik ere gutun hau zure eta nere artean gelditzea nahiko nuke.

Arren: utz itzazu alde batera barbituriko eta pillura horiek. Hauen beharra nabaitzen baldin baduzu, telefona zaidazu, eta izkirimiri irrigarrirenbat kondatuko dizut.

Nere nahikaririk hoberenak zuretzat opa izanez, adiskide eta zerbitzari duzun hunengandik, agur'.

Pierre.»

Ez zuen gero hitzik ia aldatu: «bere hortan onena», uste zuen Pierre'k. Baiña, kopiarik ez? Gaurik gogoangarrienaren arrastorik ez agian?

Eta beste paper horri mordo bat hartu, eta kopiatzen hasi zan. Gutunaren beraren idatziak hunkiturik, Pierre'ren begiak berriz berotzen ziran, berriz lausotzen, eta malkoak ixuritzeko gertu diztiratzen. Alde batetik lotsatu egiten zan Pierre bere burua ahulezia negarti hartan harrapaturik; baiña bestetik pozgarri eta gozo zitzaion halako sendimendu bortitz eta azkar baten jopu egotea. Edozein emakume baiño biguñago bide zegoen une hartan, eta hau laido-bide zitzaion; baiña sekulan astindu ez zuen sendiberatasun-erialdi hura pairatzea, ohore zitzaion, eta alde huntatik hanpurustu egiten zan bere tristuran. Gertatu arte hartan ez zuen iñolaz ere halako eroaldirik gizaseme bati gerta zekiokoala siñisten.

Masaillak bustirik, eta esku-ahurra ez gutxitan masailla xukatzen erabilli ondoren, gutuna bukatu eta irakurri zuen. Irakurtzean sofrikari hartan atsegin hartzen zuen: atsegin etsia! Eta berriz irakurri zuen, eta berriz ere, eta hitzetik hortzera zortzi edo hamar aldiz, esakuntza bakoitzean bihotz eta sendimendu guzia ezarriaz. Otoitz bakar baten gisa, eta hasperenen artean, «Elsa» hitza baizik ez zuen esaten: behin eta berriz, iñolaz aspertu gabe.

Azala idatzi zuen; eta hatsa azkenean sakonago egiten zitzaiolarik, ohera joan zan. Oraingoan maindireak eta tapakiak pittin bat atondu zituen, eta jaka aulkiaren gaiñean jarri. Erlojua begiratu zuen: lau t'erdia.

Barne-nekeak leher egiñik, eta burukoaren oihalaren hotza baltsamu zitzaiolarik, bereala loak hartu zuen.

Bi besoez besarkatzen zuen burukoa...

XXVII

Gaueko trenetan ixilluneek esnatzen gaituzten bezela, bezperako petraldi gaistoaren ondoko barne-pakeak esnatu bide zuen Pierre Meunier. Leihoko zirrikitu batetik egun-argia antzeman zitekean: gelako illun hartan lauki ditziratsu batek iragartzen zuen egun berria.

—Bostak? Besterik ez? Eziña da...

Eta esku-erlojua belarriaren ondora eramanaz, ohiko tik-tak ari entzun zuen.

—Hamarrak edo zirala uste nuen.

Gorputza erabat minduta nabaitu zuen, masaillak ia-ia esparadrupo batek tinkaturik bezin zurrun, begiak makartsu antzera. Leihora zan: zerua goibel itxuraz, eta egunsentia hasi berria.

—Kalera noa. Maredsous ezkeroztik ez dut goizabarraren dei ixilla entzun. Eta nere arima-giro huntan, iñoiz ez.

Argia piztutzean, paper eta liburu askoren artean, Elsa' rentzako azala zuria ikusi zuen: Mme. Elsa Scheelen - 18, rue des Pâquerettes - Bruxelles, 3». Barne zauskada batek astindu zuen: «Postatzeko gertu dago, egia da».

Jakaren sakelan sartu zuen:

—Gutuna oraintxe bidaliko diot, eta Altitude-100 aldera joko dut: horixe dut inguru huntan egunsentia miresteko lekurik hurbillena eta onena.

Barnea hunkiturik sartu zuen gutuna buzoi batean, eta Ulysses kaletik irten zan Domaine-lbilbidera. Aurrean, zabal, Brusela'ko mendebaldea.

«Le Domaine» Tavernak barreiatu zuen gehienik halere:

—Barnean txukun, kanpoan haize garbia eta bista lilluragarria; eta ezin nik iñoiz Elsa'rekin leku hau dasta!

Tennis-landa guziak hutsik zeuden.

Taverne dalakoa aurreko balkoietik inguratu zuen Pierre'k; eta beheruntz, tennis-landez bestaldera, Duden-Parkean, berriki hozitutako kimu eta aldaska berri hezeak erakusten zituzten zugaitz-adaburuak ikusi zituen:

—Ederra, benetan. Baiña hutsa neretzako, betirako galdua baita. Bizi egin behar, aurrera segi behar... Zertarako, ordea, Elsa gabe?

«Le Domaine»-eneko bazkaldegiaren barrura begiratu zuen heguteratik: sapaia zuri, zurezko habe illunak agiri; leihoak zabal-zabal aurre guziko luzeran; zorua gorri; paretak zuri, kareak adrillua ozta-ozta estalirik...

Pentsakor gelditu zan une batez; eta gero ipar aldera jo zuen Rousseau-kaletik, etxeek osatutako murrumako illun gaitza eskubitan utziz. Parkeko txorien txorrotzioak etengabe eta zaratatsu. Joan-etorria hurri galtzaretan. Behere urrunean, aitaren heriotzeko bidaia goiztatrean gogoan hartu zuen hiri-irudi berbera zekusen ezkerretan: Brusela iratzartzen nekez hasia, behelano urdinskan erdi estalia; eta behelano horren gaiñetik, batimendu ezagun batzuk gailen: ezkerretatik hasirik Bihotz Sakratuaren eliza nagusi gotor aztuna, Anderlecht'eko eliza-dorre zaharra, Midi-ko dorre lerdin luzea, Porte Louise ondoko Epai-Etxeko domoa, lizunez berdetua itxuraz; eta oso urrutiti, ipar aldean ia galdurik, Atomium'en isla berezia...

Bertago, basket-landa bat ezkerretan, hutsik, ixillik...

—Zein dan tristea basket-landa bat basketlaririk gabe! Zein dan illuna mundua gaztetasunik gabe! Landa huntan ez naiz ni iñoiz jokatu... Joanak joan! Zer illunagorik eta erdiragarriagorik garaia joana dala ohartzea baiño? Zer jasan-eziñagorik zahartzaroa baiño, beraz?

Atzean 1880-ko dorre arre-gorri bitxi bat ikusi zuen, aspaldiko billa baten apaingarri...

—Elsa! —esan zuen bapatean—. Elsa, Elsa! Hau guzia zu gabe. Mundu osoa zu gabe... Hutsa! Ez nuke nahiko!

Eta poltsikutik gutunaren kopia ateraiatz, bideska zugaitsu eta itzaltsu batean behera abiatu zan, hormatxori talde bat uxatuz:

...«De Potter gorroto dut horregatik»... Bezperako berotasun mota berbera nabaitu zuen begietan, eta eztarrian oiñaze berbera; eta gorde egin behar izan zuen.

Malenkoniak arras gairidurik, beheruntz begiratu zuen zugaitzen adaburuaren artetik:

—Egunsenti jaukala, zoragarria, aparta benetan! Oraintxe hasi da, ordea, neretzako gaurik beltzena; azken eustarria desegin baitzait. Zeri helduko aurrerakoan? Zertarako helduko biziari?

Ipar-aldera begiratu zuen. Atomium'en esfera eskergak, eguzkiaren lehenengo izpi gorriek argiturik, bapatean sutan goriturik bide zeuden.

—Zertarako goiz itxaropengarri hau? Zertarako goiz ederrik alabatxoa hil berria zaion amarentzako?

Aldapan gora nekez aurreratzen zan kamioi haundi baten negar erdi gizatarrak gogorazi zion Pierre'ri ez zala hura guzia amets gaisto baiñan eder bat, egia garratza baizik: eguneroko bizi legorra berriz hasten zan Duden-Parkearen ondotik.

—Eta orain lanera, Pierre! —esan zion bere buruari arras gogaiturik—. Orain lanera! Sendimenduari dagozkion zozokeria hauek alde batera utziko dituk, hortaz, eta gauza serioei helduko... Hori duk gizonki jokatzeari... Baietz, motel!

Eta txistua bota zuen.

Elsa Hektos-enean ikusiko? Ezetz uste zuen Pierre'k. Zergatik ez? Zergatik han bertan berriz ez ikusteko zalantza zentzugabe hura? Ezin esan. Bildurra nunbait...

Etixerako bidean Altitude-100-eko plaza borobilletik igarotzean, gelditu ere egin zan Pierre, leiho batetik, zeifñetatik ez zekiela, biolin-mordo batek joa, «Something stupid» entzutean. Nota zorrotz haiek muiñeraiño joan ziran zuzen, Pierre'k ordurarte soma ezin zezakean modura. Plazatxo borobil hura eliza bateko barne-giro ozena zan ziplo; eta bezperan baiño premiatsuago nabaitu zuen negar egiteko behar hertsia, ezin idukia, eta eztarria ere bezperan baiño minberago. Behin eta berriz irentsi zuen Pierre'k mingain erdia:

—Zer da hau, Jauna? Zergatik iñoiz iñarrozi ez ninduten zauskadak, Elsa'rengatik bai?

Bideari ekin zion jendeak aurpegi hura ikus zizaioten bildur:

—Hektos'enera noa. Nere begiak kiskaltzen dituen gar hau Elsa'k ikustea nahi dut. Besterik eziñean, eta neretzako dana galdua dan ezkerro, urrikal bekit bederen!

Azken zuzenketak etxen hartu, beraz, ahalik ongienik apaindu, eta La Limite-kalearen aldera joko zuen oiñez.

* * *

Walfelaerts-kaleko bere sototik irtetzean, ordea, ezagutzen ez zituen bi gizon gaztek lotu zuten besotik:

—Meunier apeza?

«Apeza» hitzak hotzikara bat eman zion Pierre'ri.

—Bai. Neu naiz.

—Aita Meunier. Barka gaitzazu: oraintxe etorri beharko duzu gurekin. Zerbait dugu zuretzako.

—Zer?

—Police Judiciaire... Ezagutzen duzun emakume bat hil da. Zurekin hartu-emanak zituen ezkerro, galdera batzuk erantzutea eskertuko genizuke.

Pierre'k ez zuen deus ulertu; eta garraski erantzun zien:

—Oker zaudete, jaunak.

Baiñan esate berean lastu egin zan erraietaraiño eta osoki: —Nola deritza?

—Elsa De Potter. Pâquerettes-kalean bizi zan. «Bizi zan... bizi zan... bizi zan»...

—Ez! —oihu egin zuen Pierre'k.

Segundu erdi batean bezperako gertaera guziak birrikusi zituen, illara oso eta zoroan. Anketan ahulezia guztizko bat nabaitu zuen; eta bi polizien besoetatik zintzilik zegoela erreparatu zuen. Izotzezko izerdiz bete zan Pierre'ren kopeta, eta kale hura illunabarrean abiatzen zala iruditu zitzaion, ikusmena egiazki lausotzen hasi bazitzaion bezelaxe.

—Elsa nerea! —esan zuen nekez, arnasa galduz eta lerdea zeriola.

—Kemen izan zazu, Aita Meunier: gauza hauek lehenago behar dira pentsatu...

Pierre'ren burua zintzilika zegoen, lepoa guztiz laxatu balitzaio bezela.

—Zure egoera —ekin zuen poliziak—, zaillagoa da, bai, gaiñerako hiltzailleena baiño. Konturatzen gera. Zure burua garbitu beharko duzu anitz aldetatik. Laurent alargunak esan digunez, larunbatean ere...

Pierre'k ez zuen besterik ulertu. Hitz asko, bai, motorraren soiñuan nahasirik. Eta esku hezurtsu batek hertsiki tinkatzen ziola eskubiko besoa. Besterik ez.

—Heldu gera, Aita Meunier. Irten zaitez.

Pierre'k ez zuen ezer erantzun. Baiñan ez zan kotxetik irtetzeko gauza izan; eta bi polizien artean, besoetan oiñaze zorrotza hartzen zuelarik, zakarki aterarazi zuten.

—Tira, tira, aita! Aski dira komeria hauek!

Pâquerettes-kaleko sotoan ikusle asko zegoen, emakumeak gehienik, zai itxuraz; eta Pierre Meunier berebilletik era hartara atera zutenean, gorago entzun zan zurrumurrua, orroa hobe. Pierre'k ez zuen dana ulertu; baiña bakanka hitzen bat heltzen zitzaion garbiki bere belarrira:

—Hiltzaille zerri hori! —Horra hor gure aingerutxoa!

—Alu urde hori!

—Esaioek Suenens'i barkatzeko: laister egingo dik, bai... Noski!

—Zein artzapezpikuk erakutsi dik joko hori?

—Beti bat zuek apezok: besteontzako predikatzen onak zerate; baiña zuek sabela bete, eta sabelpeari eragin!

—Bai, neuk ere entzun nituen bart hire karrasi eroak!

Ezpata-kolpetik espata-kolpera, zauritik zaurira, goragaletik goragalera... Hiru miñuturen buruan Pierre entzungor egin zan larde-aintzira kirats hartan; eta oiñazeen illara lazgarria eten egin zan beretzat: kopurua betea zan, eta gainditua ere bai.

—Ez, ez —esan zuen goratik eta larderiaki gizon zahar gizen batek—. Hemen ez du balio. Goazen komisarira. Han jarraituko dugu gure lana. Luc De Potter jauna ere han dugu, zai.

—Zure aginduetara —entzun zan.

Begiramendurik batere gabe sarrerazi zuten Pierre Meunier bi poliziek lehengo kotxean.

Pierre'k ez zuen txintik atera, ezer sendituko ez balu bezela. Zertarako eutsi?

Berebillak Pâquerettes-kalea jetxi zuen; eta izkiñan ezkerretara jo zuen Azalées-tik behera.

Zugaitzen artetik, Josaphat'eko zingira paketsu illuna erreparatu zuen Pierre'k kotxearen leihatillatik. Eta itzal itzaltsu hartan beltxarga zuri bat ikusi zuen, illunean argi printza gisa, ia geldirik, ur ixillean igeri.